

Titus Lucretius Carus
(-99 -55 ?)

Naturaz

Jean-Baptiste Orpuztan-ek euskarara itzulirik

*

*

Liburu lehena

N.B. *Naturaz* argiratu dutener jarraikiz ezarri dira italikazko arte-izenburu batzu parenthesesietan (Itzultzailearen oharra).

(Benuz jainkosari deia)

- 1 "Eneatarren ama, gizon eta jainkoen atsegina, Benuz
 Hazlea, zeruetan dabilzan ikurren azpian itsasoa
 Untziak gainean eta lur udarez emankorrek ohoratzen
 Dituzu, zure ganik direlakotz bizia duten motak oro
 Egin eta baitakusatzate jaiorik ekhiaren argiak;
 Zur(e) ethortzean, jainkosa, haizek, zeruko hedoeiek badagite
 Ihes, lur antzedun eztiak lore goxagarriak zure manuz
 Ditu sortzen, itsasoaren ibar zabalak irriz daude zuri
 Eta balakatua darion argiaz zerua da dirdiran.
 Ezen udalehen eguneko aurpegia denean zabaldu
 Eta haize xuriaren hats ernatzalea jeiki bizkorturik
 Bertan aireko hegaztinek zu, jainkosa 'ta zur(e) ethortzea
 Iragartzen dituzte bihotza duzun indarraz inharrosirik.
 Gero basihiziek, aberek alhagia jorian jauzika
 Igerikan diragate latsen lasterra, zure xoragarriaz
 Hainbat hartua bakoitza nahi duzunera darraika suharki.
 Azkenik itsaso 'ta mendietan, oldartzen diren ibaietan,
 Orstapeko xorien ohantzetan, ibar belarrez muskerretan
 Guzien bihotzean duzula sartzen maitasuneko goxoa
 Badagizu mota guziak mendez mende suharki heda daiten.
 Zeren zu bakarra baitzira natura guziko gobernatzale
 Et(a) argiaren bazter jainkotarretan ezpaita zu gabe nehor
 Jaiotzen, eta nehor bozkariotan bilakatzen maitagarri.
 Neurthitz hauen idaztean zu nahi zituzket lankidetzat ukan,
 Eta gogoan hartu baitut naturaz hauen ontzeko xedea
 Jainkosa, zuk, aro guzietan gaitasun guziez aphaindurik
 Hoberena nahi ukan zinuen Memiuz gurearendako,
 Emeezu beraz, Jainkosa, hitzetan eder gehiago betikotz.
 Anartean gerletan egiten diren abrekeriak egizu
 Itsaso 'ta leihor guzietan gaindi lokharturik geldi daiten,
 Zu bakarra baitzira hilkorrek bake gozo baten atsegina
 Emaiten ahal dauezuna, Marte gerla lan abretako harmetan
 Delakotz nagusia badathor ainitz aldiz egoztera zure

Alzoan, maitasunaren betiereko zauriaz garhaiturik.
 Eta horrela, garhondo biribila gibelera gelditua
 Miretsirik, Jainkosa, soak zutan alhatzen ditu maitasunez,
 Eta gogoia zuk erranaren goaitatzen badago aurdikia.
 Hura zure soin sainduaz gainetik inguratua datzalarik
 Horrela, Jainkotarra, solas eztiak ahotik ixurzkizu,
 Erromatarrentzat, Omenduna, bake gozagari bat eskatuz. »
 Ezen guk, aberriarentzat aro gaizkor huntan, eztezakegu
 Gogoia geldirik lan egin, ez Memiuzen leinu aiphatuak
 Orogen salbatzeari holakoetan huts egin eztezoke.
 Alabaina behar da jainkoen natura bere baitan osoak
 Bake beteginean goza dezan hiltzerik eztuen adina,
 Urrundik baztertua 'ta berezia gur(e) egitekoetarik,
 Ezen oinaze guziez gabetua 'ta lanjerrik ere gabe,
 Dituen ahalez dela baliatzen, eztu deus guretik behar,
 Ezta merezimenduez onhartua ez haserreaz hunkia.

(Epikuroz-en laudorio lehen 'ta teoria atomixta)

- 61 Gizonen bizia begien aitzinean itsuski zatzalarik
 Lurrean erlisionekeo phizuaren azpian lehertua,
 Zeruko herrialdegarik burua zerakutseela hilkorrer
 Itxura laztagarri bat harturik haien aitzinean egonki,
 Lehen-lehenik Greziar bat, gizona, hari buruz ausartu zen
 Begien goititzera 'ta lehen-lehenik har(i) ihardukitzera.
 Eta hura jainkoen omenak ez zimiztek ez eta zeruak
 Burrumban mehatxatuz etzuten gelditu, baina zorrozkiago
 Daukote gogoan kuraia sustatu, nahi baitzituen bortxuz
 Hark lehen-lehenik naturaren athe tinki hetsiak ideki.
 Haren gogo gemendun biziak osorik ukana du garhaipen,
 Munduaren muga garreztatuetarik urrun aitzinatu da,
 Osoan iragan du mugagabea gogoaz et(a) adimenaz.
 Irabazle handik guri zer den jaiotzen ahal ekhartzen dauku,
 Zer ezin ahal, azkenik zein arrazoinen gatik duen bakoitzak
 Ahala mugatua, bururapena goratik eratzikia.
 Hortik erlisione ber' aldian aurdikia zangopetan
 Lehertu da 'ta garhaipenak gu zeruarekin berdintzen gitu.
- 79 Gauza horietan beldurrez nagok uste dukan hala beharrez
 Errespetugabeko gogamenetan sartzen hizala 'ta bide

Gaitzezkoan abiatzen. Aldiz erlisione horrek ainitzetan
 Egintzak errespetugabeak eta gaizkintzazkoak ditik sortu.
 Eta horrela Tribia neskasoaren aldarea Auliden
 Ifianazaren odolaz itsuski zikindu zuten Greziako
 Buruzagi hautetsiek, gizonen artean lehenbizikoek.
 Neskasoaren adats inguruan ezarri xingolak erori
 Zirenean haren matelen alde bietara luzean berdín,
 Et' aldare aitzinean hauteman zuenean trixterik aita
 Zutik, eta haren ondoan aphezak burdinaren gordetzen,
 Herritarrek ere haren ikustean nigarra zariotela,
 Izialduraz ixildurik belhauriko lurra hunkitzen zuen.
 Ordu hartan etzizakokeen dohakabeari baliagarri
 Izaitea lehena aitaren izenetik erregeren deitzen.
 Beldurrarekin ikharan gizonen eskupean aldaretara
 Dut(e) eremaiten, ez ohiko zeremonien ospe guziak
 Eginik ezteitara soinuekin lagundu(a) ahal izaiteko,
 Baina garbirik ogendun aran ezkondu behar zen adinean
 Bitima trixte hiltzera zoana bere aitak sakrifikatua,
 Itsas-armadak abiamen zorionezko bat ukan zezantzat,
 Hainbat gaitzegin ahal zituen erlisioneak aholkatu!

- 102 Hihaurk ere behar bada jadanik egun batez aztien erran
 Izigarriez garhaitua nahiko duk gure ganik baztertu,
 Zeren eiki zeinbat eta zeinbat amets ezte hauek asmatzen
 Ahal, bizitzeko moldeak aldatzen ahal dituztenak eta
 Beldurraren bidez uhertzen osoki hire zorion guziak!
 Arrazoinekin; ezen gizonen balakusate bururapena
 Segurra dutela haien behargabek, ukanen zuten arrazoin
 Bat erlisioner et(a) aztien mehatxuer ihardukitzeko.
 Orai eztute bihur egiteko biderik, ez et(a) arrazoinik,
 Betiereko penez behar denaz geroz hil ondoan beldurtu.
 Alabaina jakingabea da natura nola duen arimak,
 Badenez sortzez, ala sortzean den aldiz sartu
 Eta herioak hautsirik gurekin batean suntsitzen denez,
 Ala dakustzanez Ifernuko leze zabalak et(a) ilunbea
 Ala jainkoer esker bertz(e) izaitte batzuetara denez sartzen,
 Eniuz gureak kantatu duen bezala hark lehenik baitu
 Orsto betikoezko korona bat ekharri Helikon arraitik
 Italiar jendetan gizonen loria izan behar zuena.

Alta gero betiereko neurthitzetan ezarriz Eniuzek
 Erakusten du badirel(a) Ifernuetan egoitza batzu hetan
 Ditugun arimek ez eta gorputzek irauten ezpaitute,
 Baina moldez ohargarriak diren iduri zurpail batzuek.
 Badio Homero beti aipatuaren itxura han agertu
 Zizakola, hasi zizakola nigar samin batzuen ixurtzen
 Eta bere hitzen bidez agerrarazten zer den gauzen natura.
 Beraz gaineko gauzen arrazoina zer izan behar den gogoan
 Ontsa harturik, zergatik ekhiak et(a) ilargiak itzulia
 Duten egiten, eta zein indarren gatik diren oro lurretan
 Egiten, orduan beharko dugu lehenik arrazoin zuhurrez
 Arima 'ta gogoaren natura nundik egina den ikusi,
 Eta zein gauzek aitzinera jitean dauzkiguten atzarririk
 Izitzen gogoak, eta joak eritasunaz loan murgildu
 Girenean, ustez ikusten direnean, aitzinean entzuten
 Heriotzeak eremanik hezurak zezteenak lurraz estali.

- 135 Gainera, beharriak hutsik eta gogoa zorrotz atxikazkok
 Arrangura guzietarik urrun arrazoin egiazkoari,
 Artha leial batekin moldatuak dauzkiatan en(e) eskaintza hauk,
 Gogoan hartu baino lehen, gutietsirik utz eztizakala.
 Ezen zeruaren eta jainkoen arrazoin goren-gorenaz nauk
 Hasiko mintzatzen eta gauzen hastapena daukat zabalduko,
 Nundik ditikan naturak egiten gauzak oro, gehitzen, hazten;
 Ala hil ondoan berriz natura hark berak barreatzen nora;
 Horier ohiki dotrina gauzetara hedatuan erraiten
 Dauegu materia, gai orotakoak eta gauzen hazia,
 Gai horiek berak izendatzen ditugularik oraino gorputz
 Lehenak, lehen horiekin egin izana denaz geroz oro.
 Eta gogoak eztaut huts egiten ikusiz neurthitz latinetan
 Argitzeko nekea dela Greziarren aurkitald(i) ilun hori
 Bereziki hizkuntzaren eskasetik eta gaiaren berritik;
 Baina hire bertute 't(a) adixkidantza goxotik igurikatu
 Atseginak egiteko guzien jasaitera nie sustatzen
 Eta gau garbietan beilatzera bilatuz zein hitz berezi 'ta
 Kantuekin argiak hire gogoari zabal dezazkoketan
 Garbiki, horietaz gauza gordeak dakuskantzat barnatuki.
 Behar da beraz arimako beldur eta gau horiek ditzaten
 Hauts, ez ekhiaren arraiek ez egun argiko geziek, baina

Naturaren ikusteak eta hark izaiteko duen moldeak.

(Ezer ezta ezertarik sortzen ez ezertan suntsitzen)

- 159 Hortan hasteak hemen jarr-arazten daukun egia lehena da
 Ezer ehoiz eztela deusetik egin izana jainkoer esker.
 Zeren hilkorrak oro beldurrak horrela hartzen baldin baditu
 Hori da ainitz gertakari zeru-lurretan ikusten delakotz,
 Horien emaileak edozein moldez ikus ezpaitezazkete
 Eta sinesten baitute direla jainkoen indarraz egiten.
 Ikusia ukanen dugun orduko gauzetan ezer eztela
 Ezertik egin ahal, agertuko dugu hobeki jarraikitzen
 Dena, nundik zerbait izaiten ahal den eta sortzen ikusiko
 Eta beraz jainkorik gabe zein moldez eta zer diren egiten.
 Ezen deusetik egiten balire, mota guziak lizatezke
 Gauza guzietarik jaioak, deusek eluke hazi beharrik.
 Lehenik itsasotik sor laitezke gizonak, ezkatadun mota
 Lurretik eta hegaldunak oldean jalgi laitezke zerutik;
 Abelalderekin etxihiziek, basihizien motek oro
 Erditzez hartuko zituzten nun nahi desertuak et(a) alhorrak;
 Zuhatzetan udareak etziren ohikoak izanen beti,
 Aldatuko ziren, guziek guziak zituzten emanen ahal.
 Alabaina nunbait bakoitzak gai ernaltzalerik ukan ezpalu
 Nundik zuten gauzek ukanen ahal segur-segurra den ama bat?
 Aldiz hazi berezi batzuetarik egina delakotz oro
 Hortik da jaiotzen et(a) argiak diren bazterretara jalgitzen,
 Bakoitzaren materia 'ta gai lehenak badituen lekura;
 Hortakotz orotarik ezin dira gauzak oro sortuak izan,
 Gauza berezietan izaiten denaz geroz antze bat gordea.
- 184 Gainera zergatik ikusten ditugu baserrian udalehenaz
 Lagundurik arrosa, beroaz gariak, larrazkenaz ardantza,
 Ezpada, gauzen hazi bereziak nor ber(e) aroan ixuririk
 Elgarretara, bakoitza delakotz agertzen denean egina,
 Erauntsiak han direnean eta segurkiago lur bizidunak
 Dituenean gauza beratzak ekhartzen argien hegitaraz?
 Zeren egiten balire deusetik athera laitezke bapatez
 Bereak ukanen etzituzten urtaroetan eta nun nahi,
 Ezpaitzen orduan izanen gai lehenik, aro behargabeen
 Debekatzen ahal zenaz geroz ernaltzeko batera biltzea.

Eta gero, hazien batzeko gauza handitu beharrek
 Artearen beharrik elukete deusetik egin balaitezke;
 Ezen haur ttipietarik gazteak egin laitezke bapatez
 Eta zuhaztiak lurretik jalgiak lizatezke berehala.
 Ageri da holakorik deus eztela gertatzen, oro denean
 Zuzen den bezala segurra duen hazitik handitzen apurka,
 Eta handitzean badatxika bere mota; jakin baitezakek
 Ber-bere materiatic dela bakoitza handitzen zer den ere.

- 202 Hemen deror urteko euri segurrik gabe handitzera lurrak
 Ezin utz dezazkeela bozkariagarri diren umeak eta
 Gero naturak ezin igor hedatzera hazkurritik urrun
 Mota bizidunak, eman ez ere gerizapena biziari.
 Sinetsiko duk hobeki ainitz gauzek badituztela gai ainitz
 Elgarrenak, hitzetan hizkiak ikusten ditugun bezala,
 Gai lehen batzu gabe gauza bat izan daitekeela baino lehen.
 Azkenik naturak zergatik etzezazkeen egin gizonak aski
 Handiak ibietarik itsasoa zezaten oinez iragan
 Ahal eta mendi handiak eskuez ahal zitzaten ordoki
 Eta biziko mende ainitz ahal zitzaten ereman bizirik,
 Ezpada bizitzeko gauzer emana zaielakotz materia
 Segur bat jaiotzen ahal den guziak irauten baitu hartarik?
 Erran behar da beraz deus deusetik egin ahal izan eztela
 Gauzek hazia behar dutenaz geroz, hartarik egin diren
 Guziak ager ahal daiten aireko hats ez tien aitzinera.
 Ondarrean lur landuak ikusten ditugulakotz ez landuen
 Aitzintzen et(a) eskuez lagunduz fruitu hobeak baitematzate,
 Ageri da gauzen hastapeneko gaiak badirela lurretan
 Eta goldeaz alhor emankorrek irauliz dugularik lurra
 Azalean harrotzen hazien hozitzera dugu bortxarazten;
 Eta horiek ezpalire, berak eta gure lanik batere gabe
 Ikusiko hituen bilakatzen berainik hobeak ainitzez.
- 225 Hemen dathor aldiz eztuela naturak bere gairik urtzera
 Uzten ez eta gauza bat deus bilakatzerano barrearazten.
 Ezen zerbait izaiten baliz bere zati guzietan hilkorra
 Gauza guziak gure begietarik itzal laitezke bapatez,
 Ezpaitzen indarrrik batere beharko zatietan haren berexi
 Ahal ukaiteko 'ta barreatzeko haren lotura hertsien.

Eta beraz oro delakotz hazi betierekoaz egina,
 Indar bat jiten den arteo gauzak dituen ukhaldi batez
 Joren edo dituen hutsetarik barnera sartuz urtuko,
 Ageri da naturak deusen suntsitzerik ezuela jasaiten.
 Gainera zahartzez adinak deramatzan guziak balitu
 Osoki hil-araziak haien materia guzia suntsituz
 Nundik ditu Benezek bizidunen motak orotara biziko
 Argietara berriz ekhartzen, edo lur antzedunak du hazten
 Ekharria den hura 'ta handi-arazten hornituz hazkurria?
 Nundik ithurri jaio 'ta bazter ibaiek itsasoak urrundik
 Nasaiki betetzen? zeru sutsuak izarrak nundik hazten ditu?
 Zeren behar bailukete gorputz hilkorrez egin diren guziek
 Aro mugagabearen et(a) iragan egunen gatik suntsitu.
 Beraz arte hortan et(a) iragana den aro aitzinean guziak
 Hetaz berregin izanak diren gaiak baldin baziren, segurki
 Erran direnak bere naturaz hiltzerik gabeak dira. Beraz
 Ezin daitezke zer ere badiren itzultzen ahal deusetara.

- 248 Azkenik indar berak, arrazoin berak gauza guziak orotan
 Suntsituko zituzten, betiereko materialak ezpalitu
 Elgarren josturan ainitz ala guti trabaturik atxikitzen;
 Alabaina hunki bat aski zuketzen suntsituak izaiteko,
 Ezen ezpalire betiereko gaiez eginak, indar batek
 Aski bortitzak barreaturik utziko zuen haien jostura.
 Baina zinez, lehenbiziko gaien loturak elgarren artean
 Ezperdinak direlakotz eta materia betierekoa,
 Gauzak oso daude gorputzez, indar aski bortitz
 Bat hetara joaiten den arteo haien josturen barreatzeko.
 Ezerek eztitu beraz itzultzen deusetara, baina guziak
 Barreatuz geroz itzultzen dira materialak gaitara.
 Azkenean Aita zeruak ama lurraren altzora euriak
 Erautsiak dituenean gelditzen dira, uztak aldiz jori
 Dira jalgitzen eta zuhatzetan abarrak muskertuz agertzen;
 Hauk handitzen dira berak et(a) ekoizpenaz phizua hartzen dute.
 Hor alhatzen dira gero gizonen eta basihizien motak,
 Hor ikusten ditugu hiriak hurrez loreztatuak alaiki
 Eta oihan orstodunak orotarik hegaztin-umez kantatzen,
 Hor artalde phizuek unhaturik phentze jorietan datzazte
 Gorputzak, errape hantuetan dariolarik esne zuriak;

Hor ume sortu berriek bere zango-beso ahuletan jauzi
 Dagite belar gurien erdian jostatuz, esne gizenaren
 Indarrarekin gogo gazteak burxoraturik. Beraz eztira
 Iduriz hiltzen diren guziak osoki suntsitzen, bat bertzetik
 Hazten eta berregiten duenaz geroz naturak, ezer ere
 Eztu jin dadin jasaiten ezpada lagundu bertze baten hiltzez.

(Haizea, usaina, beze idortzea, gai gordeak)

- 264 Goazen orai; erakatsia dutanaz geroz gauzak eztirela
 Deusetik egin ahal eta jaiorik deusetara berdin itzul,
 Erran direnez alta behar bada mesfidatzen has ehabila
 Gauzen gai lehenak ezpaitira begien bidez ikusten ahal.
 Onhar ezak lehenik hihaurek aithortzea beharra dela gai
 Lehenak izan daiten gauzetan et(a) aldiz ezin daitezkeel(a) ikus.
 Lehenik haizearen indarrak oldez gauzak azotatzen ditu,
 Untzietan handienak hondatzen eta hedoiak urrazten;
 Noiztenka zirimola lasterretan ibiliz alhorretan gaindi
 Aurdikitzen ditu zuhatz handiak eta mendi goren-gorenak
 Inharrosten ufa oihan eror-arazlez; itsasoa horrela
 Erotzen da 'ta harrabots bortitzekin mehaxatzen du burrumban.
 Agerian beraz haizeak dira gorderik dauden gorputz batzu,
 Itsasoa, lurra, eta zeruko hedoiak ere dituztenak
 Higitzen eta bapatez zirimola bortitzez deramatzate.
 Eztabiltza 'ta herexak eztituzte bertze moldetan hedatzen,
 Noiz ere bapatez ur eztiaren natura baita joaiten ibai
 Nasaira mendi gorenatarik luzaz irauna duten euriez
 Hanturik uraren laster gaitzekoa, aurdikitzen dituela
 Orduan oihanetako zatiak eta han zuhamuak oro;
 Eta zubietan azkarrenek ezin jasan dezakete urek
 Ethortzean duten indarra: beraz uhaitz uhertua badoa
 Eraikuntz(a) azkarraren asaldatzera euriaren indarrekin,
 Hondatzen du harrabots handi batean, uhainen azpian harri
 Handiak itzuliz, uren aitzinean diren guziak aurdikiz.
 Beraz berdin eremanak behar dira haizearen ufak ere,
 Ibai indarduna nahi duen lekuetara aitzinatzen den
 Bezala, gauzak oldar errepikatuez bulzatzen dituztela
 Eta aurdikitzen, batzuetan zurrumilo bihurrikatuan
 Inharrosiz orron laster itzulkarian baderamatzate.
 Berriz erran behar da beraz gorputz gordeak direla haizeak,

Egintzez bai eginaraz ibai handien heinekoak baitira
 Gertatzen, hauk eginak direlarik ageria den gorputz batez.
 Aitzinago joanez gauzen usain ezperdinak senditzen ditugu
 Ez alta bat sudurretara dathorkunean begiez ikusten:
 Bafada beroak eta hotzak hauteman ahal eztezazkegu
 Begiekin, eta mintzoen ikustean ezkira ohituak.
 Behar da bizkitartean horiek orok gorputzezko natura
 Ukan dezaten, gure sensuak joiten ahal dituztenaz geroz;
 Ezen hunkitze 'ta hunk(i) izaite gorputz denak baizik eztagike.

- 305 Azkenik oihalek itsas-bazter uhainez hautsian hedaturik
 Hezea biltzen dute, hek berak iguzkian idortuak dira;
 Aldiz ezta zein arrazoineraz uraren bustidura gelditzen den
 Ikusten, ez ere beroak zer moldez duen ihes-arazia:
 Hezea beraz barreatua baita zati xehe batzuetan
 Begiek horiek nahi den moldez ikus ahal eztezazkete.
 Gehiago dena, ainitz urtez ekhia berritzuli delarik
 Erhian eratzikia den erhaztun bat azpitik mehatzen da,
 Ur xortaren erortzeak harria zilarazten du, goldenabar
 Burdindunak irauldetan mokoa du ttipitzen ikusi gabe,
 Jadanik ikusten ditugu bidetako lauzada harrizkoak
 Jenden oinez higatuak; hirietan athondoko gizaiduri
 Burdin-horizkoek ainitzetan eskunek(o) eskuak bidarien
 Et(a) agurtzalen hunkitzeaz mehatuak erakusten dituzte:
 Ikusten dugu beraz ttipitzen direla higatzen direlakotz.
 Baina zein gai zatiek daueten ihes egiten eta noiz ote,
 Horren ikustea debekatua dauku natura bekaiztiak.
 Azkenik aroak eta naturak gauzer zer eta noiz apurka
 Daueten emaiten emeki handitzera bulzatzeko, begien
 So zorrotzenak ahalik ezta batere horren hautemaiteko,
 Ez eta gero zein adinetan zahartzera doazen idortuz;
 Harriek itsaso hegian gatz higatzalez janik joaitera
 Zer uzten duten eta zein arotan eztezakek ere hauteman.
 Naturak beraz lana gordeak diren gai batzuez egiten du.

(*Hutsa naturan*)

- 329 Bizkitartean ezta duka guzia gorputzezko den naturak
 Orotan osoki beteak: gauzetan alabaina bada hutsa.
 Horren ezagutza baliagarri zaik izanen ainitz gauzetan

Eta dudan ibiltzen ehau utziko 'ta gauzak oro zer ote
 Diren bilatzen eta guk erran ditugunez beti mesfidatzen.
 Gunea bada beraz ehork ez hunkia, hutsa, deusik gabea.
 Ezpaliz izana hori, gauzak ezin laitezke nahi den moldez
 Higi, zeren gorputz bati lotua dagon egitekoa baita
 Ihardokitzea 'ta trabatzea, guziek aro guzietan
 Ukan zutena; deus etzen ere aitzinera joanen ahalko
 Abiatzeko behar zen hura deusek eman etzaukonaz geroz.
 Baina zinez itsaso 'ta lurretan eta zeru goran ditugu
 Begien aitzinean hautemaiten ainitz gauza ainitz moldetan
 Arrazoin berezien gatik higitzen, hutsik ezpaliz izana
 Ezpaitzuten bakarrik mugimendu higikor hortarik ukanen
 Baina geldituko baitziren arrazoinik batere gabe sortzeko,
 Alde guzietan materia tinkia geldituko zelakotz.
 Gainera nahiz ustea baden gauzak bete-beteak direla
 Ikusiko duk hor ere behar bada direla gaiez argalak.
 Uren hezea sartzen baita harrietan eta harpetan barna
 Itaxurek nasaiki badariote horietan guzietan.
 Janaria bizidunen gorputz osora bera barreatzen da;
 Handitzen dira zuhatzak urtaro denean haziak ixuriz,
 Hazkurria guzietan erro barnatuenetarik zur eta
 Abarretan orotan iragan ondoan banakatzen delakotz.
 Hesien artetik badoaz mintzoak eta badiragatzate
 Etxetan artemurruak, hotz idorra da hezurretara sartzen,
 Eta hutsak izan ezpalire handik iragan ahal daiten gai
 Batzu, horiek egiten ikus ahal ehezazke neholatan.

- 358 Azkenik zer gatik ikusten ditugu phizuz bertzer gauza batzu
 Nagusitzen itxuraz ukan gabe deus hek baino handiagorik?
 Ile harilgoak berun zama berdinak bezainbat alabaina
 Gorputz baldin badu, phizuz ere behar lukete berdinak izan,
 Azpiko guzien zapatzea duelakotz gorputzak egintza,
 Naturaz hutsa dena phizurik gabe denean aldiz gelditzen.
 Handitasunez berdina denak phizuz arinago badiduri
 Erakusten du segurki hutsetik gehiago badela hartan.
 Phizuago denak aldiz aihortzen du gorputzez gehiago
 Baduela bere barnean eta ainitz gutiago hutsetik.
 Argi da beraz arrazoinamendu zorrotzez bilatzen dugun hau:
 Badela hutsaz izendatzen dugun hura gauzetan nahasirik.

Gauza horietan ez ahal hezan batzuek dutenak asmatu
 Egiatik bazterraraz aitzinetik gaztiazera neramak:
 Ezkatadunez bulzaturik urek, diotenaz, amor demate
 Eta bideak urean idekitzen dituzte, zeren arrainek
 Han uhain baztertuak bil daitezkeen lekuak uzten baitituzte.
 Horrela bertze gauzak ere higi daitezke batzu bertzerekin
 Eta lekuez alda, nahiz bete-beteak diren gauzak oro.
 Agerian da hori guzia hartzen arrazoin falsu batentzat.
 Ezen ezkatadunak nora bada aitzinatzen ahal daitezke
 Urek ezpadute lekurik uzten? Urak gero nora joanen ahal
 Dira, lekutik arrainak abiatzen ahal ezpaldin badira?
 Edo behar dira beraz gorputzak oro gabetu mugimenduz
 Edo behar da aithortu gauzetan nahasirik hutsa badela,
 Gauza guziek higitzeko hastapena handik har dezatentzat.

- 384 Azkenean bi gorputz zabalek elgarrekin joa dutenean
 Lasterretan jauziz urruntzen baldin badira, behar da segurki
 Bi gorputzen artean badagon huts guzia har dezan aireak.
 Baina nahi den lasterrean inguruan bil dadin ere aire
 Hori, bizkitartean ordu bakar batean eztuke betetzen
 Ahal den leku guzia, zeren lehenbiziko leku bat hartu
 Beharko baitu, 'ta gero baizik ezpaita jabetuko guziez.
 Eta halaberraz norbaitek, gorputzak direnean baztertu,
 Uste badu hori egiten dela airea tinkatzen delakotz
 Gaizki dabil, aitzinean etzen huts bat orduan egiten baita
 Eta berdin aitzinean han izana zen hutsa baita betetzen;
 Eta airea molde hortan ezta tinkatzen ahal ez eta,
 Egiten ahal baliz ere, nik uste dutanaz, hutsik ezpaliz,
 Ezin loake bertara 'ta zatiak batera bil elezazke.
 Hortakotz, ihardukitzean ainitzez baduk ere luzarazten,
 Beharko duk bizkitartean hutsa badela gauzetan aithortu.
 Eta bertzalde hire gogora ainitz arrazoin ekhar dezazket
 Erranak ditigunetara hire sinestearen bortxatzeko.
 Baina zorrotza den adimen batek aski ditik ondar apur hauk
 Hihaurek hautarik ezagutzen ahal baituk gaineratekoa.
 Ezen orek sudurrez dituzte hatzemaiten usu oihanetan
 Dabilan basihiziaren etzangiak orstapean egonki
 Lehenik aurkitu dituztenean haren bideko hatz segurrak;
 Berdin ere horietan bata bertzetik hihaurek ikusiko

Ahal dituk bakarrik eta zilatuko dituk gorderik dauden
 Ilunbe guziak eta gero handik atherako duk egia.
 Hortan auherrik egoiten bahiz eta gaitik apur bat urruntzen,
 Huna, Memiuz, errextasunez hitzemaiten ahal deatana:
 Ithurri handietan harturik iresteko hain nasaiak dauzkik
 Ezti den elhe batek ene bihotz aberastutik ixuriko
 Nun, beldur nuk, zaharraro herbaildua baita gure soinetara
 Sartuko 'ta gutan hautsiko baititu biziaren harresiak,
 Neurthitz hautarik beharrira nahi dukan gauza bakar bateko
 Arrazoinen nasaitasun guzia heldua zaikan baino lehen.

- 417 Baina xeheki dezatan orai errepika solasetan hasi
 Dena: natura guzia beraz den bezala gauza biez egin
 Izana da, zeren baitira gorputz direnak eta baita hutsa;
 Hek jarriak dira huntan eta molde ainitzetan hor higitzen.
 Alabaina gorputzak badirela zentzuak berak erraiten du;
 Ezpada hori hastetik oinharritu sinespen segur batekin
 Ezta deusik izanen gauza gordeak hunkitzen ditueneko
 Zerbait ahal dezaguntzat baieza gogoak deman arrazoinez.
 Eta gero butsa deritzogun leku 't' eremu hura batere
 Ezpaliz gorputzak etzaitezkeen ehon jarriak izaiten ahal
 Eta nehorako mugimendurik egin ahal elezakete:
 Hori goraxago aitzinean erakutsi daukagu jadanik.
 Gainera deusik eztuk gorputz guzietarik berexia dela
 Erraiten ahal dukanik ez eta baztertua dela hutsetik,
 Zenbakiaz hirurkuna aurkitua baliz bezala natura.
 Alabaina zer ere den noizpait izanen, izanen den orduan
 Azkenean gotortze handiz ala ttipizko bat izan behar du.
 Izan dadin hori nahi den bezain arin eta ttipi hunkitzez
 Handituko du gorputzaren neurria 'ta jarraikiren osora;
 Ezin hunkia bada 'ta nahi den aldetik dabilan gauza bat
 Ezpadezake bere barnetik iragan dakidion debeka,
 Agerian izanen da deitzen duguna hutsaren izenetik.
- 440 Gainera berez zer izan edo zer eginen den, ala
 Egile bertze batzuetarik moldatua beharko du berak,
 Ala gauzak hartan izan et(a) egin ahal diren bat izanen da.
 Ezta gorputzik gabe datekeen eta dagikeen gauzarik aldiz,
 Eta gero hutsez den batek baizik lekurik eskain eztezake.

Ezta beraz hutsetik eta gorputzetik hara naturan ezer
 Gelditzen ahal gauzen zenbatean hirurgarren izaiten dena
 Ez eta dena nehoiz ere gure sensuen menean erorzen,
 Eta nehor gogoaren arrazoinaz hartara hel eztaiteke.
 Ezen zer izen ere dezaten ukan, ala aurkituko dituk
 Bi horiez batuak, ala horietarik jinak ikusiko.
 Batua da nehoiz ezin dena berexten ahal hilgarria den
 Urratzerik egin gabe 'ta berez ezin bil bakartasunera,
 Hala nola harriaren phizu, suaren bero 't' uraren ubil,
 Gorputz ororentzat hunkitzea, hutsarentzat ezin hunkitua.
 Aldiz menpekotasuna, behartitasuna 't' aberastasunak,
 Libertatea, gerla, batasuna, horien jiteaz natura,
 Eta joaiteaz, hunki gabea gelditzen den gaineratekoer
 Ohiki zuzen den bezala gertakariak erraiten dauegu.
 Aroak berdin izaiterik eztu berez, ikusten direnetik
 Du sensuak ondorioztatzen zer egin den mendetan gaindi,
 Orduan zer diren gertatzen, ondotik zer den gero jarraikiren;
 Erran behar baita nehork eztuela senditzen aroa bera
 Gauzen higitzetik eta geldi baketsutik berezi denean.
 Azkenik, erraiten denean "Ereman dute Tindariko neska
 Eta gerlaz menperatu dira Troiako jendeak" ez gaitzaten
 Erraitera bortxa horiek berez izaittea baduketela,
 Haien gertakariak izan ziren gizonen mende 'ta mendeak
 Jadanik adin ezin berriz itzuliak ere manak baititu.
 Alabaina zer ere den gertatu, noiz munduan, noiz herrietan
 Beretan, izanen ahal da gertaldiaren izenaz deitua.
 Azkenik ezpaliz gauzetan materiariak eta gauzak hetan
 Guziak egiten diren lekuak et(a) eremuak ezpalire,
 Ehoiz etzituen Tindarikoaren edertasunaren gatik
 Pariz Frigiarraren bihotzean amorez handitzen ari zen
 Suak gerla laztagarri bateko gudu aipatuak phiztuko
 Eta zurezko zaldia Troiarren jakingabea etzen gauz
 Pergama sutan ezarriko zuten Greziarren umez erdiko.
 Argiki duk hortik ikusten ahal egin diren gauza guziek
 Berenaz izaiterik ez tutela gorputz batek duen bezala
 Et(a) izaiten onhar eztaitezkeela hutsaren molde berean,
 Baina gorputzetako 'ta lekuko gertaldiak zuzenkiago
 Deitzen ahal ditukala, hor egiten baitira gauza guziak.

(Gai lehenak ezin suntsituak dira)

- 483 Berrzalde gorputzak zatiz gauzen gai lehenek eginak dituzte,
 Eta zatiz moldatuak gai horien elgarretara biltzetik.
 Baina gauzen gai lehenak hiltzen ahal dituen indarrik ezta,
 Horiek alabaina gorputz azkarraz segurki dute garhaitzen.
 Bizkitartean badiduri neke dela sinestea aurkitu
 Ahal dela gauzetan osoki gorputz azkarrekoa den zerbait.
 Ezen zeruko zimiztak etxetan murrak zeharkatzen ditu
 Oihuek eta mintzoek bezala; burdina zuritzen da suan
 Eta bero bortitz irekituaz harriak zapartatzen dira,
 Urrearen gogorra khordokaturik urt-arazten da beroaz,
 Garraz garhaiturik ubiltzen denean burdin-horiaren horma;
 Zilharraren barnea hartzen dute beroak eta hotz sarkorrek,
 Basoak eskuan atxikiz senditzen baititigu beti bata
 Eta bertzea gainetik ixurtzen den edarien ihitzetik,
 Hainbaterano badiduri gauzetan azkar denik deus eztela.
 Bortzatzen baitie bizkitartean egia 'ta gauzen naturak,
 Ago huntan: neurthitz gutiz erakutsiko dugularik badirela
 Gorputzez azkar eta betiko direnak, gauzen hazi lehenak
 Deitzen ditugunak, osoan hetaz egin baitira gauzak oro.
- 503 Lehenik, bi gauzen natura bikun ainitzez ezperdina denaz
 Geroz orai agertua, gorputz denarena 'ta lekuarena,
 Hortan egiten baitira diren gauzak oro, behar da bakoitzak
 Izaitea dezan ukana beretzat eta dadin izan garbi.
 Ezen hutsa deritzogun eremu hura nun ere dadin egon
 Ezta gorputz bat; eta gero gorputza duen zerbait baldin bada
 Nunbait, ezta hura neholaz ere hutsa den gauza bat izanen.
 Beraz beteak dira gorputz lehenak eta hutsik ukan gabe.
 Gainera hutsa sortuak diren gauzetan izaiten denaz geroz,
 Behar da haren inguruan izan dadin materia betea;
 Arrazoin onez ezin phorogatua da gauza batek gordetzen
 Duela hutsa bere gorputzean eta barnean datxikala,
 Betea harekin batean izan dadin uzten ezpaldinbaduk.
 Hori gero deus izan eztaiteke materiaren bateratze
 Bat ezpada, gauzetako hutsa baitu bertan edukitzen ahal.
 Materia beraz, betea duen gorputz batez egin baita,
 Izaiten ahal de betiko, bertze guziak urtzen direlarik.
 Eta gero, hutsaz izendatzen den deusek izaiterik ezpalu,
 Oro lizateke gogor; aldiz gorputz segurrik izan ezpaliz

Han dauden lekuak beteak ukan zitzatentzat, hedatua
 Den guziak etzuen osoki hutsa denaz bertzerik ukanen.
 Ageri da beraz elgar aldizkatzen diren hutsa 'ta gorputza
 Berezirik daudela, bete denak eztuelakotz oro hartzen,
 Ez ere huts denak; gorputz diren gauzak badira beraz segurki,
 Osoki hutsa denetik eremua berezten ahal dutenak.
 Eta horiek kampotik eman ukhaldiek ezin dituzte
 Barreatzen ahal, ez ere barnean sartuek idekirik uzten,
 Edozein bertze moldez egin indarrek eztezazkete khordoka:
 Hori goraxago aitzinean erakutsi daukagu jadanik.
 Ezen ezpada hutsik ageri da deus izaiten ahal eztela
 Xehakatua ez hautsia ez arraildua bi zatitan moztuz,
 Eta deusek elezake har hezea berdin ere hotz sarkorra,
 Ez barnerano doan sua, hartzen baitituzte diren guziek.
 Eta gauza batek barnean huts gehiago badadukan arau
 Are gehiago da gauza hetan osoki dena kordokatzen.
 Beraz gai lehenak beteak eta hutsik gabe baldin badira
 Erakatsi dutan bezala, behar da betikoak daiten izan.

- 540 Bertzalde betierekotasuna materiak ezpalin balu
 Aitzinean gauzak oro deusera ziren itzuliak izanen,
 Eta zer ere dakusagun deusetik izanen zen berjaioa.
 Baina aitzinean erakatsi baitut deusik eztela deusetik
 Egiten ahal, ez eta sortua dena berritzultzen deusera,
 Gorputzen gai lehenek izan behar dute heriotze gabeak,
 Azken orenean hetan ahal dira gauza guziak urtuko
 Berriz gauzen moldatzeko behar dena materiak horni dezan.
 Beraz gai lehenak bere xoiltasunaren gatik azkarrak dira
 Eta mendetan zehar atxikirik ezin dituzte bertze moldez
 Mugarik gabe den aroan gaindi gauzak ahal berrantolatu.
 Azkenik gauzak barrea daitentzat ezpalu naturak mugarik
 Ezarri batere, ja materiazko gorputzak hainbaterano
 Ttipituak izanen ziren iragan aro barreatzaleaz
 Nun aro segur batez geroztik ezpaitzuen hetan batek ere
 Ezpaitziten adinaren mugak osoan iraganen ahal.
 Ezen ikusten dugu zerbait suntsi daitekeela berregin baino
 Lasterrago; hortakotz iragan den aro guzian egunaren
 Luzatze mugagabeak urtu 'ta barreatuz hautsi luena
 Ehoiz etzaitkeen izan bermoldatua gelditzen den aroan.

Aldiz ageriki barretzeko muga bat segurra badago
 Ikusten dugunaz geroz gauza bakoitza dela berriz egiten
 Eta berdín orotan gauzer zaiela bururapen bat emana
 Bere motaren adineko lorera helduak izan daitezkeen.

- 565 Hunara heldu da materiaren gorputzak ezin azkarrago
 Direnean, erraiten ahal dela halere guriak egiten
 Diren gauza guziak, ura, lurra, airea 'ta lanhoak, nola
 Diren egiten eta bakoitza zein indarrez erabilia den:
 Lehen-lehenik gauzetan nahasirik izaiten delakotz hutsa.
 Baina, gauzen gai lehenak aldiz guriak baldin balire, nundik
 Eginak izan ahal diren suharri gogorak eta burdina,
 Arrazoinak ezin erran dezake, zeren natura den osoan
 Oinarriaren hastapenaz beraz eskasean izanen baita.
 Alabaina gaiak azkarrak dira bere xoiltasun indardunaz,
 Eta horien bateratze hertsia goaz guziak tinkatu
 Ahal dira 't' erakustera dematzate ber(e) indar gemendunak.
 Gero gorputzen barreatzerako mugarik ezpada batere
 Eman izana, behar da bederen betidanikako demboran
 Gauzetako gai bakoitzak iraun ukana dezan orai arteo,
 Eztirenaz geroz oraino lanjer batez ere hunkiak izan.
 Aldiz aitzinean erran direnek beratz dutelakotz natura
 Gaizki doa dembora betierekoan iraun ahala duten
 Hainbat eta hainbat ukhaldiez joak izanik mendetan gaindi.
- 585 Azkenik gauzer motaz mota bururapen bat izan zaielakotz
 Aitzinetik eman handitzeko 'ta biziaren edukitzeko,
 Eta bakoitzak zer egiten ahal duen eta zer ez egiten
 Ere naturaren legez izana denaz geroz erabakia,
 Eta deus ezpaita bertzelakutzen, baina guziak hainbat berdín
 Baitaude nun jarraikian hegaztinek orok baiterakusate
 Gorputzean badituztela bere motaren ezagugarriak,
 Gai ezin aldatuak direnez behar dituzte gorputzak ere
 Eginak ukan; ezen gauzen gai lehenak balire molde batez
 Edo bertzez aldatuak izaiten ahal, orduan zer sortuko
 Ahal zen eta zer ez ahal ere segurtasunik gabea zen
 Izanen, azkenik botere mugatu bat eta bururapena
 Zeri beraz eta zer moldetan eratzikia zakon urrundik.
 Eta mendek ez ahal zituzten hainbat aldiz errepikatuko

Motaz mota aitamen jitea, bizi-molde 'ta mugimenduak.

- 600 Eta gero, gorputz horrek, gure sensuek oraino hautemana
 Ahal eztutenak, baduenaz geroz bururapena den zerbait,
 Izaiteaz hori zatirik batere gabe da segur-segurki
 Eta den ttipiena naturaz eta nehoiz etzen izan berez
 Bakarrik eta hala dela geroan izanen ezetsiko da,
 Bertze zerbaiten zati lehenbizikoa 'ta bakuna delakotz;
 Hortik jarraikian mota bereko zati ainitz-ainitzek dute
 Eli tinkatuan metaturik gorputz baten natura betetzen.
 Horiek berezirik izaiten ahal eztirelakotz, behar da
 Neholatan atheraiak izan ahal eztaiten dauden lekutik.
 Gai lehenak beraz bere bakuntasun xoiletik azkarrak dira,
 Eta zati ttipienetan daude tinki bildurik elgarrekin.
 Horien bilzarretik elgar akomeatuak izaitez baino
 Gehiago dira betiereko bere xoiltasunaz indardun;
 Hortako naturak onhartzen du deusik etzaien ekhen ez ttipi
 Oraino begiratzen dituela gauzen haziak izan daiten.
 Gainera ttipiena den zerbait izanen ezpaldin bada, gauza
 Ttipienean izanen dira zati zenbakiz mugagabeak,
 Zati baten erdia denak ukanen baitu beti bere zati
 Erdia 'ta gauzetan bat ezpaita hortan bururatuko denik.
 Beraz gauzen osoaren eta ttipienaren artean ezta
 Deus handi denik izanen; zeren nahiz eztuen oso guziak
 Mugarik, bizkitartean, diren gauza ttipi-ttipienak ere
 Berdin eginak izanen baitira mugarik gabeko zatiez.
 Arrazoin zuzena horren kontra baitoa 'ta gogoak ezpaitu
 Sinesten ahal, garhaiturik aithortu behar duk jadanik erran
 Den zatirik batere gabe diren horiek ere badirela
 Eta jitez ttipienak: horiek izaitea badutelakotz
 Erran behar zaik azkarrak direla 'ta betierekoak ere.

(Heraklite-ren, Empedokle-ren eta bertze teoriak gaitzetsiak)

- 628 Azkenik gauzen egilea den naturak balitu bortxatuak
 Guziak ohiduraz zati ttipi batzuetan barreatzera,
 Etzuen hetarik deusen bermoldatzeko berak indar ukanen,
 Zeren eta direnaz geroz eginak zatirik batere gabe,
 Ezpaitzakete gauzen sortzerako behar den materiarik
 Ukan, beraz elgarri lotzerik ez, phizurik, ukhaldirik ere,

Biltzerik, higitzerik, horietaz baitira guziak egiten.
 Horren gatik gogatu zutenak gauzen materia sua dela
 Eta guziak osoan sutik eginak diradela bakarrik
 Agerian dira bide handiz arrazoin zinezkotik urrundu.
 Haien buruzagi gudua baderama lehenik Heraklitek,
 Hizkuntzaren ilunaz Greziarren artean omen handikoa
 Arinki larriki baino dutenen artean egia bilatzen;
 Alabaina zozo guziek miresten eta maiteago dute
 Hautemaiten dutena hitz bihurtu batzuen azpian gorderik,
 Egiatzat ere hartzen dituzte beharriak goxoki hunki
 Ahal dezazketenak eta soinu pollitez aphaindu direnak.
 Alabaina, diot, nolaz gauzak hoin ezperdinak izan daitezke
 Eginak izan baldin badira su bakarretik eta garbitik?
 Su beroa tinkan izan zadin ala bekan abantailik gabe
 Izanen baitzen, suaren zatiek edukitzen balute suak
 Oso denean eta gorenean duen natura hura bera.
 Zeren saminago lizate beroa zatiak tinkan bildurik,
 Bereziak eta barreatuak izanik aldiz ahulago.
 Eragintza horrelakoetan eztela handiagorik ezer
 Egiten ahal sinetsiko dukek, ez ere gauzetan hainbertze
 Ezperdintasun direla suaren argal ala tinkitik egin.

- 655 Hau ere: hutsa badela gauzetan nahasirik onhartzen bada
 Suak ahal dira tinkan izanen eta geldituren argalik;
 Baina haien kontra doazen ainitz gauza hautemaiten baitute
 Eta gauzetan ez onhartzen gelditzen dela garbi den hutsik,
 Orduan nekeaz izitzen dira, galtzen dute bide zuzena;
 Eta bertzalde gauzetan hutsik ezpaldin bada guziak jartzen
 Direla tinkan ohartzen dira, guziez gorputz bakar bat dela
 Egiten, hark berez eztuela gordeka deusik igortzen ahal,
 Erretzen duen sutik argi 'ta khea jalgitzen diren bezala,
 Ikusten baituk eztirela zati tinkatuez eginak izan.
 Arrazoin bertzez uste badute suak bateratuz behar bada
 Iraungitzen ahal direla 'ta gorputzez ere bertzelakutzen,
 Agerian da hortarik urruntzen ezpaldin badira batere
 Osoan bero guzia dela segurki deusetarano hilen,
 Eta zer ere diren sortuko deus-deusetik eginen direla;
 Zeren aldaturik zerbait bere mugetarik jalgitzen denean
 Aitzinean izana zen haren heriotzea da berehala.

Horren gatik behar da guzietarik salbu geldi dadin zerbait,
 Gauza guziak etzaizkikan izan berritzuliak ezertara
 Eta gauzen andana berjaioa bizkor eztadintzat deusetik.

675 Orai beraz gai lehen segur-segurak izaiten direnaz geroz
 Bere natura berdina begiratzten dutenak beti 'ta beti,
 Haien joaite 'ta jitetarik eta lerroz aldatzetik aldatzen
 Baitira gauzak naturaz eta gai berak bertzelakatzten ere,
 On da jakitea horiek eztirela gauzen suzko gorputzak.
 Alabaina hetarik batzu daiten urrun eta joan bertze batzu,
 Jar daiten lerroan eta lerroz alda, horrek eztu deus eginen
 Guziek atxikitzen bazuten halere bere suzko natura;
 Zeren eginen zen guzia su baitzen izanen molde guziez.
 Egia, nik uste dutanaz, hunela da: badira gorputz batzu
 Haien elgartzeak, mugimenduak, lerroak, lekuak, itxurek
 Egiten baitute sua 'ta lerroz aldatuz aldatzen baitute
 Bere natura; baina horiek eztira suaren iduriak,
 Ez ere gure sensuen bidez hautemanak ukan eta hunki
 Dezazkegun gorputzak emaiten dituztenak bezalakoak.
 Erraitea gero gauzak oro sua direla 'ta bat eztela
 Egiatzkorik sua baizik gauzen lerroan sartzen ahal denik,
 Hori baitio hark berak, agerian erokeria hutsa da.
 Ezen hark berak sensuak sensuez gudukatzen dituenean
 Eta aurdikitzen, sinetsi diren guziak horier baitaude,
 Sua deritzonaren ezagutzea hortik hartua du berak;
 Zeren sensuek sua zinez ezagutzen dutela sinesten du,
 Bertzerik eztu sinesten, deus gutiago delarik argi denik.
 Iduri zait hori hutsala den aldi berean erokeria;
 Zertara jo behar dugu beraz? egiak eta gezurrak berex
 Ditzagun, zer izaiten ahal zaiku sensuak baino segurrago?
 Gainera zergatik norbaitek baztertuko ditu bertze guziak
 Eta nahiko du beroaren natura bakar-bakarrik utzi,
 Ukhatuko baino sua badela gaineratekoak atxikiz?
 Ageri da berdin zozokeriak direla bat eta bertzea.

705 Horren gatik gauzen materia sua dela gogatu zutenek
 Eta den guzia su 'ta sutik osoan izaiten ahal dela,
 Eta sortzeko diren gauzer hastepana dauela aireak
 Eman edo heze den urak gauzak moldatzen ahal dituela

Gogatu zutenek edo lurak dituela oro berak egin
 Et(a) alda daitekeela gauzek dituzten izantza guzietara,
 Ageri da direla handizkienik urunduak egiatik.
 Emazkik ere gainera, airea lotuz suari 'ta lurrari
 Ura, gauzen gai lehenak dituztenak birazkaturik emaiten,
 Eta guziak laur gauzetarik direla handitzen ahal uste
 Ukana dutenak, sutik, lurretik, airetik bai eta euritik.
 Horietan lehenetarik Empedoklez Akragantiarra da
 Irla hirur kantoinduak erakutsi zuena lurren hegian,
 Ioniar uraldeak itzulaldi handiez izurka baitu
 Inguruan uhain urdin-nabar saminez ureztaturik uzten,
 Eta hertsu den itsasarte hortan uhainen oldarrak baititu
 Berexten Eoliako lurren hegiak haren bazterretarik.
 Hor da Karibidiz gaitzekoa, eta hor berean mehatxatzen dute
 Etnaren burumbek berriz ere garren haserrearen biltzeaz,
 Indarrak ahoetarik jalgi dituen suen berregozteko
 Eta zeruetarano garren zimizten eremaiteko berriz.
 Eta herrialde horrek, gizonentzat ainitz moldez mireskarri
 Bezain ikuskarri denean ageri, joria denean gauza hoberenez,
 Gizonen indarrak hornitua gaztelu ainitzez, ezer eztu
 Ukan alta bere baitan gizon hori baino aipatuagorik
 Ez eta didurienik saildu, miragarri, maitagarriago.
 Ontsa gehiago, haren golko jainkotarretik oihukatzen
 Dira kantuak eta aurkintzak ederrik erakusten dituzte,
 Eta doi-doi dute gizatar ethorkitik iduri sortuak.
 Alta hark eta aitzinean erranak ditugunek bereziki
 Aphalago ainitz alderdietan eta ttipiago ainitzez,
 Nahiz duten ongi bezain miragarriki ainitz gauza aurkitu,
 Bihotzaren templotik ihardespenak emanak dituztenean
 Hirurzangotik Febuzen erramupean Phitiak iragarri
 Zuen baino saildukiago 'ta ainitz arrazoin segurrageoz,
 Bizkitartean gauzen hastapenetan hondamena hunki dute
 Eta dorpeki dira hor erori behargabe handi batean.
 Lehenik hutsa gauzer ekhendurik baitaue mugimendua
 Emaiten eta baitituzte gauzak uzten guriak et(a) argalak,
 Aireak, iguzkia, sua, lurak, ihiziak eta landare,
 Horien gorputzetan eztutelarik halere nahasten hutsik;
 Egiten dute gero gauzen zatitzean burutzerik eztela
 Batere 'ta haien hausteak eztuela gelditzerik ukaiten,

Eta beraz gauzetan eztela ttipiena den zerik batere,
 Ikusten dugularik alta gauza bakoitzaren azken puntta den
 Hura 'ta ttipiena dela baitzaie gure sensuer iduri,
 Hortarik asma baitezakek ikusten ahal eztitukan gaiek
 Azken puntta badutela, hori baita gauzetan den ttipiena.

- 753 Hemen dathor oraino, gauzen gai lehenek egiten dituztenaz
 Geroz guri direnak, ikusten baitugu horiek jaio garri direla
 Eta gorputz hilkor batekin, diren gauza guziek jadanik
 Osoan deusetara berriz itzuliak izan behar lukete
 Eta deusetik berjaioak diren guziek berriz azkar izan:
 Sinetsiko duk egiatik urrun daudela bata 'ta bertzea.
 Eta gero ainitz moldetan etsai izanez elgar phozoindatzen
 Dute; horren gatik ala metaka bildurik suntsituko dira
 Ala joanen ihes, ekaitzaz bortxan emanik zimiztak, euriak
 Eta haizeak ere barreatzen ikusten ditugun bezala.
 Azkenik, diren guziak baldin badira laur gaietarik egin
 Eta berriz gibelera hetan urtzera badoaz gauzak oro,
 Zergatik dira hek gauzen gai lehenak erranak izaiten ahal
 Gauzak aldiz horien gai lehentzat hartuak baino gehiago?
 Alabaina gauzek elgar sortzen dute 'ta margoak betidanik
 Elgarrekin ordainkatzen dituzte 'ta bere natura guzia.
 Uste baldin baduk behar bada suaren eta lurraren gaiak,
 Airearen ufak eta darioten urak elgarri juntatzen ahal direla
 Juntatzean ezer aldaturik izana gabe haien naturan,
 Eztuk horietarik eginen ahal zaikanik gauza bat ere,
 Ez ernatzen denik ez zuhatza bezala higitze gabe denik;
 Zeren metatze nahasi horrek batera biltzean agertuko
 Baitu bere natura, 'ta betan ikusiko baita lurrarekin
 Nahasirik eta nolazpait ihitzarekin egoiten airea.
 Aldiz sortuko diren gauzetan behar da gai lehenek erabil
 Dezaten ezin ikusia den eta gorderik dagon natura,
 Ezer eztadin ager, eztezan guduka zer ere den egiten,
 Are gutiago berezirik duenean ahal dezan traba.
- 781 Gehiago dena zerura 'ta haren suetarano badoaz
 Eta lehenik asmatzen dute sua airearen ufetara
 Itzultzen dela, hor egiten dela euria 'ta lurra euritik
 Sortzen dela, 'ta gibelera berrizultzen lurrera den guzia,

Lehenik ura, bigarrenik airea, su bero(a) azken-azkenik;
 Horiek eztutela gelditzen elgarren artean aldatzea,
 Joaitea zerutik lurrera, lurretik izarretara munduan.
 Molde batez ez bertzez hori gai lehenek egin behar eztute,
 Alabaina behar da geldi dadin ezin aldatua den zerbait
 Osoki deusetara berremanak izan eztaiten gauzak oro,
 Ezen aldaturik zerbait atheratzen bada bere mugetarik
 Ordu berean izaiten baita aitzinean zen haren hiltzea.
 Horren gatik guti aitzinago erranak ditugunak aldatzen
 Direnaz geroz batzu bertzetan, behar da bertzetaz egin ere
 Daiten horiek ehoiz ezin aldatuak izan ahal daitentzat,
 Osoki gauza guziak etzaizkikan berriz itzul deusetara.
 Zergatik ezituk izaitekotz asmatuko aitzinean erran
 Diren gorputzak, halako naturakoak nun, sua balagite,
 Gutiz apurtu 'ta gutiz emendaturik, lerroaz aldaturik
 Eta mugimenduaz, airearen ufak eginen baitituzte,
 Horrela batzu bertzetan aldatzen direlarik gauza guziak?

- 803 "Baina, diok, gauzak berak agerian erakusten du lurretik
 Airearen ufetara joanez handitzen direla gauzak oro;
 Eta euriez eguraldi zorizkoan urtaroak arthatzen
 Ezpaditu, hedoiereantzia gurtzen denean zuhamua,
 Ekhiak ber' aldetik fagoratzen ezpaditu beroz hornituz,
 Landareak, zuhamuak, bizidunak ezin dira handituko."
 Egia da, janariak idorrik, edariak hezerik lagun
 Ezpaginitzate, soina jadanik utzirik, bizia joan laite
 Osoan gure zain guzietarik eta hezurretarik ihes.
 Alabaina duda bat ere gabe laguntzen eta hazten gira
 Gauza batzuez, eta bertze batzu berdinean ere bertze batzuez.
 Egiazki ainitz moldetan ainitz gauzek ororenak diren gai
 Batzu badituztelakotz, gai lehen nahasiak dira gauzetan,
 Horren gatik bertze gauza batzuez haziak dira gauza batzu.
 Eta munta baitezpadakoa du gai lehenak ainitzetan
 Zein gauzekin eta zer moldamenetan atxikiak diren eta
 Elgarren artean zein mugimendu duten emaiten eta hartzen;
 Ezen horiek dagitzate zeru-lurrak, ibaiak, itsasoa,
 Iguzkia, horiek landareak, zuhatzak eta bizidunak;
 Baina bertzer nahasirik eta molde bertzetan higitzen dira.
 Han eta hemen ere gure neurthitz hauetan beretan ikusten

Dituk ainitz hitzek elgarrekilakoak dituzten ainitz hizki,
Alta aithortu behar da hitzak eta hizkiak elgarren artean
Bai erranaren bai soinuaren aldetik ezperdinak diradela
Hainbat ahal dute hizkiek lekuaren aldatzetik bakarrik;
Gauzen gai lehenek aldiz derabilakete ainitz gehiago
Egiten ahal baitituzte hetaz ezperdinenak diren gauzak.

("Homœmeria"-ren kontra)

- 830 Orai ikhertuko dugu Anatzagoraren "homœmeria"
Greziarrek horrela deritzotena baina gure hizkuntzaren
Eskasak ezteua aiten elhetan erran dezagun onhartu,
Baina gauza bera hitzetan zabal errega da bizkitartean.
Lehen-lehenik, gauzen homœmeriaz izendatzen duena
Da hezurak egiten direla segurki hexur xehe ttipiez
Eta haltsarrak egiten haragi xehe 'ta ttipiez, odola
Berdin elgarretara bildurik doazen ainitz odol itoiez,
Urrea datekeel(a) egin ahal urrezko mikoetarik uste
Du 'ta lurreko zati ttipi batzuetarik dela lurra gogor,
Sua dela su xehez egiten, ur zati xehez egiten ura,
Uste ditu 'ta molde berdinean asmatzen gaineratekoak.
Onhartzen du bizkitartean eztela gauzetan ehon hutsune
Denik eta gauzen zatikatzeak eztuela bururapenik:
Arrazoin batean eta bertzean iduri zait hutsean dela
Eta aitzinean aipatu ditugun haien ara berdinean.
Emak gainera gai lehen ahulegiak asmatzen dituela;
Gai lehenak baldin badira, aitzinean erran diren gorputz
Beren natura dute 'ta gai berak dira, berdin akhitzten dira,
Berdin suntsitzen, eta deusek eztitu hondamenetik baztertzen.
Alabaina hertsapen azkar batean zeinek hetan iraunen du
Hiltzetik ihes joaiteko, herioko hortzen azpian berean?
Suak, urak ala haizek? odolak ala hezurrek? zeinek bada?
Ez batek uste dut, gure begiez agerian dakustzagun
Gauza guziak bezainbat izanen delakotz osoki hilgarri
Eta suntsituko delakotz indar duen zerbaitek garhaiturik.
Baina gauza bat ezin daitekeela berriz eror deusetarano
Ez ere berriz handi deusetik aitzinago phorogatua dut.
- 859 Gainera janariak handitzen duelakotz eta hazten soina
Ongi da jakin dezagun odola 'ta zain-beltzak eta hezurak,

/Zainak ere berdin gai mota nahasiek moldatu dituztela./
 Edo diotenean janari guziak gai nahastekatuez
 Direla 'ta barnean badituztela zainen gorputz ttipi batzu,
 Orotara hezurak eta zain-beltzak bai odolaren zatiak,
 Gogoan hartu behar da janari guziak idor eta busti
 Egin izanak direla berdintasunik gabeko gai batzuez,
 Nahasirik hezurak eta zainak eta heldarra bai odola.
 Gainera zein gorputz ere diren lurretik handitzen hek lurretan
 Izaiten baldin badira, behar da lurra dadin izan egina
 Lurretarik sortzen diren gorputz mota nahastekatuetarik.
 Eremak hori bertze batera, hitz berak zaizkik erabiliko:
 Egurretan gordeak baldin badaude garra 'ta khea 'ta hautsak,
 Egurrek gai nahasietarik moldatuak izan behar dute,
 Gainera lurak gai nahasiez gorputzak hazten eta handitzen
 Dituen aldi guzietz, horiek egurretarik dira sortu.
 Hemen gelditzen da hortarik atheratzeko bidexka hertsu bat,
 Anatzagorak duena hartzen uste duenean gaiak oro
 Nahasirik gordeak daudela gauza guzietan, baina bakar
 Bat agertzen dela, hark gai nahasi ainitz eta ainitz baititu
 Eta jarriak agerianago 'ta lehenbiziko lerroan.
 Hori da bizkitartean arrazoin egiazkotik urrunegi;
 Behar zen alabaina bihiak ere, ainitz aldiz harriaren
 Indar bortitaz hausten direnean, odolaren hatz zenbait edo
 Gure gorputzean hazten direnetarik zerbait eman zezaten.
 Zuzen zen aitzarekin aitzaren gainean ainitz aldiz belarra
 Igorzten dugunean arrazoin berdinez odola zadin ixur,
 Eta gustu berdineko xortak eman zitzaizten edari goxo
 Guziek, iledunen errapetik esnea den bezalakoak;
 Lurretako mokor ainitz aldiz hautsietarik ere segurki
 Agertuko ziren landaretako motak, bihiak bai orstoak
 Lurraren arteketan xehe-xeheki banakatuak egonki;
 Azkenik hautsak eta kheak ikusi behar ziren egurretan
 Hautsiko zirenean, eta gorderik zauden su ñimiño batzu.
 Holako deus eztela gertatzen gauzek agerian erakasten
 Baitute, jakin behar da gauzetan gai nahastekarik eztela,
 Baina gauza ainitzen haziak ainitz moldez nahastekaturik
 Eta guzietan berdin gorderik beharrez izaiten direla.

897 Baina, diok, mendi handietan usu gertatzen da zuhatz goren

Erpinetako puntta hurbileneke elgar joiten dutela haize
 Hegoen indarrak batzu bertzetara bulzatuak direnean,
 Garraren lorea phizturik dirdiretan jartzen diren arteo.
 Egia da, bizkitartean eztago sua zuraren barnean,
 Aldiz han izaiten dira su hartzeko hazi ainitz, hek elgarri
 Igortziz biltzen direnean egiten dute sua oihanetan.
 Eta oihanetan egina baldin baliz gorderik dagon garra
 Etzatezkeen ephe batez ere suak gordeak izanen ahal,
 Oihanak orotan suntsituko zituzten, zuhamuak erreko.
 Ikusten duka beraz orai, baginiona guti aitzinean,
 Baitezpadakoa dela, gai lehen berek dirautelarik beti,
 Zeinekin eta nolako moldetan edukiak izaiten diren
 Eta zein mugimendu duten emaiten eta zein hartzen elgarri,
 Eta berak elgarrekin apur bat aldatu direl(a) egiten
 Sua 'ta zura? molde hortan izaiten dira hitzak berak ere
 Elgarren artean hizkiak apur bat aldatu dituztenean,
 Soinuaz berezirik erraiten ditugunean sua 'ta zura.
 Azkenik agerian ikusten ditukan gauzetan zer eta noiz
 Ezin egina den uste baldin baduk asmatu gabe gai batzu
 Aitzinean errana den gauza haren natura bera dutenak,
 Arrazoin hortaz ukaiten duk gauzen gai lehenen suntsitzea:
 Irriko daldaraz inharrosirik karkailetan ariko dituk,
 Eta nigar gaziez matela-aurpegiak ditie bustiko.

(Dotrina atomixta poesian)

- 921 Orai bada, zer gelditzen den ezagun ezak eta hobek(i) entzun.
 Eta gauzak zein ilunak diren ikusiz eniz hutsean; baina
 Laudorioaren itxaro handiak ziri zorrotzaz jo zautan
 Bihotza 'ta bertan golkorano sartu zautan Musen amodio
 Eztia; hortaz sustaturik eta gogoa bizkorrik banabil
 Aitzinean ehork oinaz higituak etzituen eremu
 Galdu Pieridenetan. Ur garbietara heltzea maite dut,
 Hetan edatea, maite dut ere lore berrienen biltzea
 Eta hortik neure buruaren janzte mirazko koronaz
 Musek oraino nehoren bekokiak etzituztenaz aphaindu.
 Lehenik gauza handi batzu ditut erakasten eta nahi dut
 Erlisioen korropilo tinkietarik arindu gogoa.
 Gero gauza hoin ilunaz argienak diren olerkiak ontzen
 Ditut orotan ezarriz poesiaren xoragarri guzia,

Ezen ageri da horrek ere badituela ber(e) arrazoinak.
 Medikuek bezala belarmin kharatsa haurrer edan-arazi
 Nahi dauetenean lehenik basoen bazterrak inguruan
 Ezti goxoaren edari horiaz pherekatzen baitituzte,
 Haurren adin zuhurtzia gabea bairatua dadintzat izan
 Ezpain bazterretarano 'ta belarminaren edari samina
 Xurga dezan aldi berean eta nahigabetan har eztezan,
 Baina horren egitez izan dadin bizkortua 'ta sendatua;
 Orai nik ere, dotrina hau eztutener landu gehienetan
 Iduritzen baitzaie garratzegi, 'ta jende xoilak kontra molde
 Hastio baitu, hiri mintzo goxoa dukanari nahi daukat
 Pieriden kantuarien bidez gurea den dotrina zabaldu,
 Eta hunkirik izana baliz bezala Musen ezti goxoaz
 Neurtitz hauekin hire gogoa hala beharrez dotrina horri
 Atxik ahal badezot, orduan ezin garbikiago dakuskek
 Gauzen natura guzia, 'ta zer duen orraztaturik itxura.

(Gai lehenak betiko dira)

- 951 Eraketsia dutalakotz materiaren gai azkarr-azkarrak
 Mendetan zehar ez garhaituak airean dabiltzala betiko,
 Ikher dezagun orai haien osoak baduenez bururapen
 Zenbait al(a) eztuenez; argiki dakusagun ere aurkitua
 Den hutsak, ala lekuak et(a) eremuak, gauza guziak hartan
 Egiten baitira, bururapenik baduenez osoan, ala
 Neurririk gabe hedatzen denez bere barnatasun zabalean.
 Den guziak beraz alde batean ez bertzean eztu batere
 Bururapenik; alabaina behar ukanen zuen azkentze bat.
 Deusek eztuela bururapenik ukaiten ahal ageri da
 Mugatuko duen zerbait ezpada haraindian, hala nola nun
 Ikusten baita soa naturaz eztarraikakeela haratago.
 Azken mugarik eztu, bururapenik ez beraz ez izaririk.
 Eta haren eskualde zeintan bahagon hi zutik muntarik eztu,
 Hainbaterano nun, zein lekuen jabe jarria den ere norbait,
 Alde guzietan gelditzen baita bertze hainbertze mugagabe.
 Gainera munduak duen eremu guzia noizpait izan baliz
 Bururatua, norbait urrunenetik azken hegietarano
 Aitzinatzen baliz eta han gezi bat balu airean igortzen,
 Indar azkarrenetan egotzirik izana baldin baliz hura,
 Nahiago duka airean urrun igorri den lekura loan,

Ala duk uste zerbaitek ahal dezakeela debeka 'ta traba?
 Ezen behar da bat edo bertzea aithor eta hauta dezakan.
 Ihes egiteko bidea bat eta bertzeak hesten daukate:
 Onhartu beharko duk den guziak eztuela bururapenik.
 Ezen edo bada zerbait igorria den lekura joan eztela
 Ez azken mugan jarri phorogutzen duena 'ta baieztatzen,
 Edo kampa da joan: azken mugatik ezta halere aitzinatu.
 Arrazoin hortan narraika, 'ta nun ere baitituk ezartzen azken
 Mugak, galdatzen deat: azkenean geziari zer gertatuko?
 Gertatuko da nehoiz ukanen ahal eztuela bururaterik
 Eta haren ihes joaitea luzatuko dela beti 'ta beti.

- 984 Bertzalde munduak osotasunean duen eremua baliz
 Alde guzietarik muga jakin batzuen barnean hartua
 Eta bururapena balu, den materia guzia jadanik
 Bere phizu handiez orotan eremana lizate zolara
 Eta zeruko gangaren azpian ezer etzen eginen ahal,
 Zerurik etzen izanen et(a) iguzkiaren argirik ez ere,
 Materia guzia metan etzanik egonen zenaz geroz
 Dembora jadanik betierekoetan eroria beheiti.
 Baina dudarik gabe gorputz lehener etzaie gelditaldirik
 Eman batere, beherean azken zolarik eztelakotz hara
 Biltzera bezala joan eta han egoitzak har ahal zitzatentzat.
 Gaiak oro mugimendu jarraiki batean ari dira beti
 Bere zati guzietan, eta mugagabetik materiaren
 Gai lasterrak eta ttipiak beti hornituak izaiten dira.
 Azkenik begiez ageri da gauzak gauza duela mugatzen:
 Aireak zatikatzen ditu munhoak eta mendiek airea,
 Itsasoak du lurra mugatzen, itsasoak aldiz lur guziak,
 Baina bururapen denik ezer ezta den guzitik haratago.
 Eremuaren natura 'ta lekuaren barnatasuna beraz
 Halakoak dira nun zimizten argiek luzatuz mendetara
 Betiereko lasterraz ezpailezazkete horiek iragan
 Ez egin ere aitzina joanez bide gutiago dadin geldi,
 Hainbaterano da han eta hemen gauzentzat alde guzietan
 Orotara hedatzen eremu nasaia bururapenik gabe.

- 1008 Gero berari gauzen osotasunak eztezontzat eman ahal
 Neurriaren hartzea, naturaren eskuan da, nahi du hutsa

Gorputzean muga dadin, aldiz gorputza muga dadin hutsean,
 Aldizkaturik horrela guzia geldi dadin mugarik gabe;
 Edo berdín batek ez bertzeak ezpalu bertzea bururatzen
 Izaririk gabe natura zen halere xoil-xoilki hedatuko;
 Ez itsasoak, ez lurrak, ez ere zeru zabal argizatuek,
 Ez mota hilkorrak, ez jainkoen gorputz sailduiek elezakete
 Iraun ahal oren bakar batek hartzen duen arteka hertsian;
 Ezen materiaren meta bere batasunetik barreatu
 Zen orduko, neurrigabeko hutsean urtzera zen eremanen;
 Edo nehoiz ez hortara bildurik izaitekotz gauza bat ere
 Etzuen eginen, bereziak biltzen ahal etzituekakotz.
 Ezen segur da gauzen gai lehenak bere lekuan etzirela
 Jari gogoko zuhurziaz deliberamendu zenbait eginik,
 Eztatutela eiki hitz hartuz eman mugimenduak elgarri.
 Baina ainitz aldaturik ainitz moldetan mugagabe guzian
 Zehar ukhaldiez izan zirelakotz inharrosiak azkarki,
 Mota guzietako mugimendu' ta bateratzeak entseatuz
 Halako moldamenetara heldu ziren azkenean halere
 Nun eginak diren gauzen osoa baita horietan egiten;
 Eta ainitz urte luzetan begiratuak izanik oraino
 Bilduak izan zirenean egoki ziren mugimenduetan,
 Egiten da latsen uhain nasaiez gutiziatuak itsaso
 Ibaiek berrosatzen dutela 'ta lurrak iguzkiaren hatsaz
 Berotutik uztak berritzen dituela 'ta bizidunen arraza
 Dela loratzen eta bizi daudela lerratuz aireko suak.
 Horiek etziren edozein moldetan eginen ahal, nasaiki
 Materia mugagabetik berriz sortzen ahal ezpaldin baliz,
 Hortik baitira suntsituak ohian berregiten ordu deno.
 Ezen janariz gabeturik bizidunen indarra gorputzetik
 Ihes eginez urtzen den bezala, berdín ere guziek urtu
 Behar dute batean eta materia hornitzetik gelditzen
 Da, zenbait arrazoinen gatik hartua baitu kontrako bidea.
 Eta kampotik alde guzietarik gaien ukhaldiek ezin
 Begira dezakete den osoa, nola juntatua den ere.
 Ezen ainitz aldiz jo dezakate, 'ta gelditzen da zati zenbait
 Bertze gai batzu jin arteo 'ta guziak osa dezaketeno;
 Anartean bortxaz gibelera jauzi behar dute 'ta batean
 Gauzen gai lehener eman ihes egiteko lekua nasaiki
 Eta dembora, batasunaz arindurik eroan ahal daiten.

Hortakotz ere behar da ainitz daiten berriz eta berriz jai,
 Eta halere gai berek ukhaldier aski horni dezaketen
 Materiaren indarrak orotan izan behar du mugagabe.

- 1051 Gauza horietaz erraiten dien huntan sinestetik, Memiuz,
 Urrun hadi: guziak oso guziaren erdira doazela
 Eta hortako dagola zutik munduaren natura, kampotik
 Ukhaldirik batere gabe 'ta neholaz gaina 'ta beherea
 Ezin daitezkeela libra, guziak baitira lotuak erdian,
 - Sinesten ahal baduk zerbait bere baitan bermatzen ahal dela -;
 Eta lurren bertzaldean phizuak diren gauza guziek indar
 Dagitela goiti 'ta lurrean loturik daudela gibelera
 Orain uretan ikusten ditugun bezala gauzak itxuratzen;
 Et(a) arrazoin beraz badiote burua beheiti dabiltzala
 Azpian ihiziak eta zeruen zolara lurretik ezin
 Eror daitezkeela gure gorputzak nahitara lurretik aira
 Daitezkeen baino gehiago 'ta goiti zero zabaletara joan;
 Ikusten dutenean ekhia ikusten ditugula gauazko
 Izarrak eta zeruko haien aroak gurekin aldizkatzen
 Direla, 'ta haien egunetan gau bedinak erortzen zaizkula. (*)
 (*) Ondotik heldu diren zazpi neurthitzen (1064-1070) zati batzu
 galduak baitira argitaratzalek ahal bezala osatuak dituzte: osakinak
 italiketan itzuli dira. (*Itzultzaileen oharra*)

- 1065 Baina horiek zozo batzuek *asmatu duten* hutsaleria
Dira gauzak molde makur batean hartuak izan direlakotz
 Erdigunerik izaiten ahal ezpaita batere *den guzia*
 Mugagabea *denaz geroz*, eta behin erdigune bat baliz
 Ezpaitzen deus-deusik han egonen ahal, *izaitekotz* nora nahi
 Urrun *baztertuko baitziren gauzak osoki* bertze molde batez.
 Ezen hutsa *deritzogun* eremu 'ta leku guziak *behar du*,
 Erdigunetik eta berdin erdigune gabe, phizu direner
 Utzi mugimenduak eremaiten dituen aldera joaitea.
 Eta gorputzak hara direnean ethorri phizua galdurik
 Hutsean indarrez egon ahal daitezkeen lekurik ehon ezta;
 Zeren hutsak aldiz ezpaitu deusen azpian iharduki behar,
 Amor emaiten jarraiki gabe, bere naturak nahi bezala.
 Arrazoinamendu holakoan gauzak ezin ahal dira beraz
 Erdigunearen gutiziaz harturik elgarrekin atxiki.

Eztituzte gainera gorputz guziak erakharriak asmatzen
 Thiran erdigunera, kakarrik lurrek et(a) urak duten hezea,
 Itsasoaren eta mendietarik jin diren uhain handiak,
 Eta gorputz abantzu lurrezko batean hartua den guzia;
 Aldiz erraiten dute haizearen ufa meheak eta berdin
 Suko gar beroak erdigunetik urrun barreatzen direla;
 Zeru guzia dela hortakotz inguruan izarrez dirdiran
 Eta zeru zabal urdinean alhatzen iguzkiaren garra,
 Erdigunetik ihes eginez hor baita bero guzia biltzen;
 Aitzinagotuz zuhazzetan abar goren-gorenak ezin orsta
 Laitezkeela, bakoitzari bere janaria gutika lurretik (...) (*)

(*) Hemen zortzi neurthitz (1094-1101) galduak dira.

(Itzultzailearen oharra)

(...)

- 1102 Garrek hegaldatzeko duten ohiduran munduko harresiak
 Huts handian urtuak izanik bapatean eztaiten barrea
 Eta bertze guziak arrazoin berdinaz jarraik etzaizkieten
 Edo zeruan ortzantzen egoitzak eror etzaizkigun gainera
 Eta oinen azpitik lurra bapatez joan eztadin, eta gauzen
 Eta zeruaren herexa nahasien erdian, den guzia,
 Urtzen direla gorputzak, eztoan galtzera huts hondagabea;
 Hala nola nun ephe batez ondarkin bat ezpaitzen geldituko
 Salbu hustua den eremua 'ta gordeak dauden gai lehenak.
 Ezen zatiz huts dagiten gorputzak nun ere baitituk ezarri
 Nahiago, hor die herioaren athea gauza guziek,
 Hortik da bera kampa joanen materiaren meta guzia.
 Horrela bidaturik lan ttipi hauk erroitik ezagunen dituk;
 Alabaina bata bertzetik argituko zaik eta bidea gau
 Ilunak eztauk gordeko, gehiago, naturaren gai azkenak
 Ontsa dituk ikusiko, gauzek gauzer argia deie phiztuko.

*

Liburu bigarrena

(Filozofiaren laudorioa)

- 1 Goxo da, haizek nahasten dutenean itsas-zabal handia,
 Egoitea bertze baten neke handiari beha leihorretik;
 Ez norbaitek paira dezan atsegin bat delakotz gustagarria
 Baina norberaren ikustea gaitzetik salbu goxo delakotz.
 Gerlako gudu handien ikusten egoitea goxo duk ere
 Ibarretan lerrokatuak, ezpahiz hihaur barne lanjerrean.
 Baina goxoagorik ezta zuhurren dotrina garbiaz ontsa
 Harresiztatuak diren eremu goren jabegoa baino: handik
 Bertzer ohar haiteke beherean eta dezazkek han-hamenka
 Ibiltzen ikus, nahasiak, bizitzeko bidearen bilatzen,
 Antzez zein gehiagoka, nahiz ukan aitorensemetasuna,
 Egunen eta gauen iragaiten indarka lan handienetan,
 Aberastasun gorenera heltzeko 'ta boterez jabetzeko.
 Oi gizonen gogo zorigaitzekoak! oi bulhar-bihotz itsuak!
 Bizian ilunbe nolakoan eta zeinbat lanjerretan ezta
 Iragaiten adin hori zer ere den! ikusten ez ote da deus
 Bertzerik eztuela naturak beretzat galdatzen oinazea
 Gorputzetik baztertua dadin izan ezpada, gogoa dadin
 Khexu 'ta beldurretik urrun den sendipen zoriontsuaz goza?
 Ikusten dugu beraz soina naturaz osoki gauza gutiren
 Beharretan dela: zeinek ere daukuten ekhertzen oinazea,
 Emaiten ahal ere dauzkigutenean atsegingarri ainitz;
 Eta naturak berak ezta bitartean gozoagorik nahi.
 Etxetan ezpadora jende gazten urrezko gizaiduriak
 Eskun eskuetan atxikitzen dituztela sutan zuzi batzu
 Gauazko mahi-bestetan argiak aberaski horni ditzaten,
 Ezpada zilharraz dirdiran et(a) irradian urrez egoitza,
 Ezpadute zur urreztatuz aphaindu saletan joiten alautek,
 Elgarrekin soropil gurian etzanik egoiten da halere
 Zuhatz handiaren abarren itzalpean eta latsari hurbil,
 Aberastasun handirik gabe soinak arthatzen dira gozoki,
 Oroz gainetik aroak irri dagienean eta sasoinek
 Urtaroko lore distirantez ihautzen dutenean belarra.
- 34 Eta sukar beroak etzaizkik urruntzen lasterrago soinetik

Jauzikatzen baldin bahiz mihise thindatu 'ta gorrindolatu
 Batzuetan, etzanik baino behar bada oihal arrunt batean.
 Hortakotz aberastasunak eztirenaz geroz baliagarri
 Soinarentzat, ez ere nobletasun(a) ez erretateko loriak,
 Gogokotzat ere deus eztutela balio behar da gogatu.
 Gertaldiz hire gerlaritaldeak Marteren Kampoan ikusten
 Ditukalarik gerlako sinoetan suharki higitzen ari
 Erresalbu handiekin eta tropen indarrarekin jarriak,
 Eta gizaiduri harmez aphainduak berdin iduri bizi,
 Gauza horietaz iziturik sineskeriak hire gogotik
 Ihes joaiten dituk eta hiltze beldugarriaren lotsek ere
 Ez ote die golkoa hutsik eta griñez arindurik uzten?
 Horiek irrigarri 'ta bairagarriak ikusten baditugu,
 Egiazki gizonen beldurrak eta haien griña jarraikiak
 Eztira harmen soinuez izituak, eztiren bezala gezi
 Ozar basak erregen eta boteredunen erdian beldurtzen,
 Urretik doan dirdirarentzat errespeturik gabe dira 'ta
 Gorrindolezko jantziaren edertasun miragarriarentzat:
 Nolaz dudatzen duk arrazoinaren ahal guzia dela hori,
 Ilunbetan zaikularik hain zuzen bizi guzia nekatzen?
 Ezen haurrak bezala daldaran egoiten direnean ilunbe
 Itsuetan eta guziez izituak, guhaur berdin argian
 Beldurtzen gira batzuetan haurrak izitzen eta gertatuko
 Denaz beldurtzen dituen baina deus gehiagorik eztenaz.
 Alabaina beldur horiek, ilunbe horiek behar dituzte
 Ez iguzkiaren arraiek ez egunaren argizko geziek
 Baina bai naturaren ikusteak et(a) arrazoinak ezabatu.

(Gai lehenen mugimenduak eta antolamoldeak)

- 62 Orai bada, nolako mugimenduez dituzten materiaren gai
 Ernaltzalek gauza guziak sortzen eta sorturik barreatzen,
 Eta zein indarrez diren hortara bortxatzen eta higitzea
 Zaien emaiten huts eremu handi guzian ibil ahal daiten
 Argituko dut: hitz hauer gogoaren emaitiaz orhoit hadi.
 Ezen zinez ezta materia batera tinkaturik araez
 Berdin izaiten, ikusten dugulakotz gauzak oro doazela
 Ttipituz eta hautemaiten adin luzean guziak ixurtzen
 Bezala direla, zahartzeak begietarik deramazkula,
 Den guzia bizkitartean oso gelditzen ikusten delarik;

Zeren eta gorputzetik ihes dagoiten gaiak gauza bati
 Uzten dutena ttipitzen dute, 'ta jiten zezteenak aberasten.
 Hura zahartzera dute bortxatzen, eta hauk aldiz loratzera,
 Et(a) eztira hor gelditzen. Horrela den guzia beti berritzen
 Da, 'ta hilkor direnak elgarrekin harremanetan dira bizi.
 Izaite mota batzu ainizten dira 'ta bertze batzu gutitzen,
 Eta bizidun motak arte labur batean aldizkatzen dira,
 Eta lasterretan bezala hel-arazten biziaren argiak.

- 80 Uste baldin baduk gauzen gai lehenak gelditzen ahal direla
 Eta geldituz sortzen dituztela gauzen mugimendu berriak,
 Nun nahi bahabil egiazko gogamenetik urrun galdua.
 Zeren hutsean zehar dabilzalakotz, gai lehen oro beharrez
 Edo dira berek duten phizuaz eremanak izaiten edo
 Bertze baten joite bortitzaz. Zeren aldi ainitzez lasterretan
 Kontrakoak joiten baitituzte, gertatzen da jauziz berehala
 Baztertzen direla. Miragarririk deus ezta hortan phizuaz
 Azkarrenak direlakotz eta gibeletik deusek ezin traba.
 Eta gauzen gai lehen guziak jauzikatzen direla dezakan
 Ikus osoki, orhoit hadi den guziak eztuela batere
 Zolarik, ez eta gai lehenak han geldituak dauden lekurik,
 Ainitz moldez erakutsia dut eremuan bururik eztela,
 Ez izaririk, alde guzietara dela neurrigabea hedatzen
 Arrazoinamendu segurraren bidez phorogatua baita hori.
 Eta horrela delakotz, etzaie segurki gai lehener eman
 Gelditaldirik batere hutsaren barnatasun guzian, baina
 Mugimendu jarraiki bezain aldakorraz erabiliak izanez
 Zatiz arte handi batzuetan urrunduak gertatzen dira,
 Zatiz ere gune hurbil batzuetara bultzatuak elgar jorik.
 Eta tinkiango elgarretaratuak direnak gune hertsu
 Batzuetan bilduak gertatzen direlakotz, bereak dituzten
 Itxura nahastekatuen gatik trabatuak izaiten dira:
 Horiek dagitzate harriaren gai azkar eta burdinaren
 Gorputz gogorak eta horien motako den gaineratekoa.
 Bertzalde huts handian gaindi dabilzan bertze guti-gutiak
 Urrunera dira jauziten eta joaiten urrunean gibelera
 Arte handiak utziz: horiek emaiten daukute airearen
 Arintasunarekin iguzkiarena den argi distiranta.
 Eta gainera badira ainitz huts handian gaindi dabilzananak

Gaien elgarretaratzetik baztertuak izan direnak eta
Mugimenduak ehoiz ere batera bil ahal ezteazakeenak.

- 112 Orhoit-araz dezatan gauza horren itxura, horren iduria
Emaiten zaizkula beti begien aitzinera 'ta hor egoiten.
Ohar hadi beraz iguzkiaren argiak et(a) arraiak sartu
Direnean eta hedatzen ilunean etxetako barnetan,
Ainitz moldetako gorputz ttipi ainitz ikusiko ditukala
Arraien argian berean zehar hutsunean nahastekatzen;
Eta betiereko gerla batean bezala metan guduka
Elgar dutela joiten eta gerla hortan ezteza gelditzerik,
Usu baitira batera biltzetan eta barreatzetan ari;
Hortarik asmatzen ahal duk nolakoa den gaitzeko hutsean
Gauzen gai lehenen higitzea jauzikatzetan beti 'ta beti,
Bederen ttipia den gauza batek eman badezake behazun
Gauza handientzat eta zerbait heltzeko haien ezagutzara.
Are zuzenago da gogoan har ere ditzakan ekhiaren
Arraietan nahasten ikusten ditukan gorputzak, horrelako
Nahasmenek erran nahi baitute materiaren mugimenduak
Ere segeretuzkoak eta gordeak barnean badirela.
Alabaina ainitz ikusiko dituk ukhaldi gorde batzuek
Jorik hor bidez aldatzen eta bulzaturik joaiten gibelera,
Noiz hunara, noiz hara, diren alderdi guzietan, orotarik.
Bada segurki gai lehen guzietan ibiltze hori nun nahi.
Alabaina gauzen gaiak dira berez lehen-lehenik higitzen,
Gero bateratze ttipi batez eginak diren gorputz hek eta
Indarretarik lehenbizikoen hurbilak bezalakoak;
Horien ukhaldi gorde batzuek bulzaturik higitzen dira
Eta berek aitzinera joiten dituzte gutiz handiagoak.
Horrela gai lehenetarik aitzina joaiten da mugimendua
Eta gutika gure sensuetara heltzen da, iguzkiaren
Argian ikusten ahal ditugun horiek daiten ere higi;
Baina hori zein ukhaldiez egiten den ezta bater(e) agertzen.
- 142 Orai nolako zalutasuna materiako gaiet emana
Zaien, hitz gutitan hemen ikasi behar duk, Memiuz. Lehenik
Ozkorriak argi berri batez dituenen lurra ihaurtu
Eta oihanetan hegaldatzen diren xorien mota guziek
Aire goxoan bazterrak dituztenean kantu garbiez bete,

Orduan jaiorik iguzkiak ohian zein bapatez dituen
 Ber(e) argiaz mainatzen dituen batean aphaintzen gauzak oro,
 Ikusten dugu begien azpian ageri dela guzientzat.
 Aldiz iguzkiak igortzen dituen bero 't' argi zohar hori
 Eztoaz huts oso batean, emekiago joaitera bortxatzen
 Baitira, airearen uhainak hautsi behar balire bezala.
 Eta beroaren gorputz xehe guziak eztira banakatuz
 Ibiltzen baina lotuak elgarrekin eta bildurik multzoka;
 Hortakotz aldi berean elgar dute berantzen eta kampotik
 Trabatua dira, beraz joaitera bortxatuak emekiago.
 Aldiz xoiltasunaz azkar diren gai lehenak eremu hutsean
 Hara joaiten baitira 'ta gai bat ezpaita kampotik berandua,
 Eta berek zati guzietarik bat eginik, abiatuak
 Ziren leku bakar hartan oldez indar eginik jartzen baitira,
 Izan behar dute dudarik gabe nagusi higikortasunaz
 Eremanak ekhiaren argiak baino ainitzez lasterrago,
 Eta dembora berdinetan lekuan iragan eremu ainitz
 Zeruan iguzkiaren suek badagiten baino gehiago.
 (...)

Ez ere hurbildik gai lehen berezien ikhertzean jarraiki
 Ikus dezatentzat bakoitza bat zer moldetan erabiltzen ote den.

- 167 Aldiz batzuek gauza horien kontra, jakin gabe materia
 Zer den, badiote jainkoen botererik gabe naturak ezin
 Lezakeela gizonen beharrentzat zuzenean egin hoinbertze,
 Aroak urtetan aldaraziz eta fruituen uztak eginez,
 Eta gainera, hilkorrer abia daiten sinets-araz dezeena
 Gabe, biziko buru den atsegin jainkosak berak ere manez
 Benutzen egintzaz balakaturik mendetan hara hedatzeko,
 Hil eztadin gizonen arraza. Hauen gatik diren guziak
 Jarri dituztela jainkoek asmatzen dutenean ageri da
 Orotan handizki direla lerratuak arrazoin zuzenetik.
 Ezen gauzen gai lehenak zer daitezkeen ezpaldin badakit ere
 Zeruan gertatzen denetik beretik ausartuko niz erraiten
 Eta baieztatzen bertze gauza ainitzetarik erakusteko
 Eztela munduaren natura neholaz ere jaikoen gatik
 Guretzat egin izana: hainbatekoa da errana den hutsa!
 Horiek, Memiuz, geroago dauzkiguk agerian emanen,
 Goazen orai mugimenduez gelditzen denaren bururatzera.

184 Orai ordu da, nik uste, gauza horietan ere sinetz-araz
 Dezakatan gorputzez eginak diren gauzetan bat ezin dela
 Indar bereaz eremana goiti 'ta goiti joanez ibil.
 Hortan suko garren gaiek enganiorik eztematzakatela:
 Alabaina goiti joanez dira sortzen eta gorenera heltzen,
 Uzta joriak eta zuhatzak goiti handitzen diren bezala,
 Phizudunak, zein bere neurrian, oro beheiti doazelarik.
 Eta suak jauzten direnean etxetan hegaztegirano,
 Gar zaluek dituztenean ernai-gapirioak milikatzen,
 Hori dagitela berainik azpian indarrrik gabe sinetsi
 Behar da. Molde berean odolak gure soinetik jalgitzean
 Airera gora zirriztatuz ixurtzen du bere margo gorria.
 Ikusten ez ote duk ere zeinbat indarrekin dituen urak
 Ernai-gapirioak bulzatzen? Ezen are gehiago gira
 Ainitzak barna zuzen haien zapatzen indar handietan nekez
 Ari, hark are hisitiago baztertuz digortza berriz goiti,
 Hala nola nun zati gehiena baita jalgitzen eta jauzten.
 Alta horiek, uste dut, ber-berak izanez, eztezagun duda
 Guziak lizatezkeela gain-behera huts handian eremanak.
 Beraz horrela garrek ere behar dukete goiti aitzinatu
 Airearen ufez hertsatuak izanez, nahiz phizuek ahal
 Dutenaz gudukatzen duten eremaiteko gainetik beheiti.
 Eta zeru gorenean airean dabiltzan gauazko zuziek
 Ez ote duk ikusten garrezko hatz luzeak uzten dituztela
 Ibilgunea zein lekuetan ere dauen naturak emaiten?
 Ikusten ez ote dituk izar-borobilak erortzen lurrera?
 Ekhiak ere zeru gorenetik alde guzietan ixurtzen
 Du beroa 'ta beherean alhorrak argiaz ereiten ditu;
 Ekhiaren beroa lurrerano beheititzen ere da beraz.
 Zimiztak ikusten dituk eurietan zehar airean ibilki
 Noiz hemen noiz han hedoietan jauzi diren suez
 Elgar joiten; ainitzetan lurrera derora garraren indarra.

(Gai lehenak ibiltzean zeharkatzen dira)

216 Nahi dugu gauza horietaz oraino hau ezagun dezakan:
 Gai lehenak hutsean eramanak direnean zuzen beheiti
 Bere phizuen gatik, segurtasun osorik gabe den orduan
 Eta segur ezten unean lekutik apur bat urrutzen dira,

Aldatzen direla mugimenduz erraiten ahal dukan heinean.
 Ezpalute bidetik baztertze hori egiten oro beheiti
 Euriaren itak bezala huts barnatuan eroriko ziren
 Eta gai lehenetan etzatekeen elgarren joiterik sortuko
 Ez ukhaldirik emanen; ehoiz naturak etzuen deus eginen.
 Norbaitek uste badu hala beharrez ahal dela phizuago
 Diren gaiak, hutsean lasterrago zuzen eroan direnean,
 Erortzen direla gainetik arinagoetara 'ta horrela
 Ukhaldi batzu dematzatela mugimenduen sor-arazleak,
 Bidea galdurik arrazoin egiazkotik urrun badabila.
 Ezen uretan eta aire mehean zehar erortzen diren gauzek
 Behar da bere phizuen gatik lehia dezaten erortea,
 Uraren gaiak eta aire naturaz arinak eztutelakotz
 Ahalik hein berdinean gauza bakoitzaren berant-arazteko,
 Baina lasterrago direlakotz gaindituak phizuz handienez;
 Aldiz ezta nehon lekurik ez nehoiz arorik izana gauza
 Bati hutsa den eremu batek ihardukitzen ahal zaukonik
 Amor emaiten jarraiki gabe, bere naturaren araura;
 Horren gatik behar dute gai guziek huts geldian hara berdin
 Eztiren phizu batzuez bulzaturik ereman izan berdinki.
 Phizuenak ehoiz ezin dira beraz arinetara gainetik
 Eroriko 'ta berez eztituzte sortuko naturak mundua
 Derabilan mugimenduak aldatuko dituzten ukhaldiak.
 Hortako berriz eta berriz gai lehenek apur bat behar dute
 Zeharka joan; baina zeharka higitze gutienetik eztezagun
 Iduriz asma gehiago: hori gauzak berak ezetsiko du.
 Ezen ageri-agerian ikusten dugu garbiki phizudun
 Direnak, bere baitarik, eztirela higitzen ahal zeharki,
 Gainetik erortzen direnean, hori hihaurek ikus dezakek.
 Baina bere bideko muga zuzenean eztirela batere
 Zeharkatzen, nor da hori ber-berak dezakeena hauteman ahal?

- 251 Azkenik oro mugimenduaz elgarri lotua bada beti
 Eta mugimendu berri zaharretik sortzen ara segurrean,
 Gai lehenek ere zeharkatuz ezpadute lehen mugimendu
 Zenbait egiten hausten dituen halabeharraren legeak,
 Egileari mugagabeen jarraik eztakion egilea,
 Nundik ote dute lurretan ukan libertatea bizidunek
 Eta, diot, nundik galdua du halabeharrak borondatea,

Atseginak bakoitza deitzen duenera baigoaz horren gatik,
 Mugimendua berdin zehartuz dugu ez ordu segurrean, ez leku
 Segur zenbaitetan, baina nahi zuen bezala gogoak berak?
 Zeren ez tut dudatzen horietan borondateak bakoitzari
 Demola hastapena 'ta hortik hedatzen dela soinadarretan.
 Ez ote duk ikusten ere zaltegiak direnean ideki
 Zaldien indar oldartuak orduan berean ezteza keela jauzirik
 Egin hainbat lasterretan nun baitzuen gogoak gutiziatu?
 Alabaina sustatua behar da gorputz osoan hedatzen
 Den materia guzia 'ta soinadar guzietan sustatua
 Indarrak bildurik, gogoko gutiziari jarraik dakidion;
 Hortik ikusten baituk mugimendua bihotzetik hasten dela
 Eta lehenik abiatzen dela gogoaren borondatetik,
 Handik dela soin osoan eta soinadarretan hedatzen gero.
 Ezta berdin aitzinera bertze baten ukhaldiaz bulzaturik
 Joaiten girenean indar handitan eta bortxaturik handizki;
 Orduan baitugu soinarean materia den osoan ikusten
 Badoala 'ta hartzen dela gure nahigabearen menperatua
 Eztuen arterano bederen soinadarretan borondateak.
 Ez ote duk beraz ikusten, indar batek kampotik jorik ere
 Aintzak eta bortxaturik ere joaitera bere nahigabetan
 Eta gain beheiti harturik ere, gure bihotzean badela
 Halere guduka dezakeen eta trabatzen ahal duen zerbait?
 Horren nahitara da bortxatzen ere materiak duen meta
 Ere noiztenka higitzera gorputzeko soinadarretan zehar
 Eta aitzinaturik gelditzen eta berriz jartzen gibelerara.
 Horren gatik ere haziez mintzatzean erran behar da berdin,
 Jotaldi 'ta phizuen gainera, mugimenduen arrazoin bertze
 Bat badela, hortik emana baitzaiku botere hori sortzetik,
 Ikusten ahal dugunaz geroz deusetik deus egiten eztela.
 Ezen phizuak debekatzen du gauzak oro daiten joitez egin,
 Kampotik indarrbatez bezala; baina gogoak barnetik eztu
 Beharrik artzeko berak gauza guzietan eta garhaiturik
 Bezala dadin izana joaitera 'ta jasaitera bortxatua.
 Egiten du hori gai lehenen bide zeharkatze ttipi batek
 Ez eremuaren gunean ez orduan ere segur eztena.

- 294 Ezta nehoiz izan materiaren meta den baino tinkiago
 Eta gero nehoiz etzituen artekak handiagoak ukan,

Ezpaita deus emendatzen, ez ere deusik sunsitzen alabaina.
 Horren gatik zein mugimendutan ere diren orai gai lehenak
 Hortan berean izan ziren iragan adinetan, eta gero
 Betikotz erabiliak izanen dira molde berdin batean,
 Ohiki sortzean ukana zuten eredu berean sortuko,
 Biziko, handituko 't' indar beraz baliatuko direlaketz,
 Naturaren legez eman izana zakon neurrian bakoitzari.
 Ezta diren gai guziak osoan alda dezazkeen indarrik
 Ehon ezpaita materia mota bat ihes den guzitik hara
 Joaiten ahal den lekurik, ez eta guzian sorturik jalgitzen
 Ahal den indar berririk eta jauziz gauzen natura guzia
 Alda dezakeenik ez eta mugimenduak bihur dezazkeenik.

- 308 Gauza horietan miragarri denik eztu horrek, zeren eta
 Gauzen gai lehenetan oro mugimenduan ari direnean,
 Ageri da bizkitartean guziak osoan badaudela geldi,
 Ezpada zerbaitek bere gorputzari demazkon mugimenduak.
 Ezen gai lehenen natura gure sensuetarik beherago
 Urrun datza guzia; horren gatik ja hauteman ezpaitezazkek
 Berak, haien mugimenduek ere gordeak izan behar die;
 Are gehiago nun ikus dezazkegun gauzek ere lekuez
 Urrunduak, mugimendak ainitzetan gordetzen baitituzte.
 Ezen mendixkan iledunen artaldeak ainitz aldiz ibiltzen
 Direnean emeki soro gizenak moztuz, deitzen dituela
 Ihitz berriak perlatzaten dituen belarrak, eta bildotsak
 Aseak jostatzen ari direnean eta burukan arinki,
 Urrundik etzaizku guri guziak nahasiki baizik agertzen
 Eta mendixka muskerrean gune zuraildu bat baliz bezala.
 Gainera gudaritalde handiek lasterrez bete dutenean
 Gerlako lanen jestuak itxuratuz Marteren kampo gunea,
 Harmen dirdira zerura denean igaiten eta leinuruaz
 Lur guzia inguruan arraikatzen eta harrabotsa goiti
 Gizonen indarraz oinetarik airatzen, eta oihuaz jorik
 Mendiek digortzaztenean mintzoak munduan izarretara,
 Eta zaldunak inguruan arin dabiltzalarik bapatez alhor
 Inharrosiak olde handitan iragaiten dituztela, bada
 Bizkitartean mendi goretan leku zenbait, handik iduritzen
 Baita badaudela geldirik eta dirdiran alhorrak direla.

(Gai lehenen molde ezperdinak eta horien ondorioak)

- 333 Goazen orai aitzina, gauza guzien hastapenekoak nola
 Diren ikasak eta moldetan zein urrun diren elgarretarik,
 Eta zeinbat ezperdina duten itxura ainitz motetakoa;
 Ez aitzinean erran den molde berdinekoak guti direlakotz,
 Baina guzien itxurak orotan berdin izaiten ezpaitira.
 Ezta mira: zeren haien andana hainbatekoa denaz geroz,
 Erakatsi dutan bezala, bururatzetik ezpaitute batere
 Ez osotasunik, eztute behar ageriki guziek zuzen
 Berdinak izan, ez hartu ere guziek itxura bat berdina.
 Gainera gizakien arraza 'ta mutuak diren ezkatadun
 Eliak et(a) abelalde gizenak eta basihiziak eta
 Hegaztin guziak, uren bazter arraietan egoiten direnak,
 Ibaien, ithurrien, aintziren ondoetan dabilzanak eta
 Hegaldaka joaiten direnak oihanetako leku galduetan,
 Hoa horietan motaz mota nahi dukan baten hautatzera:
 Elgarren artean itxuraz ezperdin direla aurkituko duk.
 Ume batek ama bertzela baliz ezagun ahal elezake,
 Ez amak umea; 'ta badakusagu horiek elgar ezagun
 Ahal dezaketala 't' ez batere gizonak baino gutiago.
 Horrela jainkoen saindutegi aitzin aphainduan ainitz aldiz
 Isensuen suan aldaren ondoan aretxe sakrifikatu
 Bat erortzen da bulharretik odol beroa burrustan ixuriz;
 Aldiz ama bakartuak larre muskerretan gaindi dabilala
 Lohian ezagutu ditu behatzez utziak zituen hatzak,
 Begiez leku guziak mihatuz, nunbait ikus ahal baleza
 Galdua duen umea, betetzen dituela bere auhenez
 Han dagon oihan orstaztatuen bazterrak, eta barrokirano
 Itzultzen da ainitz aldiz erdiraturik umearen urrikiz;
 Eta sarats guriek ez belar ihitzaz bizkortuek ez ere
 Ur-hegiak gainditzen dituzten ibai guziek jostatzen ahal
 Eztaukokete gogoa 'ta bihotzetik baztertzen arrangura,
 Alhagia gizenetan aretxe bertze batzuen ikusteak
 Ezin aldaraz dezoke gogoa 'ta solearaz bihotzmina,
 Hainbaterano du beretzat ezagutzen duen hura bilatzen.
 Bertzalde marraka daldaratuetan ahuña xamurrek bere
 Adardun amak ezagutzen dituzte 'ta bildots burukatzalek
 Berdin artaldeak; horrela, naturak galdatzen duen bezala
 Esnedun bere ditira bakoitzak ohiduraz badagi laster.

Azkenik ikusiko duk nahi dukan gari bihiak itxura
 Eztuela bakoitzak bere motan osoki berdina bertzeekin,
 Elgarren artean moldeko berexkuntza zenbait ukan baitute.
 Arrazoin beraz ikusten dugu maxkorren motak ere lurraren
 Altzoa duela margoztatzen, itsaso-zabalak bazter uztaikuko
 Ondartz egarriak uhain malguez joiten dituen lekuetan.
 Hortakotz, berriz eta berriz, arrazoin beraren gatik behar da
 Gauzen gai lehenak naturakoak direlakotz, ez gizonaren
 Ezkuaz molde bakar eta segur batean eginak, itxura
 Elgarren artean ezperdin batzuetan daiten airean ibil.

- 381 Errex-errex zaiku gogoaren arrazoin ez argiratzea
 Zeren gatik den hedatzen lurreko zuzietarik sortua den
 Gure sua baino aintz aldiz sarkorrigo den aire gaixtoa.
 Erraiten ahal duk alabaina zeruetan aire gaixtoaren
 Su mehea ttipiangoak diren gai batzuez egin dela
 Eta hortako zurezko zuzietarik sortua den gureak
 Hemen iragan eztezazkeen larxiloak iragan dezazkeela.
 Argiak du gainera zeharkatzen adarra, euriak egozten
 Duenean aldiz: zergatik, argiaren gai horiek ezpadira
 Baizik uren heze hazleak dituenak baino ttipiangoak?
 Eta badakusagu zein lasterrez duten arnoek irazkaia
 Iragaiten, aldiz olio denean emekituz berantzen,
 Edo handiago diren gaiez egin delakotz hau ageriki
 Edo makotuagoz eta plegatuagoz elgarrekin,
 Eta horrek egiten du gai lehen eremanak ezin banaka
 Daitezkeela bapatez bertzetarik eta xiloetarik ixur.
- 397 Hemen dathor ezti hartzeak, esnearen edateak ahora
 Erakhartzen dutela mihiko gozagarria den sendipen bat;
 Aldiz belarminaren jite kharatsak eta lubehazun basa
 Saminaren gustu gaixtoak dagitelarik ahoan ihakin;
 Hortik errex ezagutuko duk gure sensuak gozagarriki
 Hunki dezazketenak direla gai leunez eta biribilez
 Egin, aldiz saminak eta latzak iduritzen direnak, hek gai
 Gehiago makotuez elgarri direla josirik izanak;
 Eta horren gatik gure sensuetako bideak hausten ohi
 Dituzte 'ta gorputza hara sartzen direnean oldez urratzen.
 Azkenik sensuentzat on eta hunkitzean gaitzak ezperdinki

Diren orok elgar dituzte gudukatzen itxura beteginak.
 Eztezakala beharrez goga sega kirrinkariaren soinu
 Lazkarria 'ta lirtan joilearen erhien zalutasunaz
 Atzarria denean entzun-arazten den musikaren goxoa
 Direla gai lehen ara berdinean leun direnez eginak;
 Ez ere goga molde berdineko gai lehen batzu direla
 Gizonen sudurretara sartzen hilki higun bat erre denean
 Eta Kilikiako zafaran berriz ureztatzen antzokia,
 Et(a) aldare hurbilak digortzanean usainon arabiarrak;
 Ez ere goga margoak gauzen hazi berdinez egin direla
 Onak direnean eta begientzat hazkurri datezkeenean,
 Eta sistatzen dutenean soa bortxatuz nigar egitera
 Ala behatzean itsusi diduritenean eta gozagaitz.
 Alabaina sensuak gozagarriki hunkitzen dituen oro
 Ezta moldatu leuntasunetik zerbait gabe gai lehenetan;
 Aldiz noiz ere den gertatzen gauza zenbait gozagaitza 'ta latza
 Ezta materiako gogortasun zerbait ukan gabe aurkitzen.

- 426 Oraino badira batzu gai lehenetan zuzenki leunak uste
 Eztirenak ez eta punta makurretan osoki makotuak,
 Baina guti gehiago aitzinatzen diren izkinekin gure
 Sensuak dituztenak zauritzen baino gehiago kilikatzen,
 Mota hortakoak baitira lapa 'ta zaragar-belar gostua.
 Azkenik su beroek eta hormaz egin izotzak, horztunak
 Ezperdinki, gorputzeko sensuak ausikiz sistatzen dituzte:
 Hunkitzea dute batak eta bertzeak seinalea guretzat.
 Ezen hunkitzea, hunkitzea, gora jainkoen nahi saindua!
 Hori du sensua gorputzak, ala gauza bat denean kampotik
 Bera sartzen, ala gorputzean sorturik dagienean zauri,
 Ala Benuzen lan ernaltzaleak jalgiz atsegin demanean,
 Ala gorputzean berean joite batez direnean nahasi
 Gaiek elgar inharrosirik uhertzen dituztenean sensuak,
 Halabeharrez hihaurek phorogatuko baituk nahi bezala
 Alderdi bat heure soinean eskuarekin joiten baldin baduk.
 Hortako behar dute gaien moldek izan ezperdinak handizki
 Sendipen mota berezi guziak eman-araz ditzaketentzat.
- 444 Azkenik gogorrak eta tinkiak iduritzen zazkunak oro
 Gai elgarren artean makotuagoez eginak dira beharrez

Eta gai abarkatuez tinkaturik balire bezala josi.
 Mota hortako lehenbizikoetan ezartzen dira lehenik
 Ikhatz-harriak ohian ukhaldier ihardokitzen baitute,
 Gero dira aitz azkarrak eta burdina gogorraren indarrak,
 Athetan ihardokitzean kurrinkatzen duen burdin-horia.
 Eta gorputzez ubilak izanez ixurkor diren gauzek aldiz
 Gaiak leunago 'ta biribilagoak ukan behar dituzte.
 Ezen ur edatea bezain errex da hartzea lo-belarretik,
 Ezpaititu gai biribilak elgarrekin lotuak alabaina
 Eta jo denean baita gainetik beheiti lasterrez ixurtzen.
 Azkenean berehala barreatzen ikusten ditukan oro,
 Hala nola khea, hedoiak eta garrak, behar da gutienik,
 Osoan gai leunez eta biribilez eginak ezpadira,
 Eztaiten bizkitartean gai nahasietan trabatuak izan,
 Ahal dezaten gorputza zila 'ta sar daiten harrietan barna,
 Ez halere lotuak izan elgarri; badakusagu hortarik
 Sistakorra dena sensuentzat, ezagutzen ahal duk errexki,
 Eztela gai lehen nahastekatuez egina baina zorrotzez.
 Baina samin hek berak ikusten dukalarik ubilak direla,
 Itsas-ura den bezala, mirestekorik ezta den gutienik.

/.../

Ezen ixurkor dena gai leun eta biribilez egina da,
 Baina gai leunekin badira nahasiak min egiten duten
 Makodunak; eztute halere makoez lotu behar elgarri,
 Ageri baita biribil direla halere latz diren batean
 Ambil ahal daiten eta sensuak ahal ditzaten ere zauri.
 Eta gai lehen latzak nahasi direla leunekin dezakan
 Hobeki sinets, horren gatik baita Neptunen gorputza samina,
 Bidea bada horiek bereziz ikusteko bakoitza zer den:
 Lurretan zehar ainitz aldiz irezi denean ur hori bera
 Urtegian eztiturik ixurtzen da samintasuna galdurik;
 Indar gaixtoko gai lehenak alabaina gainean utzi ditu
 Latzak gehiago lurretan eratzikitzen ahal direlakotz.

(Gai lehenen ezperdintasuna ezta mugarik gabe, aldiz ba haien zenbakia)

- 479 Erakatsi baitut hori, jarraikiko niz lotzen daukotala gauza
 Bat egoki dena hortik sinets-arazteko gauzen gai lehenak
 Mugatua den molde batean ezperdinak izaiten direla.

Ezpaliz horrela, hazi batzuek aldiz orduan izan behar
 Zuten bere gorputzaren handitzean mugarik batere gabe.
 Alabaina nahi dukan gaiaren ttipitasun bakar batean
 Gorputzaren itxurak eztaitezkeek izan elgarrekin biziki
 Ezperdinak. Asmazkik bada gai lehenak hirur zati ttipiez
 Eginak, edo handitzera deramazkik guti gehiagora;
 Segur-segurki gai lehen bakar baten zati horiek guziak
 Gain eta beherean ezarriz, aldatuz eskunak ezkertera,
 Ara guzietan entseatuko hiz, zein egiturek emanen
 Ere daukan egitura horren gorputz osoaren itxurako;
 Oraino behar da nahi bahu menturaz itxurak gehi daiten
 Bertze zati batzu gainera dezazkan; hortarik jarraikiko da
 Arrazoin beraz egiturak behar dituela bertze zatiak,
 Nahi bahu menturaz ezperdinak izan daiten itxurak ere.
 Moldetako berritasun horrek emanen du beraz gorputzaren
 Handitzea. Horren gatik eztezakek sinets izan daitezkeela
 Mugagabeki gai lehenak moldetan ezperdin elgarretarik,
 Hetan zenbait bortxatzen ezpadituk izaiten izigarri handi:
 Ezin phorogatua dela hori ja gainean erakatsi dut.
 Oihal barbariarra, Melibœako gorrindol Thezaliako
 Maxkorren margoan mainatua denean dikana distiratzen,
 Hegazterrenen urrea garazia xoragarriaz betea,
 Mendea gaintua gauzen margo berriaz ahatziko ziren,
 Isensuaren usainona 't' eztiaren gostua gaitzetsiko,
 Eta belxargaren kantuak, lirtan Febuzen soinu trebeak
 Arrazoin berdinez garhaituak izanik zitian ixilduko,
 Sortuko zen alabaina bertzeak gaintituko zituen zerbait.
 Berdinki guziak batetik bertzera zati gaitzagoetara
 Gibela zaitezkeen, erran dugun bezala hobetuko zirenez;
 Ezen gibelatuz batetik bertzera gaitzago zatezkeen ere
 Bilaka, sudurr, beharri, begientzat, ahoko gustuarentzat.
 Ezpaita horrelakorik, alde batera 'ta bertzera baitzaie
 Gauzer eman osoan hartuz bururapen segur bat, erran behar
 Ere da molde mugatuetan ezperdintzen dela materia.
 Azkenean suetarik izotz hormatuetarano neguan
 Oro da bururatua 'ta berriz molde berean gibelera.
 Alabaina bero guzia 'ta hotza 't' erdigunean ephelak
 Datzate bien artean, betetzen dute zuzen osotasuna.
 Gauzak beraz elgarretarik arau mugatuan dira baztertzen,

Buru bikunaz marratuak direnaz geroz bata 'ta bertzea,
Hura kontraktua garrez, hau ur hormatuen gogortasunaz.

(Molde bereko gai lehenen zenbakia mugarik gabe da)

- 522 Erakatsia baitut hori, jarraikiko niz lotzen daukotala
Hortik abiatuz sinestera baderaman gauza: gai lehenak
Elgarren artean itxuraz betegin direnak, mugarik gabe
Dira zenbakian. Ezen ezperdintasun mugatua dutenaz
Geroz moldetan, berdinak diren gai lehenek behar dute
Ez ukana mugarik, edo materiak osotasunean izan
Behar du mugatua: horrelakorik eztela phorogatu dut.
(...)
Neurthitzetan erakutsiko dut materiako gorputz ttipiek
Hartzen dituztela betidanik gauzak osotasunean alde
Guzietarik dematzaten ukhaldien egintza jarraikian.
Badakusak alabaina bekanago direla bizidun batzu;
Nahiz bertze herrialde 'ta lekuetan, lur urrunetan, ainitz
Aldiz badiren mota hartan eta betetzen duten zenbakia,
Eta natura hetan emankorragoa dela hautemaiten duk;
Horrela laur zangodunetan ikusten dugu lehenik badela
Trompa suge moldekoa duen elefanta, milaka hetarik
Ainitzekin India bolizko harresiaz azkartua baita,
Hala nola nun neke den barnera sartzea, hain dut(e) ihiziek
Han eli handia; guk ikusten ditugularik osoki guti.
Bizkitartean utziko deat hau ere: eukala nahi baduk
Gauza bat gorputzez nahi bezain bakar sortua,
Mundu guzian diren lurretan bat eztuena berdina denik;
Bizkitartean ezpaliz materiaren osoa mugagabe
Han ernaldurik sor ahal zadin, etzen eginen ahal, etzuen
Ukanen ere, gehiago dena, zerbait ahal handitzerako.
Alabaina bertze batzuek asma bitzate bada den guzian
Gai lehen guti batzu higitzen gauza bakar baten ernatzale:
Nundik, nun, zein indarrez, zein moldez bateraturik, materiaren
Itsaso hain handian eta bertzetara bildurik, joanen dira?
Uste dutanaz eztute behar denik elgarretara bil daiten.
Baina hala nola hondamen handi ainitz direnean gertatu
Itsaso zabalak ohian baiteramatzta soto, haga, bizkar,
Belazurrun, brankak eta moztuak dituen mastak igerika,
Lurren ur-bazter guziak untzien gibel-aphaindurez ikusten

Direnean ihaurtuak, eta demetenean hilkorrer seinale
 Itsaso falsuaran indarretarik, trampa 'ta jokoetarik
 Bazter egin nahi dezaten eta nehoiz eztaiten ere fida
 Irri dagienean zabal ezituaren zimarku maltzurak;
 Berdin duk egiten badituk gai lehen zenbakiz mugatu batzu
 Bahar ukanen die mende guzietan hara barreaturik
 Materiaren herakinetan haizatuak izan orotara,
 Hala nola nun elgarrekin biltzera bulzaturik joanen ahal
 Ezpaitira batean ez bilzarrean egonen ez handituko;
 Munduak agerian erakasten du gertatzen direla biak,
 Eta gauzak jaiotzen eta jaiorik handitzen ahal direla.
 Agerian da nahi dukan motan gauzen gai lehenak beraz
 Badirela mugarik gabe, 'ta hortik hornitzen dela guzia.

- 569 Horra zergatik mugimendu hiltzaleak ezin diren nagusi
 | Betikotz ez eta behin betiko salbamenduan ehortziak,
 Eta mugimendu gauzen sortzale 'ta handitzalek gibelera
 Eztezazketen atxik-araz eginak dituzten gauzak betikotz.
 Horrela gudukatze berdin batean ereman izana da gai
 Lehenen gerla tinkia mugarik eztauen aroaz geroztik.
 Noiz hor noiz han indar bizitzalek garhaitzen dute
 Eta berdin dira garhaituak. Nahasia da hil-auhenekin
 Bazter argiztatuen ikustean haurrek hasten duten marraka:
 Ezta gaurik egunari jarraitzen ez gauari goizalderik
 Entzuten eztauenik marraka mingarriarekin nahasia
 Heriotzearen et(a) ehorztearen laguna den deitore bat.
 Gauza horietan egoki da hau zigilaturik ezarria
 Izan ere dadin, eta gogoz orhoitmenaren gomendioan:
 Ezer eztaela haien natura begi aitzinean denetan ageri
 Gai lehenetako mota bakar batetik egin izana denik,
 Ez eta hazi mota nahasiekin egin eztenik bat ere.
 Eta noiz ere zerbaitek badituen bere baitan ainitz indar
 Eta botere, hortik erakasten du barnean badituela
 Gai lehen mota ainitz eta direla hek itxuraz ezperdinak.

(Jainkoen ama Kübele-ren mithoa)

- 589 Hastapenetik lurrak bere baitan gai lehenak ukanak ditu,
 Hortik ithurriek itsaso neurrigabea hoxturak ambilduz
 Ethengabe berritzen dute; suak sortzen dituztenak daduzka,

Ezen lurraren azala phizturik erretzen da ainitz lekutan,
 Etnaren oldea eiki zolatik jalgirik garretan sutzen da.
 Oraino handik ekoizpen garbiak eta zuhatz gozagarriak
 Jalgitzen ahal dituenak badaduzka gizakien motako;
 Handik ere ditu hornitzen ahal ibaiak, oihan orstodunak
 Orotan dabilzan basihizi motentzat et(a) alhagiak jori.
 Hortako da deitu jainko 'ta basihizien amaren izenaz
 Eta hura da gure gorputzak ukan duen egile bakarra.
 Hura dute kantatzen Greziako poeta jakintsun zaharrek
 Karroan jargiatik bi lehoin uztartuen akulatzen ari,
 Hortik erakatsiz Lur handia dagola dilindan airean
 Eta lurra lurrean ezarririk ezin izaiten ahal dela.
 Uztartu dituzte basihiziak ume nahi bezain ohilak
 Beharko baitu aitamen ongi-eginez garhaiturik eztitu.
 Buruaren gaina daukote harresizko koronaz inguratzen
 Leku hautatueta azkarturik hiriak jasaiten baititu.
 Orain ere lur handietan hara seinale hortaz aphaindurik
 Eremaiten da laztatzeko moldez ama jainkosaren itxura.
 Jendalde batzuek ohiko zeremonia zaharretan jarraikiz
 Idatar ama baderitzote 'ta laguntzat emaiten dauzkote
 Frigiako soldadoak, erranez lehenik herrialde hetan
 Uztak sortzen hasi zirela lurraren eremura hedatzeko.
 Emaiten ere dauzkote gizon-apehez irenduak erran nahiz
 Ama baten jainkotasuna bortxatua dutenek eta aurkitu
 Direnek eskergaitz aitamendako behar dutela aiphatuak
 Izan ez gai argiaren hegira haur bizidunen jaiotzeko.
 Atabalek ahurpetan thiran joiten dute, zimbala askatuek
 Inguruan et(a) adarrek soinuaren latzaz mehatxu dagite
 Eta frigiaren araz xirula hustuek phizten dituzte gogoak;
 Aitzinean geziak dakhartzate xede bortitz baten seinale
 Jende xoilaren gog(o) eskergaitzek eta bihotz errespetu gabek
 Jainkosaren haserreaz iziturik ukan diroketen lotsa. (*)
 (*) Frigiako ama jainkosa horren izen greka « Kübele » zen,
 frantsesez « Cybèle ». (*itzutzalearen oharra*)

- 624 Beraz hiri handietan gaindi deneko muturik eremaiten
 Ixila den ongi-egin batez hilkorak fagoratzen baititu,
 Ihautzen dute bide luze guzia burdin-horiz eta zilharrez,
 Aberasten diru xehez; arrosa lorez elhurreztaten dute

Itzal eginez Amari 'ta haren kompainiako soldadoer.
 Hor harmak eskuan, Greziarrek "Frigiako Kureten" izena
 Emaiten dauetenak elgarrekin dira noiztenka gudukatzen
 Eta neurkadan jauzikatzen; odola dariotela, burua
 Higitzen dutela luma-kukurusta laztagarri batzuekin
 Diktaeko Kuretak dituzte gogoratzen, erraiten baitute
 Jupiter haurraren marraka gorde zutela lehenago Kretan
 Haren inguruan haurrek berek harmak harturik burdin-horia
 Burdin-horiaz neurkadan dantza lasterretan joiten zutelarik,
 Hura aurkiturik Zaturnok eman etzezan bere hortzetara
 Eta zauri betiko bat egin amari bulharraren azpian.
 Horren gatik dute harmak eskuetan laguntzen Ama handia,
 Edo dutelakotz erran-nahi gaztiazten duela Jainkosak
 Zaindu behar dela harmez eta kuraiatz arbasoen lurra,
 Eta gaiten izan sokorriarekin ohorea aitamentzat.
 Nahi bezain ederki 'ta miragarriki moldatuak badira
 Horiek, urrun daude bizkitartean arrazoin egiazkotik.
 Alabaina segur da jainkoen natura guzia berez bake
 Gorenean betierekoa den adin batez dela gozatzen
 Gur(e) egitekoetarik urrun baztertua 'ta berex jarria;
 Ezen gabetua oinaze guziez, batere gabe lanjerrik,
 Bereak dituen abantailez azkar, gurez ez axolatua,
 Ezta merezimenduer atxikia 't' ez hunkia haserreaz.
 Egiazki betidanik lurrak berak ere sendipenik eztu,
 Eta bere baitan gai lehen ainitz ukanak dituenaz geroz
 Ainitz ditu ainitz moldetan emaiten iguzkiaren argira.
 Erraitea hemen itsasoari Neptuno norbaitek hautatzen
 Baldin badu 'ta Kerez uztari 'ta nahiago badu zuzena
 Den hitzaz baino lehen baliatu Bakhuzenaz arnoarentzat,
 Onhar dezagun hemen errepika dezan lurraren ingurua
 Ama Jainkosa dela, hark berak orduan egiazki baztertzen
 Baldin badu sineskeria zozuez hunkitzetik adimena.

(Gauza mota bakoitza bazi bereziez egina da)

- 660 Horren gatik landa ber bateko belarra ainitzetan artalde
 lledunek eta zaldien mota gudukariak et(a) adarrak
 Luze dituzten italde, zeru ber bat gainetik, mozten badute,
 Egarrria dutelarik asetzen erreka ber baten uretik,
 Itxuraz ezperdin dira bizi, datxikate aitamen jitea

Eta guziek orotara hartzen dituzte motaren azturak:
 Hainbat handi bada nahi den belar motetan materiako
 Ezperdintasuna, hainbat ere handia dat(e) edozein ithurritan.
 Har ezak orai bizidun guzien artean bat nahi dukana,
 Hezur, odol, ur, zainbeltz, bero, haltsar, zainzuriek
 Egiten die, moldeaz elgarretarik urrun direnek eta
 Gai lehenen itxurak ezperdinak eginik ukan dituztenek.
 Eta gero suarekin gar dagiten guziak erretzen dira,
 Gehiagorik ezer gabe, badakhartzate bere gorputzean
 Handik sua jalgi daitekeenak, eman dezaketenak argia,
 Phindarrak egin dezaketenak et(a) urrunera barrea hautsak.
 Gogoko molde berdinarekin iraganez gaineratekora
 Aurkituko duk beraz gauza ainitzen gai lehenak gorputzetan
 Badaudela gorderik eta moldeak ezperdin daduzkatela.
 Azkenik ikusten duk gauza ainitz margo 'ta zapore bakar bat
 Usainarekin dutena 'ta lehenik abantzu fruituak oro.
 Horiek eginak izan behar dute beraz gai ezperdinekin;
 Handik gorria joaiten ezten lekutik urrina sartzen da gure
 Gorputzera; gorria sartzen da berex eta zaporea berdin
 Sensuetara: hortik dakik gaien itxuraz ezperdin direla.
 Beraz moldeaz bereziak direnak bilduma bakar batean
 Elgarretaratzen baitira, gauzak gai nahasiez egin dira.
 Gehiago dena han edo hemen gure neurthitzetan beretan
 Ikusten dituk ainitz hitzek elgarrekin dituzten ainitz hizki,
 Aithortu behar delarik bizkitartean neurthitzek eta hitzek
 Elgarren artean bertzetarik ezperdinak dituztela gai batzu;
 Ez ainitz hizki berdinen ukaitea guti gertatzen delakotz
 Edo hizki berez egin bi hitz izaiten eztirelakotz ere,
 Baina guzietan eztirelakotz guziak berdinak izaiten.
 Horrela bertze gauzetan ere gauza ainitzen gaiak baitira
 Elgarren berdinak izaiten, bizkitartean gauzen gai lehenak
 Osoan elgarren artean ezperdinak izaiten ahal dira;
 Zuzen den bezala gai ezpedinetarik eginak izan daiten
 Bai ekoizpenak eta zuhatz emankorrek, bai gizakien mota.

- 700 Bizkitartean ezta gogatu behar oro molde guzietan
 Junta daitezkeela; bertzela nun nahi mustroak ikus hezazke,
 Gizakien motan izaiten erdi-ihiziak eta jaiotzen
 Abar luzeak noiztenka bizia duen gorputz batetik goiti

Eta lurrekoen soinar dar ainitz jiten itsas-ihizietan;
 Orduan aho khiretsetik garra darioten Kimerak ere
 Guzien ama diren lurretan naturak alhatuko zituen.
 Ageri da holako deus eztela gertatzen, ikusten baitugu
 Hazi segurrez egile segurak eginak dituen guziek
 Handitzen direnean begiratzen ahal dutela bere mota.
 Ageriki behar da hori lege segur batean egin dadin.
 Ezen soinean sartzen diren janari guzien artean batzu
 Egoki den aldera dira banakatzen eta hartan bildurik
 Dagizkite mugimendu zuzenak; aldiz arrotzak dakusagu
 Naturak lurrera dagotzala; ainitzek ere gorputz gordetan
 Ukhaldez inharrosia den soinetik ihes egiten dute,
 Horiek ezpaitira nunbait bilduak izan ahal ez barnean
 Akomeatu bizi dematen mugimenduen berregiteko.
 Aldiz eztezakala behar bada goga hatsa dutenak baizik
 Eztaudela lege horietan, arrazoin batek mugatzen ditu
 Gauzak oro, zeren natura den osoan elgarrekin ezperdin
 Sortuak diren bezala gauza guziak, berdin ere behar da
 Bakoitzak dituen gai lehenen itxurak ezperdin izan daiten;
 Ez aitzinean erran molde berdinak guti direlakotz baina
 Guzientzat gauza guziak orotara berdin eztirelakotz.
 Gero haziak ezperdin izanez behar da hala daiten ere
 Izan arteak, bideak, elgar lotzeak, phizuak, ukhaldiak,
 Aurkintzak, mugimenduak, horiek berezitzen ezpaitutuzte
 Bakarrik gorputz bizidunak baina lurrekin itsaso guziak,
 Eta lurretarik berex edukitzen dutenak zero guzia.

(Margoak)

- 730 Orain bada hautemazkik egia hauk ene lan gozagarririk
 Bilduak, eztukan uste behar bada begi aitzinean zuri
 Ikusten ditukanak egin direla zuri diren gai lehenez
 Edo beltzak diren horiek hazi beltzetarik sortu direla;
 Ez ere sinets nahi dukan bertze margoaz hartuak direnek
 Badutela hori bere materiako gai lehenek itxura
 Berdina duten margo hartaz thindaturik izanak direlakotz;
 Alabaina materiako gaietan ezta margorik batere
 Izaiten, ez gauzetan berdin denik ez azkenean ezperdinik.
 Uste baldin baduk behar bada gorputz horietan ezin sartu
 Ahal dela margorik batere, hutsean urrun galdua habil.

Ezen itsu jaiোক, ehoiz eztutenek ekhiaren argia
 Ikusi, bizkitartean gorputzak adin hastetik ezagutzen
 Dituzte horier margo den gutienik eman ukana gabe;
 Jakin behar da beraz gure gogoaren ezagutzara gauzak
 Jin daitezkeela gorridurarik inguruan ez ukanik ere.
 Azkenik guhaurek gau ilunetan gauza batzu ditugunean
 Hunkitzen, eztugu senditzen margo batez thindatuak direla.
 Hor zer egiten den argiturik, orai egia derakatsatan.
 Ezen margo guziak osoan alda daitezke guzietara;
 Gai lehenek aldiz eztezakete neholaz holakorik egin,
 Ezin alda daitekeen zerbaitek irauin dezan beharrezkoa da,
 Gauza guziak osoki deusetara berriz itzul eztaitentzat;
 Zeren bere mugetarik jalgi den izaite bat suntsitzen baita,
 Orduan berean hil behar baitu aitzinean izana zenak.
 Hortakotz gauzen hazier margoen emaitetik begira hadi,
 Osoki deusetara diren gauzak itzuliak izan etzaizkan.

- 757 Gainera gai lehenen margoaren naturatik ezer emana
 Ezpaldin bazaie 'ta baldin badituzte moldeak ezperdinak
 Jaio daiten haietarik eta berex daiten margo motak oro,
 Horrengatik handizki balio baitu hazi guziak zeinekin
 Eta zein antolamendutan edukiak izaiten diren eta
 Elgarren artean zein mungimendu duten emaiten eta hartzen,
 Orai berean arrazoin eman dezakek ezin errexxiango
 Zergatik guti aitzinean margo beltzekoak izan zirenak
 Bilakatzen ahal diren bapatean harbizia bezain zuri,
 Itsasoa bezala, haize handiekin urak inharrosirik
 Aldatzen baita harbiziaren zuria duten uhainetara.
 Erraiten ahal duk beraz beltz ikusten duguna ainitz aldiz
 Haren materia nahasi denean, eta gaien ordenua
 Aldatu 'ta gehitua denean edo gutitua zerbaitez,
 Berehala gertatzen dela beltza galduz agertzen dela zuri.
 Uhainak itsaso zabalean egin izan balire gai lehen
 Urdinez, etzaitezkeen edozein molde ere zuriak bilaka;
 Alabaina noiz eta nola nahasten ere ditukan urdinak
 Eztie nehoiz ahalik ukanen harbizi margora joaiteko.
 Bertzela, gai lehenak margo batzuez eta bertzez eginak
 Badira, dagitenez itsasoan diridira bakar eta garbi,
 Itxura molde ainitz et(a) ezperdinez laurko bakar bat egiten

Den bezala, behar ziren, laurkoan ikusten ditugun bezala
 Ezperdinak dituen itxurak, itsasoaren uhainetan berdin
 Ikusi, nahi den bertze thindu bakar eta garbian bezala,
 Margoak elgarren artean ezperdinenak eta bereziak.
 Ezperdin diren itxurek gainera, deusetan egiten eztute
 Ez debekatzen laurkoa kampoan osoki bat izan dadin;
 Aldiz gaien margoek ezperdinik traba 'ta debekatzen dute
 Gauza bat osoan thindu bakar batekoa dadin izan ahal.

- 788 Orduan aitzinatuz gauzen gai lehener margoen emaitera
 Eremaiten et(a) erakhartzen gituen arrazoina desegiten
 Da, zuri direnetarik eztirelakotz egiten direnak zuri
 Ez beltzak jiten beltzetarik, baina direnetarik ezperdinak.
 Alabaina zuriak sortuko dira ainitzez errexkiago
 Margo batere gabetarik sortuak baino margo beltzetik
 Edo nahi dukan bertzetik, horrek guduka 'ta tratatzen baitu.
 Bertzalde margoak argi gabetan ezin izan daitezkeelakotz
 Eta gauzen gai lehenek argietan izaiterik ezpaitute,
 On da margorik batere gabe gordeak daudela jakin dadin:
 Ezen nolako margo bat ilunbe betetan izanen ahal da?
 Argiarekin berarekin aldatzen denaz geroz, argi zuzen
 Ala zeharkatu batez joa den neurrian dirdiratzten baitu;
 Urzoen luma da molde hortan berean ikusten iguzkian
 Garhondoan itzulian emanik lephoa koronatzten dauena;
 Zeren eta gertatzen da noizten urrez eta gorritz argizatzen
 Dela 'ta batzuetan iduripen bertzelako bat emaiten du
 Esmeralda muskerren artean zeruaren urdina nahasiz.
 Hegazterrenaren buztanak argi nasaiaz denean hartua
 Arrazoin berdinez itzultzen den arau aldatzen ditu margoak;
 Horiek argiaren joite berezi batez direlakotz sortu
 Ezin egin direla hori gabe da segurki sinetsi behar.
 Eta begiko ñiñikak hartzen dituelakotz jotaldi mota
 Bereziak, erraiten baita margo zuria duela senditzen,
 Eta bertzela beltza 'ta bertzeak sendi dituenean gero,
 Eztathor hortik baitezpada margo hori dutela ditukanek
 Hunkiko, baina zinez nolakoa den hartua duten itxura;
 Dakigula gai lehenek eztutela batere margo beharrik,
 Haien molde bereziek sendipen bereziak dematzatela.
 Gainera margoaren mota berezirik izaiten eztelakotz

Itxura segurretan eta gai lehen molde guziek baitute
 Ahala nahi dukan molde batean izaiteko margoztatzez,
 Zer gatik eztute hetarik eginak direnek izaite berdina
 Mota guzietako margoez molde guzietan estalirik?
 Alabaina beharko zen usu hegaldatzen diren belek ere
 Luma zuriatarik margoa zuria jalgi-araz zezaten
 Eta beltzargak ere hazi beltz batetik beltzak zaitezen jai
 Edo nahi dukan bertze margo bakarretik edo nahasitik.

- 826 Eta gauza zenbait moztan denean ere gero 'ta ttipiagi
 Diren zatietan ikus dezakek are gehiago dela hortik
 Margoa gutika-gutika joaiten et(a) azkenean galtzen dela,
 Gertatzen den bezala hegoa zatitan denean barreatzen.
 Gorrindola 'ta Kartagoko oiha gorri-bizi aipatuena
 Hariz-harika berexia delarik, margo guzia du galtzen;
 Hortik ezagutzen ahal baituk galtzen dela margo guzia
 Zati xeheak gai lehenetan barreatzen diren baino lehen.
 Azkenik onhartzen dukanaz geroz gauza guziek eztutela
 Soinurik igortzen ez usainik ere, gertatzen da horren gatik
 Guziak uzten ditukala soinurik ez usainik ere gabe;
 Berdin begiez eztezakegunaz geroz diren guziak ikus
 Onhartzen ahal da batzu margorik gabeak izaiten direla
 Batzu soinuaz bai usainaz osoki zurtzak badiren bezainbat,
 Eta gogo zorrotz batek eztezake gutiagi jakin hori
 Ohartu baino badirela batzu gabetuak bertze dohainez.
 Baina sinets eztezakan behar bada bakarrik margorik gabe
 Direla gai lehenak egoiten, epheltasunetik baztertuak
 Dituk osoki 'ta hotzetik eta suak duen berotik ere;
 Eta badabilta soinuaz antzurik eta gostuaz barurik,
 Eta gorputzetik eztute botatzen usain bererik batere.
 Horrela ainduriaren eta mirharen ur ezta prestatzen
 Dukalarik et(a) eztigaia sudurrera baderaman akara
 Lorea, bilatu behar baita lehen-lehenik ahal bezainbat
 Usainik batere gabe den olio mota baten aurkitzea,
 Eztuena sudurrera sendi den airerik batere botatzen,
 Eta bere saminaz ahal den bezain guti galtzen dituena
 Barnean hartzen dituen usainon erreak eta nahasiak,
 Arrazoin beraren gatik gauzen gai lehenek ere behar dute
 Ez ezarri berea duten usainik sortuko diren gauzetan

Ez soinurik, eztutenaz geroz berek emaiten ahal, ez eta
 Arrazoin berdinaren gatik azkenean batere gosturik, ez
 Hotzik, ez molde beraz airerik, izan dadin ephel ala bero.
 Bertze gauzak, alta hilkor izaiteko moldekoak direnean,
 Guri malguak, hauskor ustelak, ziko 't' argal dutenak gorputza,
 Behar da guziak gai lehenetan artekadunak izan daiten,
 Nahi baditugu jarri gauza guziak oinarri betiereko
 Batzuen menean, salbamen osoa hetan ezar dezatentzat,
 Gauza guziak etzaizkikan itzuliak osoki deusetara.

(Biziaz eta sendikortasunaz)

- 865 Orai senditzea dutenak ikusten ditugunean aithortu
 Behar da bizkitartean oro sendimendurik gabeko gaiez
 Eginak direla. Hau eztute baieztatzen ez ezesten ere
 Agerian eta begi-pean ezagutzen ditugun horiek,
 Izaitekotz eskutik beretik eremaiten dute 'ta bortxatzen,
 Diot, bizidunak sendigaitzez eginak direla sinestera.
 Ezen ikusten ahal ditugu bizia duten mamutxak sortzen
 Ongarri zikinetik, ustegabeko euriatarik urrina
 Lurraren hezeak bere barnean aurkitua duen orduan.
 Gainera gauza guziak molde berean berak aldatzen dira.
 Ibaiak orstatzetan et(a) alhagia gizenak abelaldetan
 Aldatzen dira, gure gorputzetan abelalde bere natura
 Aldatzen dute, 'ta gure gorputzetik basihiziek indarrak
 Eta hegaldunek bere soinak ainitz aldiz azkartzen dituzte.
 Beraz naturak janari guziak aldatzen ditu bizi diren
 Gorputzetara 'ta hortik egiten bizidunen sensuak oro;
 Eztitu biziki bertze molde batez ere garretan egur
 Idorrek barreatzen eta guziak aldarazten suetara.
 Orai ikusten duka beraz munta handiko dela gai lehenen
 Lerrokatzea nola den eta nola hartu duten lekua,
 Eta nahasirik zeiner emaiten duten mugitzea 'ta hartzen ?
 Gero zer da bada gogoia berak joiten daukan arrazoin hori,
 Aburu berezietara heramana 'ta hauena bortxatzen
 Sendikorra senditze gabetarik dela sortzen ez sinestera ?
 Ageriki harriek ez zurak ez lurak elgarrekin batean
 Nahasirik ere sendipen bizidunik eman eztezakete.
 Beharko da beraz hau gogoan atxiki horrelako gauzetan:
 Zerk ere dituzten egiten gauza sendikorrek, erran dutala

Orotarik osoan eztirela bapatez sortzen sendipenak,
 Baina balio handia duela lehenik zeinbat diren ttipi
 Sendikorra dagitenak eta horiek moldea nola duten,
 Mugimenduz, lerrokatzez, lekurtatzez azkenik zer diren ere.
 Gauza horietarik deus eztugu zur eta lurretan ikusten.
 Bizkitartean, euriekin direnean ustelduak bezala
 Mamutxak sortzen dituzte, materiako gaiak gauza berriaz
 Lerrokatze zaharretarik higiturik bateratzen baitira
 Hala nola nun sortuak izan behar baitute bizi dutenek.

- 902 Ondotik, uste dutenek sendikorra sendikorretarik dela
 Sortzen ahal, bertzetarik baitira gero senditzen ohituak
 (...)
 Egiten dituztela guriak; alabaina senditze guzia
 Lotua zaie haltsarrer, zain eta zainbeltzer, horiek guziak
 Gai guriez eta suntsikorrez eginak ikusten baititugu.
 Demagun alta betiereko dezaketela horiek iraun;
 Behar dute bizkitartean edo zatiz badutela senditze
 Edo bizidun guzien berdinak direla gogatuak izan.
 Aldiz berez senditzerik ukan eztezaketen beharrezko da,
 Ezen gogoak ukhatzen ditu soinadarren sendipen guziak,
 Eta gutarik berezia den eskuak ahalik eztu batere
 Ukaiteko senditzerik ez eta soineko zati bakar batek.
 Gelditzen da bizidunekin osoki berdinduak izaiteko
 Biziko sendipena onhar ahal dezaten alde guzietan.
 Erranen ahal direa gauzen gai lehenak eta herioko
 Bidetarik baztertzen direnak beraz, bizidunak direlarik
 Eta bizidunak hilkorrekin bat izanez eta gauza bera?
 Ahal hori balute bizkitartean, elgarrekin bildurik deus
 Etzuten eginen bizidunen metatze nahasi bat ezpada,
 Ikusten den bezala gizonak, abelalde, ihiziek bilduz
 Elgarrekin sortzerik eman eztezaketela gorputz bakar bati.
 Berdin ere behar da sendi ditzaten guk senditzen ditugunak.
 Eta beharrez uzten badute bere gorputzetik senditzea
 Eta hartzen badute bertze bat, zergatik zizaien eman behar
 Ekhentzen zaiena? Gainera, aitzinean ginuena zabaldu,
 Hegaldunen arraultzeak aldatzen ikusten ditugunaz geroz
 Xito bizidunetara 'ta lurretik jalgitzen mamutxak, euri
 Ustegabeko batzuen gatik urrinak hartua duenean,

Jakin dezagun sendigabetarik sendidunak sor daitezkeela.

- 931 Eta behar bada norbaitek erran badeza sendigabetarik
 Sendikorrak aldakuntzatik bakarrik sortuak ahal direla
 Edo berdin kampa jalgitzen dituen erditze zenbatetik,
 Askiko da hari gauza hunen erakuste 'ta phoragatzea:
 Erditzerik eztela biltzerik gabe aitzinean elgarrekin,
 Ez eta zerbaiten aldatzerik akomeatzerik egin gabe.
 Lehenik ezin izan daitezke nahi den gorputzaren sensuak
 Aitzinean ezpada sortua bizidun baten bizia bera,
 Ageri delakotz materia barretaua dela airean,
 Ibaietan, lurretan eta lurrean eginetan, eta bildu
 Ez izanik bizitzeko behar den moldean, mugimenduak
 Eztitu bateratu, sendipenak orotan hetarik baitira
 Phizten eta bizi diren guziak hek baitituzte gerizatzen.
 Gainera nahi den biziduna naturaz jasan dezakeen baino
 Ukhaldi handiagoak bapatez aurdikitzen du 'ta soinean
 Eta gogoan sendipen guziak jarraikian nahasten ditu.
 Alabaina suntsitzen dira gai lehenen egonara guziak
 Eta biziaren mugimenduak trabatzen dira barnerano,
 Materiak alderdi guzietan inharrosirik gorputzetik
 Gogo biziaren lokailuak desegiten dituen arteo
 Eta barreaturik oro kampa laxiloetarik egozten.
 Ezen eman den ukhaldiak zer uste dugu bada dezakeela
 Egin, direnen xehakatzeaz eta barreatzeaz bertzerik?
 Ukhaldi gutiago bortitzaz jorik ohian gertatzen ere
 Da ainitzetan biziaren mugimendu geldituek garhaitzen
 Dutela 't' ezitzen joiteak egin zuen gaitzeko nahasmena,
 Eta gai bakoitza bere hodiedara berriz itzul-arazten;
 Eta hausten dute gorputzean herioaren urrats abantzu
 Nagusitua, 'ta berriz phizten galtzera zoazen sendipenak.
 Ezen nola ziren herioaren alharze beretik gogoa
 Bildurik bizira hobeki berriz itzuliak izaiten ahal,
 Laster abantzu ja bururatuan norapait joan eta joan baino?
- 963 Bertzalde, oinazea badelakotz, materiaren gaiak indar
 Zenbaitez haltsar bizietan eta soinadarretan inharrosi
 Direnean daldaratzen baitira han dauden egoitzen barnean,
 Eta berriz lekura doazenean sortzen atsegin gozoa,

Jakin behar da gai lehenak eztatezkeela batere hunkiak
 Minaz eta bere ganik eztutela hartzen atseginik ere;
 Gai lehenen gorputzetan ezer izaiten eztenaz geroz haien
 Mugimenduek berritasunaz hertsatzen ahal dutenik edo
 Goxatasun hazlearen emaitza zenbait hartzen ahal duenik,
 Gaiak izan behar dute beraz sendipenik batere gabe.
 Azkenik senditzea bizidun guziek ukan ahal dezaten
 Eman behar bazaie aitzinean gai lehener sendipena,
 Zer bada gizonen arraza bereziki hetaz egin direnez?
 Agian irriaren daldaraz inharrosiak karkailaz daude
 Eta nigarren ihitzaz bustitzen dituzte moko 'ta matelak,
 Eta gaien nahasmendu aintzez mintzatzeko trebe datezke
 Eta badakikete berak hetaz egin diren gaien ikhertzen;
 Horiek bizidun osoen berdinak direnaz geroz behar da
 Berak ere daiten izan bertze gai batzuetarik moldatuak,
 Hauk gero bertzetarik, ehoiz ezpaihiz gelditzera ausartuko;
 Jarraik nadin beraz: irri, mintzo, jakite badutela diokan
 Orok gauza berak dagizkiten bertzetarik ukanak ditie.
 Zozokeria 't' erokeriak ikusten baditugu horiek
 Eta dagitenetik irri sortu(a) eztenak irri badagike,
 Eta jakinduru dena 'ta solas jakintsunez arrazoinkatzen
 Hazi jakintsun eta mintzarietarik egin ezpaldin bada,
 Zer gatik ahal dira senditzen ikusten ditugun izaiteak
 Sendipenik eztuten gaiak nahasirik gutiago moldatu?

- 991 Azkenik girenak oro gira zeruko hazitik ethorriak:
 Hura da berdinki guzientzat aita, han dituenean ama
 Lur hazleak hartu euriaren ithoiak, ernaldurik erditzen
 Ditu joriak diren uztak eta zuhatz gozagarriak eta
 Gizakiak; erditzen ditu basihizi motak oro hornitzen
 Dezteelarik alhagiak, hetan guziek hazten baitituzte
 Gorputzak, eta bizi goxo bat ermanez arraza hedatzen;
 Horren gatik zuzen da lurra ukana dezan amaren izena.
 Lurretik lehenago sortua zena gero lurretara berriz
 Itzultzen du; 'ta zeruaren hegietarik direnak igorri
 Hek ermanik gibelera berriz hartzen ditu zeru zabalak.
 Eta hiltzeak eztitu materiako gaien suntsitzerano
 Gauzak xehakatzen, baina haien elgartasuna du barreatzen;
 Gero batzu bertzetara ditu biltzen eta horrela badagi

Bere moldeak berregin eta margoak alda ditzaten, ukan
 Ditzaten sensuak eta berriz gal, behar den ordu zuzeneko:
 Jakin dezakan zer munta duen gauzen gai lehen horiek berak
 Zein gaiekin eta zein egonaran diren elgarrekin eduki
 Eta zein mugimendu dituzten batzu bertzer eman eta hartzen.
 Etzakala sinets ere gauzen azalean ibiltzen, noiztenka
 Sortzen eta bapatean suntsitzen ikusten ditugunen baitan
 Betierekoak diren gai lehenak egoiten ahal direla.
 Eta gero munta badu gure neurthitzetan beretan zeinekin
 Eta zein ordenutan den hizki bakoitza lekuan ezarria;
 Zeren zerua 'ta lurra baitituzte hizki berek erakusten,
 Ibaiak, itsaso 't' ekhia, zuhatzak, uztak, bizidunak ere.
 Ezpadira guziak berdin, aldiz hala dira zati gehien-
 Gehienean; baina hizkiak egon-moldetan berexen dira.
 Horrela gauzetan beretan oraino materiaren artekak,
 Bideak, elgarrekin biltzeak, phizuak, ukhaldiak, aurkintza,
 Mugimenduak, ordenua, lekuak et(a) itxurak aldizkatzen
 Direnean, aldatuak izan behar dute gauzek berek ere.

(Oso mugagabeen badira bertze munduak; sortzen dira 'ta biltzen)

- 1023 Atxikaguk orai gogoa zinezko dotrinaren entzuteko.
 Ezen aburu bat azkarki berria beharrietarano zaik
 Abiatzen, eta gauzen itxura bat berria dauk agertuko.
 Baina hain errexa den gauzarik ezta nun ezten lehenbizian
 Sinesteko nekeagoa gertatzen; eta horrela hain handi
 Eta hain miragarri den gauzarik ezta batere nun eztuten
 Guziek ohartu gabeen ttipiagotzen haren mirestea:
 Lehenik zeruaren margo zohar eta garbia, 'ta berekin
 Eduki dituen gauzak oro, dabilten izarrak han hemenka,
 Haiekin ilargia 'ta duena dirdiratzen iguzkiaren argi biziaz;
 Horiek oro hilkorrek lehen aldikotz orai ager balaite
 Bapatez ustegabetarik, gauza horiek baino zer erranen
 Ahal zen gehiago miragarria, 'ta zer ziren lehenago
 Izana zela sinestera gutiago ausartuko jendeak?
 Deus ez, uste dut; zinez mireskarri zen izanen ikuspen hori!
 Nehork eztauk orai, horren ikustearen asperraz akhiturik,
 Zeru zabal argira goiti soaren itzultzerik onhartuko.
 Hortakotz begira hadi, harritua berritasunaz beraz,
 Gogotik dotrina hunen haizatzetik; baina heure gogamena

Zorrozturik, ikher ezak; eta zinezkoa bazaik iduritzen
 Amor emak; edo, gezurrezko bada harmak harzkik haren kontra.
 Ezen arrazoinez gogoak bilatzen du, kampoan eremuen
 Osoa delarik munduko harresietarik hara mugagabe,
 Zer den hemendik urrunago, norano nahi duen adimenak
 Ikusi 'ta doan hegalez gogoaren olde librea bera.

1048 Lehenik alde guzietan orotarik den osoan guretzat
 Ezta batere mugarik alde batean ez bertzean, ez goiti
 Ez beheiti: gauzak berak, erakatsia dutan bezala, berez
 Oihukatzen du 'ta mundu guziko naturak emaiten argira.
 Gogatu behar da beraz eztela nahi den aran ikusten
 Denaren iduririk, idekia denean orotara mugagabe
 Eremua 'ta zenbaki gabeko haziak oso barnatuan
 Ainitz moldez dabiltzanean erotuak mugitzeaz betiko,
 Lurren borobil hau eta zerua direla bakarrik eginak
 Eta materiaren gai orok kampoan deus eztagitzatela;
 Hain zuzen hau egin zuenean naturak eta gauzen haziak
 Berainik halabeharrez zutenean ustegabetan elgar jo
 Ainitz moldetan, nun nahi, hutsalki 'ta debaldetan elgarrekin
 Bildurik, bizkitartean bapatez berehala zituzten landu
 Egotzirik gauza handien sortzeak betiko zegiketenak,
 Lurren, itsaso 'ta zeruaren eta bizidunen motarena.
 Hortako berriz eta berriz erran behar da badirela nunbait
 Hau bezalakoak diren materiaren bertze bilduma batzu
 Aire gorenak badaduzkanak amikatuki besarkaturik.
 Gainera, materia ainitz izana denean apailatua,
 Ondoan leku badenean, eta deusek ezpadu debekatzen
 Gauzek moldatuak et(a) eginak izan behar dutela segur da.
 Orai gai lehenen nasaitasuna hainbat handi baldin bada nun
 Bizidunen aldi batek osoak ezin zenbaka bailezake,
 Natura bera dagonean eta gauzen haziak direnean
 Biltzen leku guzietan eta hemengo molde berean bildu
 Ahal direnean, aithortu beharko dugu bertze lur borobil
 Batzu badirela munduko bertz(e) alderdi batzuetan, bai eta
 Gizakien arraza bereziak eta basihizien motak.

1077 Hemen heldu da gauzen osotasunean bakarrik bat eztela
 Bakarra sortua denik eta bakar-bakarra handitzen denik,

Eztenik mota zenbaiteko 'ta mota berekoetan badela
 Ainitz eta ainitz. Lehenik atxikeek gogo biziduner,
 Aurkituko duk berdin dela mendietan basihizien mota,
 Berdin gizakien arraza bikuna, berdin azkenik mutuak
 Diren ezkatadunaldeak eta hegalak dituztenak oro.
 Horren gatik erran beharko duk arrazoin berdinari jarraikiz
 Zeru, lur, iguzki 't' ilargi 't' itsasoa 'ta gaineratekoa
 Eztela batere bakarra, baina zenbakirik gabe(a) izaitekotz.
 Urrundik jarria dutenaz denaz geroz biziaren bururapena
 Badiraute 'ta sortzezko gorputza badatxikate motek orok
 Bezainbat, eta bada gauza horietaz orotara naharoki.
 Horiek ongi baldin badituk ezagutu, natura librerik
 Zaik ordu berean agertzen, nagusi bortitzik gabe, guzia
 Berak duelarik berainik jainkorik gabe beretik egiten.
 Ezen, oi jainkoen bihotz sainduak adin ezti bat eta bizi
 Bat gozoa deramazkizuenak bakezko gelditasunean!
 Nork osoan goberna dezake mugagabe dena, nork dezazke
 Gidatzeko neurrigabearen uhal azkarrak eskuan atxik,
 Nork itzul-araz dezazke zeruak elgarrekin eta nork ditu
 Aireko suen bidez hornituak ukaiten alhor emankorrek,
 Aro guzian eta leku guzietan nor egoiten aiduru
 Hedoez iluna dadin egin, ortzantzaz inharrosia dadin
 Izan zeru zoharra, zimiztak igortzen dituenen eta
 Zeruko temploak aurdikitzen, eta desertura gibelatuz
 Erotzen denean gezia hartuz, ainitzetan uzten baititu
 Gaixtoak eta biziz gabetzen hori merezitu(a) eztutenak?

- 1105 Eta mundua sortu zuen arotik et(a) itsasoaren eta
 Lurraren et(a) iguzkiaren jeikitzeke lehen egunaren
 Ondotik gai ainitz gaineratu zizaien kampotik, gaineratu ne
 Oso handiak inguruan egotziz bildu zituen haziak,
 Hortik itsasoa 'ta lurra handitzen ahalko baitziren eta
 Agertuko zeruen eremua 'ta jalgiko lurretik urrun
 Zeruen egoitzetako hegatz gorak eta airea jeikiko.
 Ezen alde guzietarik bakoitzari behar den gai guziak
 Elgar joitez banakatzen zazko 'ta badoaz bere motara,
 Hezeak uretara, lurra handitzen da gorputza lur dutenez,
 Suzkoek hornitzen dute sua 'ta airezkoek berdin airea;
 Eta handitzean azken bururano izan arteo helduak

Guzien egile den natura sortzaleak zituen bidatu;
 Horrek egiten du zain bizidunetan emaiten dena deusetan
 Eztela ja hor darion eta galtzen dena baino gehiago.
 Bakoitzaren adinak hortan egon behar du gauza guzientzat,
 Orduan naturak dituen indarrez berhapena gelditzen du.
 Alabaina berhapen alaietan handitzen ikusten ditukanek
 Et(a) adin betera heltzeko mailak diragatzatenek apurka,
 Igortzen baino gorputz gehiago hartzen dute bere barnean,
 Janari guzia zainetan errexki sartua denean eta
 Eztirenean hain zabal idekiak nun uzten eta gastatzen
 Direnak eztiren adinak jana baino ainitz gehiago.
 Ezen segurki gauzetarik gorputz ainitz ixurtzen eta joaiten
 Dela aithortzekoa da; baina ainitzek behar dute gehitu
 Handitzearen hegi gorena hunkituko duten baino lehen.
 Orduetik indarrak eta gemen adinera heldua gutika
 Dira hausten eta bizia da zati gaizkituenean urtzen.
 Ezen are handiago denean zerbait, ghendurik gehitzea,
 Are zabalago denean, alderdi guzietan orotarik
 Hain zuzen ainitz gai galtzen eta bere baitarik igortzen ditu,
 Ezta janari guzia zainetan errex ez aski banakatzen
 Hetarik herakian darioten uhain nasaieen ordaintzeko,
 Ahal dadin hortik berriz jaiio 'ta hornitu behar den bezainbat.
 Zuzen da beraz suntsi daiten ixurtxeaz direnean bekandu
 Eta kampotik ukan ukhaldien azpian guziek derorten,
 Adin handian janariak azkenean huts egiten baitu 'ta
 Gorputz joileak ezpaitira kampotik gauza baten ahultzetik
 Gelditzen eta gaizkiturik ukhaldiekin garhaitzen baitute.
 Berdin ere beraz mundu zabaleko harresiak inguruan
 Jaukiturik, hondakin ustelduetan erortzera joanen dira,
 Janariak alabaina guziak bete behar ditu berrituz,
 Eta hazkurriak guziak azkartu 'ta bere hartan atxiki,
 Ezin den gauza, zainek eztutelakotz aski luzaz jasaiten
 Iraupena 'ta naturak eztuelakotz hornitzen behar dena.

- 1150 Eta mendea jadanik hainbat da hautsia 'ta lur ezinduak
 Doi-doia dagitza bizidun ttipi batzu, hark zituena mota
 Guziak egin et(a) erditu basihizien gaitzeko gorputzak.
 Ezen, uste dutanaz, gainetik urrezko hari batek eztitu

Mota bizidunak utzi lurretara zeruetarik erortzen,
 Ez itsasoak ez joiten duten uhainek harriak eztituzte
 Egin, baina lurrak orai berak hazten dituenak ditu sortu.
 Gainera lehenik hark berak egin ditu berainik hilkorrentzat
 Uzta joriak et(a) ardantz emankorrek, doi-doia direnak orai
 Handitzen guk egiten dugun lanaren gostuz eta leherrarazten
 Ditugarik idiak eta laborarien indarrak ahitzen; burdina
 Higatzen ere dugu doi-doia gituztenean elgek hornitzen,
 Hainbaterano dira xuhur eta da berhatzen uztako lana.
 Jadanik laborari zaharra burua daldaran hasperenez
 Ari da, lan handiak usuago debaldetan jiten baitira,
 Eta gaurrengungo demborak iragan aroekin erkidatzen
 Dituenean, aitaren zoriona ainitz aldiz goresten du.
 Goibelik berdin ardantze zahar eihartuaren landatzaleak
 Aroaren egintza du salatzen, ogendatzen ere mendea,
 Erasian errepikatuz nola lehengo jende pietatez
 Beteak muga hertsietan bizia jasana zuen errexki
 Alhor eremua gizon arau ainitz ttipiago zelarik behin;
 Eztu gogoan hartzen guziak apurka suntsitzen direla 'ta
 Hil-khutzara joaiten, adinaren luzamen zaharraz ahituak.

*

*Liburu herena**(Epikuroz-i deia)*

- 1 « Ilunbe hain handietarik argi bat hain bizia jeik-arazi
 Ahal huena hik lehenik biziaren ongiak argiratzuz,
 Hiri narraikak, oi Greziarren ohorea, hire oinek utzi
 Hatzetan oinak orai ezartzen ditiat seinaleak harturik,
 Ez hainbat eztabadatzeko gutizian, hiri jarraikitze
 Diatan amorearen gatik baino: beltxargen kontra ainarak
 Bada zer egin dezake, zer berdinek ere lasterrean zaldi
 Azkar baten indarrak eta zango daldarariekin ahuñek?
 Hi hiz, aita, gauzen azmatzalea, hik dauzkiguk emaiten guri
 Aiten erakaskuntzak, eta, aiphatua, hire liburuetan,
 Erlek larre loreztatueta oro biltzen dituzten bezala,
 Guk ere berdin alhatzen ditugu hire hitz urrezko guziak,
 Urrezkoak baino beti gaiagoak betiereko biziko.
 Ezen hire dotrinak, gogo jainkotarretik sortua, oihukatzen
 Hasi zuenean gauzen natura zer den, ber orduan ihesi
 Joan ziren arimako beldurrak, baztertu munduko harresiak.
 Hutsaren osoan zehar ikusten ditut gauzak egiten ari.
 Agertzen dira jainkoen botereak et(a) egoitza baketsuak
 Haizek ehoiz inharrosten eztituztenak ez ureztatzen hedoi
 Euritsuek ez negu saminaz gogorturik elhur zuriak
 Erortzean andeatzen, eta aire hedoiez garbiak beti
 Inguratzen ditu, nasaiki hedatua den argiaz irritan.
 Behar guzier hornitzen daue bada naturak eta bakea
 Gogoan ehoiz ere gauza bakar batek eztaue han hunkitzen.
 Aldiz Akeron ibaiko temploak eztira hek nehoiz ageri;
 Eta lurrak eztu debekatzen, oinen azpian hutsean zehar
 Zer ere diren beherean gertatzen, guzien hautemaitea.
 Gauza horietaz hemen atsegin jainkotar batek eta laztak
 Hartua naute,, horrela hik dukan indarraz delakotz natura
 Alde guzietan zabaldurik ezarria hainbat agerian. »

(Arima 'ta gogo gorpuztekoak dira)

- 31 Gauza guzien gai lehenak nolakoak diren erakatsia
 Dotalakotz eta molde zein ezperdinetan berainik ibiltzen
 Diren betiko mugimendu batean inharrosiak bortizki,
 Ala zer araz ahal diren gauzak oro horietaz eginak,

Ageri da horien ondotik orai argitu behar dutala
 Gogoaren et(a) arimaren natura neure neurthitz hauen bidez,
 Et(a) Akeronaren beldurra behar dela zolarano bulzatu,
 Erroetarik baitaue bizia gizoner osoki nahasten
 Guziak estaliz heriotzeko beltzaz et(a) ezpaitu batere
 Uzten izan dadin goxagarria 'ta garbia den atsegirik.
 Ezen gizonek usu diotelakotz Tartaro 'ta hiltzez baino
 Gehiago behar dela lotsatu gaitzez eta desohorean
 Bizitzez, jakinez odolez egin dela gogoaren natura
 Edo berdin ere, hori badute behar bada gogoan, haizez,
 Eta zuzenez gure theorian eztela deus baliagarri,
 On duk hemen ohar hadin gogoak duela laudorio guraz
 Erasten gauzak berak phorogutzen duena baino gehiago.
 Jende berak herritik haizatuak eta gizonen ikuspenetik
 Urrun ihes joanak, bere gaizkintzaren desohorez ahalgeti,
 Azkenean bizitzen dira behargabe guziez lehertuak;
 Alta dohakabek diren lekuan hilak ohoratzen dituzte
 Eta bildots beltzak sakrifikatzen et(a) eskaintzak egiten hilen
 Arima sainduer eta gertaldi gaixtoetan saminkiago
 Oraino dituzte gogoak itzultzen erlisionera buruz.
 Are gehiago behar da aurkintza lanjerosetan behatu
 Gizonari 'ta nor den nahigabeko gertakarietan jakin;
 Ezen elhe zinezkoak golkoaren zolatik orduan dira
 Bakarrik jalgitzen, mozorroa da ghentzen, egia da gelditzen.

- 59 Azkenik aberastasunak et(a) itsua den ohore gurak ditu
 Gizaki dohakabeak eremaiten zuzenbidearen mugen
 Iragaitera 'ta noizten gaiztoen ide 'ta lagun izaitera,
 Gauen bai egunen eremaitera neke handienaren bidez
 Botere gorenera heltzeko: biziko zauri hauek eztute
 Bere zati ttipiena herioaren beldurrean alhatzen.
 Ezen ageri da gaitzespen ahalgegarri 'ta behar samina
 Ohiki badaudela bizi gozo 'ta baketi batetik urrun
 Eta herioaren athe aitzinean igurikan bezala.
 Hortakotz gizonen gezurrezkoa den lotsa batez bortxaturik
 Urrun ihes joan nahi dutenean eta hortik urrun baztertu,
 Bereak ontzen dituzte herritarren odolaz eta bikuntzen
 Amikaturik ontasunak, hiltzen gainean metatuz hiltzea,
 Anaiaren ehorte trixtean dira bozkariatzen, abreak,

Eta jendakien mahien beldur dira 'ta hastio dituzte.
 Molde berdinean beldur hortaz beraz gutizia ainitz aldiz
 Ahultzen da, begien aitzinean ikusiz baten boterea,
 Hari beha daudela, aitzina doala aiphamenen argian,
 Berak ilunbetan itzulika lohian daudelarik auhenka.
 Hiltzen dira batzu gizaidurien gatik, batzu aiphuaren.
 Eta ainitzetan hiltzeko lotsaz gizonek hainbat hartzen dute
 Biziazen hastioarekin argiaren ikustekoa nun
 Ilundurik bihotza berek baitute hilarazten bere burua
 Ahatzirik ithurburua beldur hori dutela nahigabek,
 Estimua horrek duela gaiztatzen, hausten adixkidantzako
 Gatinak, et(a) errespetu gorenetik bazter dadin aholkatzen;
 Ainitzetan jadanik herria 'ta guraso maiteak salatu
 Zituzten gizonek Akerongo lekuetarik baztertzekotan.
 Ezen haurrak ilunbe beltzean ikharan eta guzien lotsa
 Diren bezala guhaur berdin gira zenbait aldiz argi delarik
 Izitzen, haurrak ilunbean beldurtzen dituen eta geroko
 Asmatzen dena baino lotsagarriagoa deusetan eztenaz.
 Behar da beraz beldur hori 'ta gogoan ilunbe hori haiza
 Ditzaten ez iguzkiaren arraiek ez et(a) egun argiaren
 Geziek baina behatzeak naturari 'ta hunen itxurari.

- 94 Lehenik diot gogoan, ainitzetan adimen deritzoguna
 Hartan baitira biziko sendipena 'ta gobernua jarriak,
 Gizonaren zati bat da deusetan eskua 'ta oina baino
 Gutiago 'ta bizidun osoaren zatiak dira begiak.
 (...) (*Batzuek auberretan erraiten dute*)
 Eztela gogoko sendipena jarria leku segur batean,
 Baina bizitzeko soinaren izanara berezi zenbait dela,
 Greziarrek « harmonia » deritzotena, gu sendipenarekin
 Bizi girela badagiena, nehon eztagonean gogoan;
 Soinaren osasun ona dela ainitz aldiz erraiten denean
 Bezala, sendo denaren zati bat eztelarik halere hori;
 Eztute beraz gogoko sensua leku seguraren ezartzen,
 Ageri da hortan nitarik bertzela handizki huts dagitela.
 Hortakotz ainitzetan agerian ikusten den gorputz zati bat
 Eri da, bertze zati gorde batez bozten girenean halere;
 Eta kontrako moldera ainitzetan gertatzen denean aldiz
 Gogoan nahigabetua soin osoan bozkariotan dela;

Ezta bertze moldez gertatzen eritasunez oinak min duen
 Batean buruak orduan oinazerik bater(e) ezpaldin badu.
 Gainera soinadarrak lo gozo batean sartuak daudelarik
 Eta soin asebeta datzanean utzia sensurik gabe,
 Bizkitartean ordu hartan bertze zerbait ari da gure baitan
 Ainitz moldez higitzen eta baditu barnean bozkarioko
 Mugimendu guziak eta bihotzaren arrangura hutsalak.

- 118 Orai ezagun ahal dezakek arima soinadarretan ere
 Badela 'ta soinak ohian eztuela sendi harmoniarik.
 Lehenik ainitz ekhendua zakonean soinari gertatzen da
 Halere ainitz aldiz biziak badiraukula soinadarretan;
 Eta contra moldez beroko gai hek berak direnean guti
 Ihes joanak eta airea denean kampa bulzatu ahotik
 Bizi hark berak berehala zainak eta hezurak uzten ditu;
 Hortik jakin baitezakek eztituztela gai guziek egitekoak
 Berdin eta hein berdinean ezitutela laguntzen osasuna,
 Baina haizearen eta hats beroaren gaiak diren horiek
 Gehiago dagitela bizia dadin soinadarretan geldi.
 Badira beraz biziaren beroa 'ta airea gorputzean
 Berean, eta gure soinadar hiluranduak uzten dituzte.
 Horren gatik gogoaren et(a) arimaren natura gizonaren
 Zati bezala aurkitu delakotz, harmoniaren izen hori
 Itzul ezeek musikarier, ekharri die Helikon gainetik
 Edo berek hartu gero bertze nunbaitetik eta hortarano
 Erakharri horrek orduan izen berezirik etzuelakotz.
 Dena den, datxikatela; hik entzun ezak gainera diotana.

(Arima 'ta gogo hertsiki lotuak materiaz eginak dira)

- 137 Badiot orai gogoa bai arima bateraturik daudela
 Elgarrekin eta natura bakar bat dutela berez egiten,
 Baina gorputz osoan burua den bezala, dela nagusia
 Deliberamendua, gogo 't' adimendua deritzoguna guk.
 Eta horrek bere jarlekua bulharraren erdigunean du.
 Hor dira jauzten lotsa 'ta beldurra, leku horien inguruan
 Dute joiten bozkarioek: hor beraz adimena 'ta gogoa.
 Arimaren gainerateko zatia gorputz osoan hedaturik
 Agertzen da 'ta higitzen da gogoaren olde 'ta nahitara.
 Hunek du bakarrik berez jakiten eta berez bozkariatzen

Da deusek ezpaditu batean inharrosten gorputza 't' arima.
 Eta oinazeaz harturik buruak edo begiak gutan min
 Duenean soin osoan oinazerik eztugunean bezala,
 Berdin gogoak batzuetan pairatzen du berak edo bozturik
 Da bizkortzen, eztenean arimaren gaineratekoa berri
 Den deusez izaiten hunkia soinadarretan eta gorputzean.
 Baina beldur bizi batez gogoa denean inharrosiago
 Ikusten da soinadarretan arimak osoan ere senditzen
 Duela, badirela soin osoan izerdiak eta histura
 Eta mihia dela moteltzen eta mintzoa galtzen, begiak
 Lanhoztatzen direla, beharriak tutatzen, erortzen direla
 Zango-besoak, azkenean gogoko laztatzetik aintzetan
 Gizonak hiltzen direla; hortik nahi dukanak errex dezake
 Jakin arima gogoarekin batua dela 'ta gogoaren
 Indarraz jo denean hortik soina bulzatua dela 'ta joa.
 Arrazoin ber horrek erakasten du gogoaren et(a) arimaren
 Natura gorputzekoa dela; zeren ikusten denean aitzinera
 Soinadarren bulzatzen, lo denean gorputz eta aurpegiaren
 Itxuraldatzen, gizonaren manatzen et(a) aldarazten osoki,
 Dakusagunean holako deus ezin egin dela hunkitzerik
 Gabe, hunkitzerik ez ere gorputzik gabe, behar ez ote da
 Erran gorputzekoa dutela natura gogoak et(a) arimak?
 Ohartzen hiz gainera soinarekin batean artzen dela gogoa
 Gure baitan eta harekin batean ere duela senditzen.
 Geziaren indar latzak, bizia guti hunkia baldin badu,
 Barnera sarturik urratu dituenen hezur eta zainak
 Ahuldura bat jarraikitzen da halere, lurraren galde gozo
 Bat eta gero lurrean sortzen den gogoko nahasmendu bat
 Eta noiztenka zutik emaiteko nahikaria bat bezala.
 Behar da beraz gogoak duen natura gorputzez izan dadin
 Materiako gezien ukhaldiaz denaz geroz nekatua.

- 177 Hemen jarraikiko nuk orai hiri hitzen bidez arrazoinaren
 Emaiten gogoa nolako gorputzaz eta nundik den egina.
 Lehenik diot gai lehen ezin arinago 'ta ttipiagoez
 Egin izana dela. Gogoa behar duk itzulirik atxiki
 Hunara hori horrela dela beteki jakin ahal dezakan.
 Ageri da gogoak berak egitea xedaten duen eta
 Hasten baino deus eztela molde lehituagoan egiten.

Begien aitzinean ikusten den nahi den gauzarena baino
 Laster handiagoan da beraz gogoaren natura higitzen.
 Baina hoinbertzatarano higikor denak egin izan behar du
 Ezin biribilagoak eta xeheagoak diren haziez
 Olde ttipi batek bulzatu dituenean ahal daiten higi.
 Ezen bultzaldi den ttipiengan ura higitzen et(a) ixurtzen
 Da gai moldez itzulikari 'ta ttipiez denaz geroz egina.
 Aldiz eztiaren natura tinkiagoa da kontra moldean,
 Ixurpenean nagiagoa 'ta higitzean urriagoa:
 Alabaina materia zama guzia hartan eratxikitzen
 Da gehiago, gai lehen hain leunez ezteletak egin eiki
 Ez eta hainbat meheak eta hainbat biribilak diren gaiez.
 Ezen ere airean ufa bat arinak lo-belarraren hazi
 Meta gora bat gainaldetik barreatzera bortxatzen ahal dik,
 Ezer eztezakek aldiz harri 'ta buruxka meta baten kontra
 Egin. Beraz gai lehenak ttipienak eta leunenak diren
 Araura, berdinki higikortasunaz baliatzen ere dira;
 Aldiz noiz ere aurkituak diren phizu handiagorekin
 Eta latzagoak ukan dute hortik gelditasun gehiago.
 Orain beraz gogoak duen natura aurkitua denaz geroz
 Beteginki higikorra, beharrezko da dadin izan egina
 Gai lehen ezin gehiago ttipiez, leun eta biribilez.
 Ezagutu ditukan gauza hauk, oi hi zuzena, baliagarri
 Aurkituko dituk gauza ainitzetan eta behar orduetan.

- 208 Oraino gauza hunek ere horren natura zer den erraiten du,
 Zein egitura meheaz egina den eta zein leku ttipian
 Edukiko zen, izaiten ahal baliz tinkaturik atxikia,
 Ezen herioaren geldi segurrak gizona hartua duen
 Orduko 'ta gogoak et(a) arimak dutenean ihes egina
 Gorputz osotik, itxurak eztuela deusik galdu hautemaiten
 Duk, deus ez ere phizuak, herioak guziak hor uzten ditu,
 Ezpada bizitzeko sendimendua 'ta beroa duen hatsa.
 Behar da beraz osoan arima hazi ttipi-ttipiez izan
 Dadin zainbeltzetan, haltsarretan eta zainzurietan josia,
 Gorputz osotik guziak huts egiten duen orduan berean
 Kampoko lerroa soinadarretan oso denaz geroz halere
 Gelditzen eta galtzen eztuenaz geroz phizuaren izpi bat.
 Berdin da airatu denean Bakhuzen edariaren indarra

Edo gantzugailuaren usain ezta delarik ezeztatzen
 Airean edo gauza zenbaitetarik joaiten denean gostua;
 Halere gauza bera begier etzaie ttipiago(a) iduritzen
 Eta horren gatik etzako phizuan ezer izan ekhendua,
 Ageriki gauzetako gorputz osoan usaina 'ta gostuak
 Ainitzak eta ttipiak diren haziek egiten baitituzte.
 Horren gatik dakigula berriz eta berriz hazi xehe-xehe
 Eginik izana dela gogoaren et(a) arimaren natura
 Horiek joanik phizuan deusek huts egiten ez tuenaz geroz.

(Zer diren arimaren eta gogoaren natura osatzen dutenak)

- 231 Eztezagun bizkitartean sinets xoilak dela natura hori.
 Alabaina hilurranetarik badao hats arin bat beroaz
 Nahasia dena; beroak bada berekin derama airea,
 Eta berorik ehon ezta hartan airea nahasten eztenik;
 Argala delakotz alabaina haren natura, beharrezkoa
 Da haren barnean higi daiten airearen gai lehen anitzak.
 Jadanik hirurkun aurkitua da beraz arimaren natura;
 Eztira halere horiek guziak aski sensua sor dadin
 Adimenak ezpaitu hartzen egin dezaketela mugimendu
 Sendikorrik, adimenak azkenean ibilarazten duenik.
 Laurgarren natura zenbait behar zaie beraz horier oraino
 Eman gainera; hau izenik batere gabe gelditu da 'ta deus
 Hau baino mugikorra 'ta mehegoa denik ezta,
 Ez egin denik gai lehen ttipiagoez et(a) arinagoez;
 Soinean mugimendu sendikorren banakatzale lehena da.
 Alabaina gai ttipiez egin delakotz phizten da lehenik;
 Gero beroa, mugimendua 'ta haizearen indar itsua
 Hartzen ditu, gero airea, gero higituak dira guziak:
 Odolak diraki, 'ta haltsarrek orok orduan dute biziki
 Senditzen; azken hezurretara 'ta munetarano doanean
 Izaiten da noiz atsegina, noiz ere kontra moldeko sukarra.
 Baina oinazerik ezta sartzen ahal errex horrarano 'ta min
 Saminak iraun eztezake guziak nahasiak izan gabe,
 Hainbaterano nun eskasten baita bizi lekua 'ta baitoaz
 Ihes arimaren zatiak soineko hodi guzietan hara.
 Baina gehienetan soin azalak egiten du mugimenduen
 Muga: hortaz baliatzen baikira biziaren atxikitzeko.

258 Orai horiek elgarrekin nola nahasirik eta zeinekin
 Artha harturik azkartuak diren arrazoin emaiteko gura
 Aiten hizkuntzaren eskasak nahigabetarik eremaiten daut;
 Halere zerbait hunkiko dut gaingiroki hortarano heltzeko.
 Zeren hastapeneko gai lehenak mugimenduetan elgarrekin
 Lasterkatzen dira, hala nola nun ezerek bat ezpaitezake
 Berex ez eman bakoitzari bere dohain berezia lekuan,
 Baina gai bakar baten indarra ainitz balire bezala baita.
 Molde hortan orotara bizidunen nahi dukan haltsarrean
 Usaina 'ta margo zenbait eta gostua badira, 'ta halere
 Gorputzaren handitze bakar bat egiten da horietaz oroz;
 Horrela beroak, aireak, haizearen indaritsuak dute
 Nahasirik natura bakar bat egiten et(a) indar higitkor
 Hori, higitzen hastea bertarik bertzetara banakatzen du,
 Hortik da sortzen senditzeko lehen mugimendua haltsarretan.
 Ezen natura hori barnatuki gordea dago 'ta hori baino
 Gehiago deus ezta gure gorputzaren zolan badatzanik
 Eta gainer(a) arimaren osotasunean arima bera da.
 Gure soinarretan eta soin osoan gorderik gogoaren
 Indarra 't' arimaren boterea nahasiak badauden molde
 Berean, gai lehen ttipiez eta gutiez egin direlakotz,
 Berdin ere gai xehez egina den indar izen gabeko hori
 Gordea zaik eta gainer(a) arima guziaren arima baliz
 Bezala bera duk oraino gorputz osoarentzat buruzagi.

(Sendipenak eta itxurak)

282 Ara berean behar da hatsa 'ta airea 'ta beroa daiten
 Haltsarretan elgarrekin nahasirik egon azkar eta
 Bat bertzeren meneko 'ta bertze bat buruzagia dadin izan,
 Guzietarik ager dadin bakarra den zerbait egiten dela;
 Bertzela beroak eta hatsak berex eta hatsaren indarrak
 Berex suntsituko zuten sensua 'ta berex izanaz urtuko.
 Bero hori gogoan ere bada biltzen duena haserreaz
 Dirakienean begietarik phindarrak emanez saminki;
 Eta beldurraren laguntzeko badu hotza den airetik ainitz,
 Soinadarretan latzikhara sortzen duena 'ta higitzen soina;
 Oraino airearen izanara baketia badu gogoak,
 Bihotz gozatuan eta begitarte lañoan aurkitzen dena.
 Baina bero gehiago bada bihotza gogo haserretuaz

Sumindurik haserrez irakitzen zauetenen baitan errexki;
 Mota hortakoa da lehoinen indar ohila lehen-lehenik,
 Orroaz auhenka bulharrak ainitzetan urratzen baitituzte
 Eta haserren uhainak atxik zpaitezazkete bulharretan.
 Aldiz oreinen gogo hotza haize gehiago baduena da
 Eta haltsarretan emaiten ditu lehiatukiago hats hotzak,
 Horiek egiten baitute soinadarretan jiten den daldara.
 Aldiz idien jitea bizi da aire geldiago batean
 Eta haserrearen gar eta khe-pean ehoiz ezta sobera
 Nahasten, khe beltzaren itzalitsuak dituenen hadatzen,
 Ez eta beldurraren gezi hormatuak sarturik zurrundua:
 Jarria da bien, oreinen eta lehoin abrenaren artean.
 Horrela da gizonen mota: nahiz ikaskuntzak batzu leundu
 Dituen berdinki, bizkitartean horrek bakoitzaren arimak
 Ukan zuen naturaren lehenbiziko hatzak utziak ditu.
 Eta sinets eztezagun athera daitezkeela gaitzak errotik,
 Eztela haserre saminetan erortzera hau ixuriago,
 Eztela hori beldurraz gutiago laster hunkia 'ta heren
 Hark eztituela gauzak zuzen baino lañokiago hartuko.
 Eta behar da bertze ainitz gauzetan gizonen jiteak izan
 Daiten bereziak eta darraikeen bizi molde bat ezperdina;
 Ezteazket oraidanik erakuts horien arrazoin gordeak
 Ez gai lehenetan diren itxurak oro bezainbat izen aurki,
 Zeren hetarik baitira gauzen ezperdintasun horiek sortzen.
 Ikusten dut gauza horietan hau baieztatzen ahal dutala:
 Jitetako hatzak utziak direla hainbaterano ttipiak,
 Gure baitarik ezin ahal dezazkeenak arrazoinak ezaba,
 Nun ezpaitu deusek jainkoen heinean bizi gaiten debekatzen.

(Arima 'ta gorputza ezin berexiak dira)

- 323 Arima hori beraz begiratua da gorputzean guzian
 Eta bera da gorputzaren gerizatzale 'ta salbatzalea;
 Ezen elgarri dira lotuak elgarrenak dituzten erroez
 Et(a) agerian ezin berex daitezke suntsituak izan gabe.
 Ezta molde hortan errex isentsu bihietarik usainaren
 Ekhentzea nun ezten hondatzen ere haien izaitea bera,
 Berdin gorputz osotik gogoaren et(a) arimaren naturaren
 Atheratzea neke da, guziak barreatuak izan gabe.
 Gai lehenek bada haste-hastetik elgarrekin artekatuak

Erran den bizian zori berean hartuak izan behar dute;
 Eta bertze baten indarra gabe batek ezin dezake berez
 Ageriki gorputzaren eta gogoaren boterea sendi,
 Baina haien arteko bat eta bertzearen mugimenduetan
 Sortzen zaiku soinadarretan hara phiztua den sendimendua.
 Ageri da gainera gorputza bakarrik nehoiz eztela sortzen
 Ez handitzen eta hil ondoan berak iraupenik eztuela.
 Ezen urak ez bezala, hartua duen beroa ainitz aldiz
 Galtzen baitu bera horren gatik andeatu gabe baina baita
 Gelditzen oso, diot eztutela soinadar utziek jasaiten
 Ahal arimatik izaitea horrela berexiak, osoki
 Inharrosirik baitira suntsitzen eta gero hortik usteltzen.
 Adin hastetik horrela gorputzak et(a) arimak elgarrekilako
 Hunkitzetarik ikasten dituzte bizitzeko mugimenduak
 Amaren soinean eta sabelean errepikatuak ere,
 Hala nola nun ezpaitira kalte 'ta gaitz gabe berexten ahal.
 Ikus ezak, bizitzea dagiena dutenaz geroz elgarri
 Juntatua, haien naturak ere juntatua behar du beraz.
 Gehiago dena, norbaitek onhartzen ezpadu soinak duela
 Senditzen eta sinesten badu soin osoan nahasirik dagon
 Arimak duela sortzen sendipen deritzogun mugimendu hau,
 Ageriaren eta zinezkoen gauzen kontra du gudukatzen.
 Alabaina zer den soinak sendi duena nor ehoiz erranen du
 Ezpaldin bada gauzak berak eman et(a) erakatsia daukun hark?
 Baina gorputzak arima galdurik orotan sendipenik eztu.
 Alabaina bizi zelarik berea etzuen hura du galtzen
 Eta ainitz du galtzen oraino bizitik denean haizatua.
 Erraitea, gero, begiek ezer eztezakela hauteman
 Baina hetarik athe zabalduetik bezala gogoak duela
 Behatzen, neke da, horien kontra deramanean sendipenak;
 Ezen sendipenak ñiñika beretara joaitea bortxatzen du
 Hain zuzen argidunak eztezazkegunean ainitz aldiz ikus,
 Argi horiek begiendako trabak ekhartzen baitauzkigute.
 Athetan ezta hori gertatzen; alabaina handik so dagigun
 Leihoek idekirik eztute oinazerik ukaiten batere.
 Gainera baldin badira gure begiak athetzat ezarriak
 Ageri da begiak ekhendurik gogoak behar dituela
 Ikusi hobeki gauzak athe-tente ber horiez gabeturik.

- 370 Gauza horietan ez ahal duk hau neholaz heure gain hartuko,
 Demokritoz handiaren aburu sainduak ezarri baitzikan
 Gorputz eta gogoaren gaiak batzu bertzen gainean direla
 Aldizkatzen, ezperdintzen dituztela soinadarrak eta josten.
 Ezen gure soinak eta haltsarrak egiten dituztenak baino
 Ainitzez ttipiagoak direnean arimako gai lehenak,
 Zenbakiz ere dira gutiago 'ta han-hemenka bekan dira
 Soinaderretan hedatu, beraz hau bederen erraiten ahal duk:
 Gutan ezarri gai lehenek zenbat ere phitz ahal baitezazkete
 Sendikor diren mugimenduak, arimaren irazki lehenek
 Arteguneak elgarrekin dituztela bertze hainbertze handi.
 Alabaina gorputzean ezta batzuetan erhautsa senditzen
 Lotua delarik ez igorri den kleda soinean gelditua,
 Ez ere lanhoa gauaz ez et(a) armiarmaren sare meheak
 Bide aitzinean emanak joaiten inguratzen baikituzte,
 Ez buruaren gainean erori zaikun haren beraren axal
 Hingatua, xorien lumak eta lumatxak airean ez ere
 Arinegiak izanez emeki direnak ainitzetan erortzen;
 Eta herrestan ibiltzen den mamutxaren urratsak eztitugu
 Senditzen ez eta lesparek eta bertze guziek gorputzean
 Ezartzen dauzkiguten zangoek utzia duten hatz bere
 zia;
 Hainbaterano dira sustatu behar gure baitan gauza ainitz,
 Arimako gai lehen gure soinetan nahasiak inharrosi
 Ondoan, soinadarretan senditzen hasten diren baino lehen,
 Eta joak izan direnean arteka horietan aldizka
 Elgarretara bildurik joan ahal daiten eta jauzika daiten.
- 396 Eta gogoak ditu biziko giltzak atxikitzen arimako
 Indarrak baino gehiago 'ta nagusia da biziarentzat,
 Ezen adimen eta gogorik gabe gorputzean eztezake
 Arimaren zati batek ere dembora zati hertsu bat iraun;
 Baina haien lagun doa berehala 'ta airean ezeztatzen da
 Herioko hotzean uzten dituela soinadar hormatuak.
 Aldiz adimen eta gogo geldituak zazkona bizi dago,
 Nahiz inguru guzian urratu den soinadar xehatueta;
 Ebakirik inguruan eta soinadarretan joanik arima
 Bizi da bulharra 'ta hartzen ditu biziko airearen hatsak;
 Osoan ezpada, bederen arimako zati handi bat galdu

Duelarik biziari lotzen da halere 'ta hartan berantzen;
 Berdin inguruan begia zauriturik ñiñika baldin bada
 Salburik gelditzen, ikusteko boterea badago bizirik,
 Ezpaduk bederen andeatzen begiaren borobil osoa
 Eta mozten ñiñikaren ingurua 'ta hura bakarrik uzten,
 Zeren ezpaita hori gertatuko haien kalterik ere gabe.
 Aldiz begiaren erdigune ttipi hori gaiztatua baldin
 Bada, bertan argia hiltzen da 't' ilunbeak jarraikitzen dira
 Borobil distiranta bertzela nahi bezain oso gelditurik.
 Arima 'ta gogo batasun hortan lotuak daude betiko.

(Gorputzarekin arima eritzen da, sendatzen eta hiltzen)

- 417 Orai bada, jakin ahal dezakan bizidunetan sortu diren
 Eta hil behar duten gogoak et(a) arimak arinak direla,
 Lan ezti baten bidez luzaz egin diatanaren ezartzen
 Hire biziaren heineko diren kantuetan nuk jarraikiko.
 Heur(e) aldetik harzkik bat eta bertzea izen ber baten azpian
 Eta jarraikiko nizanean hitzetan erakasten arima
 Dela hilkor erranez, gogo(a) ere baderratala sinets ezak,
 Elgarrekin bilduak direnaz geroz eta gauza bat bakarra.
 Hastean erakatsia dutalakotz arima mehea gorputz
 Tipiezin egin dela 'ta hezea den uraren, lanhoen edo
 Khearen gaiak baino ainitz ttipiangoak diren gai lehenez,
 Alabaina higikortasunaz urrundik lehenbizikoa da
 Eta higitzen da jo delarik ukhaldi ainitz arinagoez,
 Khe 'ta lanhoen itxurak aski dituenaz geroz higitzeko.
 Loan zurrunduak gaudenean molde hortan dugu hautemaiten
 Aldarek lanhoa goiti digortela 'ta khea dariotela
 Ezen ezta dudarik horien itxurak zaizkula hor ekhartzen.
 Orai beraz inharrosten diren untziak alde guzietara
 Uraren ixurtzen eta barreatzen ikusten ditukalakotz
 Eta airean barreatzen direlakotz hedoiak eta khea,
 Sinets ezak arima dela berdin ixurtzen eta hiltzen ainitz
 Lasterrago 'ta gai lehenetan barreatzen ere lasterrago,
 Giza-soinadarretarik ekhendurik joana den orduan zuzen.
 Alabaina gorputzak, haren untziaren idurikoa baita,
 Gauza zenbaitez inharrosirik eduk ahal ezteakeenean
 Eta zainetan galdurik argalagotua denean odola,
 Sinetsiko duk arimak eduk ahal dezakeela aire zenbait,

Edukitzeko gure gorputza baino denean argalagoa?
 Gainera senditzen dugu sortzen dela gorputzarekin batean
 Adimena 'ta harekin handitzen eta berdin zahartzen dela.
 Ezen haurrak gorputz ahul eta beratz batekin ibiltzen diren
 Bezala, berdin gogoko zuhurtzia mehe jarraitzen zaie.
 Hortik soina duenean indar azkarrez inharrosten adinak
 Zentzu gehiago bada 'ta gogoaren indarra handiago.
 Gero soinadarrak direnean indar ahulduetan aurdiki,
 Jainua maingutzen da, mihia zezeltzen et(a) adimena galtzen,
 Huts egiten dute guziek et(a) aldi bakar batez joaiten dira.
 Onhartu behar da beraz arimaren natura guzia berdin
 Ezeztatzen dela, gainaldeko airetan hara, khea bezala,
 Berdin sortzen dela 'ta berdin handitzen ikusten dugunaz geroz
 Eta batean, erakatsi dut, ahitzen adinaz unhatua.

- 459 Hemen da gertatzen ikusten dugun bezala gorputz horrek berak
 Erasun gaitzekoak hartzen dituela 'ta gogor oinazea,
 Gogoak berdin griña samin batzu, biotzminak eta beldurrak:
 Zuzen da beraz heriotzeko partaidea dadin izan ere.
 Horrela gorputzaren eritasunetan gogoa ainitz aldiz
 Galdua badabil, arrazoinetik urrun eroki mintzatzen da,
 Eta batzuetan lozorro phizu batek harturik eremaiten
 Da, begiak eroririk eta burua, lo bete betekora,
 Eztituelarik hor mintzoak entzuten ez ezagutzen ahal
 Bizira berriz deituz haren inguruan daudenen aurpegia,
 Nigarretan bustitzen dituztelarik ahoak eta matelak.
 Behar da hortakotz ezeztatzen ere dela gogoa aithortu,
 Eritasunaren khotsuak haren baitan sartzen direnaz geroz.
 Ezen eritasun eta min, biak hiltzearen langile dira,
 Ainitzen hiltzetik girenaz geroz ja hortaz osoki jakinak.
 /Eta gorputzak eri den gogoa sendarazten duen bezala
 Berdin ere gorputz bat ahuldua du sendarazten adimenak./
 Azkenik, arnoaren indar bizkorra gizonaren baitan sartu
 Delarik eta hedatu duen beroa banakatu zainetan,
 Soinadarretan phizutze bat jarraitzen zako, haldamaldaka
 Traban dira zangoak, gogortzen da mihia, gogoa mozkortzen,
 Bustitzen begiak, azkartzen dira oihua, zotinak, aharra,
 Eta horrelako gauza guziak orduan dira jarraitzen.
 Zergatik horiek, ezpaldin bada baizik ohi den bezala

Arnoaren indar bortitzaz gorputzean arima zentzordatzen?
 Elgar nahastekatzen eta trabatzen ahal diren gauzak oro
 Bada, hetan sartzen baldin bada guti gogorragoa den zerbait,
 Ethorkizuna galdurik suntsituko direla gertatuko da.

- 496 Ainitz aldiz ere gaitzaren indarraz bapatean bortxaturik
 Norbait gure begien aitzinean, iduri aire gaixtoz joa,
 Erortzen da heldarra dariola, auhenka hasten, daldaratzen,
 Nahasten, zainetan gogortzen, bihurtzen, noiztenka
 Hats-bahitzen, eta jauzikatsetan akhitzen ditu soinadarrak,
 Gaitzaren indarrak soinadarretara hedaturik ageriki
 Arima nahas-arazten baitu hagunkatuz, itsaso gazian
 Haizearen indar azkarretan uhainek dirakiten bezala.
 Gero auhena jalgitzen da soinadarrak oinazeaz hunkiak
 Direlakotz eta mintzoaren haziak direlakotz osoki
 Sustatzen et(a) ahotik kampaora direlakotz metan eremaiten
 Ohi duten bezala handik ukana baitute bere bidea.
 Burzoratze bat egiten da nahasia delakotz gogoaren
 Et(a) arimaren indarra 't' erakatsia dutan bezala bera
 Zatikaturik barreatzen da, urratua phozoin hortaz beraz.
 Hortik itzuria deneko gaitz emalea 'ta gordalekura
 Berriz itzulia soin andeatuko zital samina, orduan
 Haldamaldan bezala lehenik zutitzen da 'ta gutika sensu
 Guzietara berriz itzultzen eta bizia du berriz hartzen.
 Beraz horiek gorputzean berean inharrosiak badira
 Hainbat eritasunez eta hautsirik hertsatzen molde trixtetan,
 Zergatik uste duk horiek berak daitezkeela gorputzik gabe
 Aire betean haize bortitzenekin bizirik egoitera joan?
 Eta sendatzen ikusten dugulakotz adimena hala nola
 Gorputz eria 'ta medikuntzat ikus daitekeela menperatzen,
 Gogoa hilkorra dela bizitzen iragartzen du horrek ere.
 Ezen berdin da zatiak emenda daiten edo lerrotik bazter,
 Edo dadin izan izpi zenbait osotasunetik ekhendua,
 Norbait doanean xede baten aldatzera 'ta denean hasten
 Ala behar duenean nahi dukan bertze bauza bat aldatu.
 Hiltzerik eztuen zerbaitek aldiz ezta nahi zakizkion
 Alda zatiak ez eta hartarik ixur dadin izpirik batere;
 Ezen aldaturik zerbait athera denean bere mugetarik
 Aitzinean zen harentzat orduan berean heriotzea da.

Gogoa beraz eritzen da, badematza hiltzeko seinaleak,
 Edo, nik erakatsi bezala, sendagailuak hobekitzen du.
 Ageri da hutsez den arrazoinaren aitzinean hainbatean
 Dela nagusitzen egia 't' ihes egiten tratatzen duela
 Eta bi buruetan ezetsiz hutsa daukola aithorr-arazten.

- 535 Azkenik ainitz aldiz ikusten dugu gizona joaiten gutika
 Eta biziko sensua galtzen duela soinadarrez soinadar,
 Lehenik oinetan erhiak et(a) azkazalak ubeltzen direla,
 Hortik oin eta zangoak hiltzen, gero herio hormatuaren
 Seinaleak emeki doazelarik bertze soinadarretara.
 Et(a) arimaren natura hori hausten denaz geroz, ephe bakar
 Batez ez osorik gelditzen, hilkorra dela gogatu behar da.
 Uste baduk behar bada soinadarretarik bera joaiten ahal
 Dela barnera 'ta zatiak batean biltzen ahal dituela
 Eta hortakotz deramala sensua soinadar guzietarik,
 Bizkitartean arimaren hainbateko zatia bildu den leku
 Horrek aldiz agertu behar dik sendipen handiago batean.
 Ehon eztelakotz hori, segurki, aitzinean erran duguna
 Bezala, zatikaturik kampoan barreatzen da, beraz hiltzen.
 Oraino bada hutsezkoa den gauza bat nahi baliz onhartu
 Eta hilurranek zatiz zati uzten dituztenean argiak
 Erran arima haien gorputzean metatuz biltzen ahal dela,
 Arima bera hilkor dela aithortu behar da bizkitartean,
 Ala airetan hara barreaturik suntsi dadin ala bere
 Zatiatarik metan jarritz balditurik egon eztu muntarik,
 Orotarik gizon osoa duenean gero 'ta gehiago
 Sensuak uzten, are gutiago denean bizitik gelditzen.
 Eta gizonaren zati bat denaz geroz adimena 'ta leku
 Segurrean ezarririk egoiten, edo beharri 'ta begiek
 Eta biziaren buruzagi diren bertze sensuek bezala,
 Edo gur(e) eskuek, begiek eta sudurrak bezala, gutarik
 Bereziak izanik senditzen ez bizitzen ahal ezpaitute,
 Aldiz hain ephe laburrean usteltzen baitira, gogoa berdin
 Izaiten ahal ezta bera gorputzik gabe 'ta gizona bera
 Gabe, haren untzia baliz bezala zaikonaz geroz agertzen
 Edo hari josiagoko bertze zerbait asmatu nahiago
 Baduk, gorputza lokailu hertsiz eratxikia zaikonaz geroz.

(Bizitzeko arimaren eta gorputzaren ahalek batuak behar dute)

- 567 Azkenik gorputzaren eta gogoaren botere biziduna
 Elgarrekin uztarturik azkarrak dira 'ta gozatzen bizi-az;
 Eta beraz mugimendu biziduna bakarrik gorputzik gabe
 Gogoaren naturak ezpaitu berez egiten ahal, arimak
 Ere gorputzaz husturik iraun ez sensurik ukan eztezake.
 Segurki begiak berak erroetarik atherarik gauza bat
 Ikusten ahal eztuen bezala gorputz osoan, berdin ere
 Arima 'ta gogoak ageri da berez eztagiketela deus.
 Segurki zainbeltzetan eta halsarretan izanez nahasiki
 Gorputz osoaz edukiak dira zainetan eta hezurretan,
 Eta gai lehenek arte handietan librerik eztezakete
 Jauzirik egin, horren gatik dira hetsiak izanez higitzen
 Mugimendu sendikorretan; baina soinetik kampaora aireko
 Hatsetara hil ondoan egotzirik eztira higitzen ahal
 Zeren eta molde berean edukiak izaiten ezpaitira.
 Alabaina airea gorputz eta bizidun izanen da, hartan
 Arima ber(a) egonen ahal bada 'ta hor egin badezazke
 Aitzinean zainetan eta soinean zegitzan mugimenduak.
 Beraz berriz eta berriz barreaturik soinaren azal oro
 Eta biziko hatsak egotzirik kampaora, sensua gogoan
 Urtzen dela aithortzea beharrezkoa da 'ta berdin arima,
 Ethorkia bientzak elgarri loturik izana denaz geroz.
- 588 Azkenik gorputzak jasan eztezakeenean berex izaita
 Arimatik, usteltzera joan gabe higungarri den urrinean,
 Zergatik dudatzen duk arimaren indarra delarik jalgia
 Barne-barnetik ixuriko dela khea bezala barreatuz,
 Eta hortako gorputz aldatua hondamen hainbat ustelera
 Eroriko dela, 'ta lekutik osoki higitu direlakotz
 Arimaren oinarri direnak ixuriko direla kampaora
 Soinadarretarik eta soineko bide bihur guzietarik
 Eta xiloetarik? Ainitz molde jakiten ahal duk horrela
 Arimaren natura zatitua soinadarretarik jalgitzen
 Dela 'ta ja gorputzean berean urraturik izana dela
 Kampaora airearen hatsetan utzirik airatu baino lehen.
 Gehiago dena biziko mugak dagienean gibelera
 Ikusten dugu halere ainitz aldiz arrazoin zenbaiten gatik

Arima aurdikia joaiten eta soin osotik urruntzen dela
 Et(a) azken orenean bezala begitartea dela langitzen
 Eta soinadar gurituak odol-husturik erortzen direla.
 Horrela da histura badela gogoan erraiten denean
 Edo gaizkitzen arima; jadanik khexu dira guziak eta
 Nahi dute biziaren azken esteka berriz hatzeman dadin;
 Ezen orduan adimena 't' arimak duen botere guzia
 Inharrosiak dira 'ta aurdikiak gorputzarekin batean,
 Hala nola nun gaitz gutiago larri batek suntsi baitezazke.

- 611 Dudatzen duka halere soinetik aire zabalera denean
 Izan ahuldurik igorria, bere gerizagailua gabe,
 Eztuela mende guzietan zehar irauten ahal bakarrik
 Baina nahi dukan bezain ephe ttipian izan eztaitekeela?
 Alabaina hiltzera doan batek agerian eztu senditzen
 Bere soin guzitik arima badoakola salburik kampa,
 Ez eta zintzurrera 't' ahorano aitzinatzen dela lehenik,
 Baina han jarria den alderdi segurrean ezeztatzen dela,
 Badakien bezala, bakoitza bere lekuan, bertze sensuak
 Urtzen direla. Heriotzerik gabea baliz gure gogoa
 Hiltzean etzen urtuko hoinbertzeranoko auhen eginez,
 Hobeki kampa joanen zen utziz azala, sugeak bezala.
 Azkenik gogoaren adimena 'ta deliberoa zergatik
 Ez ote dira nehoiz jaiotzen buruan edo oinetan edo
 Eskuetan, baina dira jartzen leku bakar eta guzientzat
 Segurretan, jaiotzeko leku segurrak emanak ezpazazko
 Bakoitzari, bakoitzak egin den lekuan irau ahal dezan
 Baizik, eta ainitz moldetan soinean banakaturik horrela
 Ehoiz soinadarren ordenua kontra-moldean izan ezta din?
 Hain da gauzari gauza jarraikitzen eta garrik ohian ezta
 Ibaietan egiten eta suan ezta hotz saminik sortzen.
 Gainera heriorik gabe baldin baliz arimaren natura
 Eta senditzen ahal baldin balu gure soinetik berezirik,
 Uste dutanaz ahal hori bortz sensuer eman behar zaie.
 Eta guk eztugu bertze moldez guhaurentzat itxuratzen ahal
 Ifernuetara joan arimak Akeron aldean dabilzala.
 Hortako zituzten margolariak eta aitzineko mendetan
 Idazlek arimak bere sensuez dohatuak han sarr-arazi.
 Aldiz arimak ezin dezazke berezirik ukan begiak ez

Sudurrak ez eskuak berak ez beharriak ez eta mihia;
Beraz eztu ber-berak senditzen ahal, eztaiteke berez izan.

(Arima hilkorra da)

- 642 Eta senditzen dugunaz geroz gorputz osoan izaiten dela
Biziko sensua 'ta dakusagunaz geroz osoa bizitzen,
Ukhaldi laster batez erditik baldin bada bapatez moztua,
Zati bakoitza berex geldi dadin, ezta dudarik arimaren
Indarra soinarekin moztua harekin dela berexten ere.
Baina hausten denak eta berexten denak nahi den zatietan
Natura duela betikotzat agerian ezetz erraiten du.
Badiote ainitz aldiz orga segadunek soinadarrak gerlan
Berotuak hain bapateko mozteaz ebakitzen dituztela
Nun soinetik mozturik eroriak lurrera daldaran ikusten
Baitira, gaitzaren lasterraz gizonaren adimenak halere
Eta gemenak eztutelarik han oinazea senditzen ahal;
Et(a) aldi berean gogoa guduko lanean hartua baitu,
Gudu 'ta sarraskia bilatzen ditu gelditu zakon gorputzaz;
Eztu ainitz aldiz erredolarekin hartua zakon ezkerra,
Eremana denean zaldien, erroten eta sega mozlen erdian;
Ez bertze batek galdu duen eskuna, goiti doa 'ta han dago;
Gero bertze batek zutik eman nahi luke zangoa mozturik
Oin hiltzera doanak lurrean erhiak higitzen dituela.
Eta soingain bero 'ta bizitik moztua den buruak lurrean
Aurpegia bizi 'ta begiak idekirik atxikitzen ditu,
Berriz utziak eztituen arteo gogoaren ondar guziak.
Oraino gehiago, jalgitzen dikanean sugeak mihia,
Buztana mehatxutan, gorputza luzatuz, biak nahi badituk
Burdinarekin zati ainitzetan elgarretarik berex utzi,
Ikusiko dituk guziak ukhaldi hortaz berriki mozturik
Bihurdikatzen odol phozoinduaz ihiztatzen dutela lurra,
Buruko zatia gibelera bertze baten bilatzen ahoaz,
Zauriaren oinaze biziaren gatik egin nahiz ausiki.
Erranen dugua beraz badirela horietan guzietan
Arima bereziak? Arrazoin hortarik alta jarraiko da
Bizidun bakar batek ainitz arima badituela soinean.
Beraz soinarekin batean zatitua da bakar izan zena;
Hortakotz gogatu behar da bata 'ta bertzea direla hilkor
Ainitz zatietan moztuak izaiten direnaz geroz berdinki.

Gainera heriotze gabea baldin baliz izan arimaren
 Natura 'ta sortzen direner gorputzean sartzen baldin bazaie,
 Zergatik ezin orhoit gaitzke bizia jin baino lehen zenaz,
 /Nolaz ahazten ere da noiz edo noiz egin izana den hura/,
 Eta zergatik eztugu gertatu direnen hatz bat atxikitzen?
 Zeren aldatu bada gogoaren boterea hainbaterano
 Nun egin izan diren gauzen orhoitzapen guzia baita joaiten,
 Uste dutanaz, eztabila hori heriotzetik urrunegi.
 Horren gatik aithortu behar da hila dela aitzinean izan
 Zen hura, 'ta zer ere den orai, orai eginik izana dela.

- 688 Gainera gorputz ja betegin batera sartzen baldin bada gutan
 Ohiki gogoaren botere biziduna noiz ere baigira
 Jaiotzen eta biziaren alharzean noiz ere giren sartzen,
 Etzen egoki gorputz eta soinadarrekin batean horrela
 Odolaren barnean berean dela handitzen iduri luen;
 Baina behar zuen ber-berak kaiolan bezala bakarrik bizi,
 Bederen gorputz guzia betea dagon bezala sendipenaz.
 Hortakotz gogatu behar dugu berriz eta berriz eztirela
 Arimak hastapenik gabe 'ta salbuak herioko legetik;
 Ezen ezta gogatu behar gure gorputzetan hain hertsiki
 Estekan izanak ahal direla kampotik barnera sarturik,
 Gauzak agerian baiterakatsa kontra gertatzen osoki.
 Ezen halako moldean lotua da zain-beltzetan, haltsarretan,
 Zain eta hezurretan, nun hortzak ere sendipenean partaide
 Baitira, derakusten bezala haien erasunak, ur hotzaren
 Sistak, eta harri gogorak jatean zapaturik ustegabe.
 Eta, hain josiak direnaz geroz, iduripenik eztu joaiten
 Ahal direla garbirik eta berak liberatzen ahal salbu
 Zain eta hezur eta juntura guzien artetik; uste baduk
 Ere behar bada kampotik barnera sarturik arima gure
 Baitan ohitua dela soinadar guzietara barreatzen,
 Are gehiago da gorputzean ixuri dena suntsituko,
 Ezen barreatzen dena urtzen da, beraz hiltzen:
 Arima bada gorputz guziko larxiloetarik ixurtzen da.
 Janaria soinadar eta haltsar orotan hedatu denean
 Suntsitzen den eta bertze natura batez ordaintzen den bezala,
 Berdin arima 'ta gogoa soin berrira nahi bezain osorik
 Doazenak, halere hedatzen direnean barreatzen dira,

Larxiloetarik soinadar guzietan ixurtzen direnean
 Gai xeheak, gogoaren natura hetaz egin izana baita,
 Eta soinadarretan zatiturik orduan suntsitu zen hortarik
 Sortua denak orai baitu gure gorputzean nagusigoa.
 Ageri da hortakotz eztela naturaz arima sort-egun bat
 Ukan eztuena 'ta berdin eztela heriotzerik gabea.

- 722 Gainera gorputz biziaz gabetuan arimaren haziak ez
 Ote dira gelditzen? Eta hartan hetsiak gelditzen badira
 Ezin izanen da zuzenez atxik ahal dadin hiltzegabetzat,
 Gibelatu denaz geroz zati batzuen galtzeaz ahuldua.
 Bertzela joana baldin bada soinadar sanoetan ekhendurik
 Hala nola nun ezpaitu beretik batere gorputzean utzi,
 Nundik dituzte hilkiek haltsar jadanik ustelduetan harrak
 Sortzen eta nundik da bizidun elementia hainbatekoa
 Odol eta hezurrik gabe soinadar hantuetan ibiltzen?
 Uste baduk behar bada harretan kampotik arimak direla
 Sartzen eta gorputz bakoitzara banazka direla jiten ahal,
 Ehagoa galdez ere zergatik bizidun ainitzak milaka
 Biltzen diren bakar bat joan zen lekuan? Hau ere bizkitartean
 Ageri da behar dela galdegin eta solasean ezarri:
 Azkenik arimek halere mamutxa horien guzien gaiak
 Haizatzen dituztenez hartan dauden lekuaren moldatzeko,
 Ala gorputz betegin batzuetara bezala sartzen direnez.
 Aldiz zergatik hori berek dagiten ala zergatik nekea
 Hartzen duten erraitea, horrek eztauku hornitzen. Eta beraz
 Gorputzik ez ukanez, erasun, hotz ez gosez axolatu gabe
 Dabiltza, gorputza nekatuagotzen dutelarik gaitz horiek
 Eta gogoak horren khotsutik hartzen duelarik ainitz kalte.
 Baina halere hetan sartzean gorputz egitea nahi bezain
 Baliagarri zaien, ezta har dezaketen biderik ageri.
 Arimek beraz eztagite beretzat gorputzik ez soinadarrik.
 Eta bederen ezin da sar daiten gorputz ja beteginetara,
 Alabaina haier etzezte hertsiki josiak izanen ahal,
 Elgar akomeatuz eztituzte hunkitzeak eginen ere.
- 750 Azkenik zergatik da trixteki bortiztasun abrea lehoinen
 Arrazan jarraikitzen, amarru(a) azerien, oreinen ihesa?
 Aitetarik eman da 'ta aiten lotsak ditu hartzen gorputzak.

Eta mota hortako bertze guziak zergatik sortuak dira,
 Ezpada ja soinadarretan adin hastean eta bakoitzaren
 Jitean bere hazi segur eta motan gogoaren indarra
 Arau berdin batean gorputzarekin handitzen ere delakotz?
 Eta hiltze gabe baliz gogoa 'ta gorputzez alda baladi
 Ohiki, bizidunak lizatezke bizimoldetan nahasiak,
 Hirkaniano zakur arrazak ainitz aldiz ihes legioke
 Orein adardunaren lasterrari 'ta haizearen ufan jiten
 Denean urzoa belatza zen ihes eginez ikharatuko,
 Ero zatezkeen gizonak eta basihizien motak jakintsun.
 Ezen arrazoinenez hutsezkoa da batzuek erraiten dutena
 Hiltzerik eztuen arima dela gorputzez aldatu itzultzen,
 Zeren aldatzen den hura barreatzen baita, beraz suntsitzen da;
 Arima zatiak lekuz aldatzen dira 'ta joaiten ordenutik;
 Hortakotz ere soinadarretan urtuak izaiten ahal dira,
 Guziak azkenean ahal daiten suntsi soinarekin batean.
 Bertzela berrate gizonen arimak beti giza-soinetara
 Doazela; galdeginen dut halere zergatik jakindurutik
 Egin daitekeen zozoa, 'ta zuhurra den haurrik ezten bat ere,
 Ez ere trebez zaldia bezain azkar den behorraren pullorik
 /Bere haziaz et(a) arrazaz segurrak direlakotz ezpada/.
 Ageri da gerizatuko direla gorputz mardoan erranez
 Adimendua dela mardotzen: orduan behar da aithortu
 Arima hilkor dela, gorputzez aldatuz hainbaterano galtzen
 Dituenaz geroz bizia 'ta aitzinean zuen sendipena.
 Eta gogoaren indarrak soinarekin batean azkarturik
 Adinaren lore hain gutiziatua nola hunki dezake
 Izan ezpaldin bada partaide harekin ethorki lehenean?
 Eta zergatik du soinadar zaharretarik kampa joan nahi?
 Ala beldurtua da gorputz ustelduan hetsirik egoiteaz
 Et(a) adinaren aro luzean ahiturik ikustez etxea
 Lehertzen? Hiltzegabearentzat aldiz ezta batere lanjerrik.
 Azkenik Benuz-en ezkontza 'ta basihien erditzetara
 Aiduru daudel(a) arimak ezin irrigarriago d(a) agerian,
 Eta hiltzegabeakoak mugagabe zorbakian daudela
 Gorputz hilkorren igurikatzen eta lasterretan elgarrekin
 Gudukan ari direla zein den lehena 'ta hobe sartuko;
 Arimek egin hitzarmenak ezpadira beharrez halakoak
 Nun hegaldaka lehenik ethorriko den hura sartuko baita

Lehenik, indarretan elgarrekin ez gudukaturik izpi bat.

- 793 Azkenik airean zuhatzik ez itsas-zolan hedoirik ezin da
 Izaiten ahal, arrainak eztira biziten ahal alhorretan,
 Eta zuretan odolik ezta, 'ta harrietan ez urik ere.
 Bakoitza jarri da segurki nun den handitzen eta nun egoiten.
 Eztaiteke horrela gogoaren natura sor gorputzik gabe,
 Bakarrik, ez izan ere zainetarik urrunegi 't' odolietik.
 Ezen izaiten ahal baliz hori, gogoaren indarra bera
 Lehenago buruan edo soingainetan, aztaletan izaiten
 Ahal zen, eta nahi dukan zatian sortzen ohi lizateke;
 Bizkitartean egonen zen gizon berean et(a) untzi berean.
 Gertatzen denaz geroz ere gure gorputzean segurra dela
 Nun ezarri diren, nun agerian izan eta handi daitezkeen
 Berainik arima 'ta gogoa, zenbat ezta behar gehiago
 Ukhatu soinetik kampoan izaiten ahal direla 'ta sortzen!
 Horren gatik, gorputza hiltzen den orduan, aithortu behar dugu
 Arima suntsitzen dela gorputz osoan urratua denean.
 Ezen alabaina betikoa denari hilkorren lotzea
 Eta gogatzea batean sendi dezaketela 'ta lan egin
 Erokeria da; zer ezperdinago denik behar da gogatu
 Edo bereziagorik eta gaizkiago denik elgarrekin
 Joaiten hilkorra hiltzegabe 'ta betikoari juntatu dena
 Baino, batasunean jasaiten dituztenean ekaitz bortitzak?
 Gainera behar da zein gauzek ere badirauten betiereko
 Ala gorputz azkarra dutelakotz ukhaldiak igor ditzaten
 Gibelera 'ta jasan eztezaten zerbait sar dadin haien zati
 Tinki hertsia berexten ahal dituen, materiaren gaiak
 Diren bezala, horien natura aitzinean erakutsia baitugu,
 Ala hortako bereko dezaten iraun ahal aro guzian
 Zauriez hunkiak izaiten eztirelakotz hala nola hutsa,
 Osorik baita gelditzen eta jasan gabe joiterik izpi bat;
 Ala lekuak eztirelakotz inguruan batere nasaiki
 Hartan barreatuak bezala daiten gauzak et(a) urtuak izan;
 Horrela guzien osoa betikoa da, 'ta kampoan ezta
 Lekurik hara gaiek ihes egiten dezaketenik, ez gorputzik
 Han sar daitezkenik eta dezaketenik azkarki joz barrea.

- 828 Eta beraz are gehiago hartzeko bada hiltzegabetzat

Arima bizitzeko gauzez hornitua denaz geroz eduki,
 Ala salbatzearen etsaiez eztelakotz batere jaukitzen,
 Ala jiten direnak arrazoin zenbaiten gatik gibelera
 Bulzatu baitira gaitz dagitela sendi dezakegun baino lehen,
 (...)

Utzirik soinararen erasunez duela pairatzen alabaina,
 Gertatzen da ainitz aldiz horrek mintzen duela geroko gauzez,
 Baduela hortan beldur gaitza 't' axolatzez akhitua dela,
 Eta oinazkatzen dutela aitzinean eginak diren hutsek.
 Emazkik gogo beraren erotasuna 'ta gauzen ahaztea,
 Emak oraino murgiltzen dela lozorroaren uhain beltzetan.

(Heriotzea liberatzea da. Naturaren mintzaldi alegiakoa)

840 Deus ezta beraz guretzat hiltzea 'ta muntarik ezta batere
 Gogoaren naturak hilkortzat atxiki behar duenaz geroz.
 Eta saminik deus iragan arotik eztugun bezala sendi
 Alde guzietarik Pœniarrak gudukara jin zirenean,
 Gerlako harrabots nahasiaz oro batzituzten inharrosi
 Lazturaz ikharatzen zirela zeruko aire goren azpian,
 Eta gizon guziak dudan egon baitziren bietarik zeini
 Eroriko zizakon erreinua bai lurrean bai itsasoan,
 Berdin, izanen ezkirenean, gorputz et(a) arima berexiko
 Direnean, hetaz egin baigira batasunean egokiak,
 Ageri da, guhaur izanen ezkirenean, ezer etzaikula
 Gertatzen ahal eta deusek eztauzkula higituko sensuak,
 Itsasoan lurra, zeruan itsasoa nahasten baliz ere.
 Eta gure soinetik berexiak izanik gogoko naturak
 Et(a) arimaren botereak orduan senditzen baldin badute,
 Halere deus ezta guretzat, gorputzaren et(a) arimaren biltzez
 Eta juntatzez batasunean egokituak izan baigira.
 Eta gure materia bilduko balu hil ondoan adinak
 Eta gibelatuz orai den lekura berriz ekharriko balu,
 Biziazen argiak ere baldin balizaizku berriz emanak,
 Eztauku hunkituko gituenik ezer eginen horrek ere,
 Berregin behar zaizkunak ethenduak direnean aldi bakar.
 Eta guhaur aitzinean izan ginenaz ezkitu deusek orai
 Axolatzen, eta hartaz antsiak ezkitu batere hunkitzen.
 Ezen behatzen dukanean aro neurrigabea iragana
 Den eremu guziari 'ta zenbat diren izan materiaren

Mugimendu mota guzietakoak, hau errexki sinetsiko
 Ahal duk, orai gu hetaz eginak giren haziak ezarririk
 Izan zirela ainitz aldiz orai den ordenuan lehenago.
 Eztugu bizkitartean orhoitaz hori berriz aurkitzen ahal;
 Anartean alabaina bizia gelditu da 'ta han-hemenka
 Nola gerta mugimendu guziak galdu dira sensuetarik.
 Ezen behar da, geroak ukan ditzan gaitz eta neke trixteki,
 Gizona bera bizi dadin dembora hartan, gaitza dakidion
 Eror ahal. Herioak hori hausten baitu 'ta debekatzen baitu
 Izan dadin haren baitan behargabeak junta daitezkeen norbait,
 On da jakitea hiltzean deus eztela guretzat beldurtzeko
 Ez deitoragarri bilakatzen ahal izaiterik eztuen bat,
 Eta nehoiz sorturen etzenetik izpi bat ezperdin eztela,
 Bizi hilkorra deramanean hiltze gabea den herioak.

- 880 Beraz ikusten denean bere buruaz lastimatzen gizona
 Ala hil ondoan gorputz utziak usteldu behar duelakotz
 Ala garrez edo basihizien hortzez delakotz suntsituko,
 Behar da jakin eztuela zintzoki joiten eta bihotz-pean
 Orratz itsu zenbait baduela, nahiz berak dion eztuela
 Sinesten gero herioan ukanen duela sendimendurik;
 Zeren uste dutanaz emaiten ezpaitu hitzemaiten duena
 Eta bizitik ezta hortan errotik atheratzen eta baztertzen,
 Baina jakin gabean badagi beretik zerbait gelditzen dela.
 Alabaina bizi den batek gorputza duenean gero berak
 Itxuratzen heriotzean hegaztinek eta basihiziek xehatzen ari
 Bere buruaz urriki du; hortarik ezpaita bera berexten,
 Ez aski gorputz etzanetik urruntzen, azmatzen du hura bera
 Dela 'ta haren ondoan zutik khotsatzen du bere sendipenaz.
 Ordotik sumintzen da bera hilkor egin izanaz, eztakusa
 Ere zinezko herioan eztela beraz bertzerik izanen
 Hil denaz bizirik deitoratzen ahal duenik bere burua
 Eta hila xehatzen edo zipiltzen dela zutik urrikitzen.
 Ezen herioan gaitz baldin bada basihizien hortzez eta
 Ausikiez urraturik izana, nik eztut aurkitzen zergatik
 Ezten mingarri su beroetan emanik garretan erretzea
 Edo jarririk eztian ithotzea 'ta gogortzea hotzean
 Harri hormatu baten gain zabalean denean etzanik utzi,
 Edo lehertzea gainaldetik zapatua lurraren phizuaz.

904 Orduetik etxe bozkariozkoak et(a) emazte hautak ehaute
 Onhartuko, etzaikik haurrak musu goxoen ebastera jinen,
 Eta bulharrak ez-titasun ixilean eztauzkie hunkiko.
 Egintza zorizkoer ez etxekoer ezin ekharriko dauek
 Laguntza. « Oi ene zorigaitza, derasate, hainbat biziko
 Zorion egun gaitz bakar batek guziak ereman dauzkik! »
 Gauza horietaz eztute hau gaineratzen: « Etzaik hiri gauza
 Horien urrikia barnean grabatua baturik egonen. »
 Eta hori gogoan ontsa balakusate ‘ta hitzer balire
 Jarraitzen libera laitezke gogoko beldur et(a) antsiatik.
 « Hi bada herioan lo baihago, horrela hiz egonen aro
 Gaineratekoan gabeturik oinaze gaixto samin guziez;
 Guk aldiz hauts bilakatzen ari hauen sute laztagarriari
 Hurbil nigarrak ezin asez ixuriak ditugu, ‘ta gogotik
 Eztauku nehoiz egun batek eremanen betiko bihotzmina. »
 Hortik behar da beraz hau bilatu: hainbaterano samina zer
 Ote den oro berrizultzen bada lokhartzera ‘ta gelditzera,
 Zergatik norbait urtzen ahal den betiereko doluminean.
 Hau ere badagite ainitz aldiz gizonak etzanik mahiko
 Basoak eskuan eta koronez aurpegiak itzaleztatuz,
 Gogotik diotenean: «Gizakumeak labur du gozamen hau;
 Joanen da sarri ‘ta gero nehoiz eztate haizu deitzea berriz.»
 Heriotzean haien gaitzetan lehena hori baliz bezala,
 Dohakabeak ahi daitzan egarriak eta xigor idorrek,
 Edo bere baitan ukan dezaten bertze zerbaiten gutizia.
 Alabaina nehor ezta bada bere buruaz eta biziaz
 Axolatzen adimena ‘ta gorputza daudenean geldirik lo;
 Ezen zuzen da betiko loa guretzat horrela dadin izan,
 Eta guharen urrikiaz hunkiak izan ezkaiten batere.
 Bizkitartean gure soinadarretan zer diren ere gai lehen
 Horiek mugimendu sendikorretarik orduan eztabiltza
 Urrun, lotik jalgirik gizona bere baitaratzen denaz geroz.
 Goga dezagun beraz are gutiago zaikula herioa,
 Ikustean daitekeela deus baino xipiago den zerbait izan.
 Ezen materia nahasiaren barreatze handienari
 Darraiko heriotzean eztela nehor atzarririk egoiten,
 Biziazen gelditze hotza zakonean aldi batez jarraiki.

- 941 Azkenik naturak mintzoa baldin badeza bapatean eman
 Eta gutarik norbaiti badu berak egiten erasia hau:
 « Zergatik hain balio handikoa zaik hori, hilkorra, dolumin
 Hoin saminetan erortzeko? Zergatik nigarrak eta deitora
 Herioaz? Ezen aitzinean ereman bizia gozagarria bazaik izan
 Eta gozo guziak metaturik untzi zilatuan bezala
 Ezpazazkik ixuri 'ta debaldetan galduak izan, zergatik
 Ehiz bada bizitik gibeleratzen gomit ase bat iduri
 Eta gogoa jabalik eztuk hartzen, zozoa, segurra dukan
 Atsedena? Debaldetan joan bazaik aldiz gozatu dukana
 Eta bizia bazaik etsai, luzatzea zergatik bilatzen duk?
 Aldiz, oro gaizki suntsituko baita 'ta hilen eskerrik gabe,
 Zergatik ezituk bizi 'ta nekea lehenago bururatzen?
 Ezen gainera deus ezta hiretzat asmatuko 'ta aurkituko
 Diatanik, gustatuko zaikanik; guziak beti berak dituk.
 Urtetan gorputza jadanik ahitu ezpazaik, ez langitu
 Soinadar ezinduak, halere guziak berdin dituk gelditzen,
 Egonez bizi mende guzien garhaitzera heltzen bahintz ere,
 Eta gehiago den(a) oraino, nehoiz ezpaldin bahu hil behar. »
 Zer ihardetsiko dugu? Naturak auzi zuzena dagikula
 Ezpada 'ta hitzez arrazoin egiazkoa duela zabaltzen?
 Aldiz helduago 'ta zaharrago bat hemen deitora baladi
 Eta behar baino gehiago, gaizoa, lastima herioaz,
 Etzen gorago 'ta saminkiago zuzenik gabe mintzatuko:
 « Eremanzkik hemendik nigarrak, ezteusa, 'ta zinkurinak atxik.
 Bizia eskaintza guziez gozaturik ezindua hago;
 Baina beti gose bai hiz eztukanaz, oraikoa gaitzesten duk,
 Betegin izan gabe 'ta goxagaitzik ihes joaiten zaik bizia,
 Eta hik uste gabe herioa zutitu zaik ohaburuan
 Gauzez ase 'ta beterik ahal dukekan baino lehen urrundu.
 Utzikik orai adinaren gatik arrotz eginak zaizkan guziak
 Gogo berdinean, hoa beraz, amor emok behar handiaril! »
 Uste dut zuzen ariko dela, zuzen erasian, ogendatzen;
 Alabaina zahartasun haizatuak uzten dauko berriari
 Beti lekua, 'ta behar da batzuek berregin daiten bertzeak.
- 976 Et(a) ezta nehor egozten ifernuetara 'ta Tartaro beltzera,
 Materia behar da mendeak handi daiten ethorkizunean;

Bizia beteginik hauk guziak zaizkik halere jarraikiko,
 Eztuk erori gutiago beraz hi baino lehen ez eginen.
 Ehoiz ezta gelditzen horrela batetik bertzearen sortzea,
 Ehork eztu bizia jabegoan ukan, orok gozamenean.
 Behazak ere gibelera, zeinbat ezteus izana zaikun Aro
 Betikoaren zahartasuna, gu sortuak giren baino lehen.
 Hori da beraz naturak erakusten daukun ethorkizuneko
 Aroaren miraila gure heriotzearen ondotik hasiz.
 Lastagarri denik zer da hemen agertzen, ikusten dea trixte
 Denik, ez ote da lo guziak baino segurragoa den zerbait?

(Ifernua lurrean da)

988 Eta segur, Akeron lezearen barnean badirela beti
 Iragarriak direnak, guretzat guziak hor dira bizian.
 Ezta Tantaluz dohakabea airean dilindan dagon harri
 Handiaren beldur, dioten bezala, lotsa hutsalaz balditurik;
 Baina bizian hilkorrak jainkoen beldur gezak hertsatzenago
 Ditu 'ta zoriak bakoitza joren duen gertaldiak izitzen.
 Hegaztinak eztira joaiten Akeronen datzan Tityoz-en gana
 Eta haren bulhar zabalaren barnean ezer eztute mihatzen
 Ahal betierekoa den dembora batean segur-segurki.
 Gorputzeko nahi den hedamen neurrigabekoan izan ladin
 Ere, soinadarrak zabalik ezpalitza bakarrik bederatzi
 Ithegun bete, baina lurraren borobil osoa baleza har,
 Etzuen halere jasanen ahal betiereko oinazea
 Ez eta betiko janaria hornituko bere gorputzetik.
 Baina guretzat Tityoz hemen da, maitasunean etzana da,
 Urratzen dute hegaztinek eta jaten antsiako khexuek,
 Edo gutiziako bertze nahi diren griñek xehatzen dute.
 Hemen da Zizifoz ere gure bizian, begien aitzinean,
 Jendearen ganik haxeak eta aizkora basak bildu nahi
 Ditu 'ta badoa beti gibelera garhaitua 'ta trixterik.
 Ezen botere bilatzea, hutsal dena 'ta nehoiz ez emana,
 Eta neke bat gogorra baita hortarako beti jasan behar,
 Phizu handiko harrokaren bultzatzea da mendiari goiti
 Hura halere gainetik gibelera maldan behera delarik
 Itzultzen eta laster duelarik bilatzen ibar ordokia.
 Ondotik naturaz eskergaitza den gogoa da betikotz alhan
 Eta nehoiz ez askietsia gauza hoberenez ez betea

Urtetako sasoinak egiten daukutenaz berriz direlarik
 Itzultzen eta dakhartzelarik uztak eta gozamenak oro;
 Ehoiz ezkira bizkitartean aseak biziaren fruituez:
 Hori da, nik uste dutanaz, erraiten denean bezala nexka
 Gazteak adinaren lorean untzi zilatuan ur ixurtzen
 Ari zirela, nahi den moldez ezin zaitekeelarik bete.
 Hor dira zinez Kerberoz eta Furiak et(a) argien eskasak,
 Hor Tartarora zintzurretik gar laztagarriak dariotzala!
 Horiek ehoiz ezpaitira segur izanak, ez izaiten ahal.
 Baina bizian egin diren gaizkientzat gaztiguen beldurra
 Bada, handientzat handia 'ta zigorra gaitzeginarentzat:
 Presondegia, harrokaren gainetik erorte laztagarria,
 Azote, burreu, garranga, bike, burdingoria 'ta zuziak.
 Horiek ez izanik ere, gogoa gaitzeginaz jakinduru
 Aitzin beldurrez baliatzen da hedez, gorritzen azotatzeaz
 Et(a) anartean zer izaiten ahal den oinazen bururapena
 Eztakusa 'ta gaztiguen muga zer izanen den azkenean,
 Eta beldur da horiek izan daiten herioan larriago.
 Azkenik zozoentzat Akerongo bizia gertatua da hemen.

(Herioa ororen legea)

- 1036 Hau ere batzuetan erran ahal hezoke heure buruari:
 « Ankuz onak ere bere begietarik argiak utzi ditik,
 Ainitz gauzetan izana zialarik, hi, gaiztoa, baino hobe.
 Gero bertze ainitz errege, 'ta gauzetan boteredun izanak
 Eta jendalde handiak manatuak zituztenak, hilak dira.
 Behin batez itsaso handian hara bide bat eraiki zuen
 Hark berak eta gerlaritalder eman zabalean ibilgune
 Eta oinez joaiten ikasi zauenak leze gazien gainean,
 Zaldien urratsaz goratik zuenak itsasorrea gaitzetsi,
 Argia galdurik ixuri zuen arima soin hilurranetik.
 Zkipion harek, gerlako zimizta, Karthagoko laztagarria,
 Mutil xoila baliz bezala lurrari hezurak utzi zauzkon.
 Emazkik gainera jakintza 'ta lan eder dituztenak asmatu,
 Emazkik Helikongo musen lagunak, hetan bakarra Homeroz
 Koronaz jabeturik bertzen gelditze berean lokhartu dena.
 Azkenik Demokritoz, zahartasun aitzinatuak zaukolarik

Ikasi zizazkola langitzen orhoita 'ta gogoko zalua,
 Bere baitarik herioari buruaren eskaintzera joan zen.
 Epikuroz bera biziaren argian iraganik hila da,
 Jeinuaz gizonen arraza gaingitu zuelarik, jeikitzean
 Ekhiak airean izar guziak itzaltzen dituen bezala.
 Baina hi dudan egonen hiz eta suminduko heriotzeaz?
 Ikustean bizirik ja heriotik hurbil dukala bizia,
 Adineko zati gehiena higatzen dukala loharturik,
 Atzarririk gorrongan et(a) amets egitez gelditzen ehizala,
 Gogo khexatua betetzen dukana debaldeko beldur batez
 Eta aurkitzen ahal eztukana aitzinean zer dukan gaitza,
 Horditua, dohakabea, griña ainitzek orotan hertsatzen
 Hautelarik, gogoia dudan, bahabil hutsean haldamaldaka. »
 Gizonek ahala balute, 'ta hortakotz ikus balaite senditzen
 Badutela gogoan phizu bat, dorpeaz lehertzen dituen,
 Eta jakiten hori zein arrazoiner gertatzen den eta nundik
 Ukaiten duten oraino golkoan gaitzaren hainbateko zama,
 Bizia etzuten eremanen, egun gehienak dakuskigun
 Bezala, batek beretzat zer nahi duen jakin gabe 'ta beti
 Lekuz aldatze bila, balire bezala kargaz arintzen ahal.
 Hura badoa ainitz aldiz duen egoitza handitik kampa
 Etxen egoiteaz aspertua, 'ta bapatez itzultzen da berriz,
 Senditzen duelakotz eztagola kampoan batere hobeki.
 Badoa lasterretan bere baserrira pottokak akulatuz
 Sutan den hegaztegiko laguntzaren erakartzera bezala;
 Baserrian alharzea hunki deneko hasten dir(a) aharrausiak,
 Edo lo phizu batera doa 'ta dabil ahaztearen bila,
 Edo lehiatuz ere hiria nahi du 'ta berriz hara joan.
 Horrela bakoitzak ihes dagi bere ganik, aldiz ageri da
 Ezin egin dezakeela, hortakotz ezker gaitzagoki gelditzen
 Da 'ta hasiatzen, eriak ezpaitaki gaitzaren arrazoina.
 Ongi balakusa hori, bertze gauza guziak utziz bakoitzak
 Lan egin lezake lehen-lehenik naturaren ezagutzeko,
 Aro betikoaren, ez oren bakar baten, izaiteaz dudan
 Girelakotz, hartan izaiten baita hilkorrentzat adin guzia
 Hartan egoiteko gelditzen dena heriotzearen ondotik.

- 1089 Azkenik bizitzeko zein hainbateko gutizia gaitzak gitu
 Dudazko lanjerretan ikharatzera hainbaterano bulzatzen?

Segur-segurki hilkorrentzat hor da biziko bururapena 'ta
 Ezin huts egina da heriotzea, aitzinera goazkon beraz.
 Gainera hor berean itzulika gabiltza 'ta hor gaude beti,
 Eta bizitzean ezta berri den atsegin bakar bat asmatzen;
 Baina hor ezpada nahi duguna, bertzeak baino gehiago
 Iduritzen da; hori hunki deneko nahi dugu bertze zerbait
 Eta beti biziaren egarri berak ahoa zabalik atxikitzen gitu.
 Ondotik adinak ekharriko duen zoria badago dudan
 Eta zer gertatuko zaikun edo zein datekeen burupena.
 Eta bizia aitzina luzatuz eztugu gutitzen izpi bat
 Herioaren iraupena 'ta hori hunkitzen ahal eztugu,
 Hilik egon behar ukaitea luzaz eztugu ttipitzen ahal.
 Hortakotz bizitzean ehortziko dituk nahi bezainbat mende,
 Eztik iraunen halere ja gutiago betiko herio hark,
 Eta bat ezta hila gutiago luzaz egonen gaurregungo
 Argitik biziari bururapen eman zuena, hil izan zen
 Bertzea baino ainitz ilabete 'ta ainitz urte lehenago.

*

Liburu laurdena

- 1 Aitzinean ehork oinaz higatuak etzituen Pieriden
 Leku galduetan nabil. Maite dut ur garbietara heltzea
 Eta han edatea, maite dut ere biltzea lore berrien
 Eta hetaz neure buruan aiphuko koronaren ezartzea
 Musek horrela nehoren bekokiak itzalezta baino lehen;
 Lehenik gauza handiak erakasten baititut, eta gogoia
 Erlisioen esteka tinkietarik arindu nahi baitut;
 Gero hoin iluna den gauza batez argi diren olerki batzu
 Ontzen ditut, Musen xoragarritasun guziarekin aphainduz.
 Ezen ageri da ber(e) arrazoinak badituela horrek ere.
 Medikuak entseetzen direnean bezala haurrer belharmin
 Kharatsaren edan-araztera lehenik baso-bazterrak ezti
 Goxoaren edari horiaz pherekatzen baitituzte haurren
 Adin zuhurtzia gabea dadintzat izan ezpainetarano
 Bairatua, 'ta bitartean belharmin edari samina dezan
 Osoan xurga 'ta hatzeman izanik eztezan utz bazterrera,
 Baina molde hortan izaitekotz bizkorturik har ditzan indarrak,
 Orai nik ere, dotrina hau eztutener landua garratzegi
 Baitzaie ainitzetan iduritzen, eta jendeak kontra moldez
 Hastio baitu, nahi dauiat hiri gure dotrina hau zabaldu
 Mintzamoldean goxagarri den Pieriden kantuaeren bidez,
 Eta baliz bezala poesiaren ezti goxoaz hunkia.
 Hala beharrez ene neurthitzez gogoia baldin badezakeat
 Horrelako dotrinan eratzik, ordu berean gauzen natura
 Guzua zer den hartzen duk eta zer balioa duen senditzen.

(Itxurak eta iduriak)

- 26 Baina gauza guzien lehenbiziko gaiak nolakoak diren
 Erakatsi dutalakotz eta molde zein ezperdinetan batzu
 Bertzetarik dabilzan berak mugimendu betikoan harturik,
 Eta nola horietarik egiten ahal den gauza bakoitza;
 Erakatsia dutalakotz ere gogoaren natura zein den
 Eta gorputzaz aphaindurik zein gauzez izaiten den azkartua
 Edo hastapenetara nola den itzultzen berezten delarik,
 Orai hasten nauk erraiten zer diren gauza horier baitezpada
 Eratzikiak: hauk dira gauzen itxurak deitzen ditugunak.
 Horiek, iduri gorputzen azaletik jalgi diren phintz batzu,

Alde batera 'ta bertzera badabiltza beti airetan zehar,
 Eta gure aitzinean atzarririk eta lokhaturik gure
 Gogoak laztatzen dituzte, ainitz aldiz ikusten direnean
 Mirariak eta bizia galdu dutenen itxurak bezala,
 Lastagarriki ainitz aldiz lotik atzarrarazi gituztenak
 Iziturik: orduan sinets eztezagun Akerondik joan direla
 Ihes arimak, edo badabiltzala bizien erdian itzal
 Batzu, hil ondoan geldi daitekeela guretik zerbait ez ere,
 Gorputzak eta gogoaren naturak elgarrekin suntsiturik
 Berextean dituztelarik bere gai lehen guziak egotzi.

- 46 Badiot beraz gauzetarik eta gorputzetako gainaldetik
 Igortzen direla gauzen itxura duten iduri mehe batzu:
 Phintzak edo kuxkuak bezala ditugunak izendatu behar,
 Itxuraz berdinak direlakotz horien iduri 'ta moldea
 Hartarik ixuriak izanik dabiltzan gorputz bakoitzarekin.
 Izpiritu nahi dukan bezain ahulak hartuko ahal dik hau.
 Lehenik agerian direnetan ainitz gauzek dituztelakotz
 Igortzen gai lehenak, ixuriak dira zatiz nola nahika,
 Hala nola zur hezek emaiten duten khea 'ta beroa suek;
 Eta zatiz elgarri josirik eta tinkiango, hala nola
 Udan egun batez zigalek uzten dituzten axal biribilak;
 Eta jairo direnean aretxek gorputzaren gainetik phintz batzu
 Dituztenean uzten, eta suge lerratzalea laharretan
 Larruaz denean buluzten (ainitzetan ikusten baititugu
 Berhoak aphainduak airera dabiltzan horien buluzkinez);
 Horiek gertatzen direnaz geroz iduri mehe bat behar da
 Eman izana gauzetan ere hauen gorputzeko gainaldetik.
 Alabaina zergatik diren horiek gauzetarik gehiago
 Erortzen mehe direnak baino nehor ezta dezakenik erran,
 Bereziki gauzen gainaldetan badelakotz ainitz gorputz ttipi
 Ukana zuten ordenu hartan berean ixuriak izaiten
 Ahal direnak eta datxikatenak molde beraren itxura,
 Eta lasterrago ainitzez nun gutiago diren trabatuak
 Izaiten eta lehenbiziko lerroan duten bere lekua.
 Ezen ikusten ditugu segurki ainitz ixurtzen eta joaiten
 Ez bakarrik barne 'ta zolatik, aitzinean erran den bezala,
 Baina haien gainaldetarik ere margoa bera ainitz aldiz.
 Eta hori da gertatzen oihal hori, gorri, ñabarrek antzoki

Zabalen gainean haga batzuetan hedatu dituztenean
 Eta airean dabiltzanean zuretan daldaratzen direla;
 Eta hor mailetan ikusle bilduak eta jokalekuaren
 Itxura guziak eta aitoren et(a) emazten jantziak dira
 Hartzen eta bortxaz higitzen zein bere margoan;
 Et(a) antzokiaren harresiak inguruan are hertsiago
 Diren arau, are gehiago barnean eder hortaz harturik
 Ahuldu den egunaren argian orok betan irri dagite.
 Beraz oihalek gorputzaren azaletik margoak dituztenaz
 Geroz igortzen, behar da gauza guziek digortzaten hek ere
 Iduri meheak, bietan gainaldetik igortzen direlakotz.
 Badira beraz gauzen moldekoak diren itxura segur batzu,
 Errana den hari mehezkoak airean orotan dabiltzanak,
 Baina haien gai gordeak ezin ikusiak dira bereziki.

- 90 Usaina, khea, lanhoa 'ta berdin diren bertze gauza guziak
 Bertzalde gauzatarik hortakotz barreatuak dira nasaiki,
 Barnetan urrun sorturik ethortzen direnean bihurtunetan
 Zatitzen direlakotz eta bidetan ezteletakotz jalgigune
 Zuzenik, batean sorturik handik ihes egin ahal dezaten.
 Aldiz margoaren gainaldetik jalgitzen denean phintz mehea
 Deus ezta hura zatikatzen ahal duenik, izan denaz geroz
 Ageriki lehenbiziko lerroan berean lekuratua.
 Azkenik mirailetan, urean eta dirdira duen orotan
 Agertzen zaizkigun itxura guziek, behar dute baitezpada,
 Itxuraz aitzinean erran den gauzen berdinak direnaz geroz,
 Ukan hetarik igorririk izanak diren gauzen iduria.
 /Alabaina zeren gatik diren horiek gauzatarik erortzen
 Mehe direnak baino gehiago nehork ezin erran dezake./(*)
 (*) Hemen errepikatzen dira arrazoin argirik gabe aitzinagoko 63-
 64 neurthitzen berdinak (*Itzultzearen oharra*).
 Badira beraz gauzen iduri meheak eta berdin dutenak
 Itxura, nehork hautemaiten ahal eztituenak bereziki,
 Bizkitartean gibelera bulzatze jarraiki 'ta tinki batez
 Emaiten dutenak mirailen azaletarik ikusia dena.
 Ageri da bertze moldez ezin direla begiratuak ahal
 Itxura hainbaterano berdinen emaiteko zer bakoitzari.

- 110 Ohar hadi orai iduri horrek natura zein mehea duen.

Eta lehenik, gai lehenak hainbat beherago baitaude gure
 Sensuen menetik eta hainbat ttipiako gure begiek
 Lehenik ezin har dezaketela senditzen dituztenak baino,
 Bizkitartean orai hau ere baieza dezatan: hitz gutitan
 Ikaz ezak gauza guzietan gai lehenak zeinbat diren xehe.
 Lehenik bizidun batzu hain dira ttipiak nun zatikaturik
 Nahi den moldez ezin ikusia baita haien zati herena.
 Asmatuko dea horien hertze nahi dena nolako den?
 Zer bihotzaren eta begien borobila? Zer soinadarrak? Eta
 Zer junturak? Hain dira ttipiak! Gainera nolako gai lehenak
 Beraz arima 'ta gogoaren naturak ukan beharko ditu?
 Ez ote duk ikusten zeinbat xeheak diren eta zein ttipiak?
 Gainera zeinek ere duten bere gorputzetik usain bortitza
 Emaiten, berdelatzak, belarmin kharatsak, gohaindigarri diren
 Asensuek eta saminak diren lubeazunek, eta nahi
 Dukan bat bakarra bi horietarik arinki hala beharrez
 /.../(*)

(*) Neurthitz zenbaitek huts egiten du hemen (*Itzultzailearen oharra*).

Ezaguk izaitekotz gauzen iduri ainitz badabiltzala
 Ainitz moldetan indarrak gabe 'ta sendipenetik baztertuak.
 Baina gogoan har etzakala halabeharrez badabiltzala
 Bakarrik gauzetarik urruntzen diren gauzen itxura horiek,
 Badituk ere berainik sortzen direnak eta berak airea
 Izendatzen den zero huntan moldatzen direnak.
 Horiek ainitz moldez eginik eremaiten dira goienera,
 Eta han urtuz duten itxuraz aldatzetik eztira gelditzen,
 Eta bakoitzaren neurriko moldea hegian aldatzen dute;
 Hala nola zenbait aldiz gainean errex metatzen dakuskigun
 Hedoiak, higitzean airea hunkituz munduaren itxura
 Zoharra dutela bortxatzen; ezen iduri zaiku ainitz aldiz
 Airean dabiltzala Gizandien aurpegiak urrun itzala
 Hedatuz; noiztenka mendi handiak eta aitz erroetik jalgiak
 Mendien aitzinera badoaz iguzkia gordetzen dutela;
 Gero mustro batek bertze hedoiak erakhartzen ditu 'ta janzten.

- 143 Molde zein errex eta lasterrez moldatzen diren derragun orai,
 Eta beti gauzetarik dariotela 'ta lerratuz erortzen
 /.../
 Alabaina beti gauzetarik gainalde zenbait ixuria da

Egozten baitute. Aurkitzen dituen argal diren gauzak
 Badiragatza berehala oihala bezala. Baina gogorra
 Den harrira heltzen denean edo zuraren materiara, hor
 Urratzen da, hala nola nun iduririk eman ezpaitezake.
 Aldiz aitzinean izaiten direnean gauza dirdiradunak
 Eta tinkiak, hala nola miraila, deus horietarik ezta
 Gertatzen, ezin diragate oihala bezala, zatitzen ahal
 Eztira: mirailaren leuntasunak atxikitzen ditu salbu.
 Gertatzen da hortakotz itzuliak zazkigula hortik itxurak.
 Eta nahi dukan bezain laster, nahi dukan orduan, zer gauza
 Demakan ere mirailaren aitzinean, itxura zaik agertzen;
 Ikas ezak bada gorputz baten gainetik dariotela beti
 Gauzen ehodura batzuekin haien iduri mehe batzuek.
 Beraz ephe laburrez sortuak izaiten dira ainitz iduri
 Eta gauza horien sortzea lasterra da zuzenez erranen.
 Et(a) ephe laburrez iguzkiak eman behar dituen bezala
 Ainitz argi guziak beti 'ta beti beteak izan daitentzat,
 Berdin ere gauzetarik arrazoin ber hortaz beharrezkoa da
 Ordu batean berean agertuak izan daiten gauzen ainitz
 Itxura, molde ainitzetan, alderdi guzietan orotara,
 Miraila zein aldetara dugun ere bazterretarik itzultzen
 Gauzak hor molde 'ta margo berdinetan errepikatzen baitira.
 Gainera aitzinean aroa zeruan garbiena zelarik
 Itsuski nahasia bilakatzen da bapatez ezin gehiago:
 Iduritzen zaik orotan ilunbe guziek Akeron aldeak
 Utzi dituztela 'ta zeruko leze handiak osoki bete,
 Hainbaterano nun hedoiatarik sortu den gau izigarriaz
 Gorenetik Laturaren aurpegi beltzek mehatxatzen baitute.
 Iduria horien zati zein ttipia den erran dezakeenik
 Ezta nehor, ez hitzen bidez eman dezakeenik horren moldea.

- 176 Ikasak orai zein mugimendu lasterrez doazen iduriak
 Eta airearen iragaitean zer higikortasun emana
 Zaien orori, bide luze bat egin dezaten ephe laburrez,
 Zein lekura joaiteko guraz ari diren guziak bereziki:
 Nasaiak baino neurthitz eztiago batzuetan ezarriko dut,
 Beltxargaren kantu motza hobe den bezala, lertsunen kurrinka
 Baino airean hegoko hedoietan barreatua denean.
 Lehenik gai lehen arinez eta ttipiez egin gauzak oro

Errex ikusten ahal da lehiakor direla gehienetan;
 Mota hortakoak dira lehenik iguzkiaren argia 'ta
 Beroa gai lehen ttipi batzuez eginak izan direlakotz;
 Horiek elgar joiten bezala baitute zalantzatzen eztaude
 Airean arteken iragaiteko darraiten ukhaldiez jorik.
 Alabaina bapatean argiari zako hornitzen argia,
 Eta zimizta zimiztaz akulu batez bezala da sustatzen.
 Horren gatik arrazoin berdinez iduriek ere behar dute
 Iragan ahal ezin erran daitekeen eremu handian zehar
 Ephe laburrez, lehenik badelakotz gauza bat ttipi-ttipia
 Gibeletik dituen bulzatzen eta aitzinarazten urrun,
 Eta gainera hain arintasun zaluaz eramanak baitira.
 Gero aitzinean erran den jostura hain argalean igortzen
 Diran nun sartzen ahal baitira nahi dukan gauzetan erreki,
 Jariotzen balire bezala airearen artegunetarik.

- 199 Gainera gauzen gai xeheak barnetik eta goratik kampa
 Igorriak direnean, hala nola iguzkiak badematzan
 Argi 'ta beroa, horiek bapatez ikusten baldin badira
 Berainik airetik eroriak zeru zabal guzian hedatzen,
 Itsaso 'ta lurren gainetik airatuz zeruaren hartzen ere,
 Zer izanen da beraz ja lehen lerroan emanak diren hetaz
 Jalgitzen direlarik deusek eztauenean gelditzen oldea?
 Ez ote duk ikusten behar dutela lasterrez urrunago joan
 Eta munduan iragan eremua ainitz aldiz gehiago
 Ekhiaren argiak zeru guzian dabilzan ephe berean?
 Agerian da hau ere lekukotasun segur bat erakusteko
 Gauzen iduriak zein mugimendu lasterrez diren eremanak:
 Lehenik gau denean ur miraila bat ezarria den orduko
 Bepetan izar eta garbi den zeruan dirdiratur izarrek
 Urean errepikatzen dute munduan arraikatzen dutena;
 Orain ikusten duka beraz iduria zein ephe laburrean
 Erortzen den aireko herrialdetarik lurren eskualdetara?
 Horren gatik beharrezkoa da aithortzea berriz eta berriz
 Miragarriki /.../
 Begiak joiten dauzkiguten et(a) ikuspena phizten duten gaiak.
 Eta gauza batzuetarik usainek betikotz badariote,
 Berdin ere latsetarik hotzak, ekhitik beroak, uhainetik
 Lanhoak, itsas-bazterren inguruan harresien higatzale.

Eta mintzo guziak airean ibiltzetik eztira gelditzen.
 Azkenik ahora dathor ainitz aldiz ur gaziaren hezea
 Itsas-basterrera goazelarik, eta dugularik ikusten
 Hurbil urturik belarmina nahasten kharatsak hunkitzen gitu.
 Hainbaterano dira gauza guzietarik gai zenbait ixurtzez
 Eremaiten, eta leku guzietarik igortzen orotara;
 Ixurtzean ezta batere gelditzerik ez arterik emaiten
 Betiere senditzen ditugunaz geroz, eta guziak beti
 Hautemaiten ahal, usaintzen, eta senditzen joiten dutenean.

- 230 Gainera, gauza molde bat ilunbean eskuez erabilia
 Ezagutzen dugunean, argian et(a) egun betean ikusten
 Dugulakotz gauza hura bera dela, behar da hunkitzea
 Bai ikustea gauza berdina batez izanak diren higituak.
 Orain beraz laurkantoineko bat ilunbean hunkitzen badugu
 Eta hori badugu senditzen, argira laurkantoinekoa zer
 Izanen ahal zaizu soan, ezpaldin bada haren iduria?
 Ageri da hortakotz idurietan dela hautemaitearen
 Emaila, 'ta deus ikusten ahal eztugula horiek gabe.
 Orain diotan gauza horien itxurak alde guzietarik
 Ekhartzen dira, 'ta barreaturik joiten alde guzietara;
 Baina guk begiez baizik hautemaiten ahal eztitugulakotz
 Gertatzen da, nora demagun ere soa, hor hunkitzen dutela
 Kontra doazkon gauza guziek bere moldeaz eta margoaz.
 Eta gauza bat zeinbat urrun dagon gutarik ikusten dugula
 Iduriak egiten du 'ta jakin ahal dezagun artha hartzen.
 Ezen igortzen den ordu berean bulzatzen eta haizatzen du
 Beti jarria dagon airea haren eta begien artean,
 Eta hori guzia badoa lerratuz gure soetarano,
 Eta ñiñikak xahutzen bezala ditu 'ta horrela da joiten.
 Horren gatik da gertatzen gauza bat zeinbat dagon urrun dugula
 Ikusten. Eta zeinbat aire gehiago aitzinean higitzen
 Den arau, eta begiak zein urrundik dauzkigun haizeak hunki,
 Are gehiago da baztertua gauza bat urrun iduritzen.
 Horiek ezin gehiago lasterrez egiten dira segurki
 Aldi berean baitakusagu zer gauza den eta zein urrun den.
 Gauza horietan atxiki behar da gutienik mireskarri
 Zergatik gure begiak joiten dituzten iduriak ez tiren
 Ikusten ahal banaka gauzak berak zaizkigunean agertu.

Ezen haizeak ere gutika duenean azotutzen, hotzak
 Saminki darionean, haizearen eta haren hotzaren gai
 Tipi banakatueta ez tugu bakar bat ohian senditzen,
 Aldiz orotakoa gehiago, 'ta berdin ikusten ditugu
 Orduan kalteak egiten gure gorputzean, zerbaitek joiten
 Balu bezala, kamputik emanez bere gorputzaren sendia.
 Bertzalde harri bat erhiaz joiten dugunean, harriaren gain
 Hura bera dugu hunkitzen eta haren gainean den margoa,
 Alta hunkitzeaz ez tugu harri hura senditzen, baina haren
 Barneko gogortasuna bera dugu gainetik senditzenago.

(Miraila, ikuspena, itzala)

- 269 Orai beraz ohar hadi zergatik den mirailaren haraindian
 Agertzen iduria, zeren urrunean agertzen da segurki.
 Molde berean egiazki kampoan dira gauzak hautemaiten
 Atheak uzten duenean haraindian ikuspen idekia
 Eta dagienean etxetarik ainitz ikus dadin kampoan.
 Alabaina aire biritxi bikunak emaiten du so hau ere.
 Ezen hautemaiten da aire lehen bat atherdiko hunaindian,
 Hortik eskun et(a) ezkerrean atherdiak berak badarraikate,
 Gero kamputik argiak joiten ditu begiak eta bigarren
 Aire, 'ta kampoan diren gauzak haraindian ikusten dira.
 Horrela lehenik iduria mirailatik igortzen denean
 Badathor orduan gure soetara, 'ta bulzatzen du haren eta
 Begien artean lekua hartzen zuen airea 'ta haizatzen,
 Eta badagi miraila baino lehen sendi dezakegula hau
 Guzua. Baina miraila bera dugunean ere hautemaiten
 Berehala gutarik ereman iduria heltzen da hartara
 Et(a) igorriarik gibelera berriz hartzen ditu gure begiak;
 Eta bertze aire bat bere aitzinean bulzatuz baitabila
 Badagi hura baino lehen hau dakusagula 'ta mirailatik
 Iduritzen duela jarria bertze hainbertzetan urrunago.
 Horren gatik berriz eta berriz gutienik da miretsi behar
 Hor berdin dematela miraila horiek gainetik iduria,
 Gauza bat eta bertzea aire biez eginak direnaz geroz.
- 292 Orai gure soinadarren eskun alderdia dena gertatzen da
 Mirailatan ezker aldean ikusten dugula, arrazoin hunen
 Gatik: mirailaren zabalera dathorren iduriak joiten du,

Ezta berriz itzultzen osorik eta salbu, baina zuzenetik
 Kontraran itzulirik, gledazko maska bat antzokian bezala
 Ernai edo habe batera botatzen denean idortu baino lehen
 Eta aitzinean orduan itxura zuzen atxikitzen badu
 Baina gibelera berak erakusten badu hura leherturik,
 Gertatzen da aitzinean eskunean izan zen begia dela
 Orai ezkerrean et(a) ezkerreko zen hur(a) eskunean ordainez.
 Gertatzen ere da mirailatik igorri denean iduria
 Mirailara, jarraikiko direla bortz edo sei itxura berdin.
 Alabaina barne baten zolan zein gauza diren ere gordeko,
 Handik halere, daudela zehar eta barna nahi bezain urrun,
 Guziak mirailan itzuliak izaitetik aldatuko dira
 Eta ainitz mirailatan ikusiko zuten lekua harturik:
 Iduri batek mirailatik mirailara hainbat leinurutzen du
 Eta denean ezkerrean eman itzulirik eskuna du hartzen,
 Hortik gibelera doa berriz eta leku berean jartzen da.
 Oraino gehiago, mirailak egin direnean zati ttipiez
 Gure sahetsak diren molde berean erran nahi baita gupi,
 Iduriak ondora dauzkigute zuzenean igorrazten,
 Ala mirailatik mirailara delakotz igortzen iduria
 Hortik gutara baitathor bietan itzulirik, ala jitean
 Itzultzen ere delakotz, iduriak mirailaren gupiari
 Obeditzen baitauko, gure gana badathor beraz itzulirik.

- 318 Bertzalde sinetsiko duk itxurak gurekin batean direla
 Sartzen eta oina dutela gurekin ezartzen gure jestuak
 Imitatuz, ezen joana hizan mirailaren zatitik eztira
 Ordu berean iduriak hortik ekharriak izaiten ahal,
 Naturak bortxatzen dituenaz geroz guziak erakhartzera
 Eta berriz itzultzera gauzetarik arauak berdin atxikiz.
 Gero begiak ihes doaz dirdiretarik eta bazter dagite,
 Iguzkiak itsutzen ere hau bahiz hari beha jarraikitzen,
 Haren indarra handia delakotz eta phizu harturik aire
 Garbian goratik ekharriak direlakotz haren iduriak,
 Eta haien ekhaiak nahasiz begiak zauritzen baitituzte.
 Gainera samina den edozein dirdirak ainitz aldiz erretzen
 Ditu begiak, badituelakotz bere baitan suaren hazi
 Ainitz, oinazea sortzen dutenak begien barnera sartzean.
 Gainera min horiaz eri direnek guziak hori dituzte

Ikusten, haien gorputzetik horitasunaren hazi ainitzak
 Jariotzen direlakotz gauzen idurietako aitzinera,
 Eta haien begietan azkenik ainitz nahasi direlakotz,
 Horailez dituztenak margoztatzen hunkitzen dituztenak oro.
 Argian daudenak ilunbetik ikusten ahal ditugu zeren
 Sartzen baita begietan ilunaren aire beltz hurbilagoa
 Lehenik eta baititu hartzen idekirik; bapatez argian
 Den aire garbia jarraikitzen da begiak garbitzen bezala
 Dituela 'ta barrearazten ditu aire hartan diren itzal
 Beltzak: alabaina ainitz zatietan higikorragoa da hau,
 Ainitzez ere xeheago 'ta gehiago ainitzez indardun.
 Horrek begietako hodiak argiaz bete ditueneko
 Eta aitzinean aire beltzak hartu zituenak idekirik,
 Argian ezarriak diren gauzen iduriek badarraikate
 Orduan berean eta sustatzen gituzte ditzaguntzat ikus.
 Aldiz argitik ilunetan ikusterik egin eztezakegu,
 Argiaren gibelean dagon ilunbeko aireak, egoiten
 Delakotz lodiegi, betetzen dituenean artekak oro,
 Hartzen ere baititu begien hodiak, eta gauza guzien
 Iduriek egotzirik haiek higitzen ahal ezpaitituzte.

- 353 Hiriko dorre laurkantoinekoak dakuskigunean urrundik
 Gertatzen da ainitzetan biribilak iduritzen zaizkula,
 Urrundik izkin oro laputs hautemaiten delakotz ala berdin
 Ere hautemaiten ezelakotz, eta haren oldea hila
 Delakotz ukhaldia gure begietara heldu baino lehen;
 Zeren iduriak ainitz airetan eremanak izan baitira
 Aireak lapustera bortxatzen ditu jotaldi ainitz emanez.
 Aldi berean izkin oro gure sendipenetik ihes doa,
 Gertatzen da leunduak balire bezala harrien ezteran,
 Ez alta aitzinean ditugun zinezko biribilak bezala,
 Baina nunbait han abantzu balire bezala haien iduriak.
 Itzalak berdin iguzkian gurekin mugitzen iduri baitu,
 Gure hatzer jarraikitzen eta guk egin jestuen imitatzen,
 Uste baldin baduk argiaz gabeturik airea daitekeela
 Higi, 'ta gizonen mugimenduer eta jestuer jarraik ahal,
 Zinez ezin daiteke deus bertzerik izan ezpada guk argia
 Galdurik ohian itzalaren izenaz deitzen duguna baizik.
 Ageri da nun ere baigabiltza leku batzuetako lurra

Iguzkiaren argiaz berehala gabetzen dela trabatzen
 Dugulakotz eta berbetetzen dela berdin utzi duguneko,
 Horrek egiten baitu badiduriela soinaren itzala zen
 Hura leku hartarik beretik jarraikitzen dela gutarano.
 Arraien argi berriak alabaina beti dira jariotzen
 Eta lehenak suntsitzen, ilea suan irun baliz bezala.
 Horren gatik errexki da lurra gabetzen argiaz eta berdin
 Berriz betetzen eta bere ganik itzal beltzak ixurtzen ditu.

(Lilluramenduak)

- 379 Eztugu halere huts izpirik dagitela begiek onhartzen.
 Ezen zein lekutan ere dauden itzala 't' argia haier dago
 Ikustea; baina direnez argi hek berak al(a) ez eta han zen
 Itzal hura bera den al(a) ez iragan direnak orai hunara,
 Ala guti aitzinean erran dugun bezala den izaitekotz,
 Hori gogoan arrazoinak bakar-bakarrrik argitu behar du,
 Eta gauzen natura zer den eztezakete begiek ezagun:
 Eztuk beraz begien gain eman behar gogoaren eskas hori.
 Geramatzan untzia badoa geldirik iduri duenean
 Eta dagoena lekuan uste da badoala aitzinera.
 Iduriz untzi-gibelera doaz ihes munhoak et(a) alhorrak
 Untzi aitzinean gaudelarik eta belez joaiten airez-aire.
 Izar guziak iduriz geldituak daude aireko lezetan
 Itzaturik eta guziak mugimendu jarraikiak deramatza,
 Urrunean jeikirik etzatera berritzultzen direnaz geroz
 Bere gorputz argiarekin iragana dutenean zerua.
 Molde berdin batean iguzkiak et(a) ilargiak geldituak
 Iduri dute, gauzak berak derakutsalarik badabiltzala.
 Uhainen erditik urrun jalgitzen direla badiduriten
 Mendien artean untzier idekia zaie bide bat gaitza,
 Horien biltzetik iduri du bizkitartean irla bakar bat.
 Athariak burxoro 'ta habeak iduriz itzultzen direla
 Hainbaterano zaie haurrer iduritzen itzultzetik gelditzen
 Direnean berak, nun orduan doi-doia sinets baitezakete
 Hegaztegi guziak eztituela mehatxatzen erortzeaz.
- 404 Natura hasten denean gar daldaratuez ekhiaren argi
 Gorrien igan-arazten eta mendien gainetara goititzen,
 Iduritzen zaik orduan iguzkia mendien gainean dela,

Zuzen hunkitzean inguratzen dituela bere su beroaz,
 Gure ganik doi-doia bi mila gezi-menetan iduri dute
 Eta ainitz aldiz doi-doia bortzehun azkon ukhaldi-menetan.
 Hedatzen dira haien et(a) iguzkiaren artean itsasoko
 Ibar handiak zeruaren eremu neurrigabekoen azpian,
 Eta lur ainitz badira milaka haien artean, hetan bizi
 Baitira jende mota guziak eta basihizien andanak.
 Aldiz bildua den urmael batek ez erhi bat baino gorago
 Eta bidetan gelditu denak lauzadako harrien artean
 Lurren azpian ikuspen bat oldez erakusten du barnatua
 Lurretarik zerurano hedatua den eremua bezainbat,
 Baitiduri gainetik dakuskigula hedoiak eta zerua
 Eta gorputzak lupean direla zerutik miraz eremanak.
 Azkenik zaldi suharra zaikunean ibai erdian gelditu
 Eta horren uhain lasterretara gure soa demagunean
 Indar batek iduriz baderama zaldi geldiaren gorputza
 Eta zeharkatuz ibaiaren kontrara bultzatzen du lasterrez,
 Eta nora ditugun ere begiak itzultzen iduri zaiku
 Guziak eremaiten direla 'ta jariotzen molde berean.
 Galeria bat egituratua nahi dukan bezain berdinki
 Eta zurkaiztatua betiereko habe berdin arautuez,
 Halere luzaran ikusia denean osoan bururano
 Gutika dauzkigu ttuturru hertsu baten gainak erakusten,
 Hegatza zolara da hurbiltzen et(a) eskun zirenak ezkerrean,
 Guziak batzen diren arteo ttuturruaren punta gordean.

- 436 Itsasoan gertatzen da sorturik uhainetarik iguzkia
 Itsaturier iduri zaiela gorde 'ta hiltzen uhainetan,
 Bertzerik deus ikusten ez tutelakotz ura 'ta zerua salbu.
 Ez alta sinets arinki hutsean direla sensuak orotan.
 Itsasoaz jakinak eztirener portuan iduritzen zeztee
 Untziak makur, gibel-aphaindura hautsiekin ihardokitzen
 Uhainer, ezen ur gaziaren gainean dagon arraunen zati
 Guzua bada zuzen, eta lemaren gainaldea berdin zuzen,
 Aldiz urean murgilduz badoazen guziek iduri dute
 Hautsirik bidez aldatzen direla 'ta goiti direla bihurtzen,
 Itzulirik uraren abantzu gainean igerika daudela.
 Gauaz zeruan haizek hedoi bekan batzu deramatzatenean
 Orduan dirdiratzen duten ikurrek iduri dute direla

Hedoien kontralde lerratzen eta doazela haien gainetik,
Egiazko lekutik bertze norapait eremanak urrunera.

- 447 Eta halabeharrez begi baten gainean ezarririk eskuak
Hura zapatzen badu, sendipen zenbaitez, iduriz gertatzen da
Ikusten ditugun guziak bikunaduak direla hautemaiten:
Bikuna da girisailuaren garretan loratzen den argia,
Eta lanabesak etxe guzian agertzen dira bikundurik,
Bikunduak ere gizonen aurpegiak eta bikun gorputza.
Azkenik loak kukuldura gozoaz garhaitu dituenean
Soinadarrak, eta gorputza datzalarik osoki gelditua,
Orduan iduritzen zaiku halere soinadarrak atzarririk
Daudela 'ta higitzen ditugula, 'ta gau ilun itsuan uste
Dugu dakuskigula bai iguzkia bai egunaren argiak,
Eta barne hetsi batean agertzen direla zeru 't' itsaso,
Ibai eta mendiak; iduriz bagabiltza oinez alhorretan,
Entzuten ditugu soinuak, orotan gauaren ixil garratza
Hedatua denean, eta mintzatzen gira hitzik ez erranez.
Mota hortako bertze gauza mireskarri ainitz ikusten dugu
Iduriz oro sensuen sinestea bortxatu nahi dutenak,
Debaldetan, zeren horietan zati handiena hutsa baita
Gogoak berak uste duen hura gaineratzen dauegulakotz,
Ikusitatz hartzen baitira sensuek eztituztenak ikusi.
Ezen deus ezta zailago gogoak berez aitzinera dematzen
Gauza dudazkoen ageri direnetarik berextea baino.

(Sensuak eta sendipenak)

- 469 Azkenik batek gogoan badu jakiterik eztela, jakiten
Ahal denez eztaki, badionaz geroz deusik eztakiela.
Hemen gauza hortaz eztabadan artzea baztertuko dut beraz
Bere hatzetan egoitea duenarekin buruz erabaki.
Onhartuko dut halere hau badakiela, baina galdeginen
Dut gauzetan egirik eztuenean aitzinean ikusi,
Jakitea 't' ez jakitea zer den aldizka nundik badakien,
Zerk emanen daukon egiaren eta gezurraren ezagutza,
Dudazkotik egiaren berextea zerk phorogatuko duen.
Aurkituko duk egiaren ezagutzea sensuer emana
Zaiela lehenik et(a) ezin direla sensuak ukhatzen ahal.
Alabaina fidanza gehiagorekin behar da bat onhartu

Egiez gezurren garhaitzeko berainik ahala duelakotz.
 Zertan da bada fidatu behar sensuetan baino gehiago?
 Ala sensu falsutik jaioa den arrazoinak indar ukanen
 Du haien ukhatzeko, sensuetarik denean osoan jaio?
 Ezpadira hek egiaziak, arrazoin guzia da gezurrez.
 Begiek beharriak erasiatzen ahal ote dituzte 'ta
 Beharriek hunkitzea? Gero hunkitze hau ahoko gostuak
 Salatuko du(a) ala begiek dituzte sudurrak garhaituko?
 Uste dutanaz ezta holakorik. Ezen uzitu zako berex
 Ahala bakoitzari, berdin indarra 'ta horren gatik behar da
 Bakoitzak sendi dezan bere baitarik zer den guri 'ta zer den hotz
 Ala zer den irakitan, zein diren gauzen margo guziak eta
 Ikus ahal ditzan margoer eratziki zezteen gauza guziak.
 Indarra badu berez ahoko gostuak, usainak sortzen dira
 Berez, berez soinuak. Eta behar da horren gatik eztezetan
 Sensu batzuek ahalik ukana bertze batzuen garhaitzeko.
 Gero berak ezin dira kontraktzen ahal elgarren artean,
 Segurtasun berdinean hartuak beharko direlakotz beti:
 Beraz ikusia dena nahi den orduz, egia da hortakotz.

- 500 Et(a) arrazoinak ahalik ezpaldin badu berak argiratzeko
 Zergatik hurbildik laurkoak izan zirenak urrundik ikusiz
 Biribil diren, bizkitartean arrazoin eskasean hobe da
 Iduri bi horientzat arrazoin emaita huts bat eginez
 Agerian egia den zerbait eskuetarik uztea baino,
 Eta sineste lehenaren ukhatzea 'ta oinarri guzien
 Aurdikitzea hetan bermatzen direnean bizi 't' osasuna.
 Ezen eztuk bakarrik arrazoin osoa aurdikiko, bapatez
 Bizia bera galduko duk ausartzen bahiz ez fidatzera
 Sensuetan et(a) erroitzetarik ez baztertzer 'ta mota hortan
 Ihes egin behar zaienetik; aldiz onari jarraik hakio.
 Beraz sensuen kontra moldaturik eman izanak diren solas
 Andana hek orok hiretzat debaldekoak izan behar die.
 Azkenik eraikuntza zenbaitetan erregela lehena makur
 Denean bezala 'ta gune zuzenetan huts eginez baldin badoa
 Eta zati batean izpi bat maingu baldin badagi hein batek
 Behar baita guzia gaizki gerta dadin eta makur egina,
 Bihur, erorkor, ukur, hegatzak uzkaikorrak et(a) araugabeak,
 Ja zenbait agerian ekharriak erortzera 't' erortzen ari,

Oro hondatuak lehenbizian egin arautze hutsezkoetz,
 Berdin behar da beraz bihur izan zaikan gauzen arrazoina
 Eta butsezkoa, zerbait sortu dukanean sensuen hutsetik.

- 522 Orai bertze sensuetan bakoitzak nola sendi duen berari
 Doakona, hortan ezta neke den gauzarik batere gelditzen.
 Lehenik soinua 'ta mintzo guziak entzuten dira noiz ere
 Beharrian sarturik bere gorputzaz sensua baitute joiten.
 Ezen erran behar da mintzoa 'ta soinua gorputzez direla
 Eginak, gure sensuak inharrosten ahal dituztenaz geroz.
 Bertzalde mintzoak ainitz aldiz kharrakatzen dauku zintzurra 'ta
 Oihuak kampaora jalgitzean bortxatzen ditu kontra-zintzurak,
 Ezen mintzoen gai lehen andana handian jaiok hasia
 Dutenean kampaora joaitea hertsiegi den gune batetik
 Ahoaren athea betegiz segurki bortxatzen ere dute.
 Ezta dudatzeko beraz elheak eta mintzoak gai lehenez
 Egin izanak direla, badezaketenaz geroz egin zauri.
 Ehiz ere jakin gabe soina zeinbat duen ahultzen, zeinbat
 Gizonen zainetarik bai indarretarik beretarik hartua
 Ukaiten duen solasaldi luze batek, ereman duenean
 Ozkorriko goizargi hastetik gau beltzaren ilunbetarano,
 Bereziki baldin bada gorenean emana oihukaturik.
 Horren gatik behar da gorputzez egina dadin izan mintzoa,
 Ainitz mintzo denean gorputzeko zati bat galtzen denaz geroz.
 Aldiz mintzoaren samina gai lehenen saminak egiten du,
 Eta berdín egina da leuntasuna haien leuntasunaz.
 Eztira molde bereko gai lehenak sartzen beharrietara,
 Tuta batek harrabots ilunean larriki joiten duenean
 Eta burrumba basak gibelera digorrenean oiharzuna,
 Eta Helikon aldean uhaitz indardunen erditik beltxargek
 Mintzo doluzko batez hasten dutenean bere auhen garbia.
- 549 Beraz gure gorputzarekin mintzo horiek erraiten ditugun
 Ordu berean eta kampaora zuzen ahotik igortzen, mihi
 Higikor antzedunak ahozkatzen ditu hitzetako lerroak,
 Eta zati batez ezpaineak duten egiturak moldatzen ditu.
 Elhe bat nundik igorri den eremua hel dadintzat ezpaldin
 Bada sobera luze, behar da hitzak berak daiten entzun ere
 Garbiki 'ta hauteman daiten bereziz ahozkatuak izanik:

Alabaina begiratzten dute moldea 'ta begiratzten itxura.
 Aldiz artean eremua behar baino luzeago denean
 Hitzak aire ainitzetan beharrez nahasiak izaiten dira
 Eta mintzoa uhertua airea zeharkatu duelarik.
 Gertatzen da beraz hautemaiten ahal dukala soinua baina
 Hitzek erraiten dutena zer den ez osoan ezagutzen ahal,
 Hainbaterano da nahasia 'ta trabatua jiten mintzoa.
 Gainera oihulariaren ahotik emana den elhe batek
 Ainitzetan inharrosten ditu jendearen beharriak oro.
 Beraz mintzo bakar bat berehala mintzo ainitzetan uzitzen
 Da bakoitzaren beharrietara denaz geroz banakatua,
 Ezartzen duela moldearekin soinu bat argia hitzetan.
 Aldiz beharrietan erortzen ezten hitzetako zati hura
 Eremanik aitzina debaldetan suntsitzen da airetan zehar.
 Lekuaren zati gogorak jorik gibelera berrizultzen du
 Soinua, 'ta batzuetan bairatzen gitu hitzaren iduriaz.

- 572 Horiek ongi baitituk ikusten eman dezakek arrazoina
 Hihauri 'ta bertzeri zeren gatik leku desertu batzuetan
 Harrokek hitzen itxurak berrizultzen dituzten zuzen-zuzena,
 Mendi beltz batzuen artean dabilzan lagunak ditugularik
 Bilatzen eta hel egiten dauegularik azkartuz mintzoa.
 Ikusia dut leku batzuek sei edo zazpi hitz berriz itzultzen
 Zituztela bakar bat huenean igorri: munhoer horrela
 Munhoek berek itzultzen zezteeten erran hitzak errepikatuz.
 Leku horiek Akher-gizonek et(a) Ithurranderek daduzkate
 Auzoen ustez, eta badiote han egoiten direla Faunak,
 Haien gauazko harramantzaz eta joko jostakinaz direla,
 Erraiten dutenaz, ixilordu geldiak gauaz ohiki hausten,
 Eta harpen soinuak entzuten direla 'ta xirularen doinu
 Eztiak emaiten kantarien erhie z bulzatu direnean;
 Eta laborarien jendaldeak Pan urrundik hautemaiten du
 Erdi-abre buruan leher aldaxkazko jantzien inharrosten,
 Usu kanabera xilatuan ezpain makotuaz joiten ari,
 Eztadin xaramela geldi Muse oihandarraren kantatzetik.
 Mota hortako mustroez eta mirakulue z mintzatzen dira
 Leku desertuak jainkoez ere gabetuak direla sinets
 Eztadin beharrez. Hortako mirakuluak erasten dituzte
 Edo bertz(e) arrazoin zenbaitek eremaiten ditu, beharriez den

Bezala gizakien arraza guzia sobera gosetia.

- 595 Gehiago dena, miretsi behar ezta begiek zeren gatik
 Eztezaketan leku batzuetan gauzak agerian ikus leku
 Beretarik dathozenean mintzoak eta beharriak joiten
 Dituztenean. Athe hetsitik ere solas bat usu dantzugu
 Segurki mintzoak gorputzetako hodi bihurtuak osorik
 Iragan dezazkelakotz, iduriek egin eztezaketena,
 Ezen urratzen dira hodi zuzenetan joiten ez tirenean
 Hala nola berinan, itxura guziek iragaiten baitute.
 Alde guzietan barreatzen da gainera mintzoa batzuek
 Bertzeak sortzen dituztenaz geroz, bakar batek jauzi
 Eginez batean ainitz sortuak baititu, suak ohi duen
 Bezala bertze suetan usu bere phindarren uzitzea.
 Beraz mintzoez betetzen dira gibeletik inguruan ziren
 Leku baztertu guziak eta oiharzunari hel dagiote.
 Iduriak aldiz bide zuzenetan doaz guziak batean
 Igorri diren bezala, horren gatik ehork ezpaitezazke
 Hesien barnean hauteman, mintzoak hartzen direnean aldiz.
 Etxetako harresiak iragaiten dituenen halere
 Mintzoa hingatzen da 'ta beharrietara sartzen nahasirik,
 Eta hitzak baino lehen entzuten dela soinua dakusagu.

(Gostua)

- 615 Eta gostua sendi dezaguntat mihiak et(a) aho-sabaiaik
 Badute bere baitan bere lanaren arrazoin bat gehixago.
 Jusa sendi dugu lehenik ahoan janaria mastekatuz
 Jin-arazten dugunean, urez bete den belogia bezala
 Eskuaz batek azkarki zapaturik hasten denean agortzen.
 Jin-arazia dugun jusa hedatzen da hortik aho-sabaiko
 Hodi guzietan eta mihiko xilo bihur et(a) argaletan.
 Hor dabilan jusaren gai lehenak baitira leunak, eztiki
 Hunkitzen dituzte mihiko gune guziak et(a) ahogozoaz
 Inguruan bustiak direnenen eztiki higitzen dituzte.
 Aldiz sensua sistatzen et(a) urratzen dute noiz ere jalgirik
 Laztasunez beteak baitira zeinbat eta zeinbat gehiago.
 Atsegina jusetik denean ahosabaian da bururatzen;
 Baina denean eremana gero hodiedetan hara beheiti
 Atsegirik ezta guzia baita soinadarretara bulzatzen.

Eta baliorik gabe da zein janariz den alhatzen gorputza,
Egosirik hartzen dukana soinadarretara hedatzen ahal
Bazaik, eta begiratzen ahal badauk urdailak bere hezea.

- 633 Orai batzuen eta bertzentzat zein janari diren ikus dezagun
/.../
Argituko dut, ala zergatik batzuentzat trixte 'ta samina
Dena, bertzer haler(e) ezin eztiago zaien iduritzen ahal.
Gauza horietan ezperdintasun eta berexgoak hain handi
Dira nun batzuer janari zaiena phozoin gaitz baitzaie bertzer.
Hori sugeaz bezala da, gizonaren thuaz denean hunki
Suntsitzen baita 'ta bere burua xehakatzen duela hiltzen.
Gainera phozoin bat samina denean guretzat lupu-belarra
Aldiz hazten ditu 'ta gizen-arazten ahuntz eta galepherrak.
Ezagun dezakekan zein arrazoinen gatik gertatzen den hori
Behar duk lehenik orhoitu aitzinean erranak ditugunez,
Gauzetan gai lehenak ainitz moldetan nahasirik badirela.
Bertzalde janaria hartzen duten bizidunen mota guziak,
Kampotik itxuraz ezperdin direnean eta motaren arau
Soinadarren azken muturra berezia gelditzen zaienean,
Hortakotz itxuraz ezperdin izaiten dira hazietan ere.
Haziak ezperdin direnean bada beharrez ezperdinak
Dituzt(e) artekak eta bideak, larxiloak deitzen baititugu,
Soin-alderdi guzietan, ahoan et(a) ahosabaian berean.
Behar dira beraz batzuetan ttipi, bertze batzuetan handi,
Batzuetan hirur-kantoindu, bertze batzuetan laur-kantoinduak,
Ainitz biribil, molde ainitzetan ainitz izkindunak batzu.
Ezen nahi duten bezala gaien moldek eta mugimenduek,
Berdin ere larxiloen itxurek ezperdin izan behar dute,
Eta beraz bidek eta lekuen egiturek izan ezperdin.
Orduan batzuer ezti zaiena bertzer zamin baldin bazaie
Ezti zaienarentzat gai lehenek leun-leunak izan behar
Dute 'ta bildu-bildurik ahosabaiko xiloetara sartu;
Aldiz janari hori bera barnean mingarra zaien haientzat
Gai latzak eta makodunak dira segurki sartzan zintzurrera.
Orai errex da bakoitzaren ezagutzea gauza horietan.
Eiki kheldar soberatik norbaiti zakonean sukarra sortu
Edo bertz(e) arrazoinenez eritasun azkar bat phiztua denean
Orduan gorputz osoa hor nahasmenean izaiten da 'ta gai

Lehenen lerrokatze guziak aldatuak izaiten dira hor,
 Hala nola nun sensuari lehenik on zizazkon gaiak orai
 Onhargarriak ezpaitzazko, bertzeak aldiz egokiagoak,
 Sarturik eman ahala zutelarik alta sendipen samina,
 Eztiaren gostuan bat eta bertzea nahasten direlarik
 Aitzinean jadanik dugun bezala ainitz aldiz erakutsi.

(Usaina)

- 673 Orai erranen dauiat usain baten egozteak nola hunkitzen
 Dituen sudurrak. Lehenik gauza ainitzak izan behar dira
 Handik ixuriz usainen uhain bereziak airatzen direnak,
 Eta airean ixurtzen, igortzen direla gogatu behar da
 'Ta hedatzen orotan; baina bizidun batzuer bertze batzuer
 Baino zezteenak egokiagoak, moldetan ezperdinak dira.
 Hortakotz erleak airean eztiaren usainaz nahi bezain
 Urrun bidatzen dira , 'ta saiak hilkienez; nora duten ere
 Basihizien hatz xardetuek hartu bidea, zakurren indar
 Segurrak hara deramatza 'ta gizon usaina zuen senditu
 Urrundik anzara zuri Romuluztarren hiri zalbatzaleak.
 Horrela batzuer eta bertzer eman zaien urrinak derama
 Bakoitza ber(e) alhagietara 'ta baztertzer bortxatzen du zital
 Gaixtotik, et(a) ihizien motak molde hortan dira begiratu.
 Sudurrak hunkitzen dituzten usain horietan batzuek beraz
 Ahal dute joan urrunago bertze batzuek baino; bat halere
 Hetarik ezin ereman daiteke soinu doan bezain urrun,
 Ez mintzoa bezain, ez, erran gabe doa, begien so zorrotza
 Joiten duten gauzak et(a) ikuspena sortarazten dutenak bezain.
 Ezen emeki jiten da dabilan usaina 'ta hiltzen goizegi,
 Errex izanez apurka barreatua airearen ufetan,
 Nekez delakotz hastapenean gauzaren barnetik igorria.
 Ezen gauzetan usainen ixurtzeak barnetik eta joaiteak
 Erran nahi dute gauza hautsi guziak ikusten direla
 Usaintzen gehiago, lehertuak ere 'ta suan erhaustuak.
 Gero segur da mintzoa baino gai lehen handiagoez dela
 Usaina moldatua harresietan hara sartzen eztelakotz,
 Mintzoak eta soinuak iragaiten dituztelarik ohiki.
 Ikusiko duk ere horren gatik ezuela hain errex denik
 Bilatzeak zein lekutan jarria den usaina bademan gauza.
 Alabaina bufadak hotza biltzen du airetan zehar beranduz

Eta gauzen mezuak eztira beroak heltzen sensueta.
Hortako dira ainitz aldiz hatzak bilatuz ihiztorak galtzen.

- 706 Ezta bizkitartean usainetan bakarrik hau gertatzen eta
Gostuen motan, baina horrela gauzen itxurak eta margoak
Etzezte guzier guziak berdinki sensuentzat onhargarri,
Zenbait eztiren bezala begiko saminegiak guzientzat.
Gehiago dena oilarrak hegalez gaua haizaturik ohi
Bezala goraki oihuaz argi-hasteari hel dagionean,
Lehoin errabiatuek ezin iraun dezakete haren kontra,
Ez egon hari beha, beraz orduan ihesa dute gogoan,
Segurki oilarren gorputzean badirelakotz gai lehen batzu
Lehoinen begietara direnean igortzen urratzen dutenak
Haien ñiñika 'ta dauenak eman-arazten oinaze samina,
Hala nola nun abre burgoiek ezin baitezakat(e) iharduk.
Horiek halere gure soak eztezakete batere zauri,
Ala sartzen eztirelakotz, ala hetan sarturik zaielakotz
Eman libre begietarik jalgitzea, han egoiteaz alde
Batetik ez bertzetik ez ahal ditzaten andea begiak.

(Arima 'ta gogoa)

- 722 Onhar ezak orai zein gauzek duten gogoa higitzen eta hitz
Gutitan ikas dathorzen gauzak nundik dathorzen adimenera.
Lehenik hau diot: gauzen iduri ainitz badabiltzala ainitz
Moldetakoak, mehe-meheak, alde guzietarik nun nahi,
Airean elgarrekin errexki juntatzen direnak, aitzinean
Dathorzenean armiarmen sareak et(a) urr-orstoak bezala.
Horiek alabaina ainitzez meheagoak dira josturaz
Begiak hartzen dituztenak eta soa joiten dutenak baino,
Soin argaletik sartzen direnaz geroz eta higitzen dutenaz
Geroz barnean gogoaren jite mehea 'ta joiten sensua.
Horrela ditugu Giza-zaldiak ikusten eta Zkilen soinak
Eta Kerberozen zakurren muturrak, eta lurrak hezurreria
Eztaltzen dauen eta herioak hartu dituenen itxurak.
Alabaina mota guzien itxurak han-hemenka badabiltza,
Zatiz berainik eginak izaiten direnak airean berean,
Zatiz ere gauza batzuetarik urruntzen direnak noiztenka
Eta horien idurietan moldaturik egiten direnak.
Ezen ezta segurki Giza-zaldi bizitik egin iduria

Ehoiz ezelakotz izan ihizi holako baten naturarik;
 Baina halabeharrez gizonaren eta zaldiaren itxura
 Biltzen direnean errex dira berehala lotzen erran dugun
 Bezala, naturaz arinak direlakotz eta josturaz mehe.
 Arrazoin beraz egiten dira mota hortako bertze guziak.
 Horiek higituz arintasun handiengan joaiten baitira
 Erakutsi bezala aitzinean, ukhaldi bakar batez errex
 Higitzen da gutan nola nahi gogoaren itxura mehea,
 Zeren adimendu(a) arina baita 'ta miragarriki higokor.

- 749 Diotana horrela dela hemen ikasten ahal duk errexki.
 Adimenaz eta begiez ikusten duguna berdina denaz
 Geroz behar da molde berdinean ere dadin egin izana.
 Orai beraz erakatsia dutalakotz lehoin bat dutanean
 Gertuz ikusten iduri batzuek begiak joiten dituztela,
 Jakiten ahal duk adimena higitzen dela molde berean,
 Lehoin eta bertzeak iduriez dakustza begiek bezala
 Ez gutiago, hau ezpada: hautemaiten ditu meheagoak.
 Ezta bertze moldez, loak dituenengan soinadarrak hedatu,
 Atzarririk egoiten adimena, zeren atzarririk egoitean
 Dakuskigun iduri hek berek gogoak joiten baitauzkigute,
 Hainbaterano nun iduritzen baitzaiku dakuskigula zinez
 Utzirik bizia herioak eta lurak dituztenak hartu.
 Naturak nahi du hori dadin egin zeren soineko sensuak
 Soinadarretan erdi-lokharturik daudenean guziak geldi,
 Ezin jakin baitezakete falsu zer den egiazko gauzetan.
 Orhoitzea datza gainera 'ta loarekin ahuldua dago,
 Onhartzen du duela guti hila 'ta herioaren eskuan
 Zen hura gogoak bizirik hautemaiten duela sinestea.
 Gehiago dena higi daiten iduriak ezta zeren mirets,
 Eta zango-besoak neurkadan inharrosiak baldin badira,
 Zeren ikusten baita hori dagiela loetan iduriak;
 Alabaina bat joan denean egonara bertze batean sortu
 Da bigarrena, baitiduri lehen hura dela jestuz aldatzen.
 Hori segurki laster-aran egiten dela behar da gogatu,
 Hain da handia mugimendua 'ta hain dira ainitz iduriak,
 Eta nahi dukan ephe sendigarri bakar batean hain handi
 Da gai lehen andana nun guziari baitauko hornitzen ahal.

777 Ainitz galdatzeko bada gauza horietan eta behar dugu
 Guk ainitz argitu, nahi baditugu gauzak eman zabalean.
 Lehenik galdatzen da zergatik, gura bat zakonean norbaiti
 Jiten, haren adimena den orduan berean hartaz gogutzen.
 Iduriek ote dute gure borondatearen gobernua,
 Et(a) iduria heldu zaikua nahi dugun orduan berean
 Itsasoaz, lurraz, azkenik zeruaz baldin bada gutizia?
 Naturak hitz batez egiten ote ditu 'ta prestatzen gizonen
 Bilzarreak, zeremoniak, aphairuak eta guduak oro?
 Oroz gainetik herri 'ta leku hartan berean bertze batzuek
 Gogoan dituztenean errotik ezperdin diren gauza batzu.
 Zer erran ametsetan itxurak ikusten ditugunean urhatsak
 Neurturik aitzinatzen soinadar malguak higitzen dituztela,
 Bere beso malguak aldizka higituz derabiltzatelarik
 Eta oin zuzenarekin errepikatuz begietan jestua?
 Zinez iduriak antzez beteak direa 'ta jakinduruak
 Ibiltzen gau denean bere jokoen egin ahal ukaiteko?
 Ala date hau izaitekotz egia: zeren ordu bakar batez
 Sendi dugunean, hori da denean eman elhe bat bakarra,
 Gordetzen direlakotz arrazoinak hartzen dituen ordu ainitz,
 Horren gatik gertatzen baita nahi den orduan prest badirela
 Hor berean eta leku guzietan iduri mota guziak?
 (Iduriek hain dute mugimendu handia 'ta hain ainitz dira!
 Eta bat suntsitzen deneko beraz, egonara bertze batean
 Sortu da bertzea, baitiduri lehena dela jestuz aldatu.)
 Eta meheak direlakotz indar egiten ezpadu gogoak
 Eztezazke garbiki hauteman; hortik heldu da direnak oro
 Galtzen direla gogoak ezpaditu lehenago beretuak.
 Beraz hori badagi berak eta geroaren aiduru dago
 Ikus dezan egintza batek, den bezala, zer ondorio duen.
 Ez ote duk ikusten begiek ere, hasi direnean gauza
 Mehe batzuer ohartzen, indarretan dutela prestatu behar,
 Ezpaititugu hori gabe gauzak hautemaiten ahal garbiki?
 Eta bizkitartean ezagun dezakek argi diren gauzetan
 Beretan ezpadauek gogoa haier emaiten, gertatzen dela
 Beti hortik gauzak baztertzen balire bezala norapait urrun.
 Zer da beraz mireskarri denik gogoak galtzen baldin baditu
 Bera haier lotua zaien iduriez bertze gauza guziak?
 Gero seinale ttipietarik handienak asmatzen ditugu

Eta sartzen gira guhaur enganioak dakharren gezurrean.
 Gertatzen ere da batzuetan eztela mota berdinekoa
 Den iduri bat ukaiten, aldiz emaztea zena aitzinean
 Orai besoen artean ikusten dela gizon bilakatua;
 Adin ala aurpegi bertzelakoek darraikete batzu bertzer.
 Hortaz mirets ezkaiten loak et(a) ahazteak artha hartzen dute.

- 823 Huts behargabeko hau bada handizki gauza horien barnean
 (...)
 Ihes egiteko 'ta aitzin beldurturik hutsaren baztertzeiko,
 Eztezakan sinets egin direla begien argi garbiak
 Ikus ahal dezagun urrunean, ez urhats luzeak bideko
 Aitzina ahal gaitentzat, hortako zango sagarren et(a) izterren
 Buruak oinen gainean bermaturik plegatzen ahal baitira;
 Ez ere soingain azkarretan estekatuak ditugun besoak
 Et(a) alde bietan esku zerbitzariak eman izan biziko
 Erabili behar ukanen direnak egin ahal ditzaguntzat.
 Zer ere diren molde hortan argitzen diren bertze gauzak, oro
 Gaiztatzen dira aitzinetik gibelera doan arrazoin hortaz,
 Deus eztelakotz erabil ahal dezaguntzat gorputzean sortu
 Baina sortua den batek erabiltzea duelakotz emaiten.
 Etzen ikusterik izan begiak sortu aitzinean ez eta
 Erranetan mintzatzerik mihia moldatua zen baino lehen,
 Izaitekotz mihiaren agertzeak zuen urrundik aitzindu
 Elhea, 'ta beharriak eginak ziren soinua entzuna den
 Baino lehenago ainitzez, et(a) azkenean soinadarrak oro
 Izan dira haien erabiltzea baino lehen, uste dutanaz.
 Eztira beraz erabil ahal zaitezten arrazoinez handitu.
- 843 Aharra 'ta guduak aldiz eskuaz ekharriak izan ziren
 Eta soinen xehatzea 'ta soinadarren odolez zikintzea
 Geziak dirdiran airatu ziren baino lehenago ainitzez,
 Eta naturak bortxatu zuen zaurietarik begiratzera
 Antzez ezkerrean erredolaren geriza zeman baino lehen.
 Agerian atsedenera manatua zen gorputz akhitua
 Estalgi guriak ohetan izan baino lehenago ainitzez,
 Et(a) egarriaren hiltzea basoak baino lehen sortua da.
 Sinets daiteke beraz arrazoin ezagunaz direla horiek
 Erabiltzeko aurkituak eta behar direlakotz biziko.

Baina berez izanak ziren lehenago duten balioaren
 Ezagutzea geroztik eman daukuten gauza horiek oro.
 Mota hortan ikusten ditugu lehenik sensu 'ta soinadarrak;
 Beraz berriz eta berriz ezin sinets dezakek urrundik ere
 Egin izan ahal direla baliagarriak izaitekotan.

(Gose 'ta egarri, urhats eta ibiltze)

- 858 Ezta hau ere miresteko den zerbait, bizidun bakoitzaren
 Gorputzeko naturak berak duela bilatzen hazkurria.
 Alabaina gorputzek ainitz gauza badariotela 'ta galtzen
 Dutela ainitz moldetan erakatsia dut, baina gehiago
 Joan behar da bizidunetarik. Horiek mugitzen direlakotz
 Tinkaturik izerdiaz barnetik gai ainitz ixurtzen baitute,
 Ainitz igortzen ahotik akhiturik hats-bahitzen direnean,
 Beraz gai horietaz bekantzen da soina 'ta natura guzia
 Azpitik higitzen, oinazea zakonean horri jarraitzen.
 Hortako da hartzen janaria hazia dadin izan gorputza
 Eta bersor ditzan uziturik indarrak, gero soinadarretan
 Eta zainetan agertua den gutizia dezan janez ase.
 Edaria berdin barreatzen da hezea galdegiten duten
 Leku guzietan; eta beroaren gai ainitz elgarretara
 Bildurik urdailean sute batzu sortarazten dauzkigutenak
 Edariak jitean haizatuz iraungitzen ditu, suaz bero
 Luzeago batek ez ahal ditzan erre soinadar agortuak.
 Horrela duk beraz gure gorputzean egarri hats-bahitua
 Ureztatzen, barurak bademan jangura horrela duk asetzen.
- 877 Orai zerk egiten duen urhatsak nahi bezala aitzinera
 Igor ahal ditzagun et(a) emana den ezperdinki soinadarren
 Higitzea, 'ta zerk ohitu zuen indarrez bultatzera hazta
 Hoin handiko gure soina diat erranen: hik entzuzkik erranak.
 Diot ibiltzearen iduriak lehenik ethortzen direla
 Eta gogoia dutela joiten, erran den bezala aitzinean.
 Hortik sortzen da borondatea, zeren ehork gauza bat ezpaitu
 Hasten gogoak ezpadu zer nahi duen ikusi aitzinetik.
 Zer ere duen aitzinetik nahi, bada hor haren iduria.
 Beraz gogoia berainik horrela higitzen denean nahi duen
 Bezala joan eta aitzinatu, gorputz osoan berahala du
 Joiten arimaren indar jarria soinadar eta haltsarretan;

Errex egiten du, horiek lotuak direnaz geroz elgarri.
 Arimak aitzina joiten du gorputza, 'ta horrela gorputzaren
 Meta guzia gutika 't' osoan bulzatzan eta higitzen da.
 Gainera gorputza denean argaltzen ere, airea badathor
 Idekitik, segurki higikorrek behar duen bezala beti,
 Eta sartzen da nasai larxiloetan eta horrela hedatzen
 Da gorputzeko zati ttipi bakoitzarano. Beraz egiten da
 Hori gauza bien gatik gorputzaren alde bat eta bertzean,
 Untzia oihalek eta haizeak eremaiten duten bezala.
 Halere gauza horietan ezer ezta mireskarria denik,
 Hoin tipiak diren gai lehenek bihurr-arazten ahal badute
 Gorputza 'ta gure phizu guzia badute higitzen ahal.
 Zinez alabaina haize mehe gorputzez arinak itsas-untzi
 Handi bat bulzatzan ahal du gaitzekoa den indar baten bidez,
 Eta nahi den oldean doalarik esku bakar batek eta
 Lema bakar batek dute nahi duten moldean itzul-arazten;
 Xirritez et(a) errotez lagundurik hazta handiko ainitz gauza
 Arinki bermaturik higitzen eta jasaiten du tresna batek.

(Loa)

- 907 Orai loak atsedena soinarretara zer moldez hedatzen
 Duen eta gogoko griñak bihotzean urtzen erakutsiko
 Dut, nasaiak baino gehiago goxoak diren neurthitz hauean,
 Hobe den bezala beltxargaren kantu laburra, lertsunen oihua
 Bano airean hegoko hedoietan barreatua denean. (*)

(*) *Ikus gorago n. 182-183.*

Hik atxizkitak arin beharriak eta xorrotx heure gogoa,
 Ez ezets diotana gerta daitekeela 'ta bihotzez gaitzetsirik
 Erran egiazkoetarik ehadila joan urrun gibelera,
 Hihaur hutsean izan ehadin et(a) eztezakan hauteman ahal.
 Loa gertatzen da lehenik gorputzean arimaren indarra
 Barreatu denean eta kampa zatiz igorri denean,
 Eta gehiago bortxaturik denean zatiz barnera bildu.
 Ezen orduan soinarrek urtzen iduri dute 'ta joaiten:
 Ezta dudana eman behar gure baitan dugun sendimendu hori
 Arimaren lana dela. Loak izantza tratatzen daukolarik
 Gogatu behar da gure baitan arima zentzordatua dela
 Et(a) egotzia kampa; betean ez, zeren herioarean hotz
 Betierekoaz barne guzia beterik gorputza latzake.

Alabaina soinadarretan arimaren zatirik ezteanean
 Batere geldituko hautsaz estalirik sua dagon bezala,
 Orduan nundik ahal da sendipena soinadarretan bapatez
 Berreginen, gordea dagon sutik jalgitzen den bezala garra?

- 929 Baina zer moldez egiten den berritasun hori, 'ta nundik ahal
 Ote diren arima zentzordatzten eta langitzen gure soina
 Argituko dut: hik egik elhe hauk eztitzatan haizean ixur.
 Lehenik beharrezkoa da gorputza zati kampokoan auzo
 Dituen haizez hunkia denaz geroz erhautsia dadin izan
 Errepikatzen diren ukhaldien gatik eta khordokatua;
 Eta hortakotz abantzu dira gauza guziak edo larruaz,
 Edo kuskuez, edo kailuaz, ed(o) azalaz estaliak. Hatsa
 Hartzen dutenetan ere barnean den aldea aireak berdin
 Azotatzen du sartzen denean eta doanean gibelera.
 Gorputza bi aldetarik ezperdinki zartatzen denean
 Eta xilo ttipietarik jotaldiak zazkunean soineko
 Azken zatietara 'ta lehenbiziko gaietarano heltzen,
 Apurka soinadarretan hondamen bat bezala gertatzen zaiku.
 Alabaina gorputzeko 'ta gogoko gai lehenen egonarak
 Nahasten dira. Gertatzen da hortik arimaren zati bat dela
 Igortzen kampa, 'ta bertze zati bat barnera joanik gordetzen;
 Beraz soinadarretan barreaturik dagon zatia batera
 Bil ezin daite 'ta batean eztezake mugimendurik eman.
 Naturak alabaina batera biltzeko bideak hesten dauzko,
 Mugimenduak aldaturik sendipena barnera doa beraz.
 Eta soinadarrak bermatuko dituenik ezelakotz abantzu
 Ahuldua da gorputza 'ta langitzen dira soinadar guziak,
 Besoak eta betespalak erortzen, et(a) amor emaiten dute
 Ere datzanaren zango-belhaunek, et(a) indarrek ihes egiten.
 Jatearen ondotik darraika loa, zeren aireak duena
 Egiten janariak berdin egiten baitu hedatzen delarik
 Zain guzietan. Eta ainitzez phizuago zaik lokhartze hori
 Izaiten asebetterik et(a) akhiturik hartzen baduk, orduan
 Lan handiaz gaizkiturik nahasten baita gai lehen gehiago.
 Molde berean arimako barnatuena gertatzen da zatiz
 Bilduago 'ta handiago kampa bulzatua duen hura,
 Batasunean berexiago 'ta barreatuago barnean.

(*Ametsak*)

- 962 Eta bakoitza zeri zakon ohian izaiten atxiki(a) arthoski
 Edo zein gauzetan egon giren lehenago luzaz gelditurik
 Eta duen adimenak gehienik indar egina hortako,
 Ainitz aldiz horiek berak iduri zaizku jiten ametsetan:
 Abokatek auziak dagitzatela 'ta lege moldatzen ari,
 Armadako buruzagiek gudura 'ta gerlara direla joaiten,
 Itsasturiek haizearekin hasi duten guduan direla,
 Guk aldiz lan huntan ari girela, beti gauzen natura zer den
 Bilatzen, eta aurkitu dena aiten hizkuntzara demagula.
 Ikusten da horrela ainitz aldiz ametsetan gizonen gogoak
 Alegiazko bertze lan et(a) egintza batzuek daduzkatela.
 Eta gelditu gabe jokoen egitekoetan ainitz egun jarraikian
 Eremaiten dituzten guzier ainitz aldiz ikusten dauegu,
 Horiek jadanik sensuen hartzetik geldituak zezteelarik,
 Bideak gogoan idekirik utziak dezteetela halere,
 Handik ethorzen ahal baitira gauza horien iduri berak.
 Hortako ainitz egunez begien aitzinean agertzen zeztee
 Eta berdin atzarririk iduri zaie dantzatzen hautemaiten
 Dituztela 'ta soinadar malguekin mugimenduetan ari,
 Eta beharriez dantzuzkitela kithararen aire garbiak
 Eta zurdak mintzatzen, hautemaiten entzule haien bilzarrea
 Et(a) aldi berean antzokian aphaindura guziak dirdiran:
 Hainbat da handia lanek et(a) atseginak duten ondorioa,
 Eta zein gauzen egiten ohituki diren hartuak izanak
 Ez bakarrik gizonak baina zinez bizi diren guziak ere.
- 987 Hortakotz zaldiak ikusiko dituk azkarrik zango-besoez
 Ametsetan etzanik izertzen eta hats-hantzen halere beti
 Eta garhaitzeko bezala ber(e) indar handienez gudukatzen,
 Edo zaltegiak idekirik bezala ... (*neurbitz ondarra galdu da*)
 Ihiztorek ere ainitz aldiz atsedean gozoan daudelarik
 Bapatez higitzen dituzte zangoak, ustegabeen ehausi
 Emaiten dute, hatsa sudur-ziloetarik berriz usu hartzen,
 Basihizien hatzak aurkituak ukan balituzte bezala,
 Eta ainitz aldiz iratzarririk oreinen itxura hutsaler
 Zeztee jarraikitzen ikus balitzate bezala joaiten ihesi,
 Itzultzen diren ordurano bere baitara hutsaz oharturik.
 Et(a) etxeko xakurren ohiko mota pherekaria hasten da

Berehala khexatzen eta lurretik lasterretan abiatzen
 Begitarte 'ta mutur ezezagun batzuer oharturik bezala.
 Eta nun ere diren izaiten gai lehenetako latzagoak
 Hek berek ametsetan are bortitzago behar dute khexatu.
 Hegaztin ainitzek aldiz ihes egiten dute 'ta gau denean
 Bapatez jainkoen oihanak hegaldatzean uhertzen dituzte
 Lo goxoan belatzak haier guduka hasten eta jarraitzen
 Zezteela baldin badute doazelarik airean ikusia.
 Bertzalde gizonen gogoak egintza handietan ainitz artzen
 Baitira, berdin ametsetan ainitz aldiz egintzan ari dira:
 Erregeak jaukitzen, hartuak izaiten, gerletan abiatzen,
 Oihuka hasten direla hor berean sarraskituak iduri.
 Ainitzek gudu dagite 'ta auhenak dematzate oinazetan,
 Eta panteraren edo lehoin abrearean ausikiz balire
 Bezala jan oiuhu handiez betetzen dituzte bazter guziak.
 Ainitz lo direnean egintza handi batzuez mintzatzen dira
 Eta hori da ainitz aldiz egina dutenaren seinale bat.
 Ainitz badoaz heriora. Ainitz mendi gorenatarik lurrera
 Gorputz osoaz erortzen balire bezala hartzen ditu lastak,
 Eta lotik atheratzean, balute bezala gogoa preso,
 Nekez bere baitaratzen dira soineko nahasmenaz ikharan.
 Bertze bat egarriz ibai al(a) ithurri goxo bati jarri zako
 Hurbil, osoan ibaia hartuko balu bezala zintzurretik.
 Gizon edanek (*), uste baldin badute loaz garhaiturik untzi
 Edo barrika motz baten ondoan ainitz aldiz jantziak khentzen
 Dituztela, bere gorputz osoan irezi duten urxuria
 Ixurtzen dute tapiza babiloaniar mireskarriak bustiz.
 Adinera hurbilduer haziak dezteeneko hodiak hartu
 Barnean, soinadarretan zohitu zaien egunean berean
 Itxurak heldu zeztee betan kampotik eta gorputzetik ere,
 Iragarle begitartez miragarriak eta margoaz ederrak,
 Hazi ainitzez hantu guneak atzarriz sustatzen deztaute,
 Hala nola nun gauza guziak eginik bezala ainitz aldiz
 Uhain nasai bat ixurtzen baitute 'ta bustitzen jantzia.
 (*) "Edanek" edo "ahalgetiek"? hitz hau dudazkoa emaiten dute.
 (Itzultzailearen oharra).

1037 Aitzinean erran dugun hazi hori khexatzen da gutan adin
 Helduko hasteak soinadarrak azkartuak dituen orduko.

Eta gauza batez baitira bertzeak joak eta higituak,
 Gizonaren indar bakarrak du hartan sustatzen giza-hazia.
 Hori ber' egoitzetarik igorria joaiten den ordu berean,
 Alderdi 'ta soinadarretan hara gorputz osotik urruntzen da
 Zainen leku batzuetara bilduz eta berehala soinean
 Ernaltzale diren alderdi hek berak orduan sustatzen ditu.
 Leku horiek sumindurik hantzen dira haziz eta jeikitzen
 Da gutiziak gogo duenera horren igorzeko nahia
 Amorez gogoa gaizkitu duena galdatzen baitu gorputzak.
 Ezen oro gehienetan erortzen dira zauri den aldera
 Eta joak izan giren alde hartan odola da jariotzen,
 Eta hurbil denean etsaia zirrizta gorriak estaltzen du.
 Horrela beraz jo duena Benuzen geziaren ukhaldiak,
 Ala soinadarrez emakarako mutil gazte batek igorri
 Duen, ala soin osotik amorea darion emazte batek,
 Badoo joa duenaren aldera, nahi du harekin batu,
 Et(a) egotzi soinetik eremana den hezea haren soinean,
 Gutizia mutuak senditzen baitu aitzinetik atsegina.

(Maitasuna)

- 1078 Hori da guretzat Benuz, maitasunaren izena hortik beraz;
 Hortik ixuri zen lehenik Benuzen eztitasuneko xorta
 Hura bihotzean, eta gero griña hotza jarraiki zizakon.
 Ezen maite dukana hor ezpaduk, haren iduria halere
 Badagok, haren izen ezitia beharrietan atxikitzen duk.
 Baina behar dik ihes joan idurietarik eta maitasuneko
 Alhagia bazter eman nor bere ganik eta gogoa zerbaiz
 Bertzetara bihurtu 'ta hazi bildua nahi den gorputzera
 Egotzi, lehenik ez eduki bakar baten maitasunarentzat,
 Ez eta griña 'ta segur den bihotzmina nor beretzat atxiki.
 Zeren alhatuz min-gaixtoa bizkortzen baita 'ta zaharrarazten,
 Egunetik egunera handitzen errabia 'ta larriagotzen oinazea,
 Ezpadituk zauri lehenak uhertzen ukhaldi berri batzuez,
 Ez lehenik ibiliz sendarazten Benuz ibilkariaz, edo
 Gogoaren oldea bertze nunbait ezin ezar ahal badezak.
- 1074 Ezta maitasuna baztertzen duena Benuzen fruiturik gabe
 Baina hobeki baliatzen da zigorrik gabeko gozagaiez.
 Ezen hortik atsegina zinez dohakabek baino garbiago

Dute gogo sanoek. Alabaina gozatzeko demboran berean
 Maitarien garra badabil huts dudazko batzuetan galdua,
 Lehenik begiez et(a) eskuez gozatuko denez ezta segur.
 Gutiziatzen dena hertsatzen dute 'ta gorputzean oinazea
 Emaiten, eta hortzek ezpain beratzak uspeltzen dituzte ainitz
 Aldiz eta musuek zaurtzen, eztutelakotz atsegin garbi,
 Eta badirelakotz azpian akulu min egin-arazleak,
 Errabia horren hoziak jeiki dituen hura zer den ere.
 Baina maitasunean Benuzek arinki hausten ditu zigorrak
 Eta nahasiz atsegin goxoak ausikiak eztitzen ditu.
 Ezen agiantzatzen da suaren ithurburua den lekuan,
 Gorputz hartan berean, berriz iraungitzen ahalko dela garra.
 Holakorik gertatzen dela kontraktatzen du naturak osoan,
 Eta gauza bakar hortan noiz ere dugun ukana gehiago,
 Gutizia gaitzaz are gehiago da bihotza sutan jartzen.
 Alabaina jan-edanak soinadarren barnean hartuak dira;
 Horiek leku batzu segurrak hartzen ahal dituztenaz geroz
 Errex asetzen dute janarien et(a) edarien gutizia.
 Baina gizakiaren aurpegitik eta larruantz(e) ederretik
 Deus ezta gorputzera gozatzekorik emaiten, iduri mehe
 Batzu salbu: ainitz aldiz agiantza herbail haizez eremanak.
 Loan egarriturik edatea bilatzen duena bezala
 Et(a) edaririk ez ukaiten, soinadarren sua hil ahal dezan,
 Edarien itxuraz alta galde du 'ta bairan izaitez neke,
 Uhaitz erdian egarriz dago duelarik ibaian edaten.
 Amorean horla maitarien iduriez Benuz jostatzen da,
 Aseak ezin izan daitezke gorputzak aitzinean ikusiz,
 Ezin ere dute soinadar gurietan eskuez zerbait bildu
 Gorputz osoan han eta hemen dabiltzalarik duda gogoan.
 Azkenik adinaren loreaz gozatzen direnean elgarri
 Lotuz soinadarrak, zoriona gorputzak senditzen du jadanik,
 Eta hor ari da Benuz erein dadin emaztearen alhorra;
 Amikatuki tinkatzen dute gorputza 'ta nahasten ahoan
 Thuak, eta hortzekin ahoen zapatzean hartzen dute hatsa;
 Auherretan, ezer ez tutenaz geroz hortik eremaiten ahal
 Eta gorputz osoaz gorputzean ezin daitezke sar ez jalgi;
 Iduri baitu nahi hortan direla batzuetan gudukatzen,
 Hainbat dira Benuzen lokarrietan hartuak amorratuki
 Atseginen indarraz xoraturik urtzen direnean gorputzak.

Halere jalgia delarik zainetan bildua den gutizia
 Arte batez egiten da sukar bortitzaren gelditze ttipi bat;
 Errabia bera dathor gero berriz eta khar hark hartzen ditu,
 Bilatzen baitute berek zeren ukaiteko gutizia duten,
 Eta zein tresnek gaitza garhaituko dauen eztezakete aurki
 Hainbat dira jakin gabeen suntsitzen dituen zauri gordez.

- 1121 Emak indarretan ahitzen eta nekatzeaz hiltzen direla;
 Emak oraino bertze baten gostura dela bizia higatzen.
 Anartean ontasuna jaten da 'ta joaiten Babiloniako
 Tapizetan, lana baztertzen eta aiphua gaizkitzen ahulduz.
 Oinetan oski Zikyoniak eder usainonduak egiazki
 Didiran dira 't' esmeralda handien argi muskerrak urreez
 Artekatuak, eta jantzi margoz itsasarakoa higatu da
 Jarraikian erabiliz eta Benuzen izerdiaren edatez.
 Eta aiten ontasun onek burukoak, mitrak badagitzate,
 Artetan Elizko, Ziako oihalak zaia dira bilakatzen.
 Aphairu batzu jantziak eta janariaz arraroak, usu
 Jokoak, edariak, usainonak, koronak, trenzak aphailatzen
 Dira, debaldetan: garazien ithurriaren erdian sortu
 Delakotz loretan beretan hersturaz hartua den zerbait mingar,
 Ala gogoa bera khexatzen denean jakinez behar bada
 Atsegalekerian bizia higatzen duela auherretan,
 Ala hark igorri duen elhe bat delakotz dudakor gelditu
 Bihotzean loturik suak bezala phizten baitu gutiziak,
 Ala gogatzten baita sobera digortzala begiak edo so
 Dagola bertze bati 'ta dakustzala aurpegian irri hatzak.
- 1141 Oraino gaitz horiek maitasun iraunkorrean aurkitzen dira
 Eta gorenetik zorizkoan; baina zorigaitzekoan aldiz
 Et(a) eskasean begien argiak estalirik ohar haiteke
 Ezin zenbatuak direla; hobe duk beraz, erakatsi dutan
 Bezala behatzea aitzinetik ehadin izan hatzemana.
 Ezen ezta baztertzea maitasuneko gaitzetan erortzetik,
 Estekatuak gituztenean haren saretarik jalgitzea
 Bezain neke 'ta hauts-araztea Benuzen korropilo tinkien.
 Bizkitartean izanik ere hartua 'ta traban, etsaiari
 Ihes egin dezokek hihaur hire kontra jartzen ezpaldin bahiz,
 Eta aitzinean jartzen baldin badituk lehenik gutizia

Eta nahi dukan haren huts guziak gogoan ala soinean.
 Ezen gehienetan gizonak guraz itsu bilakatzen dira
 Eta dauzkote zinez emaiten harenak eztiren abantailak.
 Ikusten ditugu beraz emazte batzu ainitz moldez biziatu
 Eta galduak gostura biziz joritzen ohore gorenean.
 Alta maitariek batzu bertzez irriz sinets-arazten dauete
 Balaka dezaten Benuz, amore higunaz joak direlakotz,
 Ainitzetan, dohakabeak, bere gaitz handier ohartu gabe.
 Beltza "turmalina" da, zikin usainduak ez hartzen axolarik,
 Begi ñabarrak Palaz diduri, zaintsu gogorak orein-emea,
 Tipiegiak pampina, neure Karitoz, guzia gatz pikor bat,
 Handi gaitzekoak eder baldigarria 'ta maiestatea bera;
 Motel ezin mintzatuak gurguria du, mutuak xumetasun;
 Eta berotu, hastiagarri, kalakari bat zuzi bizi da.
 Anjereño lerdena bilakatzen da mehertasunez bizitzen
 Ahal ezten bat; eztulka hiltzera doan bat aldiz urguria.
 Gizena 'ta diti handia Kerez bera da Bakhuzez erdirik;
 Sudur zabala Zilena da 'ta Zaturä, ezpain handia musu.
 Luze lizate nahi banitu mota hortako bertzeak erran.

- 1171 Baina halere aurpegiak izan dadila nahi den ederra,
 Jalgi dadila Benuzen gemena haren soinadar orotarik,
 Badira hartaz bertzeak ere, lehen bizi ginen hura gabe;
 Berak egiten ditu, dakigularik, itsusi baten guziak,
 Eta, dohakabea, higungarri diren usainonez hantzen da,
 Sehiek urrun ihes baitagiote gordeka hartaz trufatuz.
 Aldiz nigarretan igorria den maitaleak haren alharzea
 Usu lorez eta xingolez estaltzen du, thorratzen ainduriez
 Athe burgoiak eta, gaizoak, atherdiak musukatzen ditu;
 Onhartua bada barnera, jitean lehen bafadak bakarrik
 Nardatuko du, 'ta joan nahiz arrazoin onak ditu bilatuko,
 Eta gogoan luzaz urrundik ondu zuen eresia deror
 Eta bere zozokeria salatuko du hor ikusten baitu
 Eman daukola zuzen dena baino gehiago hilkor batentzat.
 Eztitu horrek bairatzen gure Benuzak: are gehiago dute
 Bere biziko gibelunea gordetzen artha guziarekin
 Nahi baitituzte maitaleak amorean loturik atxiki;
 Debaldetan, zeren halere gauza guziak ekhar baitezazkek
 Gogoan argira 'ta bila dezakek zenbat diren irrigarri;

Eta bat ona bada gogoz, ez hastiagarri, kontra moldez
Onhar dadila 'ta gizakiaren beharrer utz bere lekua.

- 1192 Emazteak eztu beti maitasun alegiazkoaz hasperen
Egiten gorputzez hertsiki juntatzen denean giza-soinari,
Eta badatxikanean ezpainak murtxaturik musuak bustiz.
Ezen gogotik ari da ainitz aldiz, et(a) elgarren gozaldia
Bilatuz ibiltzera sustatzen du maitasunaren eremuan.
Eta hegaztinak, abelalde 'ta basihiziak, artalde 'ta
Behorrak arrez elaitzke bertze moldez menperatuak izan
Ezpaliz nasaiki haien natura bera sutzen eta susara
Jartzen eta jokatzalen Benuzek hunkitzen ezpalitu bozik.
Elgarren atseginak garhaitu dituenak ikusten ez ote
Duk ere ainitz aldiz nola dauden gatinetan oinazkatuak?
Herrialdetan zakurrak nahi dutelarik berexi zein usu
Kontrako gutizia batez ari diren indar handienetan,
Anartean Benuzen estekek hain azkarki lotu baitituzte!
Elegikete nehoiz elgarren gozoak ezpalitzate jakin,
Igor dezazketenak zepora 'ta garhaiturik atxikitzera.
Elgarrena da hortakotz atsegina, diot berriz eta berriz.
- 1209 Eta beharrez emearen haziak nahastean bapateko
Indarraz arraren indarra garhaitu 'ta aitzindu duenean,
Amaren hazitik umeak orduan amaren berdina dira,
Aitarenetik aitarenak nola. Baina bien itxuradunak
Ikusten ditukanak, nahasiz ondoan aitamen aurpegia,
Aitaren gorputzetik et(a) amaren odoletik dituk handitzen,
Elgarrekilako xede berdina soinadarretan aitzinez jo
Dituenean Benuzen sistez akulatuak diren haziak
Eta bat ez bertzea eztenean izan garhaile 'ta garhaitua.
Gertatzen ere da batzuetan arbasoen iduriak izan
Daitezkeela haurrak, eta aitasoak orhoit-arazten dituzte
Ainitz aldiz, usu gurasoek soinean ainitz moldetako ainitz
Gai lehen elgarrekin nahasiak edukitzen baitituzte 'ta
Ithurburu barnatutik aitek aiter dakhartzezte horiek.
Itxura moldez ezperdinak egiten ditu Benuzek horrela
Eta berrek hartzen arbasoen adatsak, aurpegiak, mintzoak,
Horiek egiten zaizkunaz geroz aurpegia 'ta gorputza 'ta
Soinadarrak baino deusetan gutiago segur ezten hazitik.

Jaiotzen ere da aita baten hazitik emazteki sesua
 Eta badira semeak amaren gorputzetik egin direnak.
 Alabaina haur ukaitea beti hazi bikunak egiten du,
 Eta nor ere den sortzen bien neurri berdinetik gehienik
 Duenaren iduri gehiago badik; ikusten ahal duk hori,
 Umea dadin ala gizonen al(a) emazten ethorkitik izan.

- 1233 Eztu jainkoen botereak baztertzen ernaltzearen hazia
 Norbaiten ganik, haur maitetarik aita nehor eztadintzat izan
 Deitua, 'ta bizi guziko dadin igor Benuz antzu batera;
 Uste dute hori ainitzek eta trixterik aldareak ainitz
 Odolez bustitzen eta temploak eskaintzez kheztatzen dituzte,
 Hazi nasai batez ernalduak ukan ditzatentzat emazteak.
 Jainkoen indar eta goi-erraner auherretan hel dagiete,
 Zeren antzuek edo hazia lodiegia baitute zatiz
 Edo behar baino neurrian ubilago, noizten ere mehegi.
 Mehegiak ahalik ezpaitu lekuan egoiteko loturik
 Ixuria da berehala 'ta doa bazterturik ilhortzera;
 Lodiegiak aldiz behar den baino tinkikiago delakotz
 Igortzen, ala hain emaitza nasaian ezin aitzina daiteke,
 Ala lekuetan ezin da berdinki sartzen edo han sarturik
 Emaztearen haziarekin hazia nekez da nahasia.
 Ageri da ainitzez ezperdin direla Benuzen harmoniak.
 Et(a) emazte batzu gizon batzuek ernaltzen dira gehiago,
 Bertze batzuek emazte batzu phizutzenago 'ta haur behartzen.
 Emazte ainitz ezkontza batzuetan lehenik antzu gelditu
 Ziren, gero halere norbait aurkitu dute haren ganik haurrak
 Ukan dituztena 'ta sortze goxatzalez aberastu datezke.
 Eta lehen etxean ernalkorrak ziren emaztek haurrik eman
 Etzaueten haier ere aurkitu zaie natura bat egoki
 Zizaiena, zaharraroa zezaten ukan lagundua haurrez.
 Hainbaterano du balio handia haziak ernaltzerako
 Egokiak batean nahasiak izan daitezken haiziekin,
 Eta lodiak meher doaztezen meheak lodier bezala.
 Eta hortan munta du bizia zein janariez den ohoratzen
 Ezen gauza batzuek hazia soinadarretan zihatzen dute
 Eta bertze batzuek meharazten eta gesal-arazten aldiz.
 Eta zein moldetan izaiten den atsegin gozoa bera hartua
 Balio guziz handia du horrek ere, zeren gehienetan

Uste baita basihizien eta laurzangokoen aran hobeki
 Direla gur(e) emazteak ernaltzen, horrela baitira haziak
 Lekura heltzen ahal, ugatzak behekituz, gerruntzeak goiti.
 Eta mugimendu guririk emaztek eztute behar izpirik.
 Ezen emazteak ernaltzea debekatzen et(a) arbuiatzen du
 Uzkornoaz gizonaren gura bozkarioz baldin badu berak
 Azkartzen eta hark soin guzia malguturik ixurtzen uhaina;
 Alabain(a) ildoaren leku 'ta bide zuzenetik atheratzen
 Du goldea 'ta hortik bihurtzen du haziaren jalgitaldia.
 Ohiz horrela dira ber' abantailez higitzen emagalduek
 Izor izan eztaite ainitz aldiz eta haur beharretan geldi,
 Eta betan gizonentzat Benuz gustagarriago dadin izan:
 Agerian gur(e) ezkontidek eztute horren beharrik batere.
 Eta batzuetan ezta jainkoen nahiaz ez eta Benuzen
 Gezien gatik maitatzen emazteka bat moldean gaitzagoa.
 Ezen batzuetan emazteak berak egiten du ber(e) egintzez
 Eta lakegarri diren arez eta soin aphainduaz garbiki
 Errex sinets-arazten daukala bizia deramakan harekin.
 Gehiago dena, baderakhar ohidurak berak maitasuna,
 Zeren nahi bezain arinki dena ainitz aldiz ukhaldiz joiten
 Aro luze batean garhaitzen baita 'ta khordokatzen halere.
 Ez ote duk ikusten ithaxurek ere harrietan erortzen
 Direnean aro luze batez harriak zilatzen dituztela?

*

Liburu borzkarrena

(Epikuroz-en laudorio berena)

- 1 Nork ahal dezake bulhar indardunetik eman kantu bat gauzen
 Maiestatearen eta aurkitaldi hauen heinekoa dena?
 Nor ahal da hain azkarra laudorioen azmatzeko hitzetan
 Epikurozen merezimenduentzat, ontasunak hainbat utzi
 Dauzkgularik bere golkoan sortu 'ta bilduak zituenak?
 Ehor ez, uste dut, izanen denik gorputz hilkorretik jaioa.
 Ezen erran behar da, gauzen handitasun ezagutuak berak
 Nahi duen bezala, jainko zela, jainko, Memiuz ospeduna,
 Orai zuhurtzia deritzoten bizitzeko moldea lehenik
 Asmatu zuena, 'ta bere jakintzaz bizia bainbat nahasmendu
 Et(a) ilunbetarik jarri zuena hain argi garbi 'ta geldian.
 Bertze jainko batzuen aurkintza zaharrak erkidazkiok bada:
 Kerezek eman ditik omen uztak, Bakhuz Liberek hilkorrentzat
 Moldatua dik omen ardantzatarik egiten den edaria;
 Bizkitartean horiek gabe biziak irauten ahal zuen,
 Orai bertze jendalde batzu bizi direla dioten bezala.
 Aldiz ukan gabe bihotz garbi bat etzen ongi bizitzen ahal;
 Are gehiago zaiku zuzen iduritzen hura dela jainko;
 Haren ganik orai ere jendalde handietara hedaturik
 Biziko konsolamendu goxoez gogoak xoratzen dituzte.
 Uste badukek alta gainditzen dutela Herkulezen egintzek
 Arrazoin egiazkotik urrunegi ainitzez eroan haite.
 Alabaina Nemeako lehoiaren aho handiak zer egin
 Lezaguke, 'ta zurda laztun Arkadiako basurdeak ere?
 Azkenik zer legikete Kretako zezen eta Lernako helgaitz
 Zen hidrak suge phozoindatu batzuez zelarik gerizatua?
 Zer oraino Gerion hirurkunaren hirur bulharren indarrak
 (...) (*)
- (*) Uste da neurthitz batek huts egiten duela hemen (*itzultzailearen oharra*).
- Ote lukete guretzat hainbat ondorio Stimphalako jendek,
 Eta Diomederen zaldiek sudurretik su zariotela
 Thrazia 'ta Biztoniako lurretan et(a) Izmarako oinean?
 Eta Hezperidetako sagar dirdiratuen zaintzale zen suge
 Abre so bortitzak, neurrigabeko soinaz inguratzen baitzuen
 Osoan zuhatzaren ondo, zer azkenean egin lezake

Larderia Atlantiar itsaso handiaren ur bazterrean,
 Gutan ez barbaroetan bat eztelarik hara joaiten ausartu?
 Aurdikiak izan diren mota hortako bertze mustro guziak
 Ezpalire garhaitu, zer kalte zuten eginen bizi balire?
 Ezer ez, uste dut: ezen orai ere baditu lurak nahi den
 Bezain nasai abreak eta hetaz laztagarriki betea da
 Sasuetan eta mendi handietan eta oihanen barnetan;
 Gehienetan leku horier bazter egin ahal dezaiegu.
 Aldiz ezpadugu gogo garbi, zeinbat gudu 'ta zeinbat lanjer
 Orduan nahi gabetarik behar etzaizkigu barnera sartu!
 Nolako gura saminek orduan eztute gizona bortxatzen
 Axolaz harturik, eta nolako beldurrak eztitu berdinki!
 Eta gero burgoikeria, lizunkeria, haserre! Zeinbat
 Gaitz eztagite! Zeinbat aberaskerriak, auherkeriak ere?
 Horiek oro beraz hitzen bidez, ez harmenez, menperaturik
 Gogotik haizatu zituen gizon hunek ez behar ote duke
 Estimatu gai izaiteko jarria jainkoen lerro berean?
 Zeren bereziki heriotzerik gabeko jainkoez ederki
 Eta jainkoki baitzen izan ohitua hitz ainitzen emaiten,
 Eta hitzez agerr-arazten nola den gauzen natura guzia.

- 55 Ni haren hatzetan aitzineratuz banabil gauzen arrazoinen
 Ondotik eta hitzez erakasten dut zein legetan diren oro
 Eginak izan, hortan iraun dezaten zeinbat beharrezkoa den
 Et(a) aroaren legek ahalik eztutela horien hausteko.
 Mota hortakoa aurkitu da gogoaren natura lehenik,
 Hastean sortua den gorputzarekin batean egina dena
 Et(a) ezin iraun dezakeena salburik aro handietan zehar.
 Ametsetan aldiz iduriek adimendua bairatzen dute
 Biziak utzia duen norbait dugunean ustez hautemaiten.
 Gainera, teoriaren ordenuak orai huntara derama:
 Erran behar dut mundua zergatik den egina hilkor den gorputz
 Batez eta berdin erran zergatik ukana duen jaiotzea,
 Eta zein moldetan materiaren biltzeak batera zituen
 Eraikiak zeru-lurrak, itsasoa 't' izarrak, iguzkia 'ta
 Ilargiaren borobila; lurrean orduan agertu ziren
 Bizidunak zein ziren eta zein etzirenak behin ere jaiio;
 Ala zer moldez gizakien mota hasi zen elgarren artean
 Hizkuntzak ezperduz gauzen izenen erabiltzen; eta nola

Zen jainkoen beldur hura bihotzetan sartu, lurren inguruan
 Templo, aintzira, oihan, aldare 'ta jainkoen iduri baititu
 Zaintzen. Agertuko dut gainera zein indarrez dituen naturak
 Manatuz aldatzen ekhiaren bidea 't' ilargiaren lasterra.
 Eztezagun uste behar bada horiek berainik zeruaren
 Eta lurraren artean itzulikatuz libreki dagitela bere bidea,
 Uzten eta bizidunen handitzearen fagoratzeko xedez;
 Ez ere goga jainkoen arrazoinez itzulika dabiltzala.
 Ezen ongi zutenek ikasi jainkoak eztirela munduaz
 Axolatzen, anartean miretsiak baldin badira halere
 Nola guziak egiten ahal diren, bereziki buruaren
 Gainean zeruko hegietan hautemaiten diren gauza handi
 Hetan, berriz erlisione zaharretara gibelera doaz,
 Eta nagusi bortitzak onhartzen dituzte, dohakabek, oro
 Egin dezakelela sinesten, jakin gabe zer daitekeen izan
 Eta zer ez, azkenik bakoitzari doakon botere zuzena
 Zer gatik den alabaina 'ta lotu zakola muga bat urrundik.

(Zerua, lurra, itsasoa, mundua suntsituko dira)

- 91 Eta gero, hiri hitzemanetan berant ezkaiten luzazago,
 Ikus itsasoak eta lurak eta zerua lehen-lehenik.
 Horien natura hirurkuner, hirur gorputzer, hirur itxura
 Hainbat ezperdiner, Memiuz, hirur jostura hoin azkarrer, egun
 Bakar batek ekharriko dauek heriotzea, 'ta ainitz urte
 Iraun duten meta 'ta munduko mekanika hondatuko dituk.
 Enuke jakin gabe zein gauza berri 'ta gogoko mireskarria
 Den jinen zeruaren eta lurraren suntsipena geroan,
 Eta zein nekea zaitan eni hitzez horren sinets-araztea:
 Hori zerbait ustegabeko beharrietara dakharkanean
 Bezala da 'ta begien ikuspenean ezin ezar halere,
 Ez eman eskuen azpira, sinesteko bide segurra hortik
 Hurbil giza-golkora deramana 't' adimenaren egoitzara.
 Mintzatuko nuk halere. Behar bada gauzak berak erranetan
 Sinestera badakharkek eta lurren ikharatze laztagarri
 Bat sorturik ephe gutiz ikus dezazkek guziak inharrosten.
 Zori gobernariak gutarik urrun dik agian itzuliko,
 Eta gertaldiak berak baino lehen arrazoinak sinets-araz
 Dezala karraska laztagarrian guziak daitezkeela suntsi.

- 110 Has nadin baino lehen gauza hortan gertatu behar duenaren
 Zabaltzen, saindukiago 'ta Pithiak hirur-zangokotik eta
 Febuzen erramu-pean ziotzanak bain(o) arrazoin segurragoz,
 Jakintzaz erran konsolamendu ainitzak dauzkiat agertuko,
 Erlisioneak gelditurik behar bada sinets eztezakan
 Lur, iguzki, zeru 't' itsasoak, izarrek, ilargiak dutela
 Iraun behar betiko gorputz jainkotarraz eginak direlakotz,
 Zeren gogatuko baituk hortako Ziganten moldean bezala
 Gaizkintza handiaren gatik zuzen dela zigor guziak jasan
 Ditzaten dotrinaz hondatzen dutenek munduaren egitura,
 Iguzkiaren dirdira zeruan iraungi nahi luketenek
 Eta hitzaldi hilkor batez hiltzerik gabe direnak salatu.
 Hainbaterano daude horiek natura jainkotarretik urrun
 Eta jainkoen lerroan sartzeko hain agerian ez tira gai
 Nun uste den izaitekotz eskaintzen ahal dutela biziaren
 Mugimendu 'ta sendipenetik urrun den zerbaiten ezagutza.
 Alabaina sinets ezadila gogoaren natura nahi den
 Gorputz batekin izaiten eta batera biltzen ahal dela;
 Airean zuhatzik izan eztaitekeen, ez hedoiak ur gazian
 Izaiten ahal ez tiren bezala, landetan arrainak ez tira
 Bizitzen, eta zuretan odolik ezta, harrietan ez urik.
 Bakoitza jarri da segurki nun behar duen handitu 'ta bizi.
 Beraz gogoaren natura gorputzik gabe bakarrik ezin sor
 Laiteke 'ta zainetarik et(a) odoletik ez izan urrunegi.
 Ahal baliz, gogoaren indarra bera buruan izaitekotz
 Edo sorbaldetan edo berdin aztalen zolan izan baladi (*)
 Eta sortzen ohitua gorputzeko nahi dukan alderdian,
 Gizon ber hartan eta ber untzi batean egonen zen halere.
 Beraz gure gorputzean ezarri delakotz ere leku segur
 Batean et' agerian denaz geroz nun arima 'ta gogoa
 Berak izan eta handi daitezkeen, are gehiago da behar
 Ukhatu daitezkeela gorputz eta molde bizidunetik kampo
 Lurretako sokil ustelduetan egon al(a) iguzkiaren suan,
 Ala berdin urean edo aireko hergoretan. Alabaina
 Aitzineko horiek ezta dukate jainkotar den sendipenik,
 Bizitzeko moldean arimadunak izan ahal ezpaitezke.

(*) Ikusi da gorago Zaharraroko jakintzaren ustez arima 'ta gogoa
 bihotzean daudela, ez dakigun bezala burumunetan (*Itultzalearen oharra*).

- 146 Eta berdin eztuk hau sinesten ahal dukan gauza bat: jainkoen
 Egoitza sainduak munduaren alderdi zenbaitetan daudela.
 Ezen arina da jainkoen natura 'ta gure sensuetarik urrun
 Jarria dela gogoaren adimenak agertzen du doi-doia;
 Eskuen hunkitzetik eta menetik ihes badagielakotz
 Eztu behar guri hunkigarri zaikuneko deusetara heldu.
 Zeren hunkitzen ahal eztenak ezpaitu berak hunkitzen ahal.
 Hortakotz ere haien egoitzek gur(e) egoitzetarik behar dute
 Bertzelakoak izan eta haien gorputzak bezala meheak:
 Hitzaldi hedatuan erakutsiko daukat hori berantago.
 Erraitea gero munduko natura miragarria gizonen
 Gatik ezarri nahia dutela 'ta hortakotz laudagarria
 Den Jainkoen lanak behar dituela laudorioak ukan
 Eta sinetsi betierekotzat eta gero hiltzerik gabe,
 Eztela haizu jainkoen zuhurtzia zaharraz gizakientzat
 Adin betierekoaz oinarritua zena khordokatua
 Izan dadin ehoiz bere zimenduetan indar zenbaiten gatik
 Eta hitzez inharrosirik, guzia gain-behera aurdikia:
 Mota hortan gaineratekoen erraiten jarraikitzea, Memiuz,
 Erokeria da. Hiltze gabe dohatsu daudener alabaina
 Eskerron gureak zer ekhar dezeke baliagarria denik
 Abia daitentzat gure gatik edozein gauzaren egitera?
 Edo hainbat luzaz geldirik egon ondoan zer berritasunek
 Ekhar lezazke nahitzera lehenbiziko bizitik aldatu?
 Ezen ageri da boztu behar dutela berriak diren gauzez
 Zaharrak traba dituztenek; baina gaitz denik ezer gertatua
 Etzizakonak aitzin aroan adin eder bat zeramanean,
 Zerk zaukon halakoari berri denaren amorea phiztuko?
 Edo zer gaitz ukanen ginuen izan ezpagine kreatuak?
 Ala sinesten dut ilunbetan eta griñan zatzala bizia
 Gauzen ithurburuen egileak argitu zuen baino lehen?
 Alabaina sortua den edozeinek bizian gelditu nahi
 Behar du, han atsegin gozoak atxikiko duen bezain luzaz.
 Baina biziaren amodioa nehoiz eztuena jastatu
 Eta lerro hortan eztena, sortze gabeak zertan du damutzen?
 Gero gauzen sortzeko behazuna 'ta gizonen ideia bera
 Jainkoer nundik xertatuak izanak zizezteen hastapenean,
 Jakiteko zer egin nahi zuten eta gogoan ikusteko,
 Ala gai lehenen indar ehoiz ez ezaguna nolakoa den

Eta zer dezaketen egin elgarrekin aldatuz ordenua,
 Egiteko moldea naturak berak ezpaldin bazauen eman?
 Ezen hunela gauzen gai lehen ainitzek ainitz moldetan aro
 Ja mugarik gabean ukhaldiez joek eta bere phizuez
 Eremanek, hartua zuten ohidura bildurik ibiltzeko;
 Eta ainitz moldez batzu bertzerekin joan eta gauza guzien
 Entseatzeko, baturik elgarrekin egin zezaketen arau,
 Hala nola nun ezpaita mira helduak ere baldin baziren
 Antolatze horietara, 'ta jinak horrelako bidetara,
 Horietaz denean gauzen oso hau orai egiten berrituz.

- 195
- Eta gauzen gai lehenak zer diren jadanik ezpaldin banaki
 Halere zeruak erakatsitik beretik ausartuko nintzan
 Segurtatzera 'ta bertze gauza ainitzen bidez erakustera
 Eztela batere gauzen natura jainkoen nahiz guretzat
 Izan antolatua, hain da aitzinean errana hutsezkoa.
 Lehenik zeruaren olde gaitzak estalia duen guzian
 Mendiek eta bazihiziekilako oihanek hartzen dute
 Zati zabala, dadukate harrokek eta aintzi hedatuek,
 Itsasoak ere handizki, lurren mugak berexten dituela.
 Oraino hortan abantzu bi zati hartuak ditu dirakien
 Bero saminak bat eta hormak jarraikian eroriz bertzea.
 Iraultzeko gelditzen dena halere naturak indar bereaz
 Gizonen indarrak iharduk ezpaleza laharrez har lezake,
 Biziazen beharretan jorrai gogorraren lanaz deitoratzen
 Ezpaliz, eta goldenabar phizuez urratzen ezpalu lurra.
 Ezpadira goldearen muturraz itzultzen alhor emankorrek
 Et(a) irauliz lurren azala hozitzera sustatzen ezpadugu,
 Ezer etzen egunaren aire garbietara jalgitzen ahal.
 Batzuetan lan handi baten gostuz bilduak direnak halere,
 Jadanik oro lurretan orstatzen eta loratzen direlarik,
 Ala zerutik ekhiak bero handiegiez erretzen ditu,
 Ala bapatean erauntsiek eta hormaz izotzak suntsitzen,
 Eta haizen ufaz zirimola bortitzean andeatzen dira.
 Gainera zergatik du naturak hazten lurrean bai itsasoan
 Eta handi-arazten abre basihizi mota laztagarria
 Eta gizonen arrazaren etsai dena? Zergatik urtaroeak
 Ekhartzen eritasunak? Zergatik dabil goizegi herioa?
 Noiz ere haur bat, uhain eroek egotzi duten itsasturi bat

Iduri, lurrean datzala buluz, elherik gabe 'ta biziko
 Laguntza guzia behar, naturak amaren sabeletik indarretan
 Argiaren eremura bulzatu duenean, bere marraka
 Mingarraz betetzen ditu lekuak, bizian hainbat
 Gaitz iraganez egon behar duenarentzat zuzen den bezala.
 Aldiz artalde, betalde 'ta basihizi guziek direnean
 Handitzen eztute belaxkaren beharrik eta batek amaño
 Hazlearen solas goxorik eta pherekaririk eztu behar,
 Eztituzte jantzi berezi batzu galdatzen urtaroetako,
 Azkenik eztute harma beharrik, ez ere harresi gorarik
 Ontasunen zaintzeko, guzientzat guziak lurak nasaiki
 Berak eta gauzen natura trebeak dituztenean egiten.

- 235 Lehen-lehenik lurraren, uraren, aire goxoek eman ufa
 Arinen eta suko beroen gorputzak, horietaz eginak
 Direla mundu huntan diren gauzak osoan ikusten baitugu,
 Guziak egin direlakotz sortzen eta hiltzen den materiaz,
 Mundu guziaren natura horrela dela gogatu behar da.
 Alabaina gauza batzuen zatiak et(a) alderdiak ikusten
 Dugunean gorputz jaiokoak eta moldez hilkorrek direla,
 Hautemaiten dugu gauza hek berak ohiki direla hilkorrek
 Eta berdin jaiok. Eta beraz dakuskigularik munduko
 Alderdi 'ta zati gaitzeko batzu suntsitzen eta berriz sortzen,
 On da jakitea zeruek ere 'ta lurrek ukana dutela
 Aro zenbait hastapeneko 'ta hondatuko direla geroan.
 Gauza hauetan eztezakala sinets nihaturen aldera bildu
 Dutala hori, lurra 'ta sua hilkor direla diotanean,
 Eztutanean dudan eman ura 'ta airea hilen direla,
 Eta ber horiek erran sortzen eta handitzen direla berriz;
 Lehenik lurreko zati batek ez ttipiak, errezipildua
 Iguzki jarraikiez, ainitzetan joa oin guzien indarraz,
 Erhautsen lanhoak eta hedoiak airean igortzen baititu
 Osoan haizearen ufek indarrez barreatzen dituztenak.
 Lurren zati bat ere eurien gatik uholdetan eremana
 Izaiten da, 'ta higatuz ibaiek urbazterrak dituzte jaten.
 Gainera lurak beretik hazten eta handitzen duen guzia
 Itzulia zako 'ta dudarik gabe sortzen dituen guzien
 Ama delakotz ageri da bera dela guzien hil-hobia,
 Lurra beraz ikusten duk ahitzen eta horniturik berphizten.

Bertzalde berriz urak ekharriz ibaiek, ithurriek beti
 Itsasoa gainditzen dutela 'ta beti badariotela latsek
 Ezta hitzez erraite beharrik, orotarik erakusten baitu
 Uren ixurpen handiak. Baina lehenik zer ere den ereman
 Uretan, gertatzen da nehon ez tirela gainditzen orotara,
 Zatiz haizearen indarrek itsasoen ekhortzean ttipitzen
 Eta zerutik ekhiaren arraiak barreatzen baitituzte,
 Zatiz lur guzietara gainaldetik ixuriak direlako.
 Ezen ireziak dira hezeak eta hetan den materia
 Itzultzen da gibelera 'ta guzia batean joaiten ibaien
 Ithurburura; handik urhats ez tian dario lurren gainera,
 Hor oin ubilaz bidea hautsiz deramatza batean uhainak.

- 273 Orai beraz mintzatuko niz aireaz orenetik orenera
 Ezin zenbatuki bere gorputz osoan bertzelakatzen denaz.
 Alabaina zer ere den beti gauzatarik ixurtzen guzia
 Eremaite da airez itsaso handira; 'ta hunek aldiz gaiak
 Itzul ezpalezetee gauzer eta dariotenak ezpaltu
 Berritzen, oro jadanik urtuko 'ta airetan aldatuko zen.
 Ezta beraz gauzatarik sortzetik gelditzen eta gauzetara
 Berritzultzetik, orok jarraikian dariotela segur delakotz.
 Berdin argiaren ithurri garbi nasaia, ekhiak gelditu
 Gabe airean zerua mainatzen du dirdira sortu berriaz,
 Eta hornitzen orduan berean argi berri batez argia.
 Ezen hastapenetik dirdirako zerbait zako hari suntsitzen
 Nora den erortzen ere. Hemen ezagun dezakek alta hori:
 Iguzkiaren azpira hedoi bat jiten den orduan berean
 Argiaren arraiak hartzen eta gelditzen balitu bezala,
 Horien beheraldeko zati guzia gordetzen da bapatez
 Eta lanhoak hedatzen diren lekuetan iluntzen da lurra.
 Hortik jakiten duk beti gauza guziek argi berria behar
 Dutela 'ta hiltzen dela lehenik igorria den argi hura,
 Eta bertze moldez elaitkeela gauzarik iguzkian ikus,
 Ithurburu berak argia hornitzen ezipalu gelditu gabe.
 Argi gauzkoek ere, horiek argi lurrekoak baitituk,
 Dilindariak eta zuziek argitan urinduek, ainitz khe
 Badematelarik bere phindarren dirdiran, molde berdinean
 Lehiatzen dira, bere su lagungarriaz hornitzen dutela
 Argi berri bat, hor daude, hor daude bere garretan daldaratuz;

Et(a) argiak eztitu leku horiek uzten mozturik bezala,
 Hainbaterano lehiatuki baitzako su guzietan laster
 Sortze baten gatik gordetzen hastapeneko garraren hiltzea.
 Horrela behar dugu gogatu beraz iguzkiak, ilargiak,
 Izarrek argia bat bertzearen ondotik sortuz digortela,
 Eta lehenbizikoa zen gar bakoitza dela beti suntsitzen;
 Ezin bortxaturik azkar direla beharrez sinets etzakala.
 Azkenik eztituk ikusten ere harriak garhaitzen adinaz,
 Ez dorre gorenak hondatzen eta aitzak andeatzen, ez ere
 Temploak eta jaikoen iduriak ahiturik arrailkatzen?
 Jaikoen botere sailduak eztezakela gibela gertatu
 Behar dena 'ta naturako legen kontra jazartzeko deus egin?
 Azkenik gizandien orhoitak eroriak ezta kustzagua,
 Eta gero zahartzearen galdetan daudela sinetsiko duk?
 Mendi goretarik ez tirela harrokkak hautsirik hondatuko
 Eta hartzen ez tituztela 'ta jasaiten adin mugatu baten
 Indar azkarrak? Ezen etziren bapatez hautsirik eroriko,
 Aro betiereko batean adinaren gaztigu guziak
 Baldin balituzte jasan ahal egonez arrailduratik salbu.

- 318 Azkenik orai beha dezagun inguruan eta gainean lur
 Guzua hedamenean dadukan huni: guziak badagitza
 Beretik, batzuek dioten bezala, 'ta hartzen baditu hilik,
 Osoan gorputz sortuez eta hilkorrez eginga da segurki.
 Ezen gauza batek bertze batzu bere gaitik baditu handitzen
 Eta hazten behar du ttipitu 'ta gauzak hartuz berriz azkartu.
 Gainera lurren eta zeruaren sortzeko hastapenik ehoiz
 Izan ezpaliz eta betidanik izanak balire betiko,
 Zergatik bada Thebako gerlatik eta Troiaren suntsitzetik
 Haratago bertze poetek ez tute deus bertzerik kantatu?
 Nora dira hainbat aldiz erori hainbat gizandien egintzak
 Eta haien omenaren lekukorik ehoiz eztea loratu?
 Baina, nik uste dutanaz, den guzia berria da, munduaren
 Natura gazte da, 'ta hastapenak ez titu hartu hain azpaldi.
 Horra zergatik orai ere jakitate batzu diren handitzen,
 Orai ere hedatzen; itsas-untzietan ainitz gauza gehitu
 Da, berdin musikariek asmatuak dituzte soinu berriak.
 Azkenik gauzen natura 'ta molde hau aurkitu dira berriki
 Eta lehenbizikoetan hau aurkitu duen lehena nihaur

Niz gaurregun hizkuntza herritarrean itzultzen ahal dutana.
 Uste baduk behar bada hauk guziak izanak direla lehen
 Baina gizonen mendeak sute bortitz batez zirela suntsitu
 Edo munduko hiriak erori lurrikharak inharrosirik,
 Edo euri jarraiki batzuen gatik zirela lurretan ibai
 Eremaileak athera 'ta gainditu zituztela gazteluak,
 Are gehiago behar ukanen dituk garhaiturik aithortu
 Ere lurren eta zeruaren hondamenak ethorkizunean.
 Ezen hainbat gaitz eta hainbat lanjerrek zituztenean jaukitu
 Guziak, gauza gaizkorrago zenbait horrara jautsi baldin baliz
 Damu 'ta herexa handiak zituen urrunean ekharriko.
 Eztugu bertze molde batez ere hilkorrek girela guhaurek
 Ikusten, ezpaldin bada gu 'ta natutak bizitzetik baztertu
 Zituen guziak eritasun berdinez eritzen girelakotz.

- 351 Gainera behar da guziek betiereko dirautentzat, edo
 Gorputzez azkarrak direlakotz ukhaldier iharduk dezaten
 Eta jasan eztezaten gauza zerbait sar dadin haien barnera
 Berex ahal ditzan haien zati tinkiak, materiaren gaiak
 Diren bezala: horien natura aitzinean agertu dugu;
 Edo dezaten adin osoan iraun ahal ukhaldietarik
 Gerizatuak izan direlakotz, hutsa bezala, hau baitago
 Hunkitze gaberik et(a) ukhaldirik ezpaitu jasaiten izpirik;
 Edo lekurik eztutelakotz inguruan ukaiten nasaiki
 Hartan barreatzen eta galtzen ahal balire bezala gauzak:
 Hunela da gauza guzien osotasun betierekoa
 Eta lekurik ezta kampoan hara jauz daiten, ez han erortzen
 Ahal den gorputzik eta denik han barreatzen jorik azkarki.
 Aldiz, erakatsi dutan bezala, mundua ezta gorputz tinkiaz
 Egina, gauzetan nahasirik badenaz geroz hutsa; halere
 Ezta hutsa den bezala, 'ta mugagabeen eztira gorputzak
 Eskas elgarrekin sorturik behar bada gauzen osotasuna
 Aurdikitzen ahal luketenak zirimola bortitz baten bidez,
 Ala lekhartzaketenak nahi dukan bertze lanjerren damua.
 Eta gero naturak eztu barnatasunez eremurik eskas
 Munduaren harresiak hetara barreatzen ahal baitira,
 Edo han suntsi baitaitezke nahi dukan indarraz bulzaturik.
 Ezta beraz zeruarentzat herioaren athea hetsia
 Ez ekhiaren ez lurrarentzat, ez itsasoaren ur handientzat,

Baina mugagabea idekia da 'ta zabalik beha dago.
 Horren gatik ere aithortu behar da sortzea horiek berek
 Ukana dutela, gorputz hilkorrez egin direnek alabaina
 Etzitzuten jadanik mugagabea den aro batean adin
 Gaitzeko baten indar azkarrak gaitzetsiak ahal orai-arte.

- 380 Azkenik munduaren alderdi handienek elgarrekin hainbat
 Gudu dagitelarik, sustatuz zuzen denik deus eztuen gerla,
 Ez ote duk ikusten emanen ahal dela gudu luze horren
 Bururapen zenbait? Iguzkiak eta berotasun guziak ur
 Heze guziak edanak ukanik geldituko dira garhaile,
 Hortara doaz, nahiz ez orainokoan egintzara helduak,
 Ibaiek hainbat hornitzen baitute 'ta mehatxatzen gehiago
 Eginez itsasoaren leze zolatik ororen gainditzeaz.
 Debaldetan, zeren haizek urak ekhortuz ttipitzen baitituzte
 Eta zeruan iguzkiak airarazten baititu ber' arraiez;
 Eta guziak agortzen ahal dituztelako xedetan daude
 Urek hasi zuten lana bururatua datekeen baino lehen.
 Gudu berdin batean elgarrekin hainbateko gerlan artzeko
 Xedetan, ikusten da gudukatzen direla mundu zabalean;
 Aldi batez nagusiturik izana baitzen lehenago sua,
 Aldi batez ere, diotenaz, ura zen erregetu lurretan.
 Alabaina sua nagusi zenean garrez leku ainitz erre
 Zuen, Iguzkiaren zaldien indar gaitzak Faethon ereman
 Zuenean zeru guzian hara 'ta lur orotan gaindi. Baina
 Aita guziz boteretsuak haserre bizi az inharrosirik
 Bapateko zimiztaz jo 'ta zaldietarik lurrera aurdiki
 Zuen Faethon handinahia, 'ta haren aitzinean zeroren
 Iguzkiak hartu zuen munduaren girisailu betikoa,
 Eta zaldi barreatuak daldaran bilduz uztartu zituen
 Eta den guziari manatuz berriz bere bidean ezarri,
 Ikusten den bezala poeta greziar zaharren kantuetan.
 Baina hori zinez arrazoin onetik urrunegi baztertzen da.
 Alabaina sua nagusi daiteke materia horren gaiak
 Mugagabea noiz ere diren elgarrekilan ainitzak sortu;
 Indarrak hortik arrazoin zenbait ez erortzen zazko garhaiturik,
 Edo suko aire zipiltzalez errerik gauzak suntsitzen dira.
 Ura berdin noizpait metatuz bildu zen eta hasi nagusitzen,
 Erraiten denaz, estali zituenean gizonen ainitz hiri.

Gero mugagabetik batean sorturik indar kontrako batek
 Arrazoin zenbaiten gatik gibelara zuenean abiatu
 Euriak gelditu ziren et(a) ibaiek indarra ttipitu zuten.

(Munduaren zatiak nola diren sortu 'ta moldatu)

- 416 Baina zer moldetan batera materiaren biltze hark eraiki
 Zituen lurra, zerua 'ta lezeak itsasoan, ekhiaren
 Et(a) ilargiaren lasterra, lerro ber hortan dut erakutsiko.
 Ezen gauzen gai lehenak etziren delibero segur zenbaitez,
 Gogamen zuhur baten bidez berea duten ordenuan jarri,
 Ez hitzartu zinez bakoitzak emanen zituen mugimenduez.
 Baina gauzen ainitz gai lehen ainitz moldetan ja mugagabea
 Zen aro batetik ukhaldietan inharrosiak zirelakotz
 Eta bere phizuez ohituak baitziren bildurik eremanak izaitera,
 Molde guzietan zoazen betan entsegu guziak eginez,
 Bater a bildurik bazuten ahala gauza guzien sortzeko.
 Gertatu da hortakotz aro handi batean eremanak baitziren
 Molde guziez elgarrekin bilduz eta mugimenduak oro
 Entseatuz, batean joanez azkenean zutela bapatez
 Egin gauza handien hastapenak direnen sortze betikoa,
 Lurraren, itsasoaren, zeruaren eta mota bizidunen.
 Hemen etzaitzkeen ikus ordu hartan iguzkiaren errota
 Airean argiaren hedatzen, ez mundu zabalean izarrak,
 Ez itsasoa ez zerua ez azkenean lurra 'ta airea;
 Eta deusik etzen ageri gure gauza hauen idurikorik,
 Baina galerna berri zenbait eta gai lehenez eginik mota
 Orotako meta bat, elgarrekin ez akomeatzeak trabatzen
 Zezteelarik behar ziren arteka, bide, juntura, phizu, joite,
 Aurkintza 'ta mugimenduak gerla horietan oro nahasiz,
 Ezperdinak baitzituzten itxurak eta berezia moldea,
 Eta horrela guziak batera bildurik etzaitzkeen egon
 Eta behar zen mugimendurik etzezaketan eman elgarri.
 Gero zati batzu hasi ziren horitk orotara barreatzen,
 Gauza berdinek berdinekin baturik berexi zuten mundu hau,
 Alderdiak banatu zituzten eta jarri zati handiak,
 Erran nahi da lurretarik baztertu zutela zeru gorena
 Eta berex eman itsasoa berezirik ager zaiten urak,
 Eta berdín aireko su garbiak eta hutsak berex ezarri.

- 449 Ezen alabaina hastapenean lurraren gorputzak guziak
 Phizuak eta batzunak zirelako, erdigunean biltzera
 Zoazen eta behereko jarleku guziak hartzen zituzten;
 Horiek elgarrekin gehiago nahasirik zoazen arau
 Hainbat gai bazematzen itsasoak, izarrak, ekhiarekin
 Ilargia 'ta munduko muga handiak zituztenak sortuko.
 Alabaina horiek oro hazi lurra baino arinagoz
 Eta biribilagoz egin dira 'ta ainitzez ttipiago
 Direnez. Hortakotz, lur zatietako xilo bekanetarik
 Jalgiz, ezarri zen lehenik airea, suaren ekhartzalea,
 Eta berekin erakharri zituen arinki bertze su ainitz;
 Eztugu hainbateko bertze moldez ainitz aldiz ikusten ere
 Iguzkiaren arrai goiztiar urrezkoen argia gorritzen
 Duelarik izarrihitzak perlaztatua duen belardia,
 Eta aintzirekin ibai betikoek lanho bat digortelarik
 Batzuetan lurra berak dematzala kheak iduritzen baita.
 Horiek guziak gora bateratuak direnean hedoiek
 Gainean gorputz tinki batez azpitik zerua gordetzen dute.
 Horrela beraz ordu hartan arin eta hedakor airea zen
 Gorputz tinki batean inguruan emanik orotara gurtu,
 Eta hedaturik urrun alde guzietan, orotan zituen
 Besarkatze goseti batean horrela bertze guziak hartu.
 Horri jarraiki zizazkon iguzki 't' ilargiaren hastapenak
 Borobil horiek bien artean airean itzultzen baitira,
 Lurra ez aire neurrigabeak etzizutzenak bilduak berekin
 Etzirelako ez aski phizudunak eroririk egoiteko,
 Ez arinak goien herrietan lerratuz ibil ahal zaitentzat;
 Eta halere bien artean gorputz biziak bezala dira
 Itzulikatzen, eta zati batzu dira munduaren osoan;
 Molde berean da gutan gertatzen badaudela soinadar batzu
 Geldirik, bertze batzu bizkitartean higitzen diren batean.
- 480 Beraz gauza horiek gibelerara joan ondoan bapatez lurra,
 Orain itsasoen ibar zabal urdina hedatzen den lekuan,
 Hondatu baitzen, zurrumilo gaziak ziren lezetan ixuri.
 Egunetan hara aireko beroak et(a) ekhiaren arraiek
 Inguruan orotarik zigor jarraikiez lurra zuten arau
 Alderdi guzietarik azken mugetarano hertsarazten,
 Bulzaturik erdigunera tinkatua zadin izan arteo,

Zeinbat gehiago zuen gorputzetik zeman izerdi gaziak
 Ixurtzean itsasoa hantzen et(a) alhorrak ezartzen igeri,
 Are gehiago ziren bero 'ta airearen gai lehen ainitz
 Ihes kampora joanik airatzen eta zituzten zeruetako
 Egoitza dirdiradunak lurretarik urrun tinkian betetzen.
 Jartzen ziren ibarrak, mendietan handitzen zen goratasuna,
 Alabaina harrokak etziren aphaltunean egoiten ahal
 Ez eta hein berean alderdi guziak jausten ahal berdinki.
 Beraz horrela lurraren phizua jarri zen gorputz gogortuan
 Eta mundu guziko lohiaren hazta beherera bildua
 Bezala gertatu zen eta lapa bat bezala zolan egon zen.
 Geroztik itsasoa, airea, sua dakharren zerua bera
 Bere gorputz ubilen gatik oro gelditu dira garbirik,
 Arinago batzu bertzeak baino: zerugain ubil-ubil eta
 Arin-arina badabil haizearen ufa gorenen gainetik,
 Bere gorputz ubila aireko haize zirimoletan nahasi
 Gabe; horiek guziak uzten ditu galerna bortitzenetan
 Itzulikatzen, uzten ekaitz nahasietan inharrosten ere;
 Berak olde segur batean lerratuz deramatza bere suak.
 Ezen urhats berdin neurtuan ibil daitekeela aire gorena,
 Itsaso Beltzak derakusa, badabil itsasaldi segurean,
 Goiti-beheititzeko neurri bakar bat badatxikalarik beti.

- 509 Kanta dezagun orai izarren mugitzea zerk egiten duen.
 Lehenik itzulikatzen bada zeruaren borobil handia
 Erran behar dugu aireak alde bietarik burua zapan
 Dadukola 'ta kampotik bietan atxiki 'ta hetsia dela;
 Gero bertze bat doakola gainetik eta airean thiratzan
 Duela betiko munduan izar dirdiranten ibilgunera;
 Edo kontra moldez beheretik goiti deramala bertze batek
 Ibaiak errota 'ta xalien itzultzen dakuskigun bezala.
 Izaiten ahal ere da zeru guzia badagola geldirik
 Izar argiek bizkitartean dagitelarik bere lasterra,
 Ala barnean dituelakotz aire gorako bero zaluak
 Eta bide beharrez itzultzen direlakotz inguruka zeru
 Gorenean han-hemenka dituztelarik izarrek itzul-arazten;
 Ala bertze nunbaitik kampoko bertze aire zenbaitek baititu
 Suak itzul-arazten; ala ber-berak baitira lerratzen ahal
 Joanez hazkurriak deitzen eta gomitatzen dituen lekura,

Han eta hemen zeruan bere garrezko gorputzen alhatzean.
 Alabaina mundu huntan zer den horietan segur ezartzea
 Neke da; baina zer izan daitekeen orotan eta gertatzen den
 Ezperdinki moldaturik egin diren mundu guzietan, hori
 Dut erakasten, eta jarraikitzen niz erakustean orotan
 Izarren mugimendu guziek zein ukan duketen arrazoina;
 Alta behar da hemen ere bat baizik eztaadin izan izarrer
 Emaiten dauena mugimendua; baina zein ote den eztute
 Aurkitua jakitean urhatsez urhats aitzina doazenek.

(Lurra, uguzkia, ilargia)

- 534 Eta munduaren erdigunean geldirik egon dadin lurra,
 Behar da gutika phizua gal dezan eta ttipi dakidion,
 Eta beheraldean bertzelako natura bat dezan ukana,
 Adinaren hastapenetik juntaturik eta batasunean
 Haien artean bizitzen den munduaren zatiekin egoki.
 Hortakotz eztitu bere phizuaz aireak zapan atxikitzen;
 Gizon bakoitzari soinadarrak zazkon bezala phizurik gabe,
 Etzako burua lephoari zama, eta gorputzak azkenik
 Duen hazta guzia oinetan eztugu senditzen badugula;
 Aldiz kampotik heldu diren eta gaineratzen zaizkun nahi den
 Phizuak damu dira ainitzetan izanik ere ttipiago,
 Hain da balio handikoa zer duen ahal gauza bakoitzak.
 Horrela beraz ezta lurra bapatez ekharria den arrotza
 Ez urruneko haizek aitzinean ezarria bertze nunbaitik,
 Baina munduaren hastetik horiekin batean egin dena
 Eta horren zati berezi bat, soinadarrak bezala guretzat.
 Gainera lurra bapatean ortzantz handi batek duenean jo
 Mugimenduaz joak dira gainean dituen gauza guziak,
 Ezpaitzuen hori nahi den moldez eginen ahal zeruari
 Eta munduaren zati airekoer estekan izan ezpaliz.
 Ezen elgarren erro batzuez bat bertzeari lotuak dira
 Adinaren hatsarretik eta batasunean egokituak.
 Ez ote duk ikusten ere hain phizu handikoa den gorputz hau
 Arimaren indar arin-arinenak nola daukun atxikitzen,
 Hainbat juntatua zakolakotz eta batasunean egoki?
 Azkenik gorputza jauzi zalu batean airatua delarik,
 Soinadarrer manatzen dauen arimak ezpada, zerk badagike?
 Ikusten ote duk orai natura mehe batek zeinbat ahal duen

Gorputz phizu bati juntatua denean, airea den bezala
Juntatua lurrekin et(a) arimaren indarra gure soinekin?

- 565 Iguzkiaren errota 'ta beroa gure sentsuer iduri
Zaiena baino guti datezke handiago 'ta ttipiakoak.
Ezen zeinbat urrundik ere suek igor dezaketen argia
Eta gure soinarretara hats beroak ufa ditzaketen,
Urrun horren gatik garren gorputzetik argiek ezer eztute
Ekhentzen, ezer ezta hertsia gotua suaren itxuratik.
Eta beraz, iguzkiaren bero 'ta hedatzen duen argia
Gure sensuetara heltzen direnaz geroz lekuak argituz,
Iguzkiak ere hemen itxura 'ta moldez agertu behar du
Egiatik deus gehitzen ala ttipitzen ahal eztukan aran.
Ilargia berdin, ala lekuak argi falsuaz dituela
Argitzen ala bere gorputzetik argia duela jalgitzen,
Zer ere dadin izan, badabil itxuraz deusetan handiago
Izana gabe gure begiez iduriz ikusten dugunetik.
Ezen lehenik urruntasun handian hartzen ditugunak oro
Ainitz airetan zehar itxuraz iduritzen dira nahasiak
Eta ttipituak izpi bat. Behar da horren gatik ilargia,
Itxura garbi 'ta moldea segur eskaintzen dituenaz geroz,
Izan dadin inguruko mugetan erakutsia den bezala,
Zer neurritan ere zaikun guri hemendik zeruetan agertzen.
Azkenean hemendik ikusten ditukan aireko suak oro
Lurretan hautemaiten ditugunaz geroz, su guziek daldaran
Argitzen duten ber, haien beroa hautemaiten den ber, iduri
Denaz geroz artetan eztirela ttipiena den izpi batez
Baizik aldatzen neurri batetik bertzera zein urrun diren arau,
Behar dugu jakin izan eztatezkeela biziki gutiz baizik
Ttipiakoak ala zati labur batean baizik handiago.
- 592 Eztu hunek ere mirestekorik, hain ttipia den iguzkiak
Zein arrazoinenez duen emaiten ahal argi bat hainbat handia,
Ixurtzean itsasoa 'ta lur guziak eta zerua dituen betetzen
Osoki 'ta bere hats beroetan mainatzen diren gauzak oro.
Ezen izan daiteke hemen ideki den munduaren osoan
Ithurri bakar nasaitik ixurtzen dela 'ta jalgitzen argia,
Horrara mundu guziko beroaren gai lehenak orotarik
Biltzen direlakotz, eta haien batasuna delakotz horrara

Jalgitzen ithurburu bakarretik dadin beroa hemen ixur.
 Ez ote duk ikusten ere zeinbat luzaz dituen ur erreka
 Ttipi batek soroak bustitzen eta noizten alhorrak gainditzen?
 Iguzkiaren gar ez handi batez gertatzen ere da airea
 Duela berotasunak hartzen erretzeko molde batzuetan,
 Hala nola nun airea hala beharrez egoki baldin bada
 Sutan ezartzen ahal baitu bero ttipi batzuen hunkitzeak;
 Zenbait aldiz molde berean su hartzen ikusten ahal ditugu
 Han edo hemen buruxkak eta lastoa phindar bakar batetik.
 Behar bada zuzi gorrailaz goratik argitan ekhiak ere
 Edukitzen ditu ber' inguruan bero gorde batzuen ainitz
 Su, dirdiratze zenbaitek eztituenak seinalatzen batere,
 Arraien indarraren handitzeko baizik ezituenak berotzen.

- 614 Iguzkiaren ibilaran ezta deus ageri xoil eta garbi,
 Zeren gatik urhatsa duen udako lekuetarik bihurtzen
 Akherradarraren alde negukoetara, 'ta hortik itzuli
 Nola dagien Karamarraren ekhigeldiko mugara buruz;
 Et(a) ilargiak iduriz ilabetekal diragan eremua
 Nola duen iguzkiak urhatsaz urte betean bururatzen.
 Ezta xoil, diot, gauza horier emana zaien arrazoina.
 Ezen iduri du lehenik horiek direla gertatzen ahal
 Demokritoz handiaren aburu sainduak diona bezala:
 Zeinbat gehiago diren ere lurrari hurbil izar guziak
 Zeruen itzulikan daitezkeela hartuak are gutiago.
 Ezen haien olde laster bortitzak ahultzen dira behean
 Eta ttipitzen, eta horra zeren gatik iguzkia gutika
 Gutika gibelera den uzten ondotik doazkon izarrekin,
 Badagonaz geroz ikur suzkoak baino ainitzez beherago.
 Ilargiari doakonaz, haren laster aphaagoa zeinbat
 Urrunago den egiten zerutik eta hurbiltzen lurretara,
 Are gutiago da lasterraz ikurrekin gudukatzen ahal.
 Alabaina zirimola zeinbat ahulagoan den eremana
 Et(a) iguzkia baino beheragotik, hainbatez ikur guziak
 Inguruan hartara heltzen dira 'ta aitzinatzen ere dute.
 Horren gatik da gertatzen aldika diduriela gibelatzen
 Ikur bakoitzara, horiek jiten direlakotz haren aldera.
 Izan ere daiteke munduaren alderdi zehar bietarik
 Ethortzen ahal direla aireak aro segurerean aldizka,

Batek ekhia baitu haizatzen ahal ikur udakoetarik
 Uztaidura negukoetara 'ta haien horma gogorretara,
 Eta bertzeak itzal hotz hormaz hartuetarik berriz igortzen
 Udako lekuetara 'ta berotzen duten ikurretaran.
 Eta gogatu behar da molde berdinean ilargi 't' izarr
 Horiek urte handietan itzuli handiak baitagitzaite,
 Airen gatik eremaiten ahal direla lasterraldi bietan.
 Ez ote duk ikusten oraino behereko hedoiak kontrako
 Aire batzuez leku kontrako batzuetara direla joaiten?
 Izar hek zer gatik dira gutiago aire goretan inguru
 Handien egitean eremaiten ahal kontrako zirimolez?
 Aldiz gauak ilun gaitzeko batean hartzen duenean lurra
 Edo laster luzearen ondotik iguzkiak zeruko mugak
 Ditu hunkiak, eta haren suak ahiturik ixuri ditu
 Bideaz inharrosiak eta aire ainitzaz khordokatuak,
 Edo lurren gainetik ibil-arazi duen indar berak bere
 Lasterraren itzul-araztera bortxatua du lurren azpitik.

- 656 Ordu segurrez ere ditu Goizaldeak argi-haste gorra
 Aire gorenetik orotan ixurtzen eta hedatzen argiak,
 Ala lurren azpitik itzultzean iguzki hark berak zerua
 Hunkituz aitzinetik duelakotz sutan ezartzen ber' arraieiz,
 Ala suak biltzen direlakotz eta beroaren ainitz hazi
 Ordu segur batez elgarretaratzen ohituak direlakotz,
 Beti baitituzte sortarazten iguzkiaren argi berriak.
 Erraiten dute molde berean Idako mendi gorenearik
 Argi hastean su batzu barreatuak hautemaiten direla,
 Gero borobil batean bezala biltzen, inguru bat eginez.
 Ezta gauza horietan mirestekorik izan behar halere,
 Suzko haziak elgarretara bil daitezkelakotz ordu hain
 Segurrez eta berregin daitelakotz iguzkiaren dirdira.
 Alabaina gauza ainitz ikusten ditugu gertatzen direnak
 Ordu segurrean orotan. Ordu segurrean loratzen dira
 Zuhamuak, ordu segurrean ere dituzte loreak galtzen.
 Et(a) adinak ezitu hortzak eror-arazten aro gutiago
 Segurrean eta gaxtea has-arazten ilepitz guri batez
 Estaltzen eta mateletan berdin jauts-arazten bizar guria.
 Azkenik zimiztak, elhurak, euriak, hedoiak eta haizeak
 Urtaroetan ez tira sobera gertatzen segurtasun gabe.

Ezen horrela ziren izan gertaldi horien hastapenak
 Eta munduaren haste lehenetik gauzak gertatu bezala
 Ondotik ordenu segurrean orai ere dira berregiten.

- 680 Eta berdin egunak luzatzen eta gauak laburtzen datezke
 Eta ttipitzen argiak handienera heltzen direnean gauak,
 Edo lurren azpian eta gainean ibiltzean itzulaldi
 Ezperdinetan iguzkiak berak leku gorenak berexten
 Dituelakotz eta ber(e) ingurua zatikatzen ezperdinki;
 Eta zati bat ala bertzetik hartzen duena berriz ezartzen
 Duetakotz haren kontrako zatian gibelera joanik are gehiago,
 Heltzen den baino lehen urteko gauegun berdinak argiekin
 Gauaz ilunbeak berdintzen dituen zeruko seinalerano;
 Ezen ipharreko hatsetik eta hegokotik erdi bidetan
 Zeruak arteka berdin batekin bi buruak berexten ditu
 Inguru seinaledunak osoan dadukan jarrararen gatik,
 Iguzkiak lerratuz hortan baitu bururatzen urte dembora
 Argi zeharkatu batez lurak eta zerua dirdiraraziz,
 Erraiten duen bezala zeruko guneak osoan seinale
 Lerrokatuez aphainduak ezarri zituztenen teoriak;
 Edo airea delakotz alderdi batzuetan lodiegia
 Ekhiaren su daldararia hortako trabatzen da lurpean,
 Et(a) ezin da sartzin ahal ez eta goizean jeikitzen errecki,
 Horren gatik baitute negu guzian gau luzegiek herrestan
 Irauten, egunaren ikur arraiduna jalgitzen den arteo;
 Edo berdin molde berean aldizkatzen diren urtaroetan
 Leku segurretik ekhia sortarazten duten suak berantago
 Edo lasterrago direlakotz ohian elgarretara biltzen,
 Horrek egiten baitu didurienez egia derasatela
 (Ekhiaren argia egun bakoitz berritzen dela diotenek.)
- 705 Ilargiak ekhiaren argiez jorik dirdiratzin ahal du,
 Et(a) egunez egun gehiago bihurtzen duke gure begien
 Ikuspenean, ekhiaren borobiletik urruntzen den arau,
 Argi beteaz dirdiratzin duen arteo haren kontraldean
 Eta gorago jarririk sortzean ikusten haren etzatea.
 Gero gutika gibeleratuz abantzu gorde behar du berdin
 Argia gehiago lerratzen den arau iguzkiaren sura
 Seinaleen ingurua bertze gune batetik diraganean:

Ilargiak pilota bat iduri duela dutenek asmatu
 Dioten bezala 'ta bidea hartzen iguzkiaren azpitik.
 Izan ere daiteke berea duen argiarekin duela
 Egiten ahal itzulia dirdiratur itxura guzietan.
 Alabaina badateke bertze gorputz zenbait ekharria dela
 Eta harekin lerratzen, aitzin aldetik osoki hura gordez;
 Et(a) ezin ikusia da, badoalakotz argirik eman gabe.
 Itzulikatzen ahal ere da borobil bat bezala, pilotak
 Alderdi bat, behar bada, margo zuriz thindatua baldin badu;
 Eta borobilak itzuliz ezperdin derakustza ber' itxurak,
 Suez argitua den alderdi hura sora daukagun arteo
 Itzultzen eta begietara zabaldurik daduzkagunean.
 Hortik argia dakharren borobil eta pilotaren aldea
 Itzul-arazten du gutika 'ta gibelera berriz eremaiten;
 Babilonako Khaldearren dotrinak, ezetsiz izarr-ikherle
 Greziarren jakitea, nahi duen bezala sinets dezagun,
 Horren gatik biek guduka dezaten ahal ezpaliz bezala
 Edo zergatik den hura baino gutiago hau onhartu behar.
 Azkenik ilargi berri bat beti zergatik ezin egina da
 Aldien ordenu segurrean eta berdin segur itxuretan,
 Eta zergatik guziak egunez egun ilhor ezin daitezke
 Eta bertze batzu berriz molda haien alde 'ta leku berean?
 Arrazoineraz erakustea neke da 'ta hitzez garhaitzea
 Hainbat gauza dakusakalarik ordenu zuzenean egiten:
 Uda lehena doa Benuzekin, eta Benuzen iragarle
 Hegalduna aitzinean badathor, Zefiren urhatsetan hurbil
 Haren ama Florak aitzinean joanez daularik bide guzia
 Hedatzen dituen hauteko margoez et(a) usainonez betetzen.
 Badarraika hortik agortzale den beroa 'ta lagunak ditu
 Kerez erhaustunarekin batean iphar-mendebalaren ufak.
 Gero dathor larrazkena 'ta harekin heldu da Bakhuz airosa.
 Ondotik dira jarraitzen urtaro bertze batzu 'ra haizeak:
 Ortzantzez ozen Itsas-haizea 'ta zimiztez indardun Hegoa.
 Azkenik elurak ekhartzen ditu negilak eta gogortzen den
 Horma; darraiko negua 'ta hortzak klaxkarazten dituen hotza.
 Eztadila beraz mirets ordu segurrean baldin bada sortzen
 Ilargia 'ta berdin ordu segurrean suntsitzen baldin bada,
 Hain gauza ainitz direnean ordu segurrean gertatzen ahal.

751 Ekhiaren itzaltzeak bai ilargiaren gordetzeak ere
 Arrazoin ainitzen gatik gerta daitezkeela dik gogatu behar.
 Ezen ilargiak iguzkiaren argia zergatik lezake
 Lurretik haiza 'ta gainean hari burua lurretarik itzal,
 Arrai suzkoen aitzinean ezarriz bere borobil histua?
 Eztea gogatu berte gorputz batek ordu hartan berean
 Badagikela hori, beti doalarik argirik eman gabe?
 Iguzkiak ere zergatik eztitu bere suak ahuldurik
 Uzten ahal ordu segur batean eta berregiten argia
 Iragan dituenan garren etsai diren gaineko lekuak
 Hek barnean suak iraungitzen eta hil-arazten baitituzte?
 Eta lurak aldizka zergatik duke gabetzen ahal argiaz
 Ilargia 'ta gainaldetik atxikitzen gorderik iguzkia,
 Il oroz itzalezko ttuturru hotza duenean iragaiten?
 Aro berean zergatik berte gorputz bat ibiltzen ahal ezta
 Ilargi-petik, ala lerratzen iguzki borobil aitzinetik,
 Ethentzen ahal dituen horren arraiak et(a) argi nasaia?
 Bizkitartean ilargiak argitzen badu dirdira bereaz
 Zergatik munduko zati batean ahultzen ahal elaiten
 Haren argi berezientzat etsai diren gunen iragaitean?

(Lurraren eta bizidunen hastapenak)

771 Eta gero mundu handiko zeruetan zehar zer moldez gauza
 Bakoitza gertatzen ahal datekeen argiratu dutanaz geroz,
 Ekhiaren itzuli bereziak et(a) ilargiaren lasterra
 Zein indarrek eta zerk eman-araziak dituzten ezagutzen
 Ahal baitugu, nola diren ibiltzen ahal gorderik argia
 Eta nola diren ustegabetarik ilunbez ezaltzen lurak,
 Begiak hesten diren bezala, 'ta berriz idekirik begia
 Ikusten baitira leku guziak argi garbi batez dirdiran,
 Itzultzen niz orai mundua berri zen ordura 'ta lurretako
 Alhor guriek zutenera lehenik umatze berriz argiaren
 Lurretan jeiki nahi 'ta haize guzien gomendutan ezarri.
 Lehenik lurak eman zuen munhoen inguruan belar moten
 Garbitasun muskerra 'ta zelai guzietan zuten dirdiratu
 Soroek muskerrarako margo batean liliez ihaurturik;
 Eta gero zuhatz mota guzier eman zizaien handitzeko
 Airean goiti behar zen kalipu handi bat estekak ekhenduz.
 Lumak, ileak eta zurdak lehenik egiten diren bezala

Laur zangodunen soinarretan eta lumadunen gorputzean,
 Horrela lur berriak lehenik belar eta zuhaxkak ekharri
 Zituen, gero lekuan lekuko bizidunen arrazak egin,
 Ainitz moldetan, ainitz itxura berezietan baitziren jaio.
 Alabaina bizidunak ezin daitezke zeruetarik eror
 Ez eta hetan lurrekoak aintzira gaziatarik athera:
 Gelditu da lurra irabazia duela zuzenez amaren
 Izena, lurretik egin izan direnaz geroz direnak oro.
 Orain ere bizidun ainitz agertzen dira lurretan sortuak
 Eurietarik eta direnak iguzkiko beroaz gogortu;
 Are gutiago miresteko da sortu bazen orduan ainitz
 Eta handiago, lurra berri zenean eta airea gazte.

- 800 Lehenik hegaldunen motak eta hegaztin orok arraultzeak
 Uzten zituzten sortaraziak ukanik uda lehen aroko,
 Zigalek orain azal biribilak udan berek uzten dituzten
 Bezala hazkurriaren eta biziaren bila dabiltzala.
 Lehenik orduan lurra eman zitian bilkorak diren motak.
 Bazen alabaina baserrietan bero 'ta hezea nasaiki.
 Beraz leku batek egitura behar bezala zuen orotan
 Umuntziak agertzen ziren erro batzuez lotuak lurrari;
 Hozitzeko demboran umen adinak horiek zituenean
 Idekiak, uretik ihes egin eta aire nahiz, lurreko
 Xiloetara naturak hor itzul-arazten zituen bortxatuz
 Zain idekietarik esnearen idurikoa zen edari
 Baten ixurtzera: horrela orain haur ukana den emazte bat
 Esne goxo batez betetzen da, hazkurri horren olde guzia
 Ditetara buruz itzulia delakotz orduan izaiten.
 Lurra eskaintzen zauen umer hazkurria, beroak soinekora,
 Belarrak bazeman etzangia ainitz ilepitz guri nasaiez.
 Aldiz munduko berritasunak etzitzen phizten hotz idorra,
 Ez erretzeko beroak, ez indar handiekilako haizeak,
 Orok berdinki baitzuten handitzea 'ta hein berean indarra.
 Hortako berriz eta berriz ukan duen amaren izena lurra
 Zuzenez daduka, berak zuelakotz egin gizaki mota
 Eta hedatu zuelakotz ordu segur batean bezala han
 Hemen mendi handietan dabilan ihizieria guzia,
 Et(a) aldi berean airean molde guzietako hegaztinak.
 Baina haur ukaiteak muga zenbait behar duelakotz gelditu

Zen, emazte bat bezala zaharraroaren gatik akhiturik.
 Zeren adinak aldarazten baitu mundu guziaren natura,
 Izanara batek bertzera baititu guziak ereman behar,
 Eta gauza bat ezpaitago berari berdin, oro joaiten baita,
 Naturak oro baititu bertzelakatzen et(a) aldara bortxatzen.
 Alabaina herbailtzen da bat et(a) adinaz ahuldua da, gero
 Bertze bat azpitik da handitzen eta jalgitzen ilunbetarik;
 Horrela beraz adinak aldatzen du mundu guziko natura
 Eta lurra baderama aitzinekotik izanara berriak,
 Eztagikeen bezala bazegikeena, badagik(e) etzegikeena.

(Bizidun eta gizakiaren sortzea)

- 836 Eta lurra orduan entsegu ainitz egin du mustro batzuen
 Moldatzen, sortuak zirenak aurpegiz eta soindarrez bitxi:
 Gizemea, bien artean, ez bat ez bertze, bietarik urrun,
 Batzu oinez gabetuak, ezkiez alhargunduekin aldizka,
 Ahorik gabeko mutuak ere, soaz gabeturik itsuak,
 Gorputz osoan soinadarren eratzikitze egonez preso
 Deus egin ezpaitzezaketan, ehora joaiten ahal ezpaitziren,
 Gaitzetik ihes egin ezpaitzezaketan, ez jasan behar zena.
 Egiten zituen molde hortan bertze mustro 'ta bitxikeriak,
 Debaldean, naturak debekatua zaelakotz handitzea
 Et(a) adinaren lore gutziatura hel etzaitzekeelakotz,
 Ez hazkurri aurkitzera 'ta Benuzen egintzetan juntatzera.
 Alabaina badakusagu bildu behar direla gauza ainitz
 Bizidunen hedatzen elgarrekin lan egin ahal ukaiteko:
 Lehenik izan daiten alhagiak, gero gorputzetan haziak
 Ernaltzeko soinadar gurituatarik ahal daiten jario,
 Eta junta daiten ahal emeak senarrekin, ukan ditzaten
 Deramatzenak biak elgarrekin atsegin ordainkatzera.
 Behar da beraz orduan galdu zirela bizidun mota ainitz,
 Et(a) ahalik etzutela laidakatuz ondokoen egiteko.
 Ezen biziko aireaz gozatzen ikusten ditukan guziek
 Badie noiz amarrua, noiz bertutea, noiz azkenik higitzea,
 Adinaren hastetik mota begiratu dutenak gerizatuz.
 Ainitz ere badira guretako duten baliotik gelditu
 Direnak gomendioan, gure zaingoaren menea emanik.
 Lehenik lehoinen mota bortitza 'ta basihizien arraza
 Gerizatu ditu kuraiak, amarruak azeriak, ihesak

Oreinak. Aldiz oren bihotz loan arina 'ta gogo leiala,
 Eta zamarien motako hazitik sortuak diren guziak
 Eta berdin iledun diren artaldeak et(a) adardunak oro,
 Memiuz, guziak ezarriak dituk gizonen geriza-pean.
 Ezen asmuz basihietarik ihes eginez bake bila
 Eta nekerik gabe beretu phentze zabaletara zoazen,
 Baliagarri direlako saritzat emaiten baiteztauegu.
 Aldiz naturak haier ezer eman etzauenak eta berainik
 Bizitzen ahal etzirenak eta guri zerbitzurik batere
 Etzematenak, horren gatik jasaiten baitugu horien motak
 Alha daiten gure laguntzarekin eta duten ukan geriza,
 Hek agerian irabazitako zauden bertzentzat eta bilkin,
 Halabeharrezko bere gatinetan estekan hartuak oro,
 Haien mota suntsitzera berrekharri zuen arteo naturak.

- 877 Baina Gizazaldirik etzen izan eta demboran ehoiz ere
 Izan ahal etziren naturaz bikunak eta bi gorputzekin
 Soinadar batasun gabekoez eginak, zati batek indarra
 Han ttipia 'ta handia hemen ezin baitzuen ukaiten ahal.
 Hau gogo nahi dukan ahulenaz izan daitekek ezaguna.
 Lehenik zaldia hirur urte beterik nunbait han da zalutasun
 Hoberenean, ehondik ez haurra, zeren ainitz aldiz baititu
 Bilatuko lotarik ugatzetan esnea zematzen ditiak.
 Gero zaldien indar biziak eta zango-besoak ahuldu
 Direnean zahartasunez ihes doan biziak ahiturik,
 Orduan bakarrik adin onera heldurik haurrer hasten zaie
 Gaztaroa 'ta deztuete matelak ilepitz guriz aphaintzen.
 Sinets eztezakala beharrez gizon eta zamari motako
 Haziak batean dagizketela 'ta badirela Gizazaldiak,
 Edo soinean gerria zakur errabiatuez duten Zkila
 Arrainerdiak, eta mota hortako gainerateko guziak,
 Ikusten baitugu soinadarrak elgarrekin gaizki doaztela:
 Horiek eztira berdin adineratzen, eztituzte soinetan
 Indarrak berdin ukaiten, eztira aitzinatzen zaharrarora,
 Maitasun berdinez eztira suhartzen, ez bizimolde beretan
 Akomeatzen, ez tute soinadarretan ere gozo berdina.
 Eiki ainitzetan ahuntz bizardunak ikusten dira gizontzen
 Arsto-perrexilaz, gizonarenzat delarik phozoin bat samina.
 Azkenik garrak ohian erretzen dituelarik lehoinen soin

Horailak eta lurretan zipiltzen haltsar et(a) odolez den oro,
 Nola gerta zaitekeen soin hirurkunarekin bakar batek
 Bezala, buruz lehoin, buztanez suge, erdian Kimera bera,
 Ahotik kampora gar biziak ufa zitzan bere gorputzetik?
 Beraz horren gatik asmatzen duenak lur berrian eta zeru
 Gaztean sortuak izan zaitezkeela horrelako bizidunak
 Molde bereko gauza ainitz ahotik erasi behar dituzke,
 Erranen duke lurretan orduan ibai urrezkoek orotan
 Zariotela, 'ta zuhatzen lorea harri baliosez zela,
 Edo gizon bat sortua zela hainbat gotorra soinarretan
 Nun itsas-lezen haraindian ezar baitzezakeen oinen urratsa
 Eta zerua ber' inguruan eskuez osoan itzul-araz.
 Ezen lurrean izaiten zelakotz gauzetako ainitz hazi mota
 Lurra bizidunen emaiten hasi zen lehenbiziko demboran,
 Eztu deusek erraiten ihizirik egin ahal zela halere
 Nahasirik elgarrekin ez bizidunen soinar ezperdinik,
 Zeren orai ere lurretarik sortzen diren guziak nasaiki,
 Landare motak eta fruituak eta zuhamu gozagarriak,
 Elgarren artean batere batzunak egin izan eztaitezke,
 Baina gauza bakoitza bere legeari darraiko 'ta guziek
 Naturako berexkuntzak arau segurrean badatxikatza.

(Gizartearen aitzinemamendua)

- 924 Alta gizonen arraza hura baserrietan gogorrigo zen
 Ainitzez, lur gogorrak egiten zuelakotz zuzen zen bezala,
 Eta barnean hezur handiangoekin et(a) azkarrangoekin
 Sortua, ginarrietan zain indardun batzuekin egokia,
 Etzadintzat izan errexki hartua beroaz ez eta hotzaz,
 Ez hazkurriaren berritasun eta gorputzeko gaitzaz ere.
 Eta zeruan ainitz urtez iguzkiaren itzulaldietan
 Ihizien aran bizia bazeramaten lekuz aldakorra.
 Eta goldenabar makoa zerabilan gizon azkarrik etzen
 Batere, 'ta nehork etzakien burdinaz lurraren iraultzea,
 Ez aldaxka berrien landatzea lur zilatuan, ez aiotzez
 Zuhatz handietan zahartuak ziren abarren ebakitzea.
 Iguzkiak eta euriak emaiten zutenak, lurak berainik
 Egiten zuenak, emaitza horrek askiesten zauen gogo.
 Gehienetan haritz ezkurrez emankorretan hazten zituzten
 Gorputzak, eta negil aroan ikusten ditukanean orai

Kurkutzak, onduak izaiten direnak gorrindolez margoturik,
 Lurrak orduan emaiten zitian ere ainitzez gehiago.
 Gainera mundu berriaren loratzeak hazkurri gogor ainitz
 Ekharriak baitzituen, hilkor gaizoentzat baziren nasaiki.
 Egariaren hiltzera deitzen zituzten ibaiek, ithurriek,
 Orai mendi handietan uhaitzek garbiki daueten bezala
 Urrundik hel egiten egarrituak diren basihitalder.
 Azkenik ibiltzean ohartuak ziren ninfen oinhanetako
 Egoitzer, bazakiten hetarik nasaiki zarion hezearen
 Gainditzeak harroka busti lerrakorrak ikhuzten zituela,
 Harroka bustiak, gainaldea goroldio muskerrez dirdiran,
 Eta baserri zabalean ere sortzen eta jalgitzen ura.
 Etzakiten oraino suaz gauzen erretzen ez basihizien
 Larruez baliatzen ez horien bilkinez gorputzeko jantzi
 Egiten; baina xara, mendietako harpe 'ta oihanetan zauden
 Eta gordetzen zuten aldaxken artean soinadarren zikina
 Haizen ukhaldier ihes egiteko 'ta euriez bortxatuak.
 Ongia guzientzat etzezaketen ikus, etzakiten ere
 Elgarren artean ohidurez ez legez batere baliatzen.
 Irabazi zenbait zaukolaik zoriak eskaintzen bakoitzari
 Bazeraman, berainik zer ahal zuen eta bizitzen jakinez.
 Basoetan Benuzek zekhartzan maitalen gorputzak juntatzera
 Ezen edo biltzen zuen emazte zenbait elgarren gutiziak
 Edo gizonaren indar bortitzak eta gura handiak, edo
 Ezkur eta kurkutz ala madari hautatuezko sari batek.
 Eskuetan eta oinetan zuten indar miragarriaz burgoi
 Basihien mota oihanetakoak lasterkatzen zituzten
 Abailez harriak igorritz eta hazta handiko mazo batzu;
 Ainitz hatzemaiten zuten, gutitarik ziren harpetan baztertzen;
 Eta gauak harturik basurden iduriko soinadar buluzi
 Zurdadun oihandarrak etzaten zituzten lurrean, orstailez
 Et(a) aldaxka batzuez ezarriz inguratua bere burua.
 Etzabiltzan gero auhen handitan ekhiaren et(a) argiaren
 Bila gauaren lotsaz ilunbetan galduak alhorretan gaindi;
 Aldiz igurikatzen zuten ixil ixila loan mulgildurik
 Iguzkiaren zuzi gorrailak zezan argia zeruan heda.
 Alabaina beti ttipitik ohituak zirelakotz ikusten
 Aroan aldizkatuz zirela sortzen ilunbeak et(a) argia,
 Ezin gerta zaitekeen hortan ehoiz izan zadin mirestekorik

Ez eta beldur izan zadin betiko gau batek behin betiko
 Lurrak atxik ahal zitzan iguzkiaren argiaz gabetuak.
 Baina zorigaitzekoak arranguratuak ziren gehiago
 Basihizi motek atsedena lanjer egiten zauetelakotz;
 Egoitzatik haizatuak harpetarik ihes zaozen basurde
 Hauntsu zenbait edo lehoin azkar zenbait ethortzen zizaienean,
 Eta behargabetarik gauan izituak gomit laztagarri
 Horier ohatzak utzi behar zezteeten ihaurtuak orstailez.

- 987 Gizaki hilkorrek etzituzten orduan orai baino sobera
 Deitore gehiagorekin uzten biziaren argi goxoak.
 Alabaina batek orduan hatzemana zenean usuago
 Eskaintzen zauen basihizer alhagia bizi bat hortzetan
 Hartua 'ta xara, oihan eta mendiak auhenez zituena
 Betetzen, haltsar biziak ikusiz hilhobi bizian ehorzten.
 Eta gorputza hortzikaturik ihes joanez zirenek salbatu
 Gero zauri gaixtoen gainean eskuak daldaretan atxikiz
 Oihu laztagarri batzuetan hel egiten zaukoten Orkuzi,
 Inharrostaldi laztagarri batek biziaz gabetzen zituzten
 Arteo, laguntzarik gabe, nola zauriak artha jakin gabe.
 Aldiz etziren gizonak milaka banderen azpian jarririk
 Egun bakar batez hiltzen, arkaitzetan etzituzten itsasoko
 Uhain nahasiek orduan untziak eta gizonak egozten;
 Baina debaldetan zen ustegabeen goititurik itsasoa
 Ainitz aldiz erotzen errexki zematza mehatxu hutsalak,
 Eta nehor etzuen bairatzen ahal itsasoaren amarru
 Baketiak eta maltzurak zimarkuaz uhainen irrietan.
 /Ilunbean zagon orduan itsasturien jakintza ausarta./
 Orduan ere janariaren eskasak hiltzera zeramatzan
 Gorputz ahulduak, orai aldiz gauzen nasaiak ithotzen ditu.
 Jakingabeen ainitz aldiz phozoina bere buruer itzultzen
 Zaueten, berek orai bertzer demateenean trebekiango.

(Gizartea, hizkuntzak, sua)

- 1010 Gero hasi ziren etxe 'ta lurren eta suaren antolatzen
 Eta gizonari baturik emazteak zuenean onhartu
 Ezkontza bakar bat eta hetarik sortu zen haurra zutenean
 Ikusi, lehenik orduan zen guritzen hasi gizaki mota.
 Alabaina suak egin zuen etzutela ja gorputz hozperrek

Zeruak zeman estalgiaren azpian jasaiten ahal hotza,
 Benuzek ttipitu zezteen indarrak, eta hurrek balakuez
 Errextasunekin zuten gurasoen jite burgoia garhaitu.
 Orduan ere hasi ziren auzoak adixkidantzaren guraz
 Elgarrekin juntatzen kalterik eta bortxatzerik egin gabe;
 Gomendiotan hartu zituzten bai haurrak bai emazte guziak,
 Ahopiatuz zuten mintzoez eta jestuaz entzun-arazi
 Zuzen zela guziek urriki har zezaten ahulak zirenez.
 Elgargoa etzen molde guzietan egiten ahal halere
 Baina hoberenek ximenki zatxikatzaizten antolamenduak,
 Edo giza-mota guzia jadanik izanen zen suntsitua,
 Eta haren leinuak ez ahal zituen hunarano luzatuko gizaldiak.

- 1027 Hizkuntzako soinu guziak aldiz, naturak zituen bortxatu
 Emaitera, 'ta behar ukanak erran-arazi gauzen izenak,
 Ezta biziki bertzelako molde batez ikusten haurrak ere
 Eremaiten dituela jestura mihiaren elhe gabeak,
 Egiten baitu hor direnak erhiaz erakusten dituztela.
 Ezen bakoitzak sendi du ber(e) indarrak norano derabiltzazkeen.
 Adarrak aretxeari bidarrean agertuak izan baino
 Lehen bilatzen ditu haserreturik et(a) etsaia du jaukitzen.
 Aldiz panteren umek eta lehoin ttipiek aztaparez eta
 Zangoez eta ausikiez dute gudukatzen orduan jadanik
 Hortzak et(a) aztaparrak ere dituztelarik eginak doi-doia.
 Gero hegaztinen mota guzia badakusagu hegaletan
 Fidatzen eta laguntza daldaratua lumetan bilatzen du.
 Beraz gogatzea norbaitek orduan uzitu zezteela gauzer
 Izenak eta gizonen hari zauzkotela hitz lehenak hartu
 Erokeria da. Nola zezazkeen hunek gauza guziak elhez
 Izenda 'ta hizkuntzako soinu berezi guziak eman uste
 Delarik ordu berean ezin egin zuketela hori bertzek?
 Gainera baliatzen ezpaldin baziren hitzez bertzeak ere
 Elgarrekin, nundik sartua zizakon baliagarri zenaren
 Ezagutza, 'ta huni nundik eman zizakon botere lehena,
 Zer egin nahi zuen jakin zezan eta zezan gogoan ikus?
 Etzituen ere bakar batek ainitzak bortxatzen ahal eta
 Menperaturik garhaitzen gauzen izenak ikas nahi zituzaten.
 Ezta nahi den moldez errex zer egin behar den erakastea
 Elkorror eta sinets-araztea, zeren ezipaitzuten jasanen

Ez onhartuko haien beharriek nahi den moldez luzazago
 Debaldetan akhi zitzaten mintzo bateko hitz ez ezagunek.
 Azkenik zer da hortan hainbaterano denik ustegabegarri,
 Gizakien motak, elhean eta hizkuntzan azkartu zenean,
 Erran-nahi bereziko gauzak bazituen hitz bereziz deitu?
 Elherik eztuten aberek eta basihizi mota guziek
 Ohian orro berezi batzuer dauete hel egiten ala
 Beldur ala min dutenean eta bozkariatzen direnean;
 Ezen alabaina gauzek agerian erakasten dute hori.
 Lehenik ohalano haserretuek ezpain zabal eroriak
 Daldaran ezarri dituztenean eta hortz gogorak agertu,
 Erausiatzean guziak orroez betetzen dituztenetik
 Oihu ainitz bertzelakoetan errabiaz mehatxatzen dute.
 Baina noiz ere milikatu nahi dituzten umeak
 Ala oinez inharrosten dituztenean eta nahiz ausiki
 Bezala hortzak atxikiz amultsurik iresteak itxuratzen,
 Mintzoko gurrungaz balakatzen dituzte, bertze moldez osoki
 Dutelarik etxetan bakarrik uhuriatzen ala hezirik 1
 Soina joaiten direnean intziretan ukhaldietarik ihesi.
 Azkenik irrintzinak er(e) eztirea bereziak iduritzen
 Behorren erdian ber(e) adineko lorean gereño gaztea
 Erotua denean Amore hegaldunaren eztenkez jorik
 Eta sudur-ziloak idekiz daldaran doanean gudura,
 Edo bertzela soinadarrak inharrosiz irrintzin egitean?
 Ondarrean hegaldunen eta xorien mota guziek ere,
 Belatzek et(a) itsas-arranoek eta xilipirtek, itsas-uhain
 Gazietan dituztenek bilatzen janariak eta bizia,
 Orduaren arau osoki bertzela dituzte garrasiak
 Jateko gudukan eta hartu dituztenek nahiz ihardoki.
 Eta batzuek aroekin batean dituzte mintzo karrankak
 Aldatzen, hala nola belatxen eta bele zaharren motako
 Andanek, erraiten denaz, ari direnean ur eta eurien
 Galdez, eta noiztenka hel egitean haizer eta aireari.
 Beraz sendipen ezperdinek badituzte bortxatzen ihiziak,
 Mutu direlarik alta, mintzo berezi batzuen emaitera,
 Zeinbat ezta zuzenago gizakiek ahal dituzten orduan
 Ezperdinak diren gauzak ere mintzo bereziez izendatu!

1090 Behar bada gauza horietan hunen galdez ixilik ehadin

Egon: zimiztak zauen lurrera su lehena hilkorrer ekharri,
 Garren berotasun guzia hedatu baitzian gero hartarik.
 Alabaina zeruko garrak sarturik ainitz ikusten ditugu
 Erretzen, beroaz ukhaldi bat zerutik emana zaienean.
 Bizkitartean zuhatz abartsu bat haizez jorik inharrosia
 Sutan jartzen da zuhatzaren abar bat abarren gainera jautsiz
 Indar azkar batzuez kharrakaturik jalgitzen denean sua,
 Eta batzuetan dirdiraten du garraren phindar berotuak
 Abarrak eta zurak batzu bertzerekin direnean igortzi.
 Eta horietan biek eman ahal dauete sua gizoner.
 Gero garren beroaz jatekoaren egoste 'ta guritzea
 Iguzkiak erakatsi zauen, ikusten baitzuten gauza ainitz
 Arraiek jorik guritzen eta landetan beroaz garhaitua.

(Asmatzen dira erretatea, jabegoa, aberastasuna)

- 1104 Bazerakutsaten ere janari lehena 'ta bizia suaz
 Eta gauza berriez egun oroz aldatzenago zituztela
 Jeinuaz nagusituak zirenek eta bihotzez azkarrenek.
 Erregeak hasi ziren hirien eraikitzen eta gaztelu
 Jartzen beretzat lagungarriak et(a) ihes egiteko lekuak;
 Gero zatikatu zituzten abelaldeak et(a) alhorrak eta
 Bakoitzaren itxuraren, indar eta jeinuaren arau eman,
 Balio handia baitzuen itxurak et(a) indarrek arrakasta.
 Aberastasuna berantago zuten asmatu 'ta aurkitu zen
 Urrea, bai ederrer bai azkarrer ohorea zauena hartu
 Errexki, zeren aberatsenaren alderdia nahi bezainbat
 Hartzen dute ainitzek soinez eder direnean et(a) azkar sortu.
 Alta bizia gobernatzan badu norbaitek arrazoin zuzenaz
 Gizonaren aberastasun handiak, gogoia geldirik, biziko
 Gutiz askiestean dira, nehoiz ezpaita gutian eskasik.
 Aldiz gizonek nahi zituzten ukan ospea 'ta boterea
 Haien aberastasunak oinarri segurrean iraun zezantzat
 Eta gauzadunek bakean ereman ahal zezaten bizia;
 Debaldetan, zeren ohore gorenera heltzeko gudukatuz
 Lanjeros bilakatua baitzuten hartara deraman bidea,
 Eta heldurik ere, gainetik, aire gaixtoak bezala, noizten
 Jelosiak jorik gaitzetsiz Tartarora aurdikitzen ditu;
 Jelosiaz, aire gaixtoaz bezala, sutan jartzen direlakotz
 Ainitzetan gorenak eta bertzetarik direnak handiago.

Hala nola nun hobe baitu norbaitek obeditzea bakean
 Botereaz manatzea 't' erresumen gutiziatzea baino.
 Beraz odol husturik ahituak daitela debaldetan izer
 Handi-nahiaren bide hertsietan egiten dutenak gudu,
 Jastatzea bertzen ahotik dutenaz geroz eta zer behar den
 Galdatzen sendimenduer berer baino lehen entzun dutenari,
 Eta dena gaur eta bihar izanen etzen gutiago lehen.

- 1135 Beraz erregeak erahilik tronuen maiestate lehena
 Eta pordoin izigarriak bazatzaten lurrera aurdikirik;
 Odoletan, buru goienaren ikurrin orotan aiphatua
 Jendearen zangopetan ohore handiaz nigarretan zagon,
 Tirriaz oinperatzen baita sobera zuena lehen beldurtu.
 Gauzak beraz uherturik gaizki handienera zoazen berriz
 Bakoitzak eskatzen zuenean beretzat manamendu gorena.
 Gero batzuek erakatsi zuten legezko karguen ezartzen
 Eta zuzena jarri zuten nahitara legen erabiltzeko.
 Alabaina gizaldia, bizitzeaz akhiturik indarretan,
 Etsaitasunen gatik ahuldua baitzagon, are gehiago
 Zen erori legen eta zuzen hertsiaeren azpira berainik.
 Haserrean alabaina lege zuzenetan orai onhartua
 Den baino saminkiago zelakotz bakoitza mendekura joaiten,
 Gizonak akhituak ziren bortizkerietan bizitzez beti.
 Geroztik zigorren beldurrak orbaintzen ditu bizian eginak.
 Ezen bakoitza bortitzak ala bidegabeak inguratzen du,
 Nundik ere sortu den haren gana berritzultzten da ainitz aldiz
 Eta bizitzea geldi 'ta bakean ezta gauza bat errex
 Elgarren arteko legeak egintzez hausten dituenarentzat.
 Alabaina gizonak eta jainkoak oro bairatzen baditu
 Behar du halere betiko gorderik egoiteaz dudan egon,
 Erraiten baitute ainitzek lotarik mintzo zirenean edo
 Eritasunez sukar ametsetan, luzaz gordeak zituzten hutsak
 Aitzineratu zituztela 'ta jendearen erdian ezarri.

- 1160 Orai herri handier zein arrazoinek ezagun-arazi zezteen
 Jainkoen izenak, eta zerk zituen hiriak aldarez bete,
 Artha hartu zeremonia nagusien ospatzeko, horiek
 Gaurregun ordu 'ta leku handi batzuetan egiten baitira?
 Nundik ere jarria da hilkorren baitan orai jainkoen beldur

Laztagarria lurren borobil osoan eraikitzen baititu
 Templo berriak eta bestaburuetan ospatzera bortxatzen?
 Ezta hitzen bidez hortaz arrazoinaren emaita hain neke.
 Alabaina gizaldi hilkorrek jainkoen iduri beteginak
 Gogoan ikusten zituzten orduan atzarriak izanik ere,
 Eta lotarik gorputzaren handitzeaz gehiago miresten.
 Horier emaiten zaueten beraz sendimendua zeren eta
 Ikusten zituzten soinadarren higitzen et(a) elhe burgoieneren
 Erraiten, aurpegiak ospagarri bezainbat indarrez nagusi.
 Eta betiko bizia zematzeeten beti zizaielakotz
 Hornitzen haien iduria 'ta gelditzen baitzen haien itxura;
 Uste zuten ere lagunduak zirenaz geroz hainbat indarrez
 Ehoiz indar batek garhait ahal zitzan beldurrik gabe zirela.
 Uste zuten hortakotz urrundik nagusi zirela hiltzearen
 Lotsak ezpaitzezakeen zorionez hetarik bakar bat hunki
 Et(a) aldi berean mirazkoak ikusten zituztelakotz ainitz
 Gauza miragarrikoen egiten, batere nekerik hartu gabe.
 Gainera gizonek zeruko gertaldiak ordenu segurrean
 Hautemaiten zituzten et(a) aro berak berrizultzen urtez urte,
 Eta hori zer gatik egiten zen etzutzen ezagutzen ahal.
 Beraz atherabidea jainkoen gain guziaren emaita
 Zuten eta guzien itzulikaraztea haien kheinu batez.
 Jainkoen egoitzak eta lekuak zeruan zituzten ezarri
 Ilargia 'ta gaua zeruan itzultzen ikusten direlakotz,
 Ilargia, gaua 't' eguna, 'ta gauaren izartegi garratza,
 Han hemenka zeruko zuziak eta garrak airean ibiltzen,
 Hedoiak, iguzkia, euriak, elhurra, haizeak, bahazuza,
 Eta bapatez ortzantzak eta burrumba handien mehatxuak.
 Oi gizonen arraza dohakabea, jainkoer deztuezkana
 Egintza horiek eman eta gaineratu haserre bortitzak!
 Zeinbat auhen etzinituzten ordu hartan zuhaurentzat asmatu,
 Zeinbat zauri guretzat, eta nolako nigarrak gure haurrentzat!

- 1197 Ezta batere pietaterik buruak estalirik ainitz aldiz harri bati
 Itzultzen ikusia denean, ez aldare guzietara hurbildu nahian,
 Ez ahuspez lurreratzean ez ahurrak zabal jainkoen templo
 Aitzinean egoitean, ez aldaretan laurzangokoen odol
 Ainitzen ixurtzean, ez et(a) agiantza lotzean agiantzari,
 Baina gogo baketiagoan ahalaz orori behatzean.

Ezen beha gaudelarik gainean mundu zabalaren zeruko
 Eremuer eta airean dirdiran dauden izar geldier
 Eta dathozkunean ekhi 't' ilargiaren bideak gogora,
 Orduan bertze gaitz batzuez gure bihotzean hertsatua den
 Arrangura batek iratzarririk burua goititzen hasten du,
 Ez ote den behar bada jainkoen botere handia guretzat
 Izar argiak mugitze berezian itzul-arazten baititu.
 Argipenaren eskasak alabaina jartzen du gogoa dudan,
 Galdez dago munduak sortzez hastapenik ukan zuenez ote,
 Eta berdin ukanen bururapenik, munduaren harresiek
 Norano deramaketen mugimendu nahasi hunen nekea,
 Ala jainkoer esker dohatuik izaite betierekoaz,
 Adin gaitzekoaz eremanak betiko lerratzean, gaitzetsi
 Ahalko dituztenez adin mugagabearen indar azkarrak.
 Gainera nori jainkoen beldurraz etzako hertsatzen gogoa,
 Eta nori soinadarrak etzazko lasturaz hartuak izaiten,
 Aire gaixto latzaren joite suzkoek dutenean lurra
 Inharrosten eta zeru zabalean dabiltzanean ortzantzak?
 Eztirea jainkoen lotsaz jende 'ta herriak ikharan eta
 Errege burgoiek eztituztea gorputzak hartuak iziaz,
 Gaizkin bat onharturik edo burgoiki mintzaturik ordaintzeko
 Gaztiguen aro dorpera helduak ez ote diren gogoan?
 Itsasoan ere haize bortitzaren indar gorenak uhainera
 Untziriaren buruzagia duelarik ufaz egozten
 Gerlari balioekin et(a) elefantekin batean, ez ote du
 Botuez jainkoen eskerrera hel egiten othoizka galdatuz,
 Izitua, haizeak bake daiten eta duen ufen laguntza?
 Debaldetan, zeren ainitz aldiz zirimola bortitzak harturik
 Ezpaita gutiago haler(e) eremaiten herioko lezera.
 Hainbaterano ditu gizonen egintzak indar gorde zenbaitek
 Erhausten eta oinazpikatzen azau ederrak eta aizkora
 Azkarrak, ageri delarik baduela jostatzeke gura bat.
 Azkenik zangoen azpian ikharatzen denean lur osoa
 Eta hiri khordakatuek erortzez mehatxatzen dutenean,
 Zer da miresteko hilkorrek bere burua ttipitzen badute
 Eta gizonen munduan uzten badituzte jainkoen botereak
 Handiak eta miragarriak, ditzaketenak oro goberna?

1240 Gainera burdin-horia 't' urrea 'ta burdina aurkituak ziren

Eta zilharraren phizuarekin batean berunaren hazta,
 Mendi handietan gaitzeko oihan batzu garras zituenen
 Erre suak, edo zerutik igorriarik zimizta batek edo
 Oihanetan elgarrekilako gerla bat egiten zutelakotz
 Etsaietarano sua baitzuten ereman haien izitzeko,
 Edo lurraren emankortasunaz harturik nahi batzizutzen
 Alhor gizenak hedatu 'ta baserriak alhagia bilakatu,
 Edo basihiziak hilik nahi baitzuten joritu mozkinaz:
 Ezen hobiak eta suak erabiliak ziren ihiziko
 Zaldua sarek inguratu 'ta zakurrak huiatu baino lehen.
 Zer ere den eta zergatik egin bazen harrabotsaz lazkarri
 Su garreztatuak barnean suntsituak zituenen oihanak
 Erroetarano 'ta suaz izan zenean lurra zipildua,
 Zilo gunetara sutan ziren lurreko zainetarik ixurtzen
 Zen ithurri bat zilhar, urrez, burdin-horiz, berunez egina,
 Han gelditzen zen. Horiek ikusten zituztenean gogorturik
 Bere margo garbiarekin lurrean dirdiratzten berantago,
 Zuten edertasun argi 'ta leunaz bilduak, hartzen zituzten;
 Ohartzten ziren itxuraz berdinki landuak iduri zutela
 Eta bakoitzak bazatxizkala ziloek utzi zauzkoten hatzak.
 Orduan gogoan sartzen zizaien beroaz hek urturik nahi
 Zuten gauzen itxuran eta moldean zituztela lantzen ahal,
 Eta aitzina landuz eremaiten ahal zirela moko punta
 Zorrotz eta mehe baten ukaitera nahiko zuten bezainbat,
 Ukan zitzaten berek geziak, oihanak ahal zaiten xedarra,
 Eta zura lan zezaten, eta habeak arrabota leunduz,
 Taratuluaz ziloak egin ere zilatzuz aldean bertze.
 Horien egiten etzerabiltzaten lehenik urre 'ta zilhar
 Burdin-hori gogor indarrez azkarra dena baino gutiago;
 Debaldetan, haien ahalaz garhaiturik amor zematelakotz,
 Eta jasan ezpaitzezaketan hark bezala lan horren dorpea.
 Orduan burdin-horia khariotu baitzen urrea bazatzen
 Eroria, mokoaren lamphutsaz ezin erabiliz utzia.
 Orai datza burdin-horia, darraik urrea goien ohorean.
 Adinen itzuliak horrela gauzen aldiak aldatzen ditu.
 Azkenean arrakasta galtzen du balioan izana zenak;
 Gero darraik bertze bat, gaitzestetik jalgitzen da,
 Egunez egun bilatuago da 'ta aurkiturik laudorioz
 Loratzen da, 'ta hilkorren artean ohoratzen miragarriki.

Errex zaik orai ezagutzea hihauerek, Memiuz, burdinaren
 Natura zer moldetan zitekan bada gizonen berek aurkitu.
 Lehenbiziko harmak ziren eskuak, azkazalak, eta hortzak,
 Eta harriak, eta oihanetako zuhatzen abarrak ere,
 Eta gero suak eta garrak ezagunak izan zirenean.
 Ondotik zen aurkitu burdina 'ta burdin-horiaren indarra.
 Eta burdin-horia zen erabilia burdina baino lehen,
 Naturaz erabilgarriago baita 'ta aurkitzen nasaikiago.
 Burdin-horiatz lantzen zuten lur azala 'ta harekin nahasten
 Ziren gerlan gualaldea gaitzeko zauriak eginez eta
 Ebasten zituzten abereak eta lurak, ezen harmaduner
 Uzten zizaien errex buluzia zen oro 'ta harmarik gabe.
 Gero gutika hasi ziren agertzen burdinaz egin ezpatak
 Eta burdin-horizko dailua gutiespena zen itzuli,
 Burdinarekin hasi ziren ere lur azalaren iraultzean,
 Eta gerlako gudu dudazkoak ziren berdinean arautu.

- 1296 Hastean zaldiaren bizkarrera zen igaiten harmak harturik
 Eta hura ahokoez gidaturik eskunaz zen gudukatu
 Gerlako lanjerrak bi zaldiko karroan bilatu baino lehen.
 Eta bi zaldi ziren uztartu bietan bi baino lehen eta
 Harmaturik igan zen baino lehen segekilako karroetan.
 Gero dorreak soingainean idi lukaniarrak, laztagarri,
 Trompa sugekaran, Khartagon hezi zituzten gerlako zaurien
 Jasaiteko 'ta Marteren gudaritalde handien nahasteko.
 Batetik bertzera horrela zituen etsaikeria trixteak
 Gizaldientzat asmatu harmetan laztagarri zirenak oro
 Eta gerlaren itsuskeriak handitu ziren egunez egun.
 Gerlako beharretako zezenak entseatu zituzten ere,
 Etsaier basurd(e) erotu batzuen igortzea phorogatu zen.
 Eta zenbaitek lehoin azkarrak igorri zituzten aitzinera
 Hezle harmatuekin eta bere nagusi garratzekin ahal
 Zituztentzat menperaturik hek gatina batzuekin atxiki.
 Debaldetan, zeren eta sarraskiko nahasmenaz berotuak
 Erotuz zaldunaldeak aurdikitzen zituzten berexi gabe,
 Alde guzietara buruko khima lazkarriak inharrosiz,
 Eta zaldien bulharrak daldaratuz izituak ezin ezti
 Zezazketen zaldunek ez itzul-araz etsaietar(a) ahokoez.
 Lehoin eme haserretuek jauziz soinak alde guzietara

Zematzaten eta aitzinera heldu zizezteenak aurpegian
 Hatzemaiten zituzten edo bizkarretik hartzen hek uste gabe,
 Eta tinkaturik azkarki lurreratzen zauriaz garhaituak,
 Bere ausikiez et(a) aztaparren puntez heier loturik bortizki.
 Zezenek ere bereak egozten zituzten eta lehertzen
 Zangopetan, azpitik adarrez husten zaldien sahetsak eta
 Sabelak, eta lurra phorroskatzen zuten mehatxua gogoan.
 Eta basurdek hortz azkar luzez aurdikitzen zituzten aldeko
 Gerlariak, gezia hautsiak margoztatuz ber' odol abreaz
 Zaldunen eta oinezkoen ondarkinak nahasten zituztela.
 Ezen hortz abren ausikitik ihes egiten zuten zeharkatuz
 Behorrek, edo zangoetan zutik emaiten ziren haizetara,
 Debaldetan, zeren ikusten baihituen zangarrak mozturik
 Erortzen eta haien erorte phizuaz ihaurtua zen lurra.
 Etxean aski heziak zirela aitzinean uste bazuten,
 Ohartzen ziren egitekoen erdian erotuak zirela
 Zauriez, oihuez, ihes egitez, beldurraz eta harrabotsaz,
 Eta bakar bat etzezaketan ekharr-araz berriz gibelera;
 Alabaina basihizi mota guziek ihes egiten zuten,
 Orai elefantek burdinaz ainitz aldiz joak izanik gaizki
 Dagiten bezala nagusier emanez ukhaldi gaizto ainitz.
 /Egin zutena hori bazen izan. Baina neke zait onhartzea
 Etzutela lehenik bilatu gogoz senditzea aitzinetik
 Eta gero guzientzat izanen zen gaitz hain latzaren ikustea.
 Egintza hori mundu guziari dezokek eman izaitekotz,
 Mundu berezietan molde berezietz egin den orori,
 Borobileko lurretan nahi dukan segur bati baino lehen./
 Etzuten alta hori hainbat garhaitzea gogoan egin nahi,
 Etsaiek auhen egin zezaten eta suntsi zitzatentzat baizik,
 Ezperdina baitzuten zenbakia 'ta bere harmetan eskasa.

- 1349 Oihal irunez baino lehen larru josiez egin zen jantzia,
 Burdinaren ondotik jin da oihala, burdinaz lantzen delakotz,
 Eta bertze molde batean ezin eginak ahal baitatezke
 Ehundegiak, ardatzak, tutak eta zeharmen joileak bezain
 Gauza meheak. Eta naturak ilagintzan gizonak ezarri
 Zituen emazteak baino lehen; ezen antzez da nagusitzen
 Urrundik gizona 'ta ainitzez trebeagoa da giza-mota;
 Hori gaizkira bihurtu zuten arteo laborari garratzek

Hala nola nun emaztekien eskuetara baitzuten utzi,
 Eta berdinki laborantzako lan gogorra berek zuten jasan
 Eta lan gogor hortaz soinadar et(a) eskuak zituzten azkartu.
 Aldiz ereitearen behazun eta xertoaren ethorkitzat
 Izan zen lehenbiziko gauzen egile natura hura bera,
 Zuhatzetarik erori bihikek et(a) ezkurrek zituztelakotz
 Zuhatzen azpian umez elemeniak emaiten urtaroko;
 Hortik ere gero xertatzen ahal ziren aldaxkak abarretan
 Eta ziri gazte batzu lurrean landatzen alhorretan gaindi.
 Gero bertze 'ta bertze laborantzak landa ttipian entseatzen
 Zituzten, et(a) ohartzen ziren basa-fruituak eztitzen zirela
 Lurra zutenean ontzen eta lantzen zutenean artharekin.
 Egunez egun ere oihanak bortxatzen zituzten igaitera
 Gorago mendian eta behean uztera leku lurlaner,
 Soroen, aintziren, latsen, uzten et(a) ardantz jorien ukaiteko
 Ibar eta mendixketan, eta berexkarri hedatzen ahal zen
 Artegunetan olibondoan eremu musker-urdinarana,
 Jarria munhoen eta zelhaien eta laborantzen erdian.
 Horrela duk orai ikusten edertasun ezperdinean oro
 Berexten, udare goxoez artekaturik aphaintzen delarik
 Eta zuhamu zorizkoez inguruan delarik edukia.

- 1380 Aldiz hegaztinen mintzo garbiak ahoaz imitatu ziren
 Gizonek elgarrekin aireak kantuz arinki xaramelatu
 Zituzketen baino ainitz lehenago, 'ta xoratu beharriak.
 Eta haizearen huxtuek kalamuen xilotik erakatsi
 Zaueten baserritarren xirulen barne hustuetan ufatzen.
 Hortik apurka musikarien erhiezen denean erabili
 Xirulak emaiten dituen auhen eztiak ikasi zituzten,
 Urrun basoetan, oihan eta zalduetan entzuten baitira,
 Artzainen leku baztertuetan hauek asti duten egunetan.
 /Horrela gutika gauza bakoitza dakhar adinak aitzinera
 Eta jakitateak argian diren lekuetarano du goititzen./
 Horiek hunkitzen zaueten guzier eta xoratzen gogoa
 Janari nasaiarekin: orduan guziak bihotzera doaz.
 Beraz ainitz aldiz elgarrekin belar gurian etzanik eta
 Lats baten urak ondoan, zuhatz handien abarren itzalean,
 Gorputza zorionean zauden aberastasun handirik gabe,
 Oroz gainetik aroak irri zegienean et(a) urtaroez

Belar muskerrarakoak zituztenean lilies margoztatu.
 Orduan jokoak, orduan solasak, orduan ohiko ziren
 Irri xafla goxoak, orduan baserriko Musearen aldi.
 Orduan buruak eta soingainak orsto 'ta lore trenzatu
 Koronatzan zituztela jostatzen zuten alaiki gogo,
 Eta neurkadarik gabe aitzinatzen zituzten zango-besoak
 Dorpeki higituz eta oin dorpeaz joiten zuten ama lurra;
 Hortik sortzen irriak eta zorizko karkaila goxoak,
 Horiek oro berriak baitziren orduan eta miragarri.
 Eta lorik gabe beilatzen zutenentzat atsedanak hor ziren,
 Mintzoak ainitz doinutan erabiliz ezitzen zuten kantua
 Eta bildurik ezpaina zerabilaten kalamuen gainetik.
 Horren egiten jarraitzen dira beilatzaleak orai ere,
 Jendeak ikasia du neurkadaren atxikitzen et(a) anartean
 Eztu hartzen izpi bat atseginarene emaitzatik gehiago
 Oihanetan hartzen zuena baino lurrean jaio zen jendeak.
 Ezen eskupean dena, goxoagoa den zerbait ezpadugu
 Aitzinean ezagutu, laket zaiku gehienik, gutan indar
 Du 'ta gero aurkitu gauza hobe batek abantzu beti hori
 Galtzen du 't' aldarazten ditu lehenbizikoentzat sendituak.
 Horrela hasi zen ezkurrez hastioa, horrela ziren utzi
 Orstailak eta belarrak hedatuz egiten ziren etzangiak.
 Erori zen ere gaitzetsirik basihizi larruzko jantzia,
 Uste dut alta aurkitua zela halako jelsiarekin
 Nun ezarri zuen lehena zimarkuz hiltzera baitzen igorri,
 Eta halere ainitz odoletan haien artean urraturik
 Xehatu zuten et(a) ezin ahal zuten abantailera bihurtu.
 Orduan beraz larruek et(a) orai urreak eta gorrindolak
 Betetzen dute grinẽz eta gerlaz nekatzen gizonen bizia,
 Are gehiago da gutan ogena jarri, nik uste dutanaz.
 Alabaina buluzirik hotzaz oinaze zuten larrurik gabe
 Lurtarrek; aldiz gu jantzi gorrindolez eta handikaran urrez
 Aphaintzerik ez ukaiteaz ezkira laidoztatuak batere,
 Jende xumearen jantziak gituenean gerizatzen ahal.
 Beraz giza-mota debaldetan eta auherretan akhitzten da
 Beti, 'ta bere bizia hingatzen du grinã hutsal batzuetan,
 Ezagun eztuelakotz ageriki zer den ukaiteko muga
 Et(a) atsegin egiazkoa norano handi daitekeen osoan.
 Horrek purka bizia aitzinatu zuen ekaitzen erdira

Eta gerlako heraki handi guziak abiatu zituen.
 Aldiz munduaren ganga handi 't' itzulikariaren zaintzale,
 Iguzkiak et(a) ilargiak argiaz inguruka dirdiraturuz
 Ikasi zaueten gizoner urtaroak berritzultzen direla
 Eta direla molde zuzen et(a) ordenu zuzenean egiten.

- 1439 Dorrez azkarki gerizaturik zeramaten bizia jadanik
 Eta zatikaturik eta berezirik landua zuten lurra,
 Itsasoa jadanik untzi beladun arinez estalia zen,
 Antolamenduak eginik bazuten ja sokorri 'ta laguntza,
 Poetak hasi zirenean kantuen bidez egintza batzuen
 Hedarazten; ezta hizkitegia ainitz lehenago aurkitu.
 Horren gatik aitzinean izanera behatzea gur(e) adinak
 Ezin dagike, horren hatzak arrazoinak erakats ezpaditza.
 Itsas-iragaiteak eta laborantzak, gazteluak, legeak,
 Harmak, bideak, jantziak eta mota hortako gainerateko
 Ontasunak, osoki biziko gozoak ere diren guziak,
 Kantuak, margazkiak, iduriak antzez leunduak baitira,
 Erabiltzeak eta batean adimen ernearen jakintzak
 Apurka zezteen erakatsi aitzina bazoaztener urhatska.
 Horrela du gutika zer ere nahi den adinak erakhartzen
 Agerbidera, 'ta jakintzak argi den lekuan eraikitzen du.
 Alabaina bat bertzetik argitzen zela zakusatzen gogoan,
 Antzearen bidez hegi gorenera heldu ziren ordurano.

*

*Liburu seigarrena**(Athenaz eta Epikuroz-en laudorioa)*

- 1 Izen aiphamen handikoa duen Athenaz lehena zen izan
 Uzta mozkindunak hilkor dohakaber noizpait uzitu zezteena,
 Bizia berritu zuena 'ta manatu zituena legeak,
 Eta biziko konsolamendu goxoak eman zezteen lehena,
 Hain gogo haindikoa aurkitu den gizona sortu zuelarik,
 Egia zion ahotik baitzituen noizpait guziak argitu;
 Bizi zenean eginak zituen aurkintza jainkotarren gatik
 Haren ospe hedatua jadanik eremana da zerurano.
 Ezen ikusi zuenean hark bizitzeko beharrak galdegiten
 Duen guzia hilkorrentzat bermeki jadanik adelatua
 Zela 'ta bizia zutela segurrean ahal zuten bezainbat,
 Gizon boteredunek aberastasunera laster zegitela,
 Ohore 'ta laudioria, nagusi zirela haurren aiphuaz,
 Etxen etzuela bakoitzak halere bihotz grina gutiago,
 Eta gogoan eskergaitzez bizia gaizten zela gelditzerik
 Gabe, 'ta deitore saminetan khexatzera zela bortxatua,
 Ezagutu zuen untiak berak zuela gaitza hor egiten
 Eta gaitz horren gatik ustelduak zirela kampotik barnera
 Ekharriak ziren guziak eta hetan ere gozagarriak,
 Lehenik ikusten zuelakotz uxterra 'ta zilatu zela,
 Hala nola nun nahi den moldez ezpaitzen ehoiz betetzen ahal,
 Ohartzan zelakotz ere barnean hartuak zituenak oro
 Izaiten zirela zikinduak bezala zapore kharats batez.
 Erranak zituen egiez bihotzak zituen beraz garbitu
 Eta gutiziari 'ta lotsari bururapen bat eman zauen;
 Erakutsi zuen guziek hartara heldu nahi dugun ongi
 Goren hura zer den, eta zaukun agerian eman hara laster
 Zuzen batez joateko hartzen ahal dugun zeharbide laburra,
 Edo han eta hemen zer den gaitza hilkorren egitekoetan,
 Nola den gertatzen eta nola den arrazoin naturalez eta
 Ezperdinez edo bortxuz joaiten, hori baitu manatu naturak,
 Eta zein atherabide hartuz behar duen bakoitzak jaukitu;
 Erakatsi zuen ere behar gabe gizaldeak ainitz aldiz
 Gogoan bere grinan uhain trixteak erabiltzen dituela.
 Ezen haurrak ilun itsuetan ikharan eta guziez beldur
 Diren bezala, gu berdin gira beldurtzen argi betean ere,

Batzuetan deusetan izigai eztirenez haurrak ilunbetan
 Beldur eta geroko lotsaz daduzkatenak baino gehiago.
 Behar da beraz gogoko lazta 'ta gau ilun horiek ditzaten
 Ez iguzkiaren arraiek ez egunaren geziek barrea,
 Baina naturaren ikuspegiak eta haren agerbideak.
 Hitzetan erakusten hasian jarraikiko niz xehekiago.

- 42 Eta munduaren eraikuntzak hilkor direla dutanaz geroz
 Erakatsia 'ta sortu den gorputzez egin dela zerua,
 Eta zer ere diren hartan gertatzen behar dela gerta daiten,
 Gehienak argitu baititut, entzuk orai gaineratekoa,
 Aiphamenaren karroko gainera behin batez iganez geroz
 /.../
 Haizeak erotuz jeikitzen dira 'ta gero guziak baketzen
 /.../ (*)
 (*) Uste da hemen galdua den zatiak iragartzen zituela gero
 emaiten diren aroko aldapenak (*Itultzailearen oharra*).
 Izanak zirenak aldatu dira haserrea bakeraturik.
 Hilkorrek lurretan eta zeruan gertatzen dakustzaten bertze
 Gauzek lotsaz harturik daduzkate ainitz aldiz adimenduak
 Eta gogoak jainkoen beldurrez aphalaraziak dituzte,
 Hertsaturik lurraren aldera aurdikiak, ezen arrazoinen
 Ez jakiteak bortxatzen ditu gertatzen direnen emaitera
 Jainkoen manuan eta hauen uztera buruzagi munduan.
 /Egintza horien arrazoinak edozein moldez eztezazkete
 Ikus eta jainkoen borondatez egiten dira haien ustez./
 Ezen ontsa dutenak ikasi munduaz jainkoak eztirela
 Axolatzen, halere noizten ustegabetuak badira nolaz
 Guziak egiten datezkeen, buruaren gainean airetako
 Herrialdetan bereziki hautemaiten dituzten gauza hetan,
 Gibelera joaiten dira berriz erlisione zaharretara,
 Eta hetan sineste duten nagusi bortitzek eginak ahal
 Dituztela guziak onhartzen dute dohakabek, jakin gabe
 Zer izan daitekeen eta zer ez, azkenik botere mugatu bat
 Eta bururapena nola zazkon urrundik lotu bakoitzari;
 Arrazoin itsu batean are gehiago dabilta galduak.
- 67 Ezpaditzak horiek gogotik egotz eta jainkoentzat ez gai
 Eta haien bakearen etsai direnetan sinestetik urrun

Ezpahadi, hunki ditukan jainkoen botere sailduak usu
 Aitzinean izanen zaizkik; ez bortxa daitekeelakotz jainkoen
 Indar saildua, haserrez balitu zigor saminak eman nahi
 Bezala, baina hihaurek asmatuko baituk hek bake geldian
 Daudelarik haserren uhain handietan itzulika dabiltzala;
 Ehiz ere jainkoen temploetara bihotza bakean joanen,
 Ezpaititik haien gorputz saildutiak eremanak diren itxura
 Gizonen ustean jainkoen edertasunaren mezulari hek
 Ahalaz hihaurek osoki gogoaren bakean onhartuko.
 Ikus daiteke beraz nolako bizi den hortik jarraitzen.
 Bederen hori gutarik urrun igorriko duen egiazko
 Dotrinaz ainitz gauza baldin baditut ere jadanik erranak,
 Ainitz dira halere gelditzen eta neurthitz landuez aphaindu
 Behar dira, zeruaren itxura 'ta moldeak argitu behar,
 Ekaitzak eta zimizten argi biziak behar dira kantatu,
 Zerk dituen egiten eta zergatik eta noiz gertatzen diren,
 Zatika zeruaren hausteaz eroturik ehadin ikhara,
 Airean sua nundik ethorriko den, edo hemendik nola den
 Bertze norapait itzuliko, zer moldeaz sartuko den leku hetsi
 Batzuetan, eta han izanik nagusi nola jalgiko handik.
 /Egintza horien arrazoinak eholaz ikus eztezazkete
 Eta jainkoen nahiaren gatik gertatzen dira haien ustez./
 Gisuz marratu lerro xuri gorenera lasterrez noanari
 Hik, Kaliope, muse jeinuduna, aitzinetik erakutsatan
 Eremua, hi gizonen atsedena 'ta jainkoean atsegina,
 Hi buru, korona dezatan ukan laudorio gorenarekin.

(Ortzantz, hedoi, zimizta, lurr-ikhara)

- 95 Lehenik ortzantzaz zeruaren urdinak inharrosiak dira
 Airean gora dabilzan hedoiak gudukatzen dituzten haizen
 Gatik lasterretan badoazelakotz batzu bertzen aitzinera.
 Ezen ezta harrabotsik egiten zeruko zati zoharretik,
 Baina nun ere baitira hedoiak multzo tinkiangoan bildu
 Are handiago da han ainitz aldiz ortzantz eta hots egiten.
 Eztira gainera hedoiak harriak eta zurak bezain tinki
 Gorputzez eginak izaiten ahal, ez ere bizkitartean
 Airean dabilzan lanhoak eta kheak diren bezainbat mehe.
 Ezen edo behar zuten erori phizuko gotorraz eremanik
 Hala nola harriak, edo tinkan ezin egon kheak iduri,

Ezin ere barnean atxik elhur hotz eta bahazuz' uharrak.
 Hotsa bademate mundu zabalaren eremu gainetan ere
 Antzoki handietan hedatua den liho-oihalak noizten zart
 Dagien bezala habe 't' ernaien artean delarik higitu;
 Hedoiak batzuetan erotua da haize jaukitzalek jorik
 Eta paper urratuen azantz arin hura bezalakoak dagi.
 Ortzantzean ezagutzen ahal duk ere mota hortako zerbait,
 Eta oihal batek dilindan edo paper airatuek itzuli
 Dagitelarik haizeak jo dituenean eta zafratu airean.
 Gertatzen ere da batzuetan hedoiak guduka daitezkeela
 Ez hainbat elgarri buruz-buru baina sahetsez doazelarik,
 Kontrako mugimenduan emeki gorputzak igortziz elgarri:
 Hortik ditu beharriak hunkitzen soinu latz batek eta luzaz
 Irauten du, hek leku hertsietarik jalgiak diren arteo.
 Molde hortan ere ainitz aldiz guziek orzantz gotor batek
 Inharrosirik ikharan iduri dute 'ta mundu zabaleko
 Harresi handienak bapatez hausten direla 'ta barreatzen,
 Haizearen indarrak bildurik ekaitza berehala bihurtu
 Denean bera hedoiaren barnera 'ta hor berean hetsirik
 Zirimolaz itzulika bortxatzen denean orotan hedoiak
 Husterak 'ta gero 'ta tinkiagotzera gorputzez inguruan.
 Haren indarrak et(a) olde biziak dutenean gero xehatu,
 Orduan hautsirik emaiten du karraska soinu laztagarrian.
 Ezta mirestekorik pixaxtre ttipi airez bete batek ere
 Harrabots handi bat emaiten duenean bapatez leherturik.
 Haizek ufatzen dituztenean hedoiak arrazoin bat oraino
 Bada harrabots badagiten: alabaina ainitzetan ikusten
 Ditugu hedoiak joaiten ainitz moldez abartsu 'ta latz iduri,
 Agerian baita haizeuriak oihan tinki batean duenean
 Ufatzen orstailek dematela harrabots et(a) abarrek karraska.
 Gertatzen ere da noizten haizearen indar azkarrak sarturik
 Olde zuzen batean xehakaturik urratzen duela hedoiak.
 Ezen gauzak agerian derakutsa haizeak hor zer dezaken
 Egin, hemen, lurtean ibiliz, eztiago delarik, halere
 Zuhatz handiak erroetarik atheratzen dituenaz geroz.
 Uhain batzu badira hedoietan ere haustean larriki
 Burrumbak badematzenak, berdin egiten direnak ibaiak
 Barna direnean et(a) itsas-betean hausten denean uhaina.
 Gertatzen ere da hedoitik hedoira sutan erortzen delarik

Zimiztaren indarra, hedoiak heze ainitzekin baldin badu
 Su hartzen, ordu berean dela harrabots handi batean hiltzen;
 Hala du labe beroetarik jalgi den burdin goriak beti
 Zirrintza bat egiten ur hotzean lasterrez sartzen dugularik.
 Hedoi idorrigo batek ukaiten baldin badu gero zimizta
 Garretan su hartzen du berehala gaitzeko harrabots batean,
 Erramuz estali mendietan sua dabilanean bezala
 Haizen zirimolan olde handi batez guziak errezipilduz,
 Eta deus ezta Febuzen erramu delfika baino gehiago
 Garra zirtakatuz harrabots laztagarri bat eginez erretzen.
 Azkenik ainitz aldiz hedoi handietan gora hormaren hauste
 Usuak eta bahazuzen erortzeak bademate harrabots.
 Ezen haizeak hertsiki metatzen dituenen hausten dira
 Hedoietakoko mendi tinkiak bahazuzarekin nahasirik.

- 179 Zimizta sortzen da berdin elgar joiteaz hedoiak ainitz suzko
 Hazi jalgitzen dutenean, harriak edo burdinak harri bat
 Joiten baldin balu bezala, zeren orduan ere jauzten baita
 Argi bat eta suak igortzen baititu phindarr batzu dirdiran.
 Baina beharrietan ortzantza hartzen baldin badugu zimizta
 Begiek badakusanetik geroago, hori da beharriak
 Dituztelakotz beti gauzek hunkitzen soa baino berantago.
 Hau ere behar duk hemen ikasi: norbait ikusten baldin baduk
 Urrundik bi buruetako aizkoraz zuhatz aurdikitzen ari
 Gertatzen duk ukhaldia dakusakala beharrira joiteak
 Hots eman baino lehen; berdin ere hautemaiten dugu zimizta
 Entzuten baino lehen ortzantza, suarekin batean delarik
 Igorria 't' arrazoin berdina, eta joite beretik sortua.
 Hunela dituzte hedoiak ere aireko lekuak argiaz
 Margotzen eta zimiztaren olde bihurraz da phizten ekaitza.
 Haizea sartua denean hedoian eta hor itzulikatzen
 Aitzinean erakatsi dutan bezala hedoi askatuak su
 Hartzen du tinkan higitzeaz, hala nola nun guziak ikusten
 Baitituk mugitzez beroturik erretzen; berunezko kanika
 Zinez urtzen ere da laster luzean itzulikatuz ibiliz.
 Beraz berotasun horrek urratu duenean hedoi iluna
 Indar bero batez hertsaturik bezala zimizta ñikarien
 Garrak egiten dituzten haziak bapatez barreatzen ditu;
 Hortik jarraikitzen da soinua, hunkitzen baititu beharriak

Gauzak gure begien argira heltzen diren baino berantago.
 Hori segurki gertatzen da hedoi tinkatuak aldi berean
 Olde mirazkoan batzu bertzen gainean direnean metatu.
 Izan ehadila bairatua guk beheretik ditugulakotz
 Ikusten gainaldera metan igaiten diren baino zabalago.
 Beha 'zaiek alabaina mendien iduriko hedoiak haizek
 Eremaiten dituztenean airetan hara jarririk zeharka,
 Edo mendi handietan metaturik ikusiko ditukanean
 Batzu bertzen gainean egoiten eta tinkaturik gainaldera
 Geldituak, alde guzietan erori direnean haizeak;
 Haien metatze gaitzekoak orduan dituzkek ezagutuko,
 Eta harpeak bezalakoak ikusiko dilindan harrokez
 Moldatuak; ekaitza sorturik haizek dituztenean beteko,
 Hedoiak ziloetan hetsiak izanez burrumba handietan
 Sumintzen dituk eta basihizien aran mehatxatzen die;
 Hedoiatarik orai hemendik gero handik digorte harrabots,
 Eta bidearen bila dabiltzalarik inguruan itzulika
 Hedoiatarik jalgitzen dituzte su haziak eta ainitzak
 Horrela biltzen eta labe ziloetan itzul-arazten, garra
 Egozten duten arteo dirdiretan urratua den hedoitik.
 Arrazoin hunek ere badagi su higikor ubilaren margo
 Urretatu hura nola den airean zehar lurrerano jausten,
 Zeren behar baita hedoiak berek ainitz eta ainitz su hazi
 Ukan dezaten; alabaina heze batere heze direnean
 Badituzte gehienetan garraren margoak eta dirdira.
 Ezen alabaina behar da gai ainitz hartuak ukan ditzaten
 Ekhiaren argitik hain zuzen gorritzeko 'ta suen igortzeko.
 Zimizta sortzen ere da zeruan hedoiak bekan direnean.
 Ezen haizeak joaitan banakatzen dituenen arinki
 Eta barreitzen, behar da nahitez zimizta badagitenen
 Hazi horiek eror daiten. Orduan zimiztak dirdiratzen du
 Eman gabe laztatze gaiztorik ez harrabotsik ez nahasmenik.

- 220 Gehiago dena nolakoa duten erran zimiztek natura,
 Horien ukhaldiaz erreak direnen khearen itxurek
 Eta sofrez aireak deman usain azkarrak erakusten dute:
 Suaren ikhur dira horiek, ez haizearen ez euriaren.
 Etxen hegaztegiak ainitzetan erretzen dituzte gainera
 Eta lasterretan nagusitzen dira garrak etxetan beretan.

Hemen su guzien artean su bat arinena baitik moldatu
 Naturak eta ttipi bezain higikorrek diren gai lehenekin,
 Deus etzakok aitzinean osoki traban izaiten ahal horri.
 Alabaina aire gaixtoak indarraz etxetako harresiak,
 Aitzak eta burdinak diragatza, mintzo 'ta oihuek bezala,
 Eta burdin-horia 't' urrea ditu bapatean urtarazten;
 Badagi berdin oso diren untzietarik arnoak direla
 Bapatez joaiten, segurki guziak inguruan dituelakotz
 Su horrek jitean errex argaltzen eta sahetsak untxiari
 Artekaturik ezartzen eta haren barnera sarturik laster
 Arnoaren gai lehenak urtarzirik barreatzen baititu.
 Iguzkiaren beroak agerian eztezake luzaroan
 Egin hori suaren dirdiratik zeinbat ahal dadukan ere,
 Hain du zimiztak indarra gehiago higikor eta bizkor.

- 240 Orain nola sortzen diren aire gaixtoak eta dituzten olde
 Hainbateko batean ukhaldi batez dorreak arrailtzen ahal,
 Etxeak barreatzen, lekutik jalgitzen habe 'ta gapirio,
 Eta gizonen eraikuntzak inharrosten eta higi-arazten,
 Bizia jender ekhertzen, abelaldeak aurdikitzen nun nahi,
 Mota hortako bertzeak oro zein indarrez dezazketen egin
 Argituko dut, eta hitzemanak eztauzkiat gibelatuko.
 Gogatu behar da aire gaixtoak sortzen direla gorenetik
 Eta hedoi meta lodietarik; alabaina bakar bat ezta
 Zeru garbitik ez hedoi arinki tinkitarik ehoiz igortzen.
 Ezen gauzak agerian erakusten du hori dudarik gabe:
 Aire guzian zehar hedoi tinkatuak metatu direnean,
 Ilun guziek orotan Akheron aldeak utzi dituztela
 Uste dugunean bezala 'ta bete zeruko harpe handiak,
 Hainbaterano dute gainaldean hedoiek sortua duten gau
 Itsusitik beheiti Lazta beltzaren aurpegiek mehaxatzen,
 Aire gaixtoaren igortzera denean abiatzen ekaitza.
 Bertzalde ainitz aldiz ere hedoi beltz ilun bat itsasoaren
 Gainera zerutik jautsi delarik ibai bikezko bat iduri,
 Uretan urrun ilunbez beterik derora, berekin ekharriz
 Ekaitz beltza phizutua aire gaixtoez eta bera betea
 Hainbat galernez, suez eta lehenik haizez, nun
 Lurrekoak ere laztatzen baitira 'ta joaiten atherbe bila.
 Horrela behar da beraz itxuratu gure buruen gainean

Ekaitzaren goratasuna. Hedoiak etzituzten alabaina
 Ilunbe hainbatekoez estaliko lurak gainaldean ainitz
 Ezpalire gorderik iguzkia ainitzen gainean eraiki;
 Eta hainbat etzuketean ethortzean euriaz hertsatzen ahal,
 Ibaiak gaindikutzen eta baserriak ithotzen baitituzte,
 Ezpaliz airea gainean hartua hedoi gora metatuez.
 Horrela beraz guziak haizez eta suez beteak baitaude
 Egiten dira horren gatik orotan ortzantzak eta zimiztak.

- 270 Erakatsi dut beraz gainaldean hedoi zilodunek bero
 Hazi ainitz eta ainitz badaduzkatela 'ta beharrez ainitz
 Ere dauete hartzen ekhiaren arraier eta beroari.
 Hor hedoiak nahi dukan lekuan batzera bortxatu dituen
 Haize ber harek eman-arazi dezteenean beroaren hazi
 Ainitz, et(a) aldi berean nahasi denean bera su harekin,
 Zirimola bat leku hertsian sarturik hor itzulikatzen da
 Eta zimizta zorrotz-arazten du labe berotuen barnean.
 Ezen sua hartzen du bi moldetan, bere mugimendutik baita
 Bera sutan jartzen eta hunkitu dituen bertze suetarik.
 Gero haizearen indar osoa berotu denean eta jo
 Suaren olde bortitzaz, zimiztak zohirik bezala bapatez
 Urratzen du hedoia 'ta han inharrosi den sua jalgitzen da
 Alderdi guziak argitzen dituela bere garren dirdiraz.
 Jarraikitzen zako gaitzeko harrabots bat, iduri du zeruko
 Egoitza lehertuak bapatez eroriko direla gainetik.
 Ikhara batek gero lurak inharrosten ditu larriki gora
 Zeruan dabiltzalarik ortzantzak; ezen osoan inharrosirik
 Abantzu daldaritzen da galerna 't' ortzantzak abiatzen dira.
 Ukhaldi horren ondotik jarraikitzen da euri phizu nasai bat
 Aire guziak aldatzen dela eurira duelarik iduri,
 Eta horrela jausten denean uholdea du berriz ekhartzen;
 Hedoiaren eta haizearen aharrak erauntsi hain handia
 Igortzen da, suaren ukhaldiaz ortzantza hedatzen delarik.
 Gertatzen ere da haizearen indar lasterra kampotik hedoi
 Aire gaixto zohituaz betearen barnera sartzen denean,
 Urratua duenean, derorela berehala delako su
 Zirimola, aire gaixtoa deritzoguna herriko hizkuntzan.
 Hori gertatzen ere da gorenean, haizearen indar arau.
 Gertatzen ere da noizten haizearen indar surik gabe joanak

Bide luzearen gatik airean su hartzen duela halere
 Ethortzeko lasterrean galtzen baititu gai lehen handi zenbait
 Eztirelakotz horiek airetan hara sartzen ahal berdinki;
 Eta airetik beretik igortziz deramatza bertze gai lehen
 Tipi batzu airean nahastekatzeaz sutan jartzen baitira;
 Ezta biziki bertze moldetan gertatzen berunezko pilotak
 Ere ainitz aldiz lasterrean berotua galdurik bero gai
 Lehen ainitz, airetan hara joaitean sua duenean sortzen.
 Gertatzen ere da joitearen indarrak berak demala sua,
 Haizearen indar hotz igorriak surik gabe jo duenean;
 Ezta dudarik joiten denean ukhaldi bortitzez alabaina
 Hortarik beretik ixurtzen ahal direla beroaren gaiak
 Et(a) orduan ukhaldia hartu duen gauzatik ere berdinki;
 Burdina harriaz joiten dugunean bezala sua airatzen
 Baita, 'ta nahi bezain hotz izanik orduan burdina, halere
 Beroaren haziak joitetik biltzera badoaz elgarrekin.
 Horrela beraz gauza batek aire gaixtotik behar du su hartu
 Hortara bazen emana hala beharrez et(a) egoki garrentzat.
 Eta haizearen indarra berdin hotz osoan ezin daiteke
 Izan, hainbat azkarrik igorria denean hura gainaldetik;
 Ezpaldin bada lehenago bere lasterrean suaz hartua,
 Aldiz ethorriko da beroz nahasirik epheldua bederen.

- 322 Baina aire gaixtoaren mugimendu 'ta jo bortitza gertatzen
 Dira 'ta zimiztak ephe laburrez ohiki dagien bidea
 Berak olde lasterra hedoietan osoki bildu duelakotz
 Eta hartua duelakotz indar gaitzeko bat abiatzeko;
 Hortik oldearen handitzea hedoiak eztatxikakeenean
 Indarra jalgitzen da' ta airatzen duen oldeaz miragarri,
 Joaiten diren bezala tresna gotor batzuez egozten direnak.
 Emak gainera gai lehen arin eta xipiez egina dela
 Eta horrelako gauzari deus errex etzakola kontra jartzen ;
 Alabaina joaiten da 'ta sartzen bidetako xiloen artera,
 Ezta beraz gelditzen aurkituak dituenez gibelaturik,
 Horren gatik olde laster batean lerratuz airean badoa.
 Gero natura phizu dutenak ari baitira beti guziak
 Beheiti, zinez ukhaldi bat oraino zaienean gaineratu
 Mugimendua zaie bikuntzen eta zuten oldea larritzen,
 Hala nola nun aitzinean den oro bortizki 'ta lasterrago

Baitu joz aurdikitzen eta jarraikitzen baita bere bidean.
 Azkenik oldean urrundik dathorrenaz geroz, hartu behar du
 Dabilan batean gero 'ta gehiago handitzen den laster bat,
 Indarrak azkartzen ere ditu 'ta bizkortzen deman ukhaldia.
 Alabaina gertatzen da dituen gai lehenak bere lekutik
 Ekharriak balire bezala guziak une bakar batera,
 Itzulikatuz oro betan egozten direla laster hortan.
 Behar bada jitean airetik beretik hartzen ditu gai batzu
 Horiek ukhaldiez baitute mugimendua sutan ezartzen.
 Eta gauzetan zehar osorik dathor salburik diragatzala
 Ainitzak, ubil den suak bide dagielakotz xiloetarik.
 Ainitz ere zilatzen ditu zimiztaren gai hek berak erori
 Direnean gauzetako gaietara, hautaz baitira josiak.
 Errex urtua du gero burdin-horia 'ta bapatez urrea
 Ubil-arazia, haren indarra gorputz xehe xipi batzuez
 Eta gai lehenak arinak dituen denaz geroz egina,
 Horiek errex baitira barneratzen eta bapatez sarturik
 Josturak oro barreatzen eta loturak hausten baitituzte.

- 356 Larrazkenez da gehienik izar dirdirantentzat egoki den
 Egoitza zeruan orotarik inharrosten eta lur osoa,
 Eta hasten direnean uda lehenaren aro loratuak.
 Alabaina hotzean eskas dira suak eta beroan ezta
 Haizerik eta hedoiak eztira hainbat tinkatuak gorputzez.
 Beraz zeruan urtaroak noiz ere baitira bierarteko
 Orduan aire gaixtoaren arrazoin guziak batean datoz;
 Ezen urtearen une berak nahasten ditu hotz eta bero,
 Hedoiaren aire gaixtoaren egiteko behar baitira biak
 Aharra gauzetan egin dadin eta haserreturik airea
 Dadin harrabots handiengan suetan eta haizetan nahas.
 Alabaina bero zati lehena 'ta hotz azkena, horiek dira
 Udalehen urtaroa; behar da guduka daiten horren gatik
 Elgarrekin ezperdin diren gauzak eta dagiten nahasmendu.
 Berdin azken beroa hotz lehenarekin nahasirik itzultzen
 Denean, urtaro horrek ukan baitu larrazkenaren izena,
 Hor ere beroekin gudukatzen dira neguko hotz saminak.
 Hortako behar dira horiek urtean arteguneak deitu;
 Ezta beraz mirestekorik aro hortan gertatzen bada ainitz
 Aire gaixto 'ta jeikitzen bada zeruan ekaitz harrabostuna,

Bata 'ta bertzea gerla bikun batean aharran direlakotz,
Hemen suak eta hezeaz nahasirik haizeak haratago.

- 378 Hau da sua dakharren aire gaixtoaren natura bera zer den
Ezagutzea 'ta guziak zein indarrez dagitzan ikustea.
Eztitu bilatzen gibelera debaldetan itzuliz jainkoen
Gogoko xede gordeak Thirreniako kantuetan, sua
Airean nundik ethorriko den edo zein aldetara hemendik
Itzuliko den, leku hetsi batzuetara zer moldez sartuko
Den, eta hor nagusiturik nola bera hortik atherako den,
Edo zer den zerutik aire gaixto joiteak dagikeen kaltea.
Jupiterek eta bertze jainkoek izigarriko harrabotsaz
Egoitza zerutar argidunak inharrosten baldin badituzte
Eta bakoitzak nahi duen aldera badute sua botatzen,
Zergatik axolarik gabe gaizki hastiagarri bat egina
Dutenak eztituzte bulharra zilaturik eremaiten joak
Zimiztaren garretan ithotzera, hilkorrenzat behazun latza?
Eta bere jakinaz ahalgegarri deusetan ezten bat aldiz,
Ogenik gabe, zergatik garrez inguraturik da trabatua,
Eta zeruko zirimolan eta suan eremana bapatez?
Zergatik ere begizta desertuak eta debaldetan neka?
Ala besoak dituztea hezten eta ginarriak azkartzen?
Joan dadin Aitaren gezia lurrean mutistera nolaz dute
Jasaiten? Zergatik du berak uzten, ez atxikitzen etsaizentzat?
Azkenean zergatik eztu nehoiz zeru garbian lurretara
Orotarik egozten zimizta Jupiteren ortzantzak eginez?
Ala hedoiak azpitik doazkonean da bera hetarano
Jausten, geziaren ukhaldia zuzen eman dezan hor hurbildik?
Itsasora gero zein arrazoinenez igortzen du? zer ogen dute
Uhainek, ur metatuek eta zabaltzen dituzten eremuek?
Gainera zimiztaren ukhalditik begira gaiten nahi badu
Zergatik igortzen dela dezagun ikus etzako gogoratzen?
Aldiz eztugularik uste bere suaz nahi bagitu hezi
Ortzantza zergatik alde hortarik, geriza gaitzkeenaz geroz,
Zergatik aitzinetik ilunbeak, harrabotsak eta burrumba?
Eta nola sinesten ahal duk aldi berean duela ainitz
Aldetarik igortzen? Ala ausartzen hiz erraiten ukhaldia
Eztela nehoiz aldi bakar batez leku ainitzetan egiten?
Baina gertatua da ainitz aldiz eta gerta dadin behar da;

Euritek erauntsian darioten bezala ainitz herrietan
 Berdin aldi bakar batean egiten dira ainitz aire gaixto.
 Azkenik zergatik aurdikitzen ditu jainkoen templo sailduak
 Eta haien egoitza miragarriak zimizta gaixtoez, eta
 Ukhaldi bortitzez bereak dituen itxurak desohoratzen?
 Zergatik ditu leku gorak usu hunkitzen, zergatik ditugu
 Mendien hegietan hautemaiten haren suen hatz gehienak?

- 422 Gaineratekoan, errex da gauza horietarik jakitea
 Zer diren Greziarrek ondoriotik "prezter" deitu zituztenak,
 Gainaldetik igorriarik nola diren aurdikitzen itsasora.
 Ezen gertatzen da batzuetan zutabe bat bezala zerutik
 Itsasora dela jausten, eta haren inguruan dirakite
 Uhainek larriki higituak ufatzen duen haizearen azpian;
 Eta galerna haren barnean orduan hartuak diren untzi
 Guziak izaiten dira lanjer handiengan inharrosiak.
 Hori gertatzen da noizten hedoi barnean haizearen indarra
 Lehian haren hausten has eztaitekenean baina jauts-arazten
 Duenean, zerutik itsasora aurdiki habe bat iduri,
 Apurka, beso batez ukhabilka gainetik igorriarik zerbait
 Haizatzen baldin baliz bezala 'ta luzatzen uhainetarano.
 Hedoiha hautsi duenean, itsasoan haizearen indarra hor
 Amiltzen da 'ta heraki miragarri bat uhainetan badagi.
 Ezen itzulikatuz orrona jausten da 'ta batean erakhartzen
 Du gorputz malguarekilako hedoiha berekin. Itsasoko
 Uretara betetzen duen hedoiha bulzatua duenean
 Bapatez urean osoki murgiltzen da 'ta harrabots gaitzeko
 Batean itsaso guzia herakitan ezartzen du bortxatuz.
 Gertatzen ere da hedoiez inguratzen denean bera haize
 Zirimola, airetik igortziz hedoiaren haziak harturik
 Eta jautsirik bezala zerutik, iduri duela "preztera".
 Lurren gainera hor eroria 'ta barreatua den orduan
 Zirimolaren et(a) ekaitzaren indar gaitzekoa botatzen du.
 Baina gertatzen delakotz osoki bekan eta mendiek behar
 Dutelakotz gorde lurretan, hortakotz usuenik agertzen da
 Itsasoaren eremu handietan eta zeru zabalean.

- 450 Hedoiak egiten dira gai lehen latzenetan ainitz bapatez
 Direnean zeru zabalean gora airean elgarretara

Bilduak, bere neurri hertsien gatik trabatuak direlarik
 Elgarrekin harturik atxikitzen ahal dutenean halere.
 Horiek dagite moldatzen direla lenehik hedoi ttipiak;
 Gero horiek elgar hatzemaiten dute 'ta bateratzen dira,
 Eta juntatzean handitzen eta haizez eremanak izaiten,
 Galerna bat erotua hortik atheratua den ordurano.
 Gertatzen ere da mendi hegiak zeruari hurbilagoak
 Diren arau jarraikian are gehiago lanho dematela
 Ilunbeaz lodituak diren hedoi hori-gorraxta batzuek,
 Zeren eta, hedoiak lehenik argal moldatzen hasten baitira
 Begiez ikusiak izan ahal daitezken baino lehen, haizek
 Bortxaturik eremaiten dituzte mendien hegietarano.
 Hor bakarrik gertatzen da multzo handiagoan eta tinkian
 Sorturik ikusiak izaiten ahal direla 'ta badiduri
 Mendi gainetik beretik direla batean airera jalgitzen.
 Ezen gauzak berak eta sensuek derakutsate haize leku
 Direla gainaldeak, mendi gorenak igaiten ditugunean.
 Bertzalde ainitz gai lehen hartzen dituela naturak itsaso
 Guzitik ere, baderakutsate soinekoek hedaturik ur
 Bazterrean handik hartua dutenean hezearen khotsua.
 Are gehiago da beraz agertzen hedoiien hantzeko ainitz
 Gai itsaso gaziaren mugitzetik ere daitekela jalgi,
 Zeren ondorio berdintsua baitute heze mota guziek.
 Gainera diren ibai orotarik lurretik beretik bezala
 Atheratzen ikusten ditugu bada lanhoak eta lambroak,
 Eta hats baten itxuran emanik joaiten dira hemendik goiti
 Eta ber(e) ilunaz zerua margotzen dutela hartan egiten
 Dituzte gora hedoiak batzu bertzetara bildurik apurka.
 Alabaina zapatzen ere du gainetik ikurtegi beroak
 Eta lodituz bezala lanhoz josten da zeruaren urdina.
 Gertatzen ere da zeru gunehortara airean daiten ethor
 Kampotik hedoiak eta lanhoak egiten dituzten gai batzu.
 Erakatsi dut alabaina direla multzoz ezin zenbatuak
 Eta munduak osoan eztuela mugarik, eta nolako
 Lehian zoazen ohiki gaiak airean eta zein bapatez
 Iragaiten ziren ezin errana den eremu batean gaindi.
 Ezta beraz mira ainitz aldiz ephe labur batean ekaitzak
 Et(a) ilunbeak lanho-euri hainbat handiez baldin badituzte
 Osoan itsasoak eta lurrak estaltzen gainetik phizatuz,

Alde guzietarik aireko xilogune guzietan gaindi
 Eta mundu handiaren inguruetan diren azpi-bidetarik
 Bezala, gaier utziak zezteenaz geroz sartze 'ta jalgitzea.

- 494 Orai bada euriaren ura hedoi goretan nola biltzen den
 Argituko dut, eta lurretara jautsirik zer moldez uharra
 Den erortzen. Onhartuko da lehenik uraren gai lehen ainitz
 Batean jalgitzen direla hedoiatarik beretarik gauza
 Guzietarik bezala 'ta batzu 'ta bertzeak berdin handitzen,
 Eta hedoiak eta hedoietan izaiten den ur guzi hura,
 Gure gorputza handitzen den bezala odolarekin batean,
 Izerdia bezala 'ta soinarretan azkenik den ur oro.
 Oraino biltzen ere dute ainitz aldiz itsasoko hezetik
 Ainitz, artilezko hagin batzu dilindan ezarriak iduri
 Itsas-zabalaren gainetik haizek dituztenean eremaiten.
 Molde berean ibai guzietarik hezea joaiten da goiti
 Hedoietara. Beraz uren hazi multzo ainitz horrela ainitz
 Moldetan alde guzietarik direnean handiturik bildu,
 Hedoiak metaturik bademate lehian euria, bi moldez:
 Ezen joiten ditu haizearen indarrak eta hedoiak meta
 Bera nahasmendu handiengan bortxatua baita bultzatzen
 Da, 'ta gainaldetik hertsaturik euriak ixur-arazten ditu.
 Bertzalde haizen ufetan ere hedoiak argaltzen direnean
 Edo barreatzen gainetik iguzki beroaz direnean jo,
 Igortzen dute hezea 'ta euria xortaka, su beroaren
 Gainean urtuz ezkoa ainitz xortetan ubiltzen den bezala.
 Baina euri uharra egiten da noiz ere baitira hedoiak
 Batean indar biez eta haizearen oldez tinkan hertsatu.
 Aldiz euriak ohian jarrikitzen dira 'ta luzaz irauten
 Dute mugimendutan direnean ura dagiten ainitz hazi,
 Eta hedoiak bai lanhoek batzu bertzeak gainetik bustitzen
 Dituztelarik eremanak direnean alde guzietara,
 Eta bere hezea khetan lur osoak itzultzen dauenean.
 Hor ekaitz ilunaren artetik hedoiak ixurpenen alderdi
 Kontrakoa dezanean iguzkiak arraiez argi, hedoi beltz
 Horien artean orduan da sortzen ortzadarraren margoa.
- 526 Gainean zabaltzen eta gainean jaiotzen diren bertze gauzak
 Eta hedoietan tinkan biltzen diren oro, berriz diot oro,

Elhurra, haizeak, bahazuza, 'ta hormatuak diren izotzak,
 Eta hormaren indar azkarra, duena gogor-gogortzen ura
 Eta han edo hemen doazen ibaiak dituen gelditzen,
 Ezin errexago da halere aurkitzea 'ta gogoz hartzea
 Guziak nola diren gertatzen edo zergatik diren egiten,
 Ontsa jakinen dukalarik zer den gaiak egin dezaketena.
 Ikus ezak orai bada zer moldez egiten diren lur ikharak.
 Eta lehen-lehenik hau gogoan har ezak gainean bezala
 Azpian orotarik lurra betea dela haizetsuak diren
 Harpez, eta badaduzkala aintzira ainitz eta ainitz phutzu
 Barnekaldean, eta harrokak eta harrizko gunek malkarrak;
 Asmatu behar ere dira lurraren bizkar-pean ibai gorde
 Ainitz uhainen indarraz uren azpiko aitzen itzularazten,
 Orotan alabaina lurra berdin dela berak hori nahi du.
 Gauza horiek hari beraz uztartuak azpian ezarririk,
 Lurra gainean ikharatzen da hondamen handi batzuez joa,
 Adinak azpian gaitzeko harpeak aurdiki dituenen;
 Mendiak osoan erortzen baitira 'ta bapatez inharroste
 Handian hortik urrunera baitituzte hedarazten ikharak;
 Eta zuzenez, ez phizu hain handiekin bide bazterrean orga
 Batzuek inharrosirik etxeak ikharatzen direnaz geroz
 Osoan; eztira gutiago jauzten errota bien zingila
 Burdinazkoak bidean ozka batek higitu dituenen.
 Ikharatzen ere da lupeko leze handi zabaletan lurra
 Mokor meta gaitzekoan litatua denean zahartasunez,
 Khordokaturik uren uhainetan egotzia denean ere,
 Untzi bat bezala batzuetan zuzen ezpaitagoke barnean
 Ura higitze nahasi batetik ezpaldin bada gelditua.

- 556 Gainera lupeko zilogunetan bildurik haizea denean
 Oldez alde bakar batera jausten eta dituelarik harpe
 Barnetan bermaturik indar handiez hek hertsatzen, haizearen
 Indarrak tinkatzen duen alderdi hartara makurtzen da lurra.
 Orduan lurraren gainean diren etxe guzien eraikuntzek
 Eta zerura buruz are gehiago goititu diren arau
 Ukurturik aitzinatzen diren alde ber hartara mehatxatzen
 Dute, 'ta bortxaz eremanak dilindan ernaiak joaitera daude.
 Eta jendea beldurtzen da mundu handiaren naturak noizpait
 Hil behar duela sinetsiz eta hondaturik egonen dela,

Ikusten dituenen lurren meta hainbatekoak litatzen!
 Eta haizek berriz ufatzen ezpalute, gauzak ezin lezazke
 Begira hiltzetik edozein indarrek eta geriza joaitetik.
 Baina berriz hasten direlakotz eta bortizten aldian aldi,
 Eta bilduz bezala berjiten eta gibelera berrerortzen,
 Gauza horren gatik lurra aintz aldiz hondatzez mehatxatzen du
 Badagien baino gehiago, makurtzen da 'ta berriz zuzentzen,
 Eta joanik erortzera berriz hartzen du zuzen bere lekua.
 Horra beraz zergatik diren etxe guziak daldaran, arteak
 Baino gehiago gainak, arteak azpiak baino, zola guti.
 Hau ere da daldaratze handi horren berarentzat arrazoin bat:
 Haizea bapatez ufa zenbaiten indar handienean, edo
 Ethorria dena kampotik edo sortua lurretik beretik,
 Amiltzen denean lurraren zilogunetara hor diren harpe
 Handien erdian orro badagi, nahasirik itzulikatuz
 Abiatzen den baino lehen; ondotik haren indar oldartua
 Eroturik kamporano bultzatua da 'ta batean urratzen
 Duellarik lurra hartan gaitzeko zilo bat eginarazten du.
 Hori zen gertatu Ziriako Zidonon, hori Peloponesan
 Aegian, haizearen ufak jalgitzean eta hortik sortu
 Zen lur ikharak utzi zituenean barreaturik hiriak.
 Oraino aintz dira harresiak lurrera direnak erori
 Higitze handietan eta hiri aintz bere hiritarrekin
 Dira berdin aurdikirik izanak itsasoaren zolarano.
 Eta hausten ezpadu lurra, bizkitartean ufaren oldeak
 Berak eta haizearen indar eroak lurreko xilo hertsu
 Xehetan hedatuz hotz-ikharak bezala daldara dute sortzen;
 Hala nola hotzak sartzen denean gure soinarren barnera,
 Joiten ditu nahigabetan daldara 'ta higitzera bortxatuz.
 Hirietan beraz lotsa bikun batez ikharan egoiten dira:
 Gaintetik hegaztegien beldurrez, azpian lurreko harpeak
 Eztitzan naturak bapatez barrearaz izialduran daude,
 Ala lur hautsiak eztitzan urrunera heda ber' arraildurak
 Eta nahasmenetan ez ahal ditzan bere hondamenez bete.
 Hortakotz nahi bezainbat goga dezatela beraz zeru-lurrek
 Osasun betikoaz dohaturik osorik iraunen dutela;
 Eta halere batzuetan hor dugun lanjer azkar batek berak
 Norapait gure baitan sarrarazten du beldurraren ezten hori,
 Lurrak oinen azpitik bapatez huts eginez ereman ezkaitzan

Ifernuetara, 'ta sortu dien gauzak osoan errorano
 Darraizkiten, eta munduko hondamen nahasi bat gerta dadin.

- 607 Lehenik miresten da naturak zergatik eztuen itsasoa
 Handiagotzen, hainbat uren ixurpena hartara doalarik,
 Alderdi guzietarik ethortzen zazkonean ibaiak oro.
 Emazkik gainera airean dabiltzan euriak eta galernak,
 Guziek itsasoak eta lurak urez gainditzen baitituzte,
 Eman ithurriak itsasoan; halere guziak ithaitz bakar
 Bat izanen dituk itsaso guziaren doi-doia handitzeko:
 Eztela handitzen itsaso zabala gutiago da miresten.
 Gainera beroaz iguzkiak ekhertzen dauko zati handia.
 Ezen ikusten dugu soinekoak alabaina hantuak hezez
 Iguzkiak ber' arrai sutsuen bidez idor uzten dituela;
 Aldiz ikusten ditugu ainitz itsas-eremu hedatzen urrun.
 Horren gatik izan dadin ere nahi den bezain ttipia leku
 Bakar batetik itsasoan iguzkiak deraman ur zati bat,
 Hedamen hain handian uretik hartuko du halere nasaiki.
 Gero haizek ere hezeko zati handi bat eremaiten ahal
 Dute higitzen dituztenean itsaso gainak, bideak usu
 Ditugunaz geroz ikusten gau bakar batez haizeaz idortzen,
 Eta bilakatzen iztilgune guriak azal gogortu batzu.
 Erakatsi dut oraino hartzen dutela hedoiak itsas-zabal
 Handiaren uretik ere hartan edukia den ainitz heze,
 Eta han hemenka dutela lurren inguru guzian ixurtzen,
 Haizek dakhartzatenean hedoiak erortzen delarik euria.
 Azkenik lurra gorputz argal batekin egin izana delakotz
 Et(a) alde guzietarik inguruan itsas-hegier lotua,
 Uren hezea lurretik itsasora dathorren bezala, behar
 Da berdin itsaso gazitik hezea dadin ixur lurretara.
 Ezen irezten da samina 'ta hezearen gaia gibelean
 Gelditzen eta den guzia da biltzera joaiten ibaietako
 Ithurburuetan; lurretara handik urhats eztian itzuliz
 Oin ubilaz bidea behin hautsirik urak han hedatzen ditu.

(Su-mendiak)

- 641 Orai argituko dut zergatik Aetna mendiaren ahotik
 Suak hainbateko zirimoletan igorriak diren noiztenka;
 Alabaina suzko galernak, ez bierarteko damu batzuen

Egiteko sorturik Zikiliarren alhorretako nagusi,
 Auzoko jender itzularazten deztee ber(e) aldera aurpegiak;
 Orduan ikusiz zeruzabal guzia khetan argiztatua
 Izialdurarekin bulharrak arranguraz betetzen zizezteen,
 Gauza berriekilako zer ote zuen naturak moldatuko.
 Horrelako gauzetan ikuspena gora behar zaik eta zabal,
 Eta beharho duk alderdi guzietan urrunera behatu,
 Gauzen osotasuna zeinbat barna doan orhoit hadintzat berriz
 Eta dezakantzat ikus mundu guziak duen zero bakar hau
 Zati zeinbat xipia den eta xipiena guzien artean,
 Eta gizon bakar bat lur osoko zati bat baino gutiago.
 Horiek ontsa zabaldurik zuzenean behatzen baldin baduk
 Eta zuzen ikusten, ainitz beharko duk mirestetik utzi.
 Gutarik nor bada miresten da norbaitek bere soinadarretan
 Senditzen baldin badu bero saminarekin sortu den sukarra
 Edo nahi dukan eritasun bertze baten mina gorputzean?
 Alabaina oina hantzen da bapatez, oinaze biziak usu
 Hartzen dauzkigu hortzak, begietara beretara da hedatzen;
 Izaiten da larruko sua, sugea bezala lerraka hartu
 Duen gorputz zati bat erretzen du, soinadarretan herrestatuz,
 Gauza ainitzen haziak izaiten direlakotz dudarik gabe
 Eta gaitzaren aski gai dakhartelakotz lurrak eta zeruak:
 Neurrik gabe handi daiteke hortik eritearen indarra.
 Horrela gogatu behar da beraz osotasun mugagabetik
 Gai guziak aski hornituak zezteela lur eta zeruari
 Inharrosirik lurra bapatean higitzen has ahal dadintzat,
 Itsasoan eta lurretan ibil dadin zirimola bortitza,
 Gaindi dadin Aetnako sua, zerua dezan garretan ezar.
 Ezen gertatzen ere da hori 'ta zeruak sutan jartzen dira,
 Eta larriago dira sortzen orduan eurien erauntsiak
 Hala beharrez uraren haziak direnenean horrela bildu.
 "Suteko bero nahasi hori handiegi da bizkitartean."
 Dudarik gabe, handiagorik eztuenari lehen ikusi
 Ibai bat iduri zako handiegi, zuhatz bat eta gizon
 Bat iduri gaitzekoak, eta mota guzietan handiena
 Ikusia duena bakoitzak, hura du gaitzeko bat asmatzen,
 Oro bizkitartean zeruarekin eta lurrarekin eta
 Itsasoarekin, deus eztirelarik osoaren aitzinean.

- 679 Orai argituko dut azkenik zer moldez, bapatez erotua,
 Aetnako labe zabaletarik garra kampa den jalgitzen.
 Lehenik osoan mendiaren azpian den natura guzia
 Argala da, zurkaiztatua gehienez mugerrezko harpez.
 Hutsune guzietan gero badira aireak eta haizea,
 Ezen haizea egiten da airea jorik higitzen denean.
 Hau bero denean eta hunki guziak errabian berotu
 Ditunean inguruan, harriak eta lurra, 'ta hetarik
 Sorrarazia duenean gar zaluekilako su beroa,
 Jeikitzen da 'ta horrela zintzur zuzenatarik gora jalgitzen.
 Urrun eremaiten da beroa horrengatik, urrun ere hautsa,
 Barreatzen, ilun eta lodi khe bat itzulika doalarik,
 Et(a) aldi berean harriak igortzen ditu phizuz miragarri;
 Haizen ufaren indar nahasi bat dela hori dudan eztemak.
 Itsasoak gainera mendiko oinetan uhainak hausten ditu
 Ere handi batean, iresten ere du hartan den berotik.
 Itsas-bazter hortarik mendiko harpeak azpitik heltzen dira
 Zintzurren zolara. Hortik erran behar da /haizea/ dela joaiten
 Eta barna sartzan itsasoaz idekirik nahitez onhartu,
 Ufa gero kampa doala 'ta horrela dagotzala garrak,
 Goiti digotzala harriak eta hautsez hedoiak daikatza.
 Ezen maldaren gain-gaiean dira "kraterak", berek izendatzen
 Dituzten bezala, 'ta guk erraiten ditugunak zintzur et(a) aho.

(*Nilua, "Auerna" lekua*)

- 704 Gauza zenbait ere badira, hetaz erraitea arrazoin bakar bat
 Dutela guti baita, ainitz baitute, hetan alta bat egia.
 Urrunean ikusten baldin baduk etzanik gizon baten gorputz
 Bizirik gabea, zuzen duk herioaren arrazoinak oro
 Erran ditzakan, erraiteko heriotzearen bakarra zein den.
 Zeren burdinaz ala hotzez hil denez ezpaitzakek baieza,
 Ez eritasun batez ez ere halabeharrez phozoindaturik,
 Baina mota hortako zerbaitek hunkia duela badakigu.
 Molde berean ere hori dugu ainitz gauzetan erran behar.
 Aegiptu guziaren ibaia Nilua lurretan bakarra da
 Udarekin handitzen dena 'ta hartzen ditu gaintuz alhorrak.
 Ainitz aldiz Aegiptua beroaren erdian ureztatzen du,
 Udan iphar-haizeak ahakalden kontralde joaiten direlakotz
 Iphar-sortalde haizeak urtaro hortan iragaiten baitira,

Ufatuz ibaiaren kontra trabatzen baitute, 'ta bortxaturik
 Uhainak gibelera baitoaz eta behar baitute gelditu.
 Ezen ezta dudatu behar ibai kontralde dutela horiek
 Ufatzen, izar hormatuen lurburutik direlakotz ethorri.
 Ibai hori hegokoa den aldetik ipharrekora da jiten,
 Ekhiaz zipildu margo beltzeko gizonen artean sortua
 Izanik urrunean eguerdiko herrialdearen erdian.
 Izaiten ahal ere da legar meta bildu handi batek kontra
 Doazen uhainez dituela tapatzen ibaiaren ahoak
 Itsaso haizez higituak dauenean sarrarazten legarra,
 Horrek ibaia joan-arazten baitu libertate ttipiangoan
 Eta beraz uhainer maldak oldea ttipiagotzen baitaue.
 Ithurburuan ere gertatzen datezke euri nasaigoak
 Urtaro delarik iphar-sortaldeko haizen ufek bilarazi
 Dituztenean elgarretara hedoi guziak alderdi hetan.
 Iduriz hegoaldearen erditara haizaturik han bildu
 Direnean, azkenean hor mendi gorenentara bulzaturik
 Hedoiak metak indarrez bortxatuak eta hertsatuak dira.
 Ethiopiako mendi goren erdian da behar bada hantzen
 Uholdea, jausten direnean elhur xuriak zelhaletara
 Iguzkiak arraiez urt-arazten baititu guziak argituz.

- 737 Orai agertuko daukat "Auerna" lekuak eta aintzirak zein
 Eta nun diren, eta nolakoa duten errana den natura.
 Lehenik deritzeeten izen "Auerna" gauza hunen gatik eman
 Izana zaie, hegaztin guzientzat direlakotz kaltegarri:
 Leku horien aldetara hegaldaka direnean ethortzen
 Ahatzirik lumak erabiltzeko direla gelditzen dituzte,
 Eta buruz beheiti dira lepho luzea guririk erortzen,
 Lurrean, lekuen natura hori bada hala beharrez, edo
 Urean, azpian Auerna aintzira badute hala beharrez.
 Holako lekua da Kumaren ondoan, han khea dariote
 Mendiak sofre kharatsaz beterik ithurri beroez hantuak.
 Athenazko harresietan ere aurkitzen da, gaztelu hegi
 Hartan berean, Palaz hazle tritoniarraren templotik hurbil,
 Eta nehoiz eztira hara hegaldakaturik abiatzen bele
 Karrankariak, ez aldareak izanik ere khetan eskaintzez:
 Hainbat doaz ihes, ez begira daudelakotz Palazen haserre
 Saminetik, kantatua duten bezala poeta greziarrek,

Baina lekuaren naturak berak egin-arazten baitaue hori.
 Erraiten dute Zirian ikusten ere dela leku berdin bat;
 Laur zangokoak ere, hatzak hartan ezarriak dituzten ordu
 Berean indar hark berak erortzera phizuki ditu bortxatzen,
 Bapatez jainko Maner sakrifikatuak balizezte bezala.
 Arrazoin naturako batez gertatzen dira horiek guziak
 Eta dagitzaten arrazoinen ethorkia zer den ageri da.
 Ez ahal dadila sinets Orkuzen athea leku horietan
 Dela, gero hortik eztezagun goga jainko Manek dituztela
 Akeron ifernukora hala beharrez arimak eremaiten,
 Orein oin hegaldunek sudurrez hats hartzean ainitz aldiz suge
 Motak igortzen dituztela ziloetarik uste den moldean.

- 770 Lehenik diot aitzinean ere ainitz aldiz erran dutan hau,
 Lurrean badirela nahi den gauza mota bakoitzaren gaiak;
 Janari diren ainitzak bizitzeko, 'ta ainitzek dakhartzate
 Eritasunak eta heriotzea dezakete aitzinaraz.
 Eta bizi moldeko aitzinean erakutsia dugu batzu
 Baino bertzeak egokiago direla bizidun batzuentzat,
 Ezperdina duten naturaren et(a) elgarrekilako jostura
 Ezperdinaren gatik, ezperdin ere baitituzte gai lehenak.
 Ainitz damugarri doaz beharrietara, ainitz kaltegarri
 Sartzten dira sudurretan beretan eta latz dira hunkitzean;
 Eztira gutiago hunki behar eztirenak, ikustez ere
 Baztertu behar direnak eta hastigarriak zaporeaz.
 Nabari da gainera zeinbat gauza zazkon gizonari saminki
 Kaltegarriak senditzean eta higugarriak eta gaitzak.
 Lehenik itzala zuhamu berezi batzuer emana zaie
 Hain gaiztoa nun buruko minak emaiten baititu ainitz aldiz
 Norbait haien azpian luzaturik belarrean etzana bada.
 Helikongo mendi handien gainean ere bada zuhamu bat
 Haren lorearen usain tzarrak ohiki gizona hiltzen baitu.
 Ageri da beraz horiek guziak sortzen direla lurretik,
 Lurrak badituelakotz mota ainitzetan ainitz gauzen hazi
 Nahastekatu ainitz eta berezirik emaiten dituenak.
 Gauaz berriki hila den argiaren usain kharatsak sudurra
 Ofensatu daukonean, ohian erorteko minaz eri zen
 Eta haunetan jartzen den gizona hor berean loak hartzen du.
 Emazteak indarra galtzen du kaztorki dorpeak zurrundurik,

Eta lan garbiak esku gurituetarik ihes badagiko
 Usain hori baldin badu hartzen odolak dituen egunetan.
 Ainitz gauzek oraino soinadarr ahulduak urtzen dituzte
 Eta barnean arima aurdikitzen dute ber(e) egoitzetarik.
 Azkenik ikuztegi berotu batean gelditzen bahiz ere
 Asebeterik, urak dirakien mainuntziaren erdira zein
 Usu gertatzen den eror hadin aldixartua bahinz bezala!
 Zein errex sartzen zaizkun ere burumunetan ikhatzaren indar
 Dorpea 't' usaina aitzinean urik ezpaldin badugu hartu;
 Aldiz soina hezten duen erretzeko sukarra bildu denean,
 Arnoaren usainak hilgarria baliz bezala joiten gitu.
 Ez ote duk ikusten oraino lurreen berean ere sortzen
 Dela sofrea 'ta gogortzen usainez higungarri den mundruna?

- 806 Azkenik urre 'ta zilhar zainer jarraikitzen zaien lekuetan,
 Lurreko gordagien ikhertzean burdinarekin ondorano,
 Urrin nolakoak eztira Zkaptenzulan igortzen lupetarik?
 Edo zer gaitz ezta gertatzen urre minaziloek ufatua!
 Gizonen nolako aurpegiak badematzaten eta margoak!
 Ez ote duk ikusten ez entzuten zein adin laburrean ohi
 Duten hiltzea, 'ta biziaren luzamena zein eskasa duten
 Beharraren indar handiaz bortxatuek horrelako lanera?
 Irakitzetan da beraz lurra sapa bero horiez guziez,
 Et(a) agerian igortzen ditu kampora 'ta zeruetan goiti.
 Auernetako gunek ere horrela hegalduner eman behar
 Dauete lurretik airetara jalgitzen den hats bat hilgarria,
 Eremua duena zeruko zati batean phozoinez hartzen;
 Horrara lumek eremana duten ordu berean hegatzina
 Izaiten da trabatua phozoin ezin ikusi batez harturik
 Hala nola nun hats beroa doan leku hartan erortzen baita.
 Han aurdikia den ordu berean hats bero haren indar berak
 Soinadar guzietarik biziaren ondarrak ekhertzen dauzko.
 Eztu lehenik alabaina burxoro zerbait baizik emaiten
 Gero gertatzen da phozoinaren ithurri beretan eroria
 Den orduko, behar dela bizia bera dezan hortan egotz,
 Inguruan ukaiten duelakotz gaitzaren gai meta handia.
 Gertatzen ere da batzuetan Auernako hats horren indarrak
 Haizatzen duela hegatzinen eta lurraren artea hartu
 Duen airea, leku hori gelditzen baita beraz abantzu huts.

Hegaldunak ethorriak direnean leku hori den gunera,
 Lumen higitzea zaie berehala makurtzen indarra galduz,
 Eta hegal bat eta bertzearen gemen osoak uzten ditu.
 Hor hegalez indar ezin dagitenean et(a) ezin berma hetan,
 Ageri da naturak phizuaren gatik bortxatzen dituela
 Erortzera, 'ta hutsean hara aurdikiak izan baino lehen
 Gorputzeko larxilo guzietarik hatsak ixurtzen dituzte.

- 839 Eta gero phutzuetan ura hotzagoa da gertatzen udan
 Lurra beroaz argaltzen delakotz, eta baldin baditu hala
 Beharrez berak beroko haziak, uzten ditu airera joaiten.
 Beraz lurra gehiago berotasunaz gabetua den arau
 Lurrean ere gordea dagon hezea hotzago da gertatzen.
 Gero lur guzia hotzaz hertsatua denean eta bildua
 Eta tinkatzen baliz bezala, gogortzean phutzuetan uzten
 Du dudarik gabe barnean ukana duen berotasun hura.
 Bada Hamonen temploaren ondoan ithurri bat egun argiz
 Hotza dena, 'ta gau ordua delarik bilakatzen dena bero.
 Ithurri hori gehiegi miresten dute gizonak, lupean
 Iguzki saminetik lehian dela berotzen uste baitute,
 Gauak ilun laztagarriaz josirik badaduzkanean lurrak.
 Arrazoin egiazkotik urrun sobera baztertua da hori.
 Alabaina gainetik iguzkiak uraren gorputz garbiaren
 Hunkitzean ahalik ezpazuen berora haren itzultzeko,
 Argia gainetik indar hainbatekoaz baliatzen delarik,
 Gorputzez hain gotor den lurraren azpitik nolaz ahal dezake
 Irakigoan ezar ura 'ta bete bere hatsaren beroaz?
 Bereziki doi-doia duenean arrai sutsuez etxetako
 Harresietan barna bere berotasuna sarrarazten ahal.
 Arrazoina zein da beraz? Agerian lurrak argalago ditu
 Gaineratekoan baino guneak ithurriaren inguruan,
 Uraren gorputzari hurbil ere bada suaren ainitz hazi.
 Lurra gauak estaltzen duenean ihitza dakharten uhainez,
 Berehala hozten da lurra 'ta gogortzen bere barnetarano.
 Gertatzen da molde hortan, esku batez baliz bezala tinkatzen,
 Dituen su hazi guziak ithurrian egozten dituela,
 Hunkitzean ura 'ta hezea berotzen baitituzte horiek.
 Gero jeikirik ekhiak lurra duenean arraiez arraildu
 Eta hartan sapa beroa nahasiz argaldua duenean,

Suaren gai lehenak gibelera bere lehen egoitzetara
 Doaz berriz, aldiz uraren bero guzia sartzen da lurrean.
 Egun argian horren gatik ithurria bilakatzen da hotza.
 Iguzkiaren arraiek uraren hezea gainera higitzen
 Dute 'ta daldaran irakitzeaz egun argian argaltzen da.
 Hortako da gertatzen uzten dituela bere suko haziak
 Oro, barnean duen horma ainitz aldiz uzten duen bezala
 Eta karroinak urtarazten eta haien lokarriak libratzen.

- 878 Ithurri hotz bat ere bada, ainitz aldiz gainean ezarri zakon
 Ixtupak berehala sutan jarririk igortzen duena garra,
 Molde berdinean zuzi batek haren uren gainean phizturik
 Argitzen du, haizez orotarik denean igerika bulzatu.
 Hori da segurki beroaren hazi ainitz badirelakotz
 Urean, eta behar da suaren gai berak lur barnetik jalgi
 Daiten elgarrekin ithurri guzira hedatuz, eta batean
 Athera daiten kampa 'ta joan daiten guziak airetan hara,
 Ez aski ainitz bizkitartean ithurria bero daitekeentzat;
 Eta barreaturik bapatez urean zehar kampa ditu
 Indar batek jalgitzera bortxatzen eta biltzera gainaldean.
 Molde berean itsasoan Araduz irlan ithurri bat bada
 Ur ezta bademana baztertuz inguruan uhain gaziak.
 Oraino bertze leku ainitzetan itsasoak eskaintzen daue
 Egarrri diren itsasturier behar duten ordu berezian
 Uhain gazien artetik goiti han igortzen duen ur ezta.
 Horrela dira beraz ithurri haren barnetik suzko haziak
 Kampa nasai jalgitzen ahal; ixtupan biltzen badira hazi
 Horiek edo zuziaren gorputzean lotzen bapatez errex
 Garretan jartzen dira, zeren ixtupak eta zuziak ere su
 Hazi ainitzak baitituzte berekin edukitzen dituztenak.
 Ez ote duk ikusten ere mitxa bat iraungi berria dena
 Gauaz argi baten ondora hurbiltzen dukanean sutan jartzen
 Dela garra hunki baino lehen eta molde berean zuzia?
 Eta gainera beroaren hunkitzean berean ainitz gauzek
 Suak hurbildik hartu baino lehen urrundik gar egiten dute.
 Gogatu behar da beraz hori dela gertatzen ithurri hartan.

(Burdin-aitza)

- 905 Bertze hau orai: hasiko niz argitzen naturako zein legeri

Esker duen ahala burdinaren erakartzeko Greziarrek
 Izen herritarraz *magnez* deitua duten harriak ethorkia
 Ukan duelakotz Magneziarren herrialdeko bazterretan.
 Gizonek miresten dute harri hau, ainitz aldiz egiten baitu
 Gatina bat ber hartarik dilindan egoiten diren erhaztunez.
 Alabaina batzuetan ikus daitezke bortz eta gehiago
 Beheiti lerroan emanik airek arinki dituztela higitzen,
 Bakoitza baten azpiari 'ta bertzearen gainari lotzen da
 Eta batek bertzetik dazki harriaren indarra 'ta lokiak,
 Hainbaterano da hedatzean azkarrik egoiten indar hori.
 Mota hortakoetan bada phorogatu behar den gauza ainitz
 Eman ahal dezakan baino lehen gauza beraren arrazoina,
 Eta hartarano behar da joan itzuli luze ainitz eginik:
 Are dauzkiat beharri 'ta gogoa galdatzen ohartiago.
 Lehenik ikusten ditugun gauza guzietan, zein ere diren,
 Behar da gai lehenek darioten, joan eta heda daiten beti
 Eta beti, begiak jo ditzaten eta soa jauki dezaten.
 Eta gauza batzuetarik usainek ere beti dariote,
 Ibaietarik hotza bezala, beroak iguzkitik, uhainak
 Itsas-uretik bazterreko harresiak higitzen dituztela.
 Eta soinu guziak eztira gelditzen airean ibiltzetik.
 Azkenik gostu gazia ainitz ahorano jiten zaiku
 Itsas-ondoan bizi girenean, eta aitzinean ikusten
 Dugularik belarmina nahasten, saminaz hunkituak gira.
 Badiote hainbat gauzek dariotela gauza guzietarik,
 Alde guzietarik igortzen direla leku guzietara,
 Eztela jariotzean batere geldirik ez arterik eman,
 Guziak jarraikian senditzen ditugunaz geroz eta beti
 Hautemaiten ahal, usaintzen, eta joiten dutenean entzuten.

- 936 Orai berriz orhoit-araziko dut zein argala duten gorputza
 Gauza guziek, ezarri dena ja garbiki kantu lehenean.
 Alabaina, ainitz gauzen ezagutzeko horrek balio handi
 Ukanik ere, lehen lehenik orai hortaz mintzatzera noan
 Gauza hortako bereko beharrezkoa da segurki jartzea
 Gorputzik eztela batere hutsez nahasirik izan eztenik.
 Lehenik harpetan gertatzen da gaineko harriak izerdi
 Direla hezez eta dituztela xortakatuz itak ixurtzen.
 Berdin ere gorputz osotik izerdia guri jalgitzen zaiku,

Bizarrarekin ileak handitzen gorputz eta soinadarretan.
 Zainetan banatzen da janari guzia, handi-arazten ditu
 Eta hazten soinean alderdi buruak ere 'ta hazkazalak.
 Senditzen dugu berdin iragaiten direla hotza 'ta beroa
 Burdin-horian, senditzen ditugu berdin iragaiten urrean
 Eta zilharrean, untziak ditugunean beterik atxiki.
 Azkenik etxetako harresiak zeharkatuz dira soinuak
 Airatzen, usainak eta hotzak iragaiten dituzte 'ta suko
 Beroak, burdinaren indarrean ere sartzen ohi delarik.
 Azkenik zeruko hesolak inguruan hesten dituen leku
 /Guzietan diren huts eta ziloetarik barnera da sartzen/
 Batean eritasunen indarra 'ta kampotik direnean ere
 Galernak sartu lurrean eta zeruan sorturik elgarrekin
 Urrundurik berriz joaiten dira zuzen zerura 'ta lurretara,
 Deusik eztenaz geroz gorputza hutzez josia duenik baizik.

- 959 Agertzen da hemen eztirela gauzetarik jalgitzen diren gai
 Guziak ez aitzinean erran diren eragin beretakoak
 Ez eta molde berdinean egokiak gauza guzietako.
 Lehenik iguzkiak erreziphiltzen du lurra 't' idorrazten,
 Aldiz urtzen du horma 'ta mendi handietan elhurrak handizki
 Metatuak direnean gesaltzera ditu bortxatzen arraiez.
 Azkenik haren beroan ezarririk urtarazten da ezkoa.
 Suak urrea 'ta burdin-horia berdin ur ditu bilakatzen,
 Aldiz beroaz bil eta tinkatzen larruak eta haragia.
 Uraren hezeak burdina gogortzen du gero sutik jalgirik,
 Aldiz suaz gogortu larru 'ta haragiak egiten guri.
 Basolibondoa hainbat zaie gozagarri ahuntz bixarduner
 Usainaz ambrosia 'ta gostuaz eztigaia baliz bezala,
 Deus eztelarik orsto hori baino kharatsago gizonarentzat.
 Azkenik urdeak ihes dagi ainduritik eta lotsatzen du
 Usain on orok, iledun urderentzat phozoin samina delakotz,
 Gu batzuetan hainbatez bizkortzen gituenean ageriki.
 Aldiz iztila guretzat higungarria den satsukeria bat
 Delarik, urdentzat ikusten dugu hura bera hain gustagarri
 Nun osoan ezin asegarriki baitira han ihaloskatzen.
 Hau oraino gelditzen da, gauzaz beraz mintzatzeko aitzinera
 Nadin baino lehen agerian ezarri behar dena lehenik.
 Gauza guzier eman izanak zezteelakotz ainitz xilo gune

Erran den naturaz elgarren artean ezperdinak izan behar
 Dute 'ta bakoitzak behar ditu bere bideak eta natura.
 Alabaina sensu bereziak direnaz geroz bizidunetan,
 Hetan bakoitzak bere sendimendu berezia hautemaiten du.
 Ezen ikusten dugu hemen dela sartzen soinua, gostua hor
 Hazkurrietarik, bertze nunbait usaintzen duenaren usaina.
 Ikusten da gainera zerbait iragaiten dela harrietarik,
 Eta bertze bat zuretarik, badiragala bertze batek urrea,
 Bertze zerbait kampa doala zilharretik eta berinatik.
 Badariote hor iduriek, han ikusten da joaiten beroa
 Eta hura baino lasterrago hau bide beretik iragaiten.
 Ageriki bidetako natura ainitz moldetakoak ditu
 Hortara bortxatzen, erakutsi den bezala guti aitzinean,
 Natura gauzek ezperdin dutelakotz, ezperdin ere jostura.

- 997 Hortakotz horiek behin ontsa segurtaturik eta jarririk
 Aitzinean ezarriak ukanen ditugunean gauzak oro,
 Orduetik horren arrazoina hemen errex emanen da, 'ta zer den
 Burdinaren indarra derakharrena zabalean agertuko.
 Behar da lehenik athera daiten harri hortarik hazi ainitz,
 Edo harriaren eta burdinaren artean jarri den aire
 Guziaz jorik ukhaldika barrearaz dezan uhain zenbaitek.
 Leku hori hustua denean eta hutsune ainitz utzia
 Erdian, ordu berean burdinaren gai lehenak lerraturik
 Erortzen dira guziak elgarrekin hutsera, 'ta gertatzen da
 Erhaztuna bera darraikala 'ta den osoa doala berdin;
 Ezen ezta gauzarik batere bere gai lehenez gehiago
 Estekaturik eta hertsiki josirik tinkan emana denik
 Burdin(a) azkarraren natura 'ta haren hotz laztagarria baino.
 Gutiago mirestekoa da beraz /erran bezala/ gai horiek
 Ahalik ezpadute burdinatik ainitzak jalgirik hutsera
 Ihes egteko, nun etzaien erhaztuna bera jarraitzen,
 Egiten baita 'ta jarraitzen, heltzen den ordurano harrira
 Berera, 'ta hartan lotzen eratxikune gorde batzuen bidez.
 Alderdi guzietan hori bera gertatzen da hutsa nun ere
 Jarria den; ala zabalaran, ala gain-behera, gai hurbilak
 Orduan berean eremanak izaiten dira leku hutsera.
 Alabaina nunbaitik ukhaldika bulzatzen dira 'ta berak
 Eztira batean berainik iragaiten ahal airetan goiti.

1022 Hemen badathor oraino hortan ahal gehiago duen zer bait,
 Gaineragarri baita hau ere 'ta mugimenduko lagungarri,
 Zeren, erhaztunaren belharrean airea bekanduago den
 Batean, eta lekua gelditu hustuago 'ta libreago,
 Erhaztun giblean dagon aireak gibelaldetik bulzatzen
 Eta aitzinarazten balu bezala gertatzen da berehala.
 Inguruneko aireak alabaina beti joiten ditu gauzak;
 Baina gertaldi hortan egiten da bulzatzen duela burdina,
 Alde batetik eremu butsak beregana biltzen duelakotz.
 Burdinan usu diren xiloetarik erraiten deatan aire
 Hau artexki zati ttipienetan barnera sartua delarik,
 Bulzatzen dik eta higitzen, haizeak untzi 'ta belak bezala.
 Azkenik gauza guziek ukan behar dute airea barnean,
 Gauzak gorputzez argalak direnaz geroz eta airea gauza
 Guzien ingurunean auzo bezala jarria denaz geroz.
 Beraz burdinaren barne-barnean gorderik dagon aire hori
 Betiereko mugimendu batean higitzen da 'ta hortakotz
 Ezta batere dudarik erhaztuna joiten duela 'ta barnera
 Jin-arazten: hortik beretik eremana da jadanik aldi batez
 Jautsi zen lekura, ber(e) oldeak hautatu zuen gune hustura.
 Gertatzen ere da noizten burdinaren naturak harri hortarik
 Dagiela gibel, ohitua noiz ihes egiteari noiz jarraikitzeari.
 Ikusiak ditut ere Zamotrakiako burdinkiak jauzten,
 Eta kharrakakinak batean erotzen untzi burdin-horizko
 Baten barnera, Magnezko harria zaienean azpian eman,
 Harritik ihes egin nahia hainbaterano zuten ageri.
 Artean ezarri burdin-horiaz sortzen da hainbat etsaitasun,
 Lehenik burdin-horiaren hatsak ageriki lehian hartu
 Dituelakotz eta beretu burdinako bide zabalduak;
 Ondotik dathor harriaren hatsa 'ta burdinan aurkitzen ditu
 Guziak beteak ukan gabe lehen bezala nundik iragan.
 Bortxaz behar du beraz uhain bereaz burdinaren jostura jo
 Eta bulzatu; horren gatik urrunera haizatzen du bertarik,
 Eta burdin-horian higitzen bertzela derakharren gorputza.
 Gauza horietan geldi hadi mirestetik harritik jalgitzen
 Den hatsak ahalik ezpadu burdinaz bertze gauzen higitzeko.
 Ezen, batzu geldirik daude phizuaz, urrea da molde hortan,
 Eta batzu gorputzez argal baitira hatsak iragaiten ditu

Hunkitu gabe, 'ta nehoiz eztira bulzatuak izaiten ahal;
 Iduri da motaz horrelakoa dela zuraren materia.
 Burdina naturaz bi horien artean jarria baita, beraz
 Hartuak dituenen burdin-horiaren gai xehe batzu
 Orduan uhainaz hura bulzatzen dute Magneziako harriek.

- 1065 Eta horiek eztira bertze gauzetan hain arrotzak halere
 Nun ezpaitira guti mota hortakoetan eskaintzen zaiztanak,
 Orhoit-araz dezazket mota hortan banaka direnak egoki.
 Ikusten duk lehenik harriak lotzen direla bakarrik gisuz.
 Zezen lekedaz hainbat tinki da juntatzen zuraren materia
 Nun ahulduraz usuago baitira hausten tauletako zainak
 Zezen loturaz juntatu direnak berexten ahal diren baino.
 Ardantzaren jusak dira nahasten ahal ithurrien urean,
 Bikhe phizuk ez arin den olioak ezin dezaketena.
 Eta maxkur baten margo gorrindola bildua denean behin
 Gaiaz ilearekin, ezta nehoiz izaiten ahal berexia
 Emaiten bahinz ere berriz lanean Neptunen uhaina lagun,
 Ez itsasoak osoan uhain guzietz ekhendu nahi balu.
 Azkenik urrea gauza batek ez ote dik urreari batzen,
 Ezteinuaz eztea lotzen burdin-horia burdin-horiari?
 Oraino zeinbat bertze ainitz eztaiteke aurki! zergatik beraz?
 Eztuk hirezat horrenbat itzuli luzeren beharrik batere,
 Ez nihaturen aldetik akhitzea zueen horrenbertze lanetan,
 Bana hobe da hitz gutitan hemen ainitzen biltzea laburzki.
 Gauza batzuen egiturak bertzeren kontrara derortelarik,
 Hala nola nun hutsak bertzeren betekin zuzen joaiten baitira,
 Elgar ordainzkaturik, juntura hori da hoberena gertatzen.
 Beraz erhaztunek ere krakoekin loturik izan daiteke
 Elgarrekilan atxik dezazketela gai lehen batzu juntatuak.
 Iduriz gehiago da burdina 'ta harrian egiten hori.

(Eritasunak, Athenazko izurritea)

- 1090 Argi dezatan orai zein arrazoin duten eritasunek edo
 Bapatez sorturik nundik hedatzen ahal den gizon arrazaren
 Et(a) abelalde guzientzat galgarria den indar hiltzalea.
 Lehenik aitzinean erakatsia dut gauza ainitzen gaiak
 Badirela guretzat biziaren aldekoak direnak eta
 Aldiz behar da ainitz dabilzan airean eritasunekoak

Eta hiltzekoak. Horiek direnean halabeharrez bildu
 Eta zerua nahasi dutenean airea jartzen da gaizkor.
 Eritasunen indar hura guzia beraz et(a) izurritea
 Ala mundu harainditik eta hedoiak bezala gainaldetik
 Zeruetan gaindi zaizku jiten, ala ainitz aldiz sortzen dira
 Berak lurretik, heze bilakaturik euri behargabekoez
 Eta jorik iguzkiez aurkitua duenean usteldura.
 Ez ote duk ikusten ere zeruaren eta eurien berritasunaz
 Hunkiak direla herritik eta ber(e) etxetik urrun gertatu
 Direnak oro, handizki hango gauzak ezperdinak direlakotz?
 Alabaina Britaniarrentzat uste dugunaz zein den zerua
 Ezperdin munduko haxa gurtzen den Egiptokotik!
 Ala zein ezperdin itsaso beltzean eta Gadezetik ere
 Gizonen arraza beltzetarano, margoan errezipilduak!
 Laur eskualde horiek elgarren artean ikusten baititugu
 Ezperdinak izaiten laur haize 'ta zeruko laur zatietarik,
 Gizonak margoaz eta aurpegiaz agertzen dira handizki
 Bereziak eta mota bakoitzak baditu ber(e) eritasunak:
 Ibai Niluaren ondoan da sortzen elefant-itxurakoa
 Egiptoaren erdigunean, eta handik hara bertze nehon;
 Gaitzak Athikan hartzen ditu oinak, begiak aldiz Akhaiako
 Mugetan; gero bertze leku bat kaltegarri da bertze soinadar
 Et(a) alderdi batzuentzat: airearen aldarekin doa hori.
 Hortakotz kontrakoa zaikun giro bat hala beharrez higitzen
 Denean, eta hasi denean abiatzen aire kaltekorra,
 Apurka hedatzen da hedoi eta lanhoak bezala, 'ta doan
 Lekueta guziak nahasten ditu 'ta bortxatzen aldatzera.
 Gure zerura denean azkenean ethortzen, hau andeatzen
 Ere du, beraren berdina bilakatzen eta guretzat kalte.
 Beraz hondamen horrek bai izurrite berri horrek bapatez
 Edo ditu hartzen urak edo fruituetan beretan badago,
 Edo gizonen bertze janarrietan et(a) aberen hazkurrian,
 Edo airean berean ere dilindan dago horren indarra,
 Eta hats hartzean hortik biltzen baititugu aire khotsatuak
 Behar da horiek iretsiak izan daiten gorputzean ere.
 Izurritea molde berean idietara jiten da ainitz
 Aldiz eta berdin eritasuna marrakari geldietara.
 Eta berdin da kaltegarri zaizkun leku batzuetara guhaur
 Abia gaiten eta zeruaren aurpegia dezagun alda,

Edo khotsatua den zeru bat naturak berak ekhar dezaukun
 Ala bertze zerbait haren erabiltzen ohituak ezkinena
 Eta hunkitzen ahal gituena berriki delakotz ethortzen.

- 1138 Eritasun mota horrelako batek hats hilkor batekin bete
 Zituen behin zorigaitzez Athenazko herrialden alhorrak,
 Jendez hustu zituen bideak, hiria hiritarrez gabetu.
 Ezen ethortzean Egiptoko herriaren zokoan sorturik,
 Aireak luzaz iraganik eta lur urez hantuetan gaindi
 Pandiongo jende guziaren gainera jautsi zen azkenean.
 Gero metaka bazoazen eritasunera 'ta heriora.
 Lehenik ukaiten zuten burua berotasunaz irekitan
 Eta bi begiak dirdira nahasi batean harturik gorri.
 Zintzurak ere barnean izerditan zituzten odol beltz batez
 Eta batean zauriez hetsia zuten mintzoaren bidea,
 Eta gogoeten errailea den mihiak odola zarion
 Gaitzaz ahuldua, higitzeko phizutua, hunkitzean latza.
 Gero hartua zuenean zintzurretik bulharra 'ta gaitzaren
 Indarra zenean erriaren bihotz trixte berera hedatu,
 Orduan zinez erortzen ziren biziaren harresi guziak.
 Ahotik kampa hatsak usaina zuen egozten higungarri,
 Ohian emaiten dutena kampoan utzi diren gorputz ustelek.
 Eta handik hara gogoaren indar guziak eta gorputza
 Osoan ahultzen ziren jadanik herioko muga berean.
 Eta gaitz ezin jasan horientzat lagunak ziren ethengabe
 Antsia hertsagarri bat eta oihuak auhenaz nahasirik.
 Zotin usu batek hartzen zituen gelditu gabe gauaz eta
 Egunaz erien zainak eta soinadarrak eta hek bortxatuz
 Xehatzen zituen, jadanik ezinduak, ahitzen zituela.
 Baina nehoren baitan ehuen hautemaiten ahal gorputzaren
 Azalean gune bakar bat beroegiaz irekitan zena,
 Eskuez hunkitzean epheldura zuten eskaintzen izaitekotz;
 Aldi berean erreduren iduriko zauriez soin guzia
 Odoletan zen, su sakratuaz harturik bezala soinadarrak.
 Gizakien gorputz barnea zinez sutan zen hezurretarano,
 Urdailean garra phiztua zen hala nola labeko barnean.
 Soinadarretan ehuen deus ezartzen ahal, ez arin ez mehe,
 Hainbaterano nun beti haizean eta hotzean baitzaudekan.
 Batzuek soinadar eritasunaz erreka zematzen ibai

Hormatuetara, gorputza buluzirik uhainetan etzanez.
 Burua beheiti ainitz erori ziren ithur-ziloetako
 Uretan barna hara jiten zirenean ahoa zabaldurik:
 Egariaren idor ezin hilak soinak zeramatzan mainura
 Berdintzen zituela euri nasaiak heze den ttipienekin.
 Gaitzean etzen atsedetik batere, gorputzak zatzaten geldi
 Ezinduak. Lotsaz ixilik medikuntzak ahopiatzen zuen
 Eritasunaz sukarretan begien argiak haren aldera
 Itzultzen ziren aldi guzietz lorik egin gabe zabalduak.
 Orduan herioko seinale ainitz emanak ziren oraino:
 Adimendua gogoan nahasia oinazez eta beldurraz,
 Bekaina goibeldua, behakoa zorrotz erotua bezala,
 Gainera beharriak aiduru soinuez eta hotsez beteak;
 Laburrik ala handizki luzaturik bekan emaiten zen hatsa,
 Eta lephoa dirdiran bustia zuten izerdiaren urez,
 Thuak ttipiak eta meheak, iduriz zafranaren kolore
 Eta gazi, zintzurretik ez tul erlats batez nekez igorriak.
 Eskuetan aldiz zainak tinkan eta soinadarretan daldara,
 Oinetarik abiatuz apurka hotza aitzina goiti bazoan
 Segurki. Heltzen ari zelarik ondarrean azken orenera
 Sudur-ziloak hertsituak ziren, sudurraren mokia mehar,
 Begiak sartuak, pholsuak barna, aurpegiko larrua hotza
 Eta gogor, ezpain bazterrak beheiti, bekokia hantua zen.
 Eta hilondoko hotzaz soina gogorrik zatzaten berehala.
 Eta zortziurren inguruan iguzkiaren ager orduan
 Edo bederatzigarren argi hastean uzten zuten bizia.

- 1199 Hetaryk bat, gertatzen dena, hil-ehortzetarik baztertzen bazen,
 Zauri lazkarrietan eta sabeleria beltzean halere
 Berantago zuten usteldurak eta hiltzeak igurikatzen;
 Edo ainitz aldiz ere buruko minarekin andeatua
 Odolak bazarion beteak zituen sudur ziloetarik:
 Hortik bazoazen gizonaren indar guziak eta gorputza.
 Odol ustelaren ixurpen laztagarri hortarik atheratzen
 Zenari, halere gaitza joaiten zizakon gero zainetara 'ta
 Soinadarretara, hartuz ere gorputzeko barrabilak berak.
 Eta baziren herioaren alharzean beldurtuak handizki
 Bizirik zaudenak alderdiez gabeturik burdinaren bidez,
 Eskuak eta oinak galdurik, bakar batzuek halere bizi

Bazirauten, eta bertze batzuek begiak galtzen zituzten,
 Hainbaterano zen hetan sartua herioko beldur zorrotza.
 Eta batzu hartzen zituen ere gauza guzien ahazteak
 Hala nola nun ahalik ezpaitzuten nor ziren ezagutzeko.
 Eta gorputz ainitz gorputzen gainean zatzatelarik lurrean
 Ehortziak izan gabe, halere hegaztin eta basihizi
 Motak, edo jauzian urruntzen ziren usain saminetik ihes
 Egin nahiz, edo jastatuz ahulduak hurbil zuten hiltzea.
 Etzen halere egun horietan han edo hemen xori bat
 Ehon agertzen, eta oihanetarik etzen basihizi mota
 Trixterik jalgitzen. Gehienak erasunaz aurdikiak zauden
 Eta hiltzen ziren. Lehenik or leialen gemenak azken hatsa
 Emaiten zuen bide bazter guzietan etzanik oinazetan,
 Alabaina gaitzaren indarrak hartzen zaukon soinetik bizia.
 Gomitik gabe lehian egiten ziren orotan ehorzteak.
 Eta guzien sendagailutzat molde segurrik etzen emana,
 Ezen ahora bizitzeko airearen hatsa bati zaukonak
 Emaiten eta zeruko temploak ikus-arazten behar bada,
 Bertzer hilgarri zizaien eta heriotzera bazeramatzan.

- 1230 Gauza horietan gehienik urrikari 'ta deitoragarri
 Zen eritasunaz hartua zela bera zuenean norbaitek
 Ikusten, uste baitzuen kondenatua zela heriotzera,
 Gogoak huts eginez etzanik bazagola bihotza trixterik:
 Ikusiz ehorztea, hor berean emaiten zuen azken hatsa.
 Etziren alabaina nehoiz ere gelditzen eritasun ezin
 Aseko khotsuak abiatzetik batzuetarik bertzetara,
 Iledun artalde eta betalde badagiten molde berean.
 Ehorztea horrek zaukon lehenik gaineratzen ehorzteari.
 Ezen bere jendakia gaitzaz hartuen ikustetik baztertzen
 Ziren guziak bizi nahiegiz eta herioaz beldurti,
 Laster ziren herio desohoragarri trixteaz zigortuak,
 Utziak, laguntzaz gabetuak, ezaxoltasunaren saria.
 Baina han egonak zirenak ere khotsuez eremanak ziren
 Eta lanaz, eginbideak bortxatzen zituenean hortara
 Eta auhenez nahasirik ezinduen mintzo hunkigarriek.
 Hoberena zenak jasaiten zuen beraz herio mota hori
 (...) eta hor jendea batzu 'ta bertze lehiaturik etxekeen
 Ehorztera, nigar eta doluz ezindua zoan gibelera;

Hortik landa zati handi bat emaiten zen ohera bihotzminez.
 Eta nehor etzen aurkitzen ahal eritasunak etzuen
 Ez heriotzeak ez doluminak hunkitzen halako demboran.

- 1252 Horren gainera jadanik artzainak eta betaldezinak oro
 Eta goldenabar bihurtuaren eremaile gizon azkarra berdin
 Ezinduak zauden eta gorputzak zatzaten metatuak etxe
 Zokoetan, emanak heriotzeari beharraz eta gaitzaz.
 Ikusten ahal hituen han edo hemen haur biziaz gabetu
 Batzuen gainean bizia galdu zuten gurasoen gorputzak,
 Eta haurrek aitamen gorputzen gainean uzten zuten bizia.
 Etzen ere zorigaitz horren zati ttipi bat baserrietarik
 Hirira hedatu, laborarien andana handi bat han bildu
 Baitzen ahitua, gaitzak hartu gune guzietarik ethorritz.
 Lekuak, etxeak oro betetzen zituzten; are gehiago
 Zituen uhainka horrela bilduak heriotzeak metatzen.
 Ainitzak egarriaz bidean aurdikiak gorputzak herriko
 Ithurrien uretan ambildurik zauden bazterrean etzanak,
 Uren eztitasun handiegiaren gatik hatsa bahitua;
 Ainitz ere jendea den lekuetan han hemenka 'ta bidetan
 Soinadarrak ahul eta gorputzez erdia hilak ikusiko
 Hituen satsukeria lazkarrian eta phildaz estalirik
 Soineko zikinkerian hiltzen, hezurrekin bakarrik larrua,
 Ja hurran ehortziak min itsusien eta zoldarren azpian.
 Azkenean heriotzeak betetzen zituen jainkoen templo
 Saindu guziak bizirik gabeko gorputzez eta zerutarren
 Egoitzak hilkiez mukurru beteak gelditu ziren nun nahi,
 Zaintzalek lekuak betetzen baitzituzten jiten ziren arrotzez.
 Orduan erlisioneak eta jainkoen botereak phizu
 Ttipia zuten, gaintitzen baitzituen alabaina doluminak.
 Eta hirian etzen jendalde hark ehortzetako lehenago
 Betidanik ohikoak ukanak zituen molderik gelditzen;
 Osoan jendea zentzordaturik ikharan zen eta berea
 Bakoitzak gertakariaren arauka trixterik ehortzen zuen.
 Ustegabe 'ta beharraz egiten zen ainitz gauza laztagarri
 Zeren gaitzeko oihu batzuekin nork bere familiakoak
 Ezartzen baitzituen bertzek eraiki zituzten egur meta
 Batzuen gainean, sua zuziez emaiten, eta ainitz odol
 Ixurtzen zen aharretan gorputzak utziko ziren baino lehen.

**Postface: quelques simples mots sur le *De rerum natura* de
Lucreèce et sa traduction en basque.**

Dans son poème latin *De la nature* en 6 livres composés de 7400 hexamètres dactyliques Lucreèce, de son vrai nom complet "Titus Lucretius Carus", expose vers le milieu du 1er siècle avant notre ère à l'usage de ses compatriotes romains ce qu'on nomme communément "l'atomisme antique" comme explication et description de la totalité de l'univers infini, en un mot "la nature". Il le dédie en le tutoyant selon la coutume romaine à un personnage de la vieille aristocratie romaine: Memmius. Cicéron son parfait contemporain (-106 -43) qui l'a publié a vu dans le poème de Lucreèce "beaucoup de génie et aussi beaucoup d'art" (J. Humbert, *Histoire illustrée de la littérature latine*, Didier-Privat 1932, p. 90). Il manque au texte quelques vers ici ou là marqués de points de suspension (...), sauf quand les éditeurs ont essayé de les reconstituer mis alors entre barres obliques /.../ou en italiques.

"L'atomisme antique" que Lucreèce exposait dans leur langue et en poésie aux Romains est une explication philosophique et rationnelle de l'univers infini et de toutes ses composantes, êtres vivants compris. Elle avait été élaborée par une série de philosophes et savants grecs dont le plus important est sans conteste au dire des spécialistes Epicure (-341 -270), dont l'éloge occupe le début du livre II de Lucreèce. Avant Epicure et après Anaxagore dès le VIe siècle (-500 -428?), les philosophes de la théorie atomiste avaient été Démocrite (-420 -370) et Leucippe (-460 -370) suivis de toute une école ou tradition de penseurs où se situe Epicure. Mais c'est surtout par Lucreèce et son texte latin que la philosophie atomiste est arrivée chez les penseurs et écrivains de la Renaissance puis de l'âge classique européen. Cette explication qui réfutait vigoureusement les croyances religieuses, comme on le voit en lisant Lucreèce, s'opposait évidemment de partout aux enseignements de la théologie catholique: il en coûta la vie au philosophe Giordano Bruno condamné et mort au bûcher en 1600. Peu après encore Galilée dut, pour se sauver du tribunal inquisitorial, désavouer la rotation de la terre autour du soleil, ignorée des Anciens qui ne voyaient que la voûte étoilée tourner au-dessus d'eux, qu'il avait pourtant à la suite de Copernic

démontrée scientifiquement ("et pourtant elle tourne" disait-il à part soi), mais qui s'opposait à la doctrine officielle.

Galilée disposait déjà des premiers instruments scientifiques, de bonnes lunettes astronomiques, pas encore des microscopes et des télescopes modernes. Mais jusque-là les Grecs inventeurs de la théorie atomiste ne possédaient, eux, aucune autre technologie que leur capacité d'observer, de raisonner et de déduire, en somme de penser ou de philosopher. C'est dire que malgré leur ingéniosité à inventer des atomes, unités matérielles de base invisibles, aux formes et capacités diverses, et hors de cette idée générale que tout ce qui constitue l'univers infini dans l'espace et dans le temps est fait de ces unités minimales, que Lucrèce dans sa langue nomme les "corps premiers" ou les "semences", et de leurs combinaisons, l'atomisme antique reste extrêmement loin de la complexité universelle, de l'infiniment grand à l'infiniment petit, telle que la découvre progressivement la science moderne. Les limites de la science antique sont du même ordre dans la connaissance du vivant et de l'être humain: par exemple c'est dans le cœur et non dans le cerveau que Lucrèce et ses devanciers situent le siège principal de l'âme *anima* qui est la force vitale et celui de la capacité de penser *animus* c'est-à-dire l'esprit. Sur ces bases, toute la pensée de Lucrèce est développée avec une rigueur rationnelle parfaite et quasi mathématique.

On n'en sait à vrai dire rien, mais Lucrèce devait participer consciencieusement aux rites religieux publics et en ce sens civiques que pratiquaient avec faste et régularité les sociétés antiques (et évidemment, selon un mot bien impropre pour ces temps, "païennes", qui veut dire exactement "paysannes"), aussi bien grecque que romaine. Il les évoque avec précision dans la "fumée des encens". Et si les dieux inventés par la mythologie antique n'ont selon Epicure aucune sorte d'égard aux activités, cérémonies et supplications humaines, c'est que ces êtres parfaits vivent dans la tranquillité sereine de l'empyrée. Dans sa *Philosophie des religions comparées* de 1848 qui n'est à vrai dire que l'ébauche d'un très vaste sujet, le Souletin Augustin Chaho, sans pourtant aucune référence à l'atomisme antique, et dans le cadre du monothéisme judéo-chrétien concevant un Dieu architecte de l'univers et créateur du Tout, évoquait l'Être suprême retiré "dans son repos sublime", ne signalant plus "son action et sa présence

sur notre terre par aucun miracle bizarre, par aucune apparition ridicule".

Lucrèce affirmait l'inutilité des croyances religieuses, de la peur de l'au-delà après la mort, et rappelait en même temps leurs méfaits, avec l'exemple célèbre en littérature du supplice d'Iphigénie sacrifiée par son père Agamemnon sur avis des prêtres pour obtenir des dieux les vents favorables au départ de la flotte pour la guerre de Troie, ou le cortège terrible et sanglant de Cybèle "la grande mère des dieux", l'épouse de Saturne honorée au mont Bérécynthe de l'Ida en Phrygie, évoquée par Du Bellay dans le sonnet VI de ses *Antiquités de Rome* (1558): "Telle que dans son char la Bérécynthienne/ Couronnée de tours et joyeuse d'avoir/ Enfanté tant de Dieux ...". Si la vie de Lucrèce est parfaitement inconnue en dehors de son poème, la propagande hostile des chrétiens à son endroit, et plus généralement à la philosophie épicurienne et à l'atomisme ou matérialisme antique, permettait à saint Jérôme (de son vrai nom "Sophronius Eusebius Hieronymus", 347-419) Romain d'adoption né en Dalmatie, qui écrivait quatre siècles plus tard au moment où le christianisme avait été autorisé puis imposé par la force comme seule religion dans tout l'Empire romain, de dire que Lucrèce était "mort fou à 44 ans" (J. Humbert, op. cit. p. 90).

Le poème de Lucrèce commencé en beauté avec l'invocation à Vénus source de toute vie se termine, étrangement en apparence, par les maladies et l'horrible description prise chez les historiens grecs de la terrible "peste", nom qui pouvait fort bien représenter n'importe quel type d'épidémie, qui ravagea Athènes au Vème siècle (-430 -426), au temps même de sa splendeur politique et culturelle. C'est que, à moins que l'œuvre soit restée inachevée, ce qui n'est pas l'avis des connaisseurs de l'auteur et du texte, tout sans exception dans l'univers doit naître et ensuite périr selon la doctrine épicurienne.

L'héxamètre dactylique hérité de la poésie grecque et utilisé par Lucrèce et bien des poètes latins postérieurs se compose comme l'indique son nom de six "mètres" ou "mesures" ou "pieds dactyliques". Très curieusement, si nous nommons un mètre poétique "pied", le grec "dactyle" signifie "doigt": c'est que si ce n'est au sol on mesurait plus facilement par le doigt que par le pied. Le latin avait des syllabes longues ou brèves selon la

longueur ou la brièveté de durée de la voyelle prononcée, et en poésie une longue équivalait deux brèves, le mètre "dactyle" étant composé d'une longue et deux brèves. Mais chacun des six mètres ou pieds pouvait aussi se "contracter" théoriquement en deux syllabes longues, ce qui faisait un "spondée" au lieu d'un dactyle, et le sixième ou dernier pied se composait le plus souvent d'une longue et d'une brève, un "trochée". Au total l'héxamètre dactylique comptait donc théoriquement au minimum 12 syllabes, comme le vers français dit "alexandrin" mais sans distinction de brèves et de longues, et au maximum 17 ou (avec un spondée final) 18 syllabes.

Pour le basque, langue peu ou pas accentuée à la manière latine selon les dialectes, la longueur des syllabes est très difficile ou même impossible à établir avec quelque rigueur, malgré les fameuses tentatives exposées par Oyhénart dans sa lettre dite "de l'Art poétique" et pratiquées dans ses poèmes, dans l'esprit maintenu d'une Renaissance très latinisante. Par ailleurs le basque, quoique langue "agglutinante" naturellement plus "contractée" que le français, l'est bien moins que le latin, principalement à cause de la complexité de sa suffixation, en déclinaison nominale ou en dérivation, et surtout de son système de conjugaison pluripersonnelle largement constituée de temps ou "tiroirs" auxiliaires, c'est-à-dire "composés" ou "périphrastiques", fait rare en latin. Le traducteur s'est donné par conséquent sinon la liberté du moins la commodité de vers basques longs de 20 syllabes sans différence de mesure, afin de pouvoir rester au plus près du texte et de n'omettre rien d'essentiel. La poésie latine ancienne n'était pas rimée, la traduction ne l'est pas non plus au sens propre. Mais elle alterne, à très peu d'exceptions près, les finales consonantiques et vocaliques des vers ce qui fait que ces vers ne sont pas tout à fait, ce que le français nomme assez mal et utilise beaucoup en poésie moderne, des vers "blancs".

*

Azken-solas: hitz xoil batzu Lucretiuz-en *Naturaz* eta euskarazko itzulpenaz.

Lukretiuz-ek (bere latinezko izen osoan "Titus Lucretius Carus") sei neurri "daktilikako" 7400 neurthitzetan latinez egin zuen 6 liburuekilako poema handian, gure aro aitazineko lehen mendean, agerian emaiten du bere herritar erromatarrentzat ohiki "aro zaharreko atomixma" deritzotena, mundu oso mugagabearen, bizidunak barne, hitz batez "naturaren" argitaldi 'ta erakustaldi bezala. Ezkaintzen dauko hikatu, latineko ohiduraren arau, Memiuz, Erromako aitorensemeria zaharreko jaun bati. Poema agertarazia ere zuen haren arokide zuzena (-106 -43) zen Kikerok ikusia du Lukretiuz-en poeman "ainitz jeinu" 'ta ere "ainitz ederlan". Neurthitz zenbaitek huts egiten dute idazkian han edo hemen, geldipunduetan utziak (...), argiratzaleak eztirenean bermoldatzera enseatu, orduan marra zeharretan // edo italiketan ezarriak.

Lukretiuz-ek Erromatarrer bere hizkuntzan eta olerkitan agertzen zauen "aro zaharreko atomixma" mundu osoaren eta hura osatzen duen guziaren agerbide filozofiazko 'ta arrazoinezkoa da. Greziako filozofa 'ta jakintsun andana batek moldatua zuen, hetan handiena baita jakilen erranaren arabera Epikuroz (-341 -270) eta haren laudorioak hartzen baitu Lukretiuz-en liburu bigarrenaren hastapen guzia. Epikuroz baino lehen eta Anakzagora-ren (-500 -428?) ondotik V-garren mendean theoria atomixtako filozofoa izanak ziren Demokritoz (-420 -370) eta Leukipoz (-460 -370), Epikuroz hetan den gogoetalaritalde handi batez jarraikiak. Baina Lukretiuz-en ganik eta haren idazki latinetik da oroz gainetik filozofia atomixta Europan Berphizteko gogoetalarari 'ta idazletarano heldu eta gero aro klasika europatarrera. Erlisionekeo sinespenak azkarki ezeztatzen zituen agerbide hori, Lukretiuz-en baitan ikusten den bezala, orotan theologia katolikoaren erakaspenen kontra jartzen zen: bizia gusta zizakon hortako Giordano Bruno filozofoi sura kondenaturik hil baitzuten 1600-ean; eta guti berantago Galileok oraino, inkisidoren auzitegitik salbatzeko ukhatu behar ukan zuen Arozaharrekoek izartegia baizik ez ikusiz gainean itzulikatzen ezagutzen etzuten eta, Kopernik-i jarraikiz, jakitatez erakutsia zuen lurraren itzulikatzea iguzkiaren inguruan ("itzulikatzen da

bizkitartean" zion bere baitan), baina dotrina ofizialaren kontra zoana.

Galileok eskuan zituen jadanik jakitatezko tresna lehenak, izar ikhertzeko luneta on batzu, ez oraiko mikrozkoopa 'ta telezkopa berririk oraino. Baina lehenago teoria atomixtaren asmatzale Greziarrek etzuten, hek, behatzeko, arrazoinkatzeko 'ta ondoriotzeko zuten ahalaz bertze teknologiarik, hitz batez gogoetatzekoa edo filozofian artzekoa baizik. Erran nahi da atomen asmatzeko zuten jeinua ukana gatik, materiako gai bakun xoilak bere ahal eta indar bereziekin, Lukretiu-ek bere hizkuntzan "gai lehenak" edo "haziak" deitzen dituenak bere antolamenduekin, eta eremuan ala aroan mugagabea egiten duten munduaz gogamen orotako hortarik hara, Aro zaharreko atomixma ezin gehiago urrun dagola oraiko jakitateak aitzinatuz, mugagabeko handitik mugagabeko ttipira, aurkitzen duen munduaren batzuntasunetik. Jakintza zaharreko mugak arau berekoak dira bizidunaren eta gizakiaren ezagutzan: behazunez Lukretiu-ek eta haren aitzinekoek bihotzean dute jartzen eta ez buru munitan biziko indarra den arimaren (*anima*) eta gogoetatzeko ahalaren (*animus*), erran nahi da izpirituaren egoitza nagusia. Oinharri horietan, Lukretiu-zen gogamen guzia hedatua da arrazoinezko zorroztasun betegin eta abantzu matematikako batean.

Egia erraiteko ezer ezta jakina hortaz, baina Lukretiu-ek zintzoki parte hartzen zukeen erlisionekeo zeremonia publikoetan eta hortakotz herrikoietan (eta aro hetako ontsa gaizki doan hitzaren arau - "baserritar" erran nahi baitu - "paganoetan"), gizarte zaharrek, greziar ala erromatar, ospez eta jarraikian egiten baitzituzten. Zuzenki aiphatzen ditu "isensuen khetan". Eta mithologia zaharrak asmatu zituen jainkoek ezpadute Epikuroz-ek dionaz den gutieneko axolarik gizakien egintza, zeremonia 'ta othoitzez, hori da izaite betegin hek bizi direlakotz zeru goieneko gelditasun gozoan. Eiki gai ezin zabalagoaren hastapen bat baizik ezten 1848-ko bere *Erlisione erkidatu- en filozofian* Xaho xuberotarrak, atomixma zaharra aiphatu ere gabe alta, eta Jainko munduaren eraikitzaile 'ta Orogen egilea gogatzten duen jainko-bakartasunaren barnean, aiphatzen zuen Izaite goiena "bere atsedean gorenean", "bere egintza eta hor

izaitea etzituena lur huntan erakusten ez mirakulu bitxi, ez agerraldi irriegangarri edozeinen bidez".

Lukretiuz-ek baiesten zuen erlisionekeo sinesten eta hil ondoko haraindiaz beldurtzearen debaldetasuna, eta horien gaizkinak orhoitarazten zituen aldi berean, literaturan behazun ezaguna den Ifianaza edo Ifigeniaren herioarekin Agamemnon aitak sakrifikatu baitzuen aphezen aburuari jarraikiz jainkoen ganik haize fagoragarrien ukaitekotan untziriaren abiatzeko Troiako gerlara; edo Kübele erdaraz "Cybèle"-ren lagunalde izigarriarekin odoletan, "jainkoen ama handia", Frigian Idako Berezinthe mendian ohoratzen zen Saturnoren emaztea, Du Bellay-k aiphatzen duena *Erromako Zabarki*-etako VI-garren hamalaurkunean (1558): "Horrela bere karroan Berezinthiarra / Dorrez koronaturik eta zorionean/ Hainbertze Jainkori sortzea emanik...". Lukretiuz-en bizia haren poematik hara osoki ezezaguna baldin bada ere, girixtionen hedalan etsaiak haren aldera, eta orotara filozofia epikuriar eta atomixma edo materialixma zaharrarenera, haizu uzten zuen mende erdi bat berantago san Jeronimo (bere izen egiazkoaz "Sophronius Eusebius Hieronymus", 347-419), onhartzez Erromatarra Dalmatian sorturik, girixtinotasuna Imperio erromatar guzian haizu utzi 'ta gero erlisione bakar bezala bortxaz ezarria zenean, erraitera Lukretiuz "eroturik hila zela 44 urtetan".

Lukretiuz-en poema ederki hasia Benuz bizi orenen ithurburuari deiarekin, bururatzen da, iduriz bitxiki, eritasunekin eta ixtoriolari greziarretan hartua den Athenaz hiria V-garren mendean (-430, -426), bere politikakako 'ta kulturako aro ederrenean berean, erhautsi zuen "izurrite" - edozein erite erran zezakeen hitza - izigarri haren erakuspide laztatzekoarekin. Hori da, ezpada lana bururatu gabe gelditu bederen, idazlearen eta idazkiaren ezagulena ezten aburua, munduan orok salbuespenik gabe behar duelakotz sortu 'ta gero hil dotrina epikuriarraren arabera.

Poesia greziarretarik ukana zen Lukreziuz-ek eta geroko ainitz poeta latinek derabilaten "hexametra daktilika": izenak dion bezala, egina da sei "neurri" edo "oin daktilikaz". Bitxiki, neurri poetikari "oin" baderitzogu, "dactyle" grekak "erhi" erran nahi du: ezpazen lurrean, oinaz baino errexago neurtzen baitzen erhiaz. Latinak bazituen silaba laburrak eta luzeak

ahozkatzen zen bokalaren luzatasun ala laburtasunaren araura, eta poesian luze batek bi labur balio zituen, delako "daktila" egina baitzen luze batez eta bi laburrez. Baina sei neurrietako bakoitza "tinkatzen" ahal zen ere teorikoki bi silaba luzetara, horrek egiten baitzuen "zpondea" daktilaren orde, eta seigarren edo azken oina gehienetan egiten zen luze batez et labur batez, "troxea". Orotara sei neurriko daktilak bazituen beraz teorikoki gutienik 12 silaba, "alexandrin" neurthitz frantsesak bezala baina hau labur eta luzeak berexi gabe, gehienik 17 edo azken "troxea" batekin 18 silaba.

Euskarako, euskalkien arau atzento guti duen hizkuntza edo batere ez latinaren moldean, silaben luzetasuna zuzentasun doi batekin egiteko biziki neke da edo ezin egin, Oihenart-en entsegu aiphatua izanik ere haren "Edergintza poetika" delako eskuthitzean zabaldua 'ta olerkietan erabilia, atxikia zuen Berphizteko gogo azkarki latintzalean. Bertzalde euskara, nahiz hizkuntza "lekedatzalea" berenaz frantsesa baino "tinkatuagoa", latina baino ontsa gutiago tinkia da, bereziki atzizkien batzuntasunaren gatik, ala izenen deklinabidean ala orotako atzizkitzean, eta oroz gainetik aditzen jokabide ainitz personetakoaren gatik, handizki egina baita aditz laguntzalekilako aldi edo "tirantez", erraiten da ere erdalkiz "komposatuez" edo "perifrastikez", latinean bekan dena. Itzultzaleak hartu du beraz, neurriko ezperditasunik gabe 20 silabako neurthitzen egiteko, libertatea ezpada, bederen errextasuna, idazkiari ahal bezain hurbil egoitekotan eta behar den deusen ez baztertzeko. Poesia latin zaharra etzen errimaduna, itzulpena ere ez erran-nahi zuzenean. Baina aldizkatzen ditu, aldi bakar batzu salbu, neurthitzen azken silabak bokalez eta konsonantez, horrek egiten baitu eztiela osoki frantsesak aski gaizki izendatzen eta oraiko poesiak ainitz erabiltzen dituen neurthitz "zuriak".

Aurkhibidea

Liburu lehena	orr. 2
Liburu bigarrena	orr. 32
Liburu herena	orr. 64
Liburu laurdena	orr. 94
Liburu borzkarrena	orr. 129
Liburu seigarrena	orr. 168
Postface	orr. 202
Azken-solas	orr. 206